



Antonio Zavala

Karlisten
bigarren gerrateko
bertsoak



25065-E

130-85

Karlisten
bigarren gerrateko
bertsoak

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Antonio Zavala

Karlisten
bigarren gerrateko
bertsoak

Auspoa Liburutegia
(1997)



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-58-5

Legezko Gordailu: S.S. 693/97

Itzaurrea

Orain berrogei urte, Arantzazun, bertsoaritzari buruzko gure leenengo itzaldia eman genduan, karlisten gerrateak bertso-saillez aberatsak zirala adierazten genduan:

“Muy importantes son los (bertso-paperas) de las guerras: guerra de la Independencia, guerra de Napoleón III, guerra de África y, sobre todo, los de las guerras carlistas, que constituyen un bloque de documentos históricos de primer orden”.

Orduan esandakoa orrela dala gaur egiztatu edo erakutsiko degu.

Karlisten leenengo gerratea 1833 urtean piztu zan, Fernando VII erregea il bezin laster. Onek semerik etzuan, eta koroia bera- ren alaba Isabelentzat gelditu zan. Ala bear zuan liberalen edo *bel- tzen* ustez. Baiña konforme etziranak baziran. Aien iritziz, erregeak semerik ez izanik, *Ley sálica* izenekoak ala agintzen zuanez, koroia aren anai Karlosek bear zuan. Ori ziotenak karlistak ziran. Ala, nork bereari eutsiz, tiro-

ka asi ziran. Koroia nork bear zuan izan zan su ikaragarri ura piztu zuan txingarra; baiña etzan olakorik gertatuko, denbora berean beste gauza askori buruzko irizbideak tartean izan ez balira.

Karlisten leenengo gerrate orren bertsoak orain ia bost urte, 1992-an, *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak* izeneko liburuan plazaratu genituan. Baita denbora berean bigarren gerratekoak agindu ere. Orduan emandako itza gaur betetzen degu.

Leenengo gerra ura 1839-an Bergarako Besarkadarekin bukatuta, bai liberalak eta bai karlistak ixildu egin ziran. Alkarri bertsoak jartzeari utzi egin zioten. Bertso-paperak inprentatu eta saldu egiten ziran, bai. Baiña pakezkoak; gerra eta politikarekin zer ikusirik etzutenak.

Karlisten leenengo erregea, Karlos V, Fernando VII-aren anaia, izan zan. Onek, 1845-ean, bere errege-eskubideak Karlos Luis seme zaarrenari pasa ziz-

kion. Au izan zan karlisten Karlos VI.

Onen izenean armetan altxa ziran Kataluñako karlistak, *Guerra de los Matiners* izenekoari asiera emanek. Gerra ura oso gauza utsa izan zan Euskal Errian. Oñatiko Alzaa jeneralak zerbait egin nai izan zuan. Baiña Aralar mendian preso artu eta Zaldibin afusillatua izan zan.

Gerra ori dala-ta, kondaira-liburu batzuetan karlisten iru gerra kontatzen dira: 1833-1839-koa leenengoa; 1846-1849-ko *Guerra de los Matiners* dalako ori bigarrena; 1872-1876-koa irugarrena. Alaxe da noski Kataluña aldean. Baiña Euskal Errian, bigarren orrek indarririk artu ez baitzuan, bi gerra izan ziran, eta bigarrena 1872-1876-ko orri esaten zaio. Guk ere ala ezarri degu liburu onen izenburuan.

Karlos VI ori il zanean, koroia janzteko eskubideak beraren anai Don Juanentzat gelditu ziran. Baiña onek etzuan ixtillutan sartzeko gogorik. Are geiago, karlisten aurkako iritzi batzuk ere azaldu zituan.

Karlos VI orren seme zaarrena, Karlos bera ere, 1848-III-30-an jaio zan. Aitaren baimenez, berak artu zituan Españaiko errege-aulkirako eskubideak, eta auxe degu karlisten Karlos VII erregea. Bereala asi zan bere jarraitzaillekin artu-emanetan, Londresen 1868-ko uztaillaren 20-an batzar bat egiñik.

Ala ere, iñor gutxik uste zuan orduan karlismoa berpiztuko zanik. Erdi itzalian zegoen suak gar berririk atera bear zuanik, alegia.

Bearbada ala izango zan, uste gabeko gertakizun bat tarteko izan ez balitz. Isabel II, bere aita Fernando VII-ren koroia ia ogei ta amar urtean jantzi zuana, bat-batean, 1868-an, bera Donostian udara pasatzen zegoala, erregin-aulkitik eta Españaatik bota egin zuten. Iraileko Matxinada deitzen zaionaren lana izan zan ori: *la Revolución de Setiembre*.

Españaiko politika irakiten jarri zan orduan: auteskundeak, propaganda, diputaduak, lege berriak, batzarrak... Alderdiak orduan asi ziran builla eta zalapartaka alkarren leian eta burrukan. Bai karlistak ere...

Orretarako, nork bere propaganda egiteko alegia, egunkariak eta gaiñontzeko argitalpenak jo ta ke ekin zioten lanari. Baiña oiek etzuten Euskal Errirako baliio, garai artan emengo jendeak erdera oso izkuntza arrotza eta ezezaguna baitzuan. Ori bera gertatu zan leenengo gerratearen denboran, eta orduan euskerazko bertso-paperak argitaratzeari eman zioten, liberalak asi eta karlistak segi, zein baiño zein biak. Ala, bide beretik jo zuten bigarrenengo guda ontan ere.

Isabel II erbestera bota bezin laster, amalau bertso salla agertzen da, ziur aski Oiartzungo

Juan Migel Millene bertsolariak moldatua. Arrezkeroztik, politikaren gora-beera guziak, edo geienak beintzat, badute beren oartzuna bertsoetan, bai alde batetik eta bai bestetik. Esan bearrik ez dago batzuek txalotzen dutena, besteak kondenatu egiten dutela, alkarri aundi samarrak esanez.

Mordo aundia osatzen dute orduan jarritako bertsoak: gerra aurreko saillak, alegia, 1868-ko irailetik 1872-ko maiatzera bitartekoak, tiroak asi baiño leenagokoak. Politika utsa da bertso oietan azaltzen dana. Baiña gerra-usaia nun-nai aditzen da.

Urrena, ondorengo bertsoak. Karlistak armetan altxa dira, baiña Orokietan jipoi ederra artzen dute. Ez izan, ordea, etsitzen errezak, eta berriro ekiten diote, lau urteko gerrari asiera emanaz, 1876-ko otsailean Don Karlos Arnegitik barrena Frantziara pasatzen dan arte alegia.

Lau urte oietan egun dizdiratsuak eta egun beltzak ezagutuko dituzte bi alderdiak. Baita nork bere garaipenak bertsoen bitartez goraiatu ere, artutako jipoiak aal dan moduan disimulatu nairik.

Euskal Erriak sufritu dituan gerra guzietan jarri dira bertsoak. Baiña jenero ortan aberatse-na, batere dudarik gabe, onako au degu.

Propaganda egin bearrik eka-
rri zuan ugaritasun ori; erriaren

borondatea irabazi naiak alegia. Naitanaiezkoa baita ori guda irabaziko bada. Euskal probintzietako iriburuetan argitaratzen ziran egunkariak gogotik saiatu ziran ortan. Baiña, esan bezela, euskal jendeak erderarekin jai zuan garai artan, eta bertso-pa-peretera jo zuten bi alderdiak.

Zoritxarrez, karlisten bigarren gerrateko bertso-jartzailleek izenak oso gutxitan ezagutzen ditugu. Zergatik ote? Bildurragatik ziur aski, gure ustez beintzat. Norbaiten izena alderdi baten aldeko kanta-paperen batean azaltzen bazan, beste alderdikoak, etorri ezkeru beintzat, larrutik paga araziko ziotela gauza jakina baitzan. Eta egoera ortan nor ausartu?

Donostiar bertso-moldatzailleak ere gauza bera egiten zuten eta ortik pentsa besterik ez dago. Gipuzkoako iriburua ondo zainduta zeukaten liberalak; bertatik bertso-paper asko zabaltzen ziran, baiña egille-izenik ez da aietan ere ageri. Guri, izan ere, karlistak Donostian sartu etzirala kondairak erakusten digu. Baiña orduko donostiarrei nork esan bear zien gerraren bukaera nolakoa izango zan? Berak iri barruan zeuden noski; baiña karlistak begien bistan zeuzkaten, Aiete, Arratzain eta abarretan. Ala, etsaia ain urbil izanik, bertso-jartzailleak bertsoak jarri bai, baiña izena badaezpada ere izkutatatu egiten zuten.

Liberalen aldetik saiatu zira-
netan Serafin Baroja, Ramon
Artola eta *Eperra* aitatu bearrak
ditugu. Ramon Artola oni iru li-
buru eskeñi dizkio *Auspoa* li-
burutegiak: 1, 227 eta 228 zen-
bakiak. Baroja eta Artola ditugu
liburu ontako sail batzuen mol-
datzailleak. Ortarako gai ziran
gizonak ugari antzean zituan
garai artan Donostiak: Biktoria-
no Iraola, Sanchez Irure, Ale-
jandro Berroa, baita Bilintx be-
ra ere, eta abar. Oietxek ditugu
gerra ondoan Donostian ezagu-
tu zan euskal mugimentuaren
sortzailleak, eta gerra-denbora-
ko bertsoen egilleak ere berak
izango zirala ez dago zer duda
egin. Baiña aiek ere arria tira
eta eskua gorde egiten zuten.
Eperra ori, berriz, Manuel Jose
Mitxelena Kamio (1825-1906)
zeritzan, eta oiartzuarra zan.
Aren bizitzaren eta bertsoen be-
rri *Auspoa*-ren 116 zenbakian
eman genduan.

Karlisten aldetik izen batzuk
esan genezazke: leen aitaturako
Juan Migel Millene oiartzuarra,
Zeferino Ilarraza izeneko bat, eta
batez ere Altzoko Manuel Antonio
Imaz (1811-1893) bertso-jartzai-
lle ugaria eta bikaiña. Beraren
bertso-bilduma *Auspoa*-ren 68-
69-70 zenbakietan argitaratu
genduan, 1967 urtean. Baiña li-
buru artan sartu ez genituan al-
tzoar orren bertso-saillak ere ba-
dira emen bilduak, norenak di-
ran geroztik ikasi edo igerri ditu-
gunak izanik.

Beste izen ospetsu bat ere ai-
tatu bearra degu: Xenpelar
(1835-1869). Bertso-sail pare bat
ezagutzen degu berak orduko po-
litikari buruz jarriak. Oietako
bat, *Ia guriak egin du* asten dan
famatu ura. Baiña bertsolari
aundi onek pakearen alde itzegi-
ten du, bere burua inungo alder-
ditan sartu gabe.

Irakurlea bereala oartuko da-
nez, bertso-sail auetan badira
bertsolari jatorrak jarriak ez di-
ranak ere. Darabilten bertsogin-
tzak garbi asko salatzen du ori.
Jende eskolatuaren lanak izango
dira oiek. Bertso-paperak jende
xeearen eskuetara ez-ezik biotze-
tara ere irixten zirala ikusirik,
jaun oiek bide ori probatu egin
nai. Dana dala, nola-alako ber-
tsogintza agertzen bazuten ere,
euskera aberatsaren jabe zirala
aitortu bearra dago.

Bertso-sail bakoitzaren ondo-
tik, aren iturrien berri ematen
degu, bi edo iru tokitan azaldua
baldin bada beintzat. Baita iturri
bakoitzak dituan testu-aldakun-
tzak ere.

Sail oiek nun arkitu ditugun
ere bertsoen ondotik adierazten
degu aldi bakoitzean. Irakurlea
oartuko danez, izen batzuk sarri
samar errepikatuko dira.

Ala, Jose Manterola (1849-
1884), donostiarra, euskaltzale
sutsua, gerra ondoren *Euskal-
-Erria* aldizkaria sortu eta gure
izkuntzaren alde ainbat lan egin-
go zuana. Jaun au, itxura danez,

Donostian bizi izan zan gerra denbora guzian, eta bertako moldiztegietatik ateratzen ziran bertso-paperak bildu egiten zituan. Au izan zan, dudarik gabe, biltzaillerik saiatuena liberalen aldetik.

Aitatu bearrak ditugu, baita ere, aita Jose Inazio Arana, azkoitiarra; Fakundo Adurriaga *Besamotza*, tolosarra, Errenteriako Enrike Elizetxea, Manuel Urreta, tolosarra, Jose Ariztimuño *Aitzolen* bilduma, eta abar eta abar.

Aitamen berezia merezi du Jaime Orbe, Barón de Montevilla jaunak, Iruñekoa bera. Onek karlisten gerrateetako kantak biltzeari ekin zion. Ez euskerazkoak bakarrik; baita gaztelaraz eta katalanerazkoak ere. Ala, esku-idazki lodi samar bat osatua zeukan. Baiña 1936-ko gerra etorri zan. Une artan bilduma ori Orbetarrak Ermuan zeukaten jauregi ederrean zegoan. Jaun oiek, eskubitarrak izanik, andik iges egin bearra zeukaten. Joan aurretik, orma berria egin zuten beren jauregi ortan, eta orma zaararen eta berriaren tartean beren dokumentu eta bitxi guziak gorde. Baita kanta-bilduma au ere. Ondoren orma berria beztu, zaar itxura ematearren. Gerra Bizkaian bukatutakoan, atzera etorri ziran. Beren gordelekua nola ote zegoan leenbaileen ikusi nai. Oso-osorik arkitu zuten. Jauregia eusko gudariak edo milizianoen koartela edo egonlekua

izana zan. Pareta berrian gauzak zintzilik jartzeko iltzeak-eta sartu ere bai. Baiña ura orma berri-postizoa zanik etzioten, itxura danez, antzeman. Orrela salbatu zan kanta-bilduma ori, beste an gordetako ainbat gauzaren artean.

Doiñu-mordoska bat ere bildu aal izan degu. Batzuk, artxiboe-tan eta zokoetan azaldu zaizkigu, esku-idazki xaarretan. Beste batzuk, berriz, erriaren aotik bilduak ditugu. Magnetofonoz jaso, alegia, eta musikalariren batek papereratua. Doiñu-emale oietan izen ospetsu bat aitatu nai degu: Julio Caro Baroja jakintsua zana.

Bertso-sail auek andik eta emendik eskuratzean poz aundia artzen genduala esan bearrik ez dago. Bakoitza gure istoriaren dokumentu bana baita. Karpeta batean sartzen genduan, baiña au gero eta lodiagoa. Bertso-pilla bat alegia, batere ordenarik gabe.

Orregatik, lanik aundiena eman diguna zera izan da: bertso-sail auek kondaira aldetik argitzea eta oiñarritzea. Bertsoak ez baidute iñolako argibiderik ematen: ez noizkoak diran, ez aitatzen dituzten burrukaldiak zer izan ziran, ez gaiñontzeko politika-pasadizoak nola gertatu ziran, ez izendatzen diran pertsonak nor genituan, eta abar eta abar. Esan bezela, bertso-pilla baldar bat genduan aurrean. Ori dana itxuratzea izan da, beraz, zer egiñik gogorrena. Baita den-

borarik geiena kendu diguna ere. Ortarako, kondaira-liburuak ederki aztertu bear izan ditugu, bertso-sail bakoitzari adierazpen bana erantsi arte.

Egiteko astuna izan da guretzat: garai batean *rompecabezas* esaten zana, eta gaur egunean *puzzle* deitzen zaiona. Denbora pasatzeko entretenigarriak omen dira oiek, eta gure onek ere ortatik asko izan du, urtebetetxoren bat kosta zaigu eta.

Garai artako jendeak, gertaeren berri ondo zekian ezkerro, olako laguntzaren bearrik etzuan. Guk bai, ordea, bertsoak ezin ulertuan gelditu nai ez badegu.

Beste mesede aundia egin dio bilduma oni ori egiteak: bertso-saillak denboraren arabera sailkatu aal izatea. Kronolojiari begiraturaz, bata bestearen atzetik gertatu ziran ordenean jartzea alegia.

Bildur gera, ordea, kondaira aldetik ematen ditugun argibide oiek errepikatuta egongo diran bein edo bein. Emen au eta ura esan, alegia; baiña leen ere esanda zeudela oartu edo oroitu ez. Alakoetan irakurleak barkatuko al digu, mesedez.

Orrela, liburu auek, gertakari eta burrukaldi guzien berri ematen ez badigute ere, gerra artako kondaira berezi samarra osatzen dute. Orduko gertaera guziak ez dira bertsoetan aitatzen; bai, ordea, guda aren ikuspegi bat emateko ainbat. Baiña ikuspegi be-

rria, kondaira-liburuak eskeintzen diguten ez bezelakoa. Ez ohea eta ez txarragoa; ezberdiña baizik.

Esate baterako, bertso auen bidez, garai artako jendearen abotsak entzuten ditugu, eta orrek alako berotasun eta bizitasun bat ematen die, gaiñontzeko liburuetan arkitzen ez dana.

Zera ere garbi ikusten da: bertsolaritza oso indarrean zala garai artan. Urte batzuk baziran Euskal Erriko moldiztegiak bertso-paperak inprentatzen eta zabaltzen asiak zirala; eta gerra onek indar berria eman zion oitura orri.

Esan bearrik ez dago gu aalegiñean saiatuak gerala gerra artako bertso guziak biltzen. Ala ere, sobra ere badakigu gure eskuetara gabe sail askotxo geldituko zala; eta oietako batzuk denborarekin argira azalduko dirala. Aal dan bildumarik osoena egiten gure borondate guzia jarri degu, alegia. Ala ere, bilduma osoa egin degunik ez degu ametsetan ere pentsatzen.

Zer geiago esan genezake itzaurre ontan? Orain artekoak naikoak dira, gure iritzirako, liburu auen irakurketa asteko. Gaiñontzeko adierazi bearrak an eta emen ematen dira, sortzen diran illunguneak txandaka argituz.

Etzan nolanaikoa izan Euskal Erriak urte aietan sufritu bear

izan zuan ekaitza. Bertso auen bidez guruzbide ura oroitzea eta berritzea ez dakit irakurlearentzat atsegingarri izango dan; baiña zer ikasia eta zer pentsatua emango dio.

Bertsolaritzaren kondairaren aldetik begiratuta, berriz, au ere esan genezake: urte aiek bertso-sailletan ugarienetakoak eta emankorrenetakoak izan zirala, zalantzarik gabe.



Jaime Orbe, Barón de Montevilla zana, liburu onek
ainbat zor dion jauna, Iruñen, 1933-II-21-ean illa.
[*Album Tradicionalista* (1833-1933)].

(1865)

Al Príncipe Alfonso

**(Asturiasko lenengo Alfonsori,
azpeitiarrak jantzi Euskalerrikoa
eman ziotenean)**

Alfonso, zein pollita
zauden ta galaia!
Diztiaturik eder
soñeko berriya,
ta usai gozoz beterik
aize ta zelaia,
basarritar jauntxoen
ixpillu garbiya,
izan zaite, arren, ona
ta Españako euzkiya.

La misma idea Décima

*De tus primeros abriles
con gentileza y donaire
vas embalsamando el aire
por vascongados pensiles;
con los trajes juveniles
de cantabrito casero,
eres tipo placentero
de inocencia, y de esta gente
que te amará eternamente
si eres bueno, ¡oh sol ibero!*

(Loyola, 25, agosto, 1865)

* * *

Bi bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita eta egillearen izenik gabe.

Itxura danez, 1865 urtean euskal jantziren baten oparia egin zioten azpeitiarrak Alfonso printzipeari.

Isabel II-ren semea zan au, eta 1857-ko azaroaren 28-an jaioa. Zortzi urte zituana, beraz, bertso

auek norbaitek moldatu zituanen.

Bertso auek azaltzen dutenez, beintzat, artean maitea zuten azpeitiarrak Don Alfonso printzipea.

Baiña gauzak ederki aldatuko ziran denborarekin. Bigarren karlista gerratean, Alfonsoren aurkakoak izango baitziran azpeitiarrik geienak.

(1866)

On Joakin Aldamar jaunaren lurreratzeari

- 1 Perla bat galdu zaio
Euskalerriyari,
baliyo aundikoa
gure fueroari.
Negar egiñarekin
billa al baledi, *al baledi*,
nork begiak busti ez
Aldamar jaunari?
- 2 Gure aita maitea
il zaigu kortean,
faltarikan geiena
egiten duenean.
Alako bat billatzen
saiatu gaitean, *ta gaitean*,
iñola al badegu
euskaldun artean.
- 3 Azkenengo orduban
begiratu oni:
naitasuna erakusten
Euskalerriyari,
amorioz betea
bere anaiari, *anaiari*,
esaten zer modutan
onrak egiñ ari.

4
Lau euskaldun jantzirik
emengo moduan,
lepoz eramateko,
ala agindu zuan;
ez, usatu bezela,
kotxez ta lujuan, *ta lujuan*,(1)
jaio, bizi eta il(2)
euskaldun moduan.

5
Alditikan aldira
Getariko erriyak
eman izandu ditu
txit gizon aundiyak:
Elkano eta Aldamar
zeiñ baño zeñ biyak, *eta biyak*,
gordeko ditu ondo
ango kondariyak.(3)

6
Ez diamanterikan
kobre truke saldu,
Gipuzkoak alako
gizonik ote du?
Gure fuero maiteak
ez ditzagun galdu, *ai ez galdu*,
ai naitasun gozo au
gordeko bagendu!

* * *

Joakin Barroeta Aldamar Getarian jaio zan, 1796 urtean. Amasei urterekin Napoleonen aurkako gerran parte artu zuan. Emeretzi urterekin, 1815-ean, beraren jaioterriko alkate izan zan. Urrengo urtean, Gipuzkoako Diputazioaren ordezkari Madrillen. 1822-an, Gipuzkoako diputadu jenerala. Goeneko karguetan ibili zan beti. Karlisten lee-

nengo gerratean, liberalen bata-lloi baten buru. Prisionero egin eta Arantzazuko komentuan eduki zuten. Ondoren Frantziara aldegin zuan.

1864-an, euskal fueroen alde gogotik saiatu zan Madrillen, bere itzaldien bidez eta abar. Salbatu ere bai ordukoz.

Berriro ere diputadu jenerala izendatu zuten. Madrillen il zan,

1866-X-5-ean. Getariako elizpean lurperatu zuten.

Aita Apalategiren kuaderno batean leenengo bertsoa arkitu degu, aurretik onako argibide au ematen dala: "Madrillen il ta onera gorputza ekarri zuten. Gogoratzzen zait zenbat jende etorri zan. Kale nagusia, dana elizaraño bete-betea". Ez du esaten testigantza ori nork ematen duan.

Bertso auen egillea nor dan ez da esaten. Baiña agian Ramon Artola izango da. Jaun onek sei bertso ditu Aldamar jaunari jarriak, ondoren datozen oiek alegia, eta laugarrenak onela dio: "Ez gaitzabela diamantiak kobriaren truke saldu". Ain zuzen, bertso auetan azkenak orixe esaten du.

* * *

Bertso auk oso ezagunak eta kantatuak izan ziran garai batean. Doiñua bildu aal izan genduan Getarian, eta emen eskeintzen degu.

Bi aldaketa egiten dute getariarrak bertso auk kantatzean. Bata, seigarren lerroan luzagarri bat sartu. Olakorik bertso-pape-rean ez badago ere, guk erantsi egin diegu bertsoei, kurtsibaz idatzita, bestela ez da doiñua ulertuko eta.

Bigarrena, bertso bakoitzaren bukaeran kantarte edo *estribillo* au kantatu bear dala:

Erri txiki batentzat
zer izen aundia,
orain baño lenago
du-ta merezia!

Sarritan, tabernetan-eta, batek bertsoa kantatzen omen zuan, eta ondoren guziak, bi abotsetara, kantartearekin jarraitu.

Ikus leenengo doiñua, azken orrialdetan

* * *

Sei bertso auk Oxford-eko *Bodleian Library*-tik ditugu, *Irun, Imp. de Pio Garmentia* moldiztegian argitara emandako paper batetik.

Donostiako Jose Manterolaren bilduman ere arkitu ditugu bertso auk, eskuz idatzita. Aldaketak: 3/1: Azkenengo trantzean; 3/7: esaten zer da nola; 4/6: kotxez da lujan; 4/7: bizi bezelaxen ill; 5/8: gure historiak; 6/4: gizonikan al du?

Oiartzungo Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman, leenengo lau bertsoak, eskuz idatzita, Manterolaenean bezelaxe.

Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman bertso guziak, eskuz idatzita. Aldaketak: 2/5: orrelako bat billatzen; 3/1: Azkeneko trantzean; 3/7: esaten zer da nola; 4/7: jaio bizi eta ill; 5/8: ango historiak; 6/6: ez ditezen galdu.

Getariako Resurrezion Zumeta zanak, orduan larogei ta sei urte zituanak, 1954-VII-29-an, bost bertso eman zizkigun. Seigarrena falta. Aldaketak: 1/1:

Oroi bat zor diogu; 1/2: getariarrari; 1/4: geuren fueroari; 2/3: faltarik aundiena; 2/4: egin dubenian; 3/1: Atzenengo trantzian; 3/5: esaten zer da nola; 3/6: ondrak egiñ ari; 3/7: naitasuna erakusten; 3/8: bere anaiari; 4/6: kotxe ta lujuan; 4/7: bizi bezelaxen il; 5/7: gordeko dituzte ongi; 5/8: oien istoriak.

Getariako Julian Balentziagak bertso guziak eman zizkigun. Aldaketak: 2/3: faltarik aundiena; 2/4: egin zubenian; 2/5: orlako bat billatzen; 2/7: iñola al baledi; 3/1: Azkeneko trantzian; 3/5: amoriyoz beterik; 3/7: agintzen zer modutan; 5/3: eman izan oi ditu; 5/7: gor-

deko dituzte ongi; 5/8: oien istoriyak; 6/3: Gipuzkoak orrelako; 6/6: ez ditezen galdu; 6/7: ai naitasun osoaz.

Joaquín Barroeta, liberal y fuerista izeneko eta firmarik gabeko idazlanean, *El Diario Vasco*, 1992-VIII-4. Aldaketak: 3/1: Azkeneko trantzean; 3/7: esaten zer da nola; 5/6: zein bañan zein biyak; 5/8: ango istoriyak.

(1) Bertso-paperak: *kotxez eta lujuan*.

(2) Bertso-paperak: *jaió, bizi eta lurrera*. Gure iritzirako, *lurrera* bearrean, *il* bearko luke, eta ala idatzi degu.

(3) *Historia*. (Bertso-paperaren oarra.)

(1866)

Aldamar jaunari

1 Don Joakin Barroeta-Aldamar
orain ill zaigu kortean,
gu anparatzen bizitu izan
dana ainbeste urtean;
benazko penaz egin zaiogun
negar guztiyok batean,
amoriozko diogun zorra
malkoz pagatu artean.

2 Kondaira bat txit mereziya
du gizon onen bizitzak,
beti argitan arki ditezen
esan oi zituben itzak;
urre guztiyak ainbat baliyo
badu guretzat bakoitzak,
aiek sendatu izan dituzte
Euskal Erriaren gaitzak.

3 Gure fueruen gordetzallea
zan guztiz gizon abilla,
arren igualak obe genuke
baldin baginduzke milla;
Euskal Erriyak kalterik asko
badu seme on au illa,
ala konbeni bada zeruan
erdiyan gerta dedilla.

4

Ez gaitzatela diamantiak
kobriaren truke saldu,
ori egingo duen gizonik
Jaunak sortuko ez al du;
arren digula beti Aldamar
bezelako bat azaldu,
geren kostunbre onak aurrera
ere ez ditzagun galdu.

5

Nola Elkano ala Aldamar
Getariako erriyak
zeizkan bi seme probintziyari
eman estimagarriyak;
len batek daukan bezela orain
biar lituzteke biyak
beren brontzezko erretratuak
oroipengarri jarriyak.

6

Gu ere gure aitak bezela
aundiyak izango gera,
baldin galdutzen ezpaditugu
fueruak eta euskera;
bañan gordetzen ezpadirade
legi au eta izkera,
orduban geren aitaren seme
onak izango ez gera.

* * *

Sei bertso auek Jose Manterolaren bilduman arkitu genituan, eskuz idatzita.

Bertsoen ondoren, eskuz erantsita, itz auek irakurtzen dira: "Ramon Artolak jarriyak Donostiyan 1866'garren urtean".

Euskal-Erria aldizkarian agertu ziran, 1913 urtean.

Ramon Artolaren *Sagardoaren grazia* liburuan argitaratu genituan guk, *Auspoa*-ren leenengo zenbakian.

Bertso auek kuadro batean sartu eta paretan zintzilik edukitzen omen zituan Ramon Artolak. Baiña fueroak galdu ziran, kendu egin zituan.

Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman ere azaldu dira bertso auek, bi ko-

pia gaiñera, eskuz idatzita eta aldaketa bakarra dutela: 3/8: erdiyan arki dedilla.

Baiña bertsoen ondoren, onela irakurtzen da: 1882-n. *On Franc^o Artola-c Tolosarrak*.

Urtea gaizki dagoala dudarik ez da, Barroeta Aldamar jauna 1866 urtean il baitzan. Eta oker orrek indar guzia kentzen dio egillea Frantzisko Artola zala esateari.



Joakin Barroeta Aldamar (1796-1866). (Enciclopedia Auñamendi).

(1866)
Aldamar

- 1 Aldamar-en izena
beti maitatua,
lur ontan da euskara
ezin ukatua;
eta bera nola zan
ona, jakintsua,
esan liteke zala
guztion maixua.
- 2 Gaur ere badiote
oraintxen diranak:
“Gutxi jaioko dira
alako gizonak”.
Bada zenbat alditan
gaixo premidunak
kontsolatu zituan
bere biotz onak.
- 3 Beñere ez gogotik
galduak gu gera,
denbora txarraren ondoren
ona etortzen da;
bada zuzen bagabiltz
Aldamar bezela,
gure lege zar onak
salbatuko dira.

4

Orain esan dezagun
guztiok batian:
"Ez geiago gerrarik
anaien artian!"
Eta arkituko da
egunen batian,
Aldamar-en izena
Izarraitz gañian.

* * *

Lau bertso aukeratuak Tolosako Fakundo
Adurriaga *Besamotza* zanaren kuaderno
batetik artuak ditugu.

Auek ere Aldamar jaunaren goralpe-
nerako jarriak dira, eta ziur aski ura il
zanean moldatuak.

Egilea nor izan zan ez dakigu.

Laugarren bertsoaren bukaeran,
saiets batean, beste bi lerro aukeratuak
kurtzen dira:

ondatu gaituztela
ajolik gabian.

Erantsiyak Gernikako arbolarenari

1

Luma lodi zatar bat
zorroturik gaizki,
asi dira eskribitzen
arroturik lazki,
gure arbola iltzeko
asmoetan noski;
obe dute pakian
nere ustetan utzi.

2

Arbola aitatzia da
erdaldunen miña,
ez dakit nundik duten
orrelako griña;
asko lekutan dago
sustraiak egiña,
errespetatu beza,
arren, erregiña.

3

Berak arbola gabe
ez badaude ongi,
imitatzia dute
Euskal Erriyari:
on dena kontserbatu,
gaitzik ez iñori,
iñola al badute
gu bezela jarri.

4

Zer aurreratzen luke
erdaldun jendiak
gu ipintziarekiñ
berak beziñ pobriak?
Onak ez badauzkate
mudatu legiak,
iñola al badute
ipiñi guriak.

5

Espainiya guztiya
jakiñian bego:
euskaldunak ez dira
jo et'artzen egongo;
arbol maitegarriya
gogotsu ta bero
kontserbatuko dute
oraiñ eta gero.

F. A. Tolosa

* * *

Arbolaren irudia artzen da bertso auetan, fueroak adierazteko.

Itxura danez, erdaldunen bategen fueroen aurka idatzi du. Guziok berdin bear degula eta euskaldunei fueroak kentzeko. Bertso auen jartzailleak, euskaldunei ezer kendu gabe, aiengana gure legeak zabaltzea arrazoizkoagoa ikusten du noski.

Gernikako arbolaren bertsoak aitatzen dira izenburuan. Iparagirrek bere kantu ori 1853-an sortu baitzuan, geroztikako bertsoak ditugu. Fetxa edo muga ori aurretik dute, beraz.

Baiña atzetik ere beste muga bat jarri ditekela uste det. Bostgarren bertsoak, izan ere, arronka jotzen du: "euskaldunak ez dira jo et'artzen egongo". Burrukatzeke prest daudela, alegia. Bigarren karlista gerratea asi aurrean jarritako bertsoak, beraz.

Are geiago, bigarren bertsoak erregiña aitatzen du: Isabel II noski. Au 1868-ko iraillean bota zuten erbestera. Leenagoko bertsoak, beraz, bearbada.

Bertsoen azpian, firma irakurtzen da. *Auspoa*-ren 129-an, 31-garren orrialdean, agertutako bertso batzuek ere firma ori bera dute. Onen aurreko saillean

Frantzisko Artola izeneko bat aitatu da. Bera izango da, bearbada.

* * *

Bost bertso auek, Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren eskutik jaso genituan, eskuz idatzitako orri batean.

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman bertso auek ere badaude, laugarrena izan ezik. Aldaketak: 1/3: asi zan eskribitzen; 2/1: Arbola aitatzia; 2/2: euskaldunen miña; 2/5: mundu guztian dago; 2/7: errespeta ditzala; 2/8: lengo lege fiñak; 3/1: Eurak arbola bage; 3/5: ona dana kontserba; 3/7: eta posible balitz; 5/4: jo ta artzen egongo; 5/5: arbol maitagarria; 5/6: gogor eta bero; 5/7: kontserbatuko degu.



Isabel II erregiña. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1868)

“Alborotuak izan ditugu...”

1 Milla zortzireun irurogei ta
zortzigarrengo urtian,
alborotuak izan ditugu
españolaren artian;
denbora askuan izandu degu
doña Isabelak kortian,
estimatua eduki dute
aspertu diran artian.

2 Urtian eta ogei ta zortzi
urriko illak zituan,
asko kostata zeukaten prenda
bialdu zuten orduan;
nagusi gabe arkitzen gera
lotsagarrizko moduan,
libertadea publikatuaz
berak nai duten lekuan.

3 Planta txarrian arkitu gera
orain daukagun klasian,
lasaikeriak aurreratzen ta
errespetua atzian;
pozoikeriak libertadea(1)
eman ezkerotik,
garbitasunak ezta iraungo
agitz denbora luzian.

4

Judio, ereje, protestantiak
beti dabilta artian,
Jesu-Kristoren religioa
ezin sufrituz pakian;
gurutzetxo bat eskribituta
parako zaie atian,
aginte gabe izan ditezen
katolikuan oinpian.

5

Irureun urte pasatua da,
eskriuratik badakit,
gobernu dana jarri zen ia
protestantien mendetik;
orduan ere euskaldunari
kosta zitzaion gogotik
belar gaiztuak ateratzia
Españiako lurretik.

6

Aita Santuak eskribitu du(2)
Españiyara goraintzi,
Santiyagoren erregaliaz
eztezagula gaitz etsi;
errespetua nai eztuena
irten dedilla igesi,
gure reinuan ezta tokatzen
libertadia nagusi.

7

Nagusi gabe guziok saltsan,
ai au reinoko modua!
Atoz, don Karlos, zu biar zaitugu
jarri guzien burua:
gubernatu ongi paisanajia,
armadun eta klerua,
bizi dan arte kontserba ditzan
ezpata eta korua.

8

Gure don Karlos azaldu zaigu,
bazegon emen bearra,
illun gaudenak alaitutzeko
orienteko izarra;
nundik nora den deskubritu da
soka faltsuen amarra,
zure ezpatak ebakiko du,
etzaio faltako indarra.

9

Ama Birjiña Pillarekua
arturik geren anparo,
soka ori milla puska egiteko
indar eskasik ez dago;
aita eta seme irtengo gera
Karlos Borbonen soldado,
bandera beltzak jarri ezkaitzen
lege zikiñen esklabo.

10

Reinoz kanpora bota dituzte,
ordendu errenta gabiak,
oiek baño obeto estimatuko
al ditu beren Jabiak?
Teatro eta publikoak
or daukazkite jarriak,
dudarik gabe au eskatzen du
oiek nai duten legiak.

11

Onez-onian edo gaitzian
Karlosek bear du etorri,
lege garbi bat ipinitzera
obedituaz berari;
al ditekien aguruena
obe litzake ekarri,
alborotorik eztedin sortu
lengo guzizon askarri.

12

Liberal buru gogorrekuak,
laja zazute kolera,
umildadian jarri zaitezte
Jesu-Kristoren legera;
guziok alkar artu dezagun,
atozte arrazoiera,
tokatzen zaion gizon justua
besterik baño obe da.

13

Estranjeroa errege biarrik
dabiltza beren artian,
zernai pikardi esan digute
auko zulua betian.
“Biba don Karlos!” eju egingo degu
euskaldun denak batian,
arrazoiari obedituaz
bizi gaitezen pakian.

14

Despedidako ipinitzen det(3)
amalaugarren bertsua,
uste det zerbait esplikatzia
gertatzen zaigun kasua;
injuri asko sufritzen degu,
len dago ezin pasua,
beantaetsian bagera baño
kunplitu da ia plazua.

* * *

Or aurrean esan degunez, Isabel II 1868-an bota zuten erregintzatik eta Espāñiatik. Ori adierazten du leenbiziko bertsoak.

Matxinada ori sortu zanean, erregina Donostian zan udara pasatzen, eta Irundik barrena aldegin zuan Frantziara.

Gobernu berriak, 1868-ko urriaren 12-an, jesuitak erbestera bialdu zituan. Ori aitatu naiko du amargarren bertsoak: “Reinoz kanpora bota dituzte...”

Ona nola dion P. Lesmes Frías jesuitak bere *Historia de la Compañía de Jesús en su Asistencia*

moderna de España liburuan (Madrid, 1944):

"Constituído el 8 de Octubre este primer Ministerio revolucionario, luego el 12 expidió el Ministro de Gracia y Justicia, Romero Ortiz, un decreto suprimiendo en la Península e islas adyacentes la Compañía, ordenando que en el término de tres días se cerraran todas sus casas y fueran ocupados todos sus bienes, muebles y raíces, edificios y rentas, en favor del fisco; prohibía a sus individuos reunirse, usar el traje de la Orden y tener dependencia alguna de sus Superiores dentro ni fuera de España".

Zazpigarren bertsoak dionez, erregiñaren utsunea artean bete gabe zegoan: "Nagusi gabe guziok saltsan, ai au reinoko modua!"

Amargarren bertsoak "orden-du errenta gabeak" esaten du. Lege berriak apaizen soldatak urritu nai omen zituan. Ala, errentarik gabeko apaizgaiak ordendu edo apaiztu bearko zirala adierazi nai du emen bertsolariak.

Amairugarrenak, berriz, onela dio: "Estranjeroa errege biarrik dabilta beren artian". Atzerrian errege billa asiak ziran, beraz. Erregea, Saboiako Amadeo alegia, 1871-ko ilbeltzaren 2-an iritxi zan Madrilla.

Bigarren bertsoan, illa berdin adierazten dute iturri geienak: "urriko illak zituan". Baiña Tolosako Manuel Urretaren esku idatzi batean beste onela esaten da: "agorreko illak zituban",

Urria, izan ere, Goi Naparroan *setiembre* omen da; eta bai Oiar-tzunen ere, emen ikusten danez. Baiña Manuel Urreta tolosarrak, ori ezin zitekeala eta *agorreko* idatzi.

* * *

Bertso auek toki askotatik eskuratu ditugu. Erarik osoena eta jatorrena Errenteriako Enrike Elizetxearen bilduman agertu dana da. Eskuz idatzita dago, eta oso kopia zaarra da. Garai artakoa, ziur aski. Berari kopiatu dizkiogu bertsoak.

* * *

Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman, makinaz idatzita, amar bertso: 1, 2, 7, 12, 8, 9, 6, 4, 5 eta 10-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 2/1: Urte au eta ogei ta zortzi; 2/5: nagusi gabe gelditu gera; 4/1: Judu, ereje, protestantiak; 4/3: Jesukristoren relijiyuai; 4/4: laja nai ezik pakian; 4/6: jarriko zaie atian; 4/7: aginte gabe egon ditezen; 5/1: Irureun urte pasiak dira; 5/3: gobiernua egongo zala; 7/4: jarri guziyon burua; 7/5: gobernatu ondo paisanajia; 8/1: Gure don Karlos, azaldu zera; 8/2: bazegon zure bearra; 8/3: triste zeudenak alaitutzeko; 8/5: nola dan orain deskubritua; 8/8: etzaio falta indarra; 9/5: aita arren seme irtengo gera; 10/3: obetoago estimatuko; 10/4: al ditu danon Jabiak; 10/5: teatro eta dibertsiyuak; 10/6: or daduzkate jarririk; 10/7: dudarik gabe ala agintzen

du; 10/8: oiek daukaten legiak; 12/2: baja zazute kolera; 12/5: guziyak alkar artu dezagun; 12/7: tokatzen zaion gizon justu bat.

Manuel Urretaren eskuz idatzitako paper batean, bi bertso: 2 eta 3-garrena.

Aldaketak: 2/1: Urte onetan ogei ta zortzi; 2/2: agorreko illak zituban; 3/1: Planta txarrian arkitzen gera.

* * *

Oiartzungo Lexoti bertsolari zaarren paper batean, sei bertso: 1, 2, 7, 12, 8 eta 9-garrena.

Aldaketak: 1/4: españolaren tartian; 2/5: nagusi gabe gelditu gera; 7/4: jarri guziyon burua; 7/6: armaduna eta klerua; 8/2: bazegon zure bearra; 8/3: triste geundenak alaitutzeko; 8/5: nola dan orain deskubritu da; 8/8: etzaio falta indarra; 9/5: aita arren seme irtengo gera; 12/2: baja zazute kolera; 12/7: tokatzen zaion gizon justu bat.

* * *

Iruñeko Dolores Baleztenaren paper batean, lau bertso: 1, 2, 7 eta 4-garrena.

Aldaketak: 2/1: Urte au eta ogei ta zortzi; 2/5: nagusi gabe gelditu gera; 4/1: Judu, ereje, protestantiak; 4/3: Jesukristoren relijiyuai; 4/4: laja nai ezik pakian; 4/6: jarriko zaie atian; 4/7: aginte gabe egon ditezen; 7/4: jarri guziyon burua; 7/5: gobernatu ondo paisanajia.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, bost bertso: 5, 4, 2, 8 eta 7-garrena.

Aldaketak: 2/5: nagusi gabe geratu gera; 4/1: Judu, ereje, protestantiak; 4/6: jarriko zaie atian; 4/7: aginte gabe egon ditezen; 4/8: katolikuan azpian; 5/1: Irureun urte pasiak dira; 5/3: gobiernua egondu zala; 5/7: belar gaiztua ateratzia; 8/3: triste geundenak alaitutzeko.

* * *

Aita Apalategiren paper batean, 14-garrena erdizka, eta 4, 6, 5, 12, 8 eta 9-garrena osorik.

Aldaketak: 4/1: Judu, ereje, protestantiak; 4/4: sufritu ezin pakean; 4/5: gurutzetxo bat eskribiturik; 4/7: a(g)interik gabe izan ditezen; 5/1: Irureun urte pasatu dira; 5/3: gobierno au para zanean; 5/5: orduan ere kosta zitzaigun; 5/6: euskaldunai galanki; 5/7: belar gaizto au ateratzen; 6/5: religioa nai ez-tuena; 6/8: libertaderik nagusi; 8/1: Ara don Karlos azaldu zaigu; 8/3: illun gaudenok alaitutzeko; 8/7: sokarik milla puskatutzeko; 8/8: ez zaio falta indarra; 9/2: arturik gu zuren anparo.

Eta erdizkako bertso ori, 14-garrena, onela:

Ea, lagunak, uni gaitezen,
kruzaturikan besoak,
berantetsiak bageunden bañan
kunplitu deilla plazoa.

* * *

Don Manuel Lekuona apaiz jaunak bildu eta 1924-ko *Eusko-folklore* urteka-

rian, sei bertso: 12, 8, 9, 6, 5 eta 4-garrena.

Aldaketak: 4/4: laja eziñik pakian; 4/6: jarriko zaie atian; 4/7: aginte gabe egon ditezen; 4/8: katolikuen azpian; 5/1 Irureun urte pasiak dira; 5/3: goierrua egondu zala; 5/7: belar gaixtua ateratzia; 6/3: Santiyagoren erregaliyak; 6/4: ez ditzagula gaitzetsi; 8/2: bazegon zure bearra; 8/3: triste geundenak alaitutzeko; 8/5: nolatan orain deskubritu dan; 8/8: etzaio palta indarra; 9/3: sok ori milla pusk egiteko; 9/5: aitaren seme irtengo gera; 9/7: bandera beltzak jarri ez gaitzan; 12/7: tokatzen zaion gizon justu bat.

Bertsoak nori jasoak diran adieraztearren, onela esaten du:

"De boca del obrero Manuel Lecuona (a) Lexoti(4), a quien debemos los textos precedentes, hemos recogido la siguiente copla de vitores, de la misma época:

Biba, biba, biba
gure Jaungoikua!
Biba, biba, biba
Aita Erroma'kual
Biba gure Fedia,
Españiyakua!
Biba don Karlos eta
jende bertakua!"

* * *

Aita Apalategiren paperean, bertsoen atzetik, argibide auek ematen dira:

"Bertsolari au Oiartzurra omen zan. Gudatean il.

Karlotar alde bertsoak egiteagatik mi-keleteek Tolosara lotuta eraman ta giltzapean bi illabeten eduki zuten.

Gero askatu zuten, bañan bertsolari orrek: papera emateko, gaizki egin gabe itxian eduki zutela agertzeko.

Etziotela emango, ta berak, berriz, ez zala agiri ori gabe ertengo.

Orrela beste illabete osoa egon zan".

Ain zuzen, Manuel Urretaren esku-idatzian onela esaten da:

"Oiartzungo Juan Migel Millanak jarriak".

Millane edo Millene, Oiartzungo Iturriotz baillarako baserri bat da. Baiña bertsolari orretzaz ez degu, orain artean beintzat, beste ezertxo ere bildu aal izan.

Don Manuel Lekuonak, bertsoen aurretik, onako oar au egi-ten du:

"De una tanda de versos compuesta en 1868 por el bertsolari iturriotzarra Juan Miguel escogemos las siguientes estrofas".

* * *

Doiñua, berriz, Dolores Baleztengandik degu. Onen paperean onela irakurtzen da: "*Me los mandó Magdalena Michelena, de Oyarzun*".

Bertsoak ez-ezik, doiñua ere Magdalena Mitxelena orren aotik artua izango da.

Ikus 2-garren doiñua, azken orrialdeetan

* * *

Aita Donostiaren *Cancionero Vasco* kanta bilduman (Donostia, 1994), sail ontako bi bertso agertu dira: 6 eta 12-garrena.

Biriatur bildu omen zituan, 1935-X-12-an. Emalearengatik onela dio: *Infór: Bautista Tellería, vivió en Irún y fue amigo de Xenpelar.*

Aldaketak: 6/3: Santiagoren erregalia; 6/4: eztakigula gaitzetsi; 6/5: relijioa nai eztuena; 6/6: irten dabila iesi; 12/3: umildadean para zaitezte; 12/4: Jesukristoren legera; 12/5: guziok elkar artu dezagun; 12/6: atozte arrazoinera; 12/8: bertzerik bainon hobea da.

Eta doiñua ere bai. Ikus 3-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1) E. Elizetxearen esku-idatzian: *pozokeria libertadea.*

(2) Esku-idatzian: *Aita Santuak eskribitu.*

(3) Esku-idatzian: *Despedidako ipinitzen.*

(4) Lexoti bertsolari zaarra, alegia, gaurkoaren aitona.

(1868)

**Jesuitak botatakuan
azpeitiarren negarra**

- 1 Euskaldun errikuak
lasterka, saltoka,
gogotik eta ariñ
dijoaz presaka.
- 2 Beren pausoak ziñez
ondo zuzendurik,
Loiolara dijoaz
danak alaiturik.
- 3 “Goazen, goazen —diyote—,
aingeru tartera,
goazen zerubaz danok
ondo betetzera.
- 4 Jaungoikuaren itza
an aituko degu,
eta biyotza pozez
zoratu bear zaigu”.
- 5 Zori gaiztoko itz bat
ordea sortzen da,
eta berri tristeak
zabaldutzen dira.
- 6 Jehobak, ai!, Satani
eskubide emanik,
arkitzen da Loiola
dana samiñdurik.

- 7 Aitaren etxetikan
umeak botarik,
emen negarrez gaude
oso bakarturik.
- 8 Aita ta anai maiteak
beterik naigabez,
Frantzian ta urruti
arkitzen zerate.
- 9 Jauna, gure biziya
eman nai dizugu;
bañan gure maitiak
gorde bear dituzu.
- 10 Ez negarrikan egin
Kantauriyakuak,
erreguba aitu du
zuen Jaungoikuak.
- 11 Emen Aita-Anaiak
biyotz aundikoak,
zabal-zabal dituzte
iriki besoak.
- 12 Laztanak ezarriyaz
asko ta gozuak,
agertu zaizkigute
gutziz maitatsuak.
- 13 Eskerrak dizkiyete
mesede oiekgatik
Ignazio euskaldunak
bialtzen zerutik.
- 14 Esanaz: "Izango naiz
zuekin ni beti,
kantauritar maitiak,
ez bildurrik euki".

1868.- P. G. S.J.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita.

Izenburuak ederki adierazten du bertso auen gaia. Isabel II 1868-ko iraillean erbestera botatakoan, izan ere, agintari berriak jesuitak ere kanpora bialdu zituzten, urte bereko urriaren 12-ko agindu batez.

Loiolatik ere berdin, noski, eta azpeitiarrak penaz geldituko zira-la pentsatzen zuan bertso auen egilleak.

Jesuita zan bera, S. J. izkiak salatzen dutenez. P. G., berriz, aren izen-abizenen leenengo izkiak izango dira. Baiña guk beintzat orrekin bakarrik ezin somatu nor izan diteken.



Loiola. (La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1868)
“**Begiratu Loiolari...**”

1

Begiratu Loiolari,
triste dagola diruri; (*bis*)
beti limosnak eiten ai ziran,
ezer ez kendu iñori;
sermoi ederrak ugari
egiten zizkiguten guri;
orain ez dira ageri!

2

Zarrastrakuak lenbizi
agintzen zaizkigu asi; (*bis*)
len bere buruan jabe etzana
orain guztion nagusi;
amaika kontu itxusi
biar genduen ikusi;
ez gera gustora bizi!

3

Lenago zan erregiña
bide gaiztuan egiña; (*bis*)
lan oiek danak etzitun artuko
izan baldin balitz fiña;
beste oiena jakiña
sobratutako trakiña
zurrupatu alegiña.

4

.....
..... (bis)
tokatzen ez ta edozein para
erregiaren lekuan;
sakela betetakuan
estranjeriara juan
lapur batzuen moduan.

* * *

Bertso auek Azkoitin jaso genituan, Atano pelotarien arreba Eujeniren aotik.

Berak bere aita zanari ikasi zizkion. Arek askotan kantatzen zituan, eta Azkoitiko Uztarri bertsolariarenak zirala esaten zuan. Bertso geiago omen ziran, baiña auek bakarrik buruan gorde. Kanta-paperetan zabalduko ziran, baiña alerik ez da gure eskuetaraiño iritxi.

Ai ori begi ederra-ren doiñuan kantatzen dira.

Uztarri bertsolaria, Jose Maria Segurola Otaegi (1832-1912) azkoitiarra zan. Aren argibideak *Auspoa*-ren 95-96 zenbakian ematen dira.

Aurreko saillari buruz esan ditugunak, naikoak dira bertso auek ere kondaira aldetik ondo ulertzeko.

(1869)

Bertso Berriak
Erlijiyua, Errege eta Fueroak
Antontxok eta Perutzok alkarki kantatubak

1

Antontxok:

Perutxo, zer diyote
gure Españiyan?
Kontatu egidazu
gauzak nola diran;
notizi txarrak dira
juan dan aspaldiyan:
jendia dagoala
beldurrak larriyan,
relijjiyo, fueroak
galduko ote diran.

2

Perutzok:

Antontxo, nai badezu
ziñetan aditu,
jendien ibillera
beaizut kontatu;
askok beren fedia
dizute ukatu;
Eliza ta apaizak
nairik pertsegitu,
erejien legea
nai dute zabaldu.

3

Antontxok:

Ikaratutzen nazu,
Perutxo, agizki,
ikusi biarra da
Españiya gaizki;
ia, euskaldun maiteak,
fediari eutsi,
gureaz irtengo gera,
beñere ez etsi,
gurasoen legiak
sekula ez utzi.

4

Perutxok:

Antontxo, letu ditut
gauz izugarriyak;
nola sufritzen ditu
oek Españiyak?
Alde batera utzirik
Kristoren legiak,
fedia ukatu ta
egin erejiak;
ikaraz uzten naute
oien korajiak.

5

Antontxok:

Perutxo, arritu zaite
ondorengo onekiñ,
españolen ofentsak
Birjiña Amarekiñ:
elizatik atera
milla burlarekiñ,
lotu ta arrastatu
sokatxo batekiñ,
gero apusillatu
lau balazorekiñ.

6

Perutxok:

Antontxo, ori dezu
bekatu larriya,
orrela tratatzea
Birjiña Mariya,
gure zerubetako
Erregiñ garbiya;
beretzako arturik
zeukan Españaia,
arren izan dezala
miserikordiya.

7

Antontxok:

Ez nuban sinistuko
orrelako lanik
españolen artean
igaroko zanik;
gaizki egin da gero
ez da kastigurik,
euskaldunak nai ez dute(1)
orlako legerik,
gure erlijyua
galduko dubanik.

8

Perutxok:

Antontxo, jakiñ zatzu
argiro lenbait len
Madrill alde orretan
zeiñ dauden agintzen;
gaiztuak ez baditu
laister kastigatzen,
euskara asiko da(2)
egizki mintzatzen,
errege ta fueruak
beretzat maitatzen.

9

Antontxok:

Biba erlijiyua,
biba erregea,
Españiyan obe da
Karlos eskatzea;
ondo ikasiya da
Kristoren legia,
zerren amatzen duban
Birjiña Mariya,
onek salbatuko du
erreñu guziya.

10

Perutxok:

Antontxo, galde egizu
or Madrill aldera
zertan sufritzen duban
ainbeste galera;
konbentuak botarik
monja asko kalera,
seguru burutikan
oso galdu dira;
akorda ditezela
kristabak badira.

11

Antontxok:

Elizak bota eta
apaizak gutxitzen,
fedea santuko itzak
dituzte ukatzen;
españolak izan da
ez dira lotsatzen,
iltzeko oroipenaz
dirade aztutzen,
orregatik España
dijua galdutzen.

12

Perutxok:

Ernai egon zaitezte,
euskaldun maitiak,
ez arren ametitu
orlako legiak;
danak maiteko ditu
gure erregiak,
asko balioko du
au ekarritzeak,
fueroak gordetzeko
lau probintziyak.

13

Antontxok:

Jesuiten jueraz
dirade samindu,
euskarazko jendia
ez dago kontentu;
baserritar askori
neuk diet aditu
oen alde dirala
naiz biziya galdu,
oien esana iñork
egiten ez badu.

14

Perutxok:

Ongi ari zerala
iruditutzen zat,
errege jarritzea
obe da gureztat;
erljiyo, fueroak
guztiyak gerentzat,
bentaja txit andiya
Españiyarentzat,
ez berriz gutxiyago
Euskal Erriyentzat.

15

Antontxok:

Aditu egidazu,
Perutxo maitea,
kontuban ipin zazu
Madridko jendea
danontzat obe dala
errege ekartzea,
denborik galdu gabe
tronuban jartzea,
ez badegu nai laister
bazterrak galtzea.

16

Perutxok:

Italiano, frantzes
eta ingelesak,
guk eziñ ametitu
geren erregetzat;
kalte aundiya dala
iruritutzen zat,
naiz dala Kastilla ta
euskarazkoentzat;
zeiñ española baño
oberik guretzat?

17

Antontxok:

Perutxo, ohea da
errege jartzea,
ez gorrotoz beterik
alkar galdutzea;
Ebanjelio santuba
ondo gordetzea,
alkarri biotzetik
oso barkatzea,
Jaunaren agindubak
au da betetzea.

18

Perutxok:

Danok arren eskatu
Birjiña Amari,
erregutu degiyon
bere Semeari
gau ta egun egiteko
zerutikan argi,
oso galdu baño len,
Españiya oni,
gure fede santubak
iraun dezan garbi.

A. R. C. A. D. A.

* * *

Noizkoak ote ditugu bertso auek? Seigarrenak onela esaten du: "Italiano, frantzes eta ingelesak / guk eziñ ametitu geren erregetzat".

Dakigunez, 1868 urtean Isabel II bota ondoren, atzerrian errege billa asi ziran orduko jauntxoak. Azkenik, italiano bat etorri zan: Saboya-ko Amadeo.

Ain zuzen, ez da bertso auetan erregiñarik aitatzen; ezta Amadeo erregerik ere. Madrilleko errege-aulkia utsik zegoan, beraz. An iñor eserita balego, bertso auek aren aurka zerbait esango luteke.

Isabel II erregiña, or goien esanik daukagunez, 1868-ko iraillean bota zuten Españiatik. Amadeo erregea, berriz, 1871-eko ilbeltzaren 2-an etorri zan. Tarte ortan jarritakoak izango dira, guk uste beintzat, bertso auek.

* * *


Emezortzi bertso auek, Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman agertu dira, garai artako kanta-paper batean.

Moldiztegi-izenik ez du, eta arritze-koa ere ez da. Izan ere, izenburuak adierazten duanez, karlisten aldeko bertsoak dira, eta gerra asi baiño leen argitaratuak; liberalak bazter guziak beren mende zituzten denboran, alegia. Bertso auen egillea nor zan jakin izan balute, bizkarreko otzak ederki kenduko zizkionten noski.

Azpian firma bezela ageri diran letra oiek, A. R. C. A. D. A. alegia, nor ezkutatzen duten ez dakigu. Ez gera korapillo ori askatzeko gauza izan.

(1) Bertso-paperak: Euzcaldunac naizdute.

(2) Bertso-paperak: Euzkaro asico da.



Errenteria, Xenpelar bertsolaria jaio zan urteetan. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1869)

**Nekazari onradu Jesukristo-ren erlijioa
maite dezutenoi zuen adiskide batek itz bi**

1

Nekazari prestuak,
kontu, kontu, kontu!
Etzaitzatela, arren!,
iñork engañatu;
norentzat dizkitzuten
botuak eskatu
diputadu izateko,
ondo begiratu.

2

Badakizute zer dan
oraingo botoa?
Jakiñean zaudeten
esatera noa:
da izan edo ez izan
gure erlijioa
bakarrik Españian
adoratzekoa.

3

Galde bada txit kontuz
boto-eskaleai
erlijio berririk
ote luketen nai
Españian sartzea;
ta dionari *bai*
botoa ukatzeko
egon guziz esnai.

4

Zerren gaur Españian,
jakin dezazuten,
gauza guziz grabeak
dirade gertatzen;
zuek zeron lanakiñ
etzerate oartzen,
baña kontuz ibilli
botoak ematen.

5

Jangoiko biziaren
elizak ondatu,
ta erejiarenak
Madriden altxatu,
jesuitak kendu eta
monjak pillan batu...
Au pasatzen danikan
dezute aditu?

6

Gizon itsu batzuek
esango dizute
erlijio berriak
ez dirala kalte,
egiaren albora
gezurra dakarte;
onelako gizonak
zentzurik badute?

7

Ta oek dizkitzute
eskatzen botoak,
esanaz dirala txit
zuen aldekoak;
eziñ ordea izan
zuen gogokoak
ardi-jantziarekiñ
datozen otsoak.

8

Botoak nori eman
nai dezute jakiñ,
engaña etzitzaten
iñork itz leunakiñ?
Ez beñepeñ fiatu
erejiarekin,
adiskide ain maite
dabiltzan oiekiñ.

9

Oiek ezagun dira
siñale batean:
liberalak dirala
berak esatean;
seta gaizto orretan
dirauten artean,
ez pentsatu botorik
berai ematean.

10

Eman botoak gizon
erlijiodunai,
Jesusena ordea,
eta besterik nai
ez dutela seguru
txit dakizutenai;
ta ez kasorik egin
ereje galduai.

* * *

Bertso auek ondo ulertzeko zera jakin bear da: Isabel II bota ondoren, Madrillen *Cortes Constituyentes* biltzarra idiki bearra zala 1869-ko otsaillaren 11-n. Egun orretan batzarrak egiten asi, alegia. Baiña ortarako, lee-

nengo, diputadu edo ordezkariak aukeratu bear. Ortik leendabiziko bertsoak diona: "norentzat dizkitzuten botuak eskatu diputadu izateko, ondo begiratu".

Ona zer dion Melchor Fernández Almagro bere *Historia política*

de la España contemporánea liburuan (Madrid, 1972):

“Decretado el sufragio universal en 9 de noviembre de 1868, y puestas en vigor las leyes provincial y municipal aprobadas en las Cortes Constituyentes de 1854, fueron elegidos las Diputaciones y Ayuntamientos de toda España, así como renovados todos los jueces de paz o municipales, y ya se sobreentiende que asimismo se renovó el personal de la Administración pública, pues siendo normal el trasiego de empleados en los cambios de Gobierno, con mayor motivo o mejor pretexto habría de hacerse en el paso de un régimen a otro. Ello fue que el Gobierno consideró llegada la sazón de reunir Cortes Constituyentes, a cuyo efecto dictó el 6 de diciembre un decreto fijando la fecha de la elección en los días 15 al 18 del inmediato mes de enero y la apertura de la Asamblea en 11 de febrero siguiente”.

Ala, bertso auek 1869 urtearen asierakoak izango ditugu.

Erljioak auteskunde auetan zer ikusirik bazuala esaten digute bertso auek. Orra or goien aitaturako idazle orrek zer dion liburu berean:

“Los partidos gubernamentales estaban de acuerdo en la instauración de la Monarquía, pero no en el alcance que hubiera de darse al principio de la libertad religiosa. Ya en el seno de la Comisión se acusaron las diferencias que no pudieron

por menos de manifestarse en el salón de sesiones. Los demócratas eran partidarios de la libertad de cultos y de la separación de la Iglesia y el Estado, en tanto que los unionistas estaban resueltos a no pasar de la tolerancia, conservando, desde luego, el presupuesto de Culto y Clero. Los progresistas mediaron entre sus aliados de derecha e izquierda, en virtud de la fórmula transaccional que propuso Olózaga, inspirado por la base 2ª del proyecto de Constitución de 1856. Los diputados carlistas y eclesiásticos lucharon a la desesperada en pro de la unidad religiosa”.

* * *

Amar bertso auek, or goien ezarri degun izenburu orrekin, lau tokitan arkitu ditugu: Chicagoko *New Library*-n; Parisko Liburutegi Nazionalean; Loiolako Aita Jose Inazio Aranaren bilduman; eta Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Inprentaren batean argitara emandako kanta-papera da lau toki oietan dagona; eta lauetan argitalpen bera.

Moldiztegi izenik ez da esaten. Egillearenik ere ez. Firma bezela, letra bat: *F. Baiña* besterik gabe ezin bertso auen jartzaillea nor dan igerri.

Parisko paperean, eskuz erantsita, onako au irakurtzen da: *Ilbeltzaren asieran*, 1869. Eta Aita Aranaren paperean, eskuz idatzita emen ere, urte bera: 1869.

(1869)

Bertsu Berriyak
Inaziyo Egi-jariyo-k jarriak

Ler egiten dabilta
apaiz debotoak
baserririk baserri
bildutzen botoak,

esanaz, kristau onak
baldin bagerade,
botoak emateko
karlistaren alde.

Eta kontra ematen
duben kristau txarrak,
seguru dituela
infernuko garrak.

Ori diote gauza
ikaragarritzat,
ikararik ematen
ez dit neri beintzat.

Orlako gezurrakin
tontoak bakarrik
izutuko dituzte,
ez ernai samarrik.

Baserriko jendea,
zaude bada ernai,
ez apaizak esanta
sinistatu zernai.

Ondo gogoan daukat
joan dan gerratea,
zeren ezin liteken
burutik joatea.

Orain nola dabiltzan,
oro ordubantxen
apaiz *kristau on oiek*
ikusi nituben

baserririk baserri
zapatak puskatzen,
liberal beltzen kontra
buruak berotzen:

*Agintzen jartzen bazan
jende liberala,
gure fuero maiteak
galduko zirala.*

Amaika gizon prestu
irten zan mendira,
bañan etxera berriz
ondo gutxi jira.

Amaikak utzi zuen
larrua mendiyan,
eta oroitza tristea
bere familiyan.

Noizbait zori onian
bukatu zan gerra,
geroztikan pakean
gu bizitu gera;

eta gure fueroak,
Karlos izan gabe,
liberalak maite ta
bizirikan daude.

Zertako biar degu,
pakean gaudela,
igaro zan demanda
berritu ostera?

Ernai, baserritarrak,
ez izan tontoak,

gerrazale oieri
ukatu botoak.

Ni ere zuen gisa
baserritar bat naiz,
soroan izardiya
kentzen detana maiz,

nere arto, sagar ta
zekorren artean,
lan egin ta bizi nai
nukena pakean.

Apaizak nai badute
ibilli gerretan,
dijoazela berak
mendira tropetan.

Liberalaren kontra
daude ernegatzen,
ez errelijiyua
dutelako galtzen,

-berak bezelakorik
ezta ortarako-,
baizikan liberalak
nai dituztelako

diran apaizetatik
erdiyak gutxitu,
edo baten errentak
birentzat partitu.

Duan entierruak,
duan bataiuak,
illak duan graziya
orobat jaiuak.

Adiskideak, orla
izango ez degu guk
gure Jaungoikoaren
graziya diru-truk.

Errelijiyu-kontu
ez dabill apaizik,
ez dabiltza jaun oiek
txanpon-kontu baizik.

Argatik ikusten da
orrelako pilla
karlistaren aldeko
botoaren billa;

zergatikan karlistak
eskeñi dizkaten,
baldiñ aiek badira
agintean jartzen,

emango dizkatela
naiko irabaziyak,
amarrenak ere bai
eta primiziyak.

Gañera egongo dala
apaizaren esku
alkate zein ipiñi
ta zein diputadu,

berak izan ditezen
kontrariyo gabe,
erriyaren buru ta
gizonaren jabe.

* * *

Sail ontako bertso batek dienez, egilleak “ondo gogoan dauka lengo gerratea”; eta ez da “igaro zan demanda ostera berritu” bear. Bigarren gerra asi baiño leentxeago jarritako bertsoak ditugu, beraz. Giroa ospintzen zijoan, baiña artean tirorik etzan.

Ain zuzen, Parisko paperean, eskuz erantsita, auxe esaten da: *reçu 1869*; urte ortan eskuratua, alegia. Eta Manterolaren esku idatzian ere gauza bera irakurtzen da: *1869*.

Leen esan degunez, *Cortes Constituyentes* izeneko Biltzarra

1869-ko otsaillaren 11-n bildu bearra zan.

Chicagoko eta Parisko paperean, inprentako letra noizean bein aldatu egiten da; *cursiva* izeneko letra-motaz idatzita dago. Orrela daudenak, bere ortan utzi ditugu guk ere.

* * *

Bertso-sail au bost tokitan arkitu degu: Bonaparteren bilduman, Chicagoko *New Library*-n: Parisko Liburutegi Nazionalan; Donostiako Jose Manterola za-

naren bilduman, eskuz idatzita; Errenteriako Enrike Elizetxearen bilduman, eskuz idatzita emen ere; eta *Egan* aldizkarian, 1975 urtean.

Chicagokoa eta Pariskoa inprentako bertso-paperak dira; baiña biak argitaraldi bera, moldiztegi izenik gabea.

Elizetxearenak bertso banaka batzuk falta ditu; *Egan*-ek, berriz, lerro-pare bat. Gaiñontzean, lau toki oietan bertsoak berdin daude; aldaketarik gabe alegia.

Manterolaren esku-idatzian, eskuz eta beste letra-mota batean idatzita, *en clave* alegia, firma bat ageri da. Baiña

Donostiako Ambrosio Zatarain jaunak, artarako bear ainbat denbora artuta, zera esan dezakela atera du: *Joaquin Jamar*. Jaun au Naparroako Nagore errian jaio zan, 1837-an; eta Donostian il, 1887-an. Baiña Naparroako alderdi artakoa izanik, oso zailla iduritzen zaigu bera bertso auen egillea izatea.

Itxura guzia alaxe du, izan ere, sail onek: Donostiako liberalen batek jarria dala. Liberalak bertsolari onik ere bazuten. Baiña bertso auek bina puntukoak dira, eta bertsolari jator batek moldatuko etzituan bezelakoak.



Oiartzun, XIX mendean. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1869)

“Bertso moduko gauza batzuek...”

1

Bertso moduko gauza batzuek
Donostiako kalean
eman dirate txanponik gabe
aurreko egun batean;
boto biltzeko beltz kantaren bat
ote zan au ekustean
pentsatu nuen, eta ez det asko
utsegin nere ustean.

2

Paper txar orren ipintzallea
izentatzen da Inaziyo,
paper orretan ikusten danez,
berak beintzat ala diyo;
apellidutzat berak dio
dubela *Egi-jariyo*,
baña ori nor dan dakiguentzat
ez du gezurrak baliyo.

3

Jaun orrek berak esanagatik
deitzen zaiola Inaziyo,
beraren izen egiazkua
omen da *Juan Ilusiyo*;
apellidua jatorrizkua
du berriz *Gezur-jariyo*,
nik aditzera dedanez beintzat
bautismoak ala diyo.

4

Juan Ilusiyo lebita-duna
ezkututzen da poliki,
nekazaritzat bere burua
pasatu nai luke noski;
Ategorria-k, ai bazter onek
gaur itz egiten baleki,
urbano onen azaña aundiak
esango lituzke ederki.

5

Juan Ilusiyo nekazaritzat
pasa nai izanagatik,
ezer gutxitxo aurrerratu du
gurekiko orregatik;
sobra dakigu irten ez dala
Donostiako kaletik,
nik orrelako nekazariak
ez nituzke nai aldetik.

6

Oien lana da egun guztian
kafean disputatzea,
eta gizonik paketsuenak
gorrotoan paratzea;
obe litzake alper jende au
ontzi batean sartzea,
eta lanera edo kafera
len baño len bialtzea.

7

Lurpeturikan oien bototik
gure errelijiyua,
ori kendu ta para nai dute
Jaungoikotzat biziyua.
Nola nai degu ez izatea
orrela okasiyua?
Oien dotriñak berekin dakar
gezurra ta sesiyua.

8

Ogei ta amabost urte bezela
izango dira beteak,
liberal oiek beren kontura
dauzkatela aginteak;
kendu ta jarri ibilli dira
ministroak ta legeak,
nik esan gabe zer gertatu dan
sobra daki gaur jendeak.

9

Nondikbait ere laguntzen die
San Migelen azpikoak,
arren antzera gaitz egiteko
dira beldur gutxikoak;
jesuitakin eta monjakin
guztiz erru aundikoak,
armadunikan ezpada kontra
arras soldadu pijoak.

10

Esaten digu *Gezur-jario*-k
nai lukeala pakea,
bañan orduan zertarako da
iñori gerra ematea?
Zertarako da besterengatik
asma-alak esatea?
Ori bai dala gauza bat esan
ta beste bat egitea!

11

Apaizan kontra itz egiten du
lotsagarrizko moduan,
or ezagun da argiro asko
zenbat erlijiyo duan;
anbat norbaitek sartu diozka
gauza oriek buruan,
bost orrelako ekusten degu
oraiñ aldian munduan.

12

Esaten digu baserritarrak
egon gaitezela ernai,
arren, apaizak diotenetik
sinistatu gabe zernai.
Zaude ixillik, *Gezur-jariyo*,
zu ainbat badira non-nai,
zuri ez dizugu sinistatuko,
sazerdote jaunari bai.

13

Euskaldun onak dauzkagu beti
oraindañokuan beintzat
Jaungoikoaren ministro jaunak
errespetoko diñatzat;
oien artian arkitzen bada
gizon argal gaiztoren bat,
zure moduko sujetoetan
badira aietan ainbat.

14

Apaizen kontra gezur aundiak
esandakuan urrena,
Gezur-jariyo-k aitatzen digu
primizi ta amarrena;
onen gañean esan bear det
nik ere senti dedana:
karga guztiak azkenerako
datoz beti guregana.

15

Len apaizari emanarekin
amarren ta primiziya,
nekazariak egiña zeukan
jaun aiekiko guziya;
baña ipiñi zigutenetik
onetan lege berriya,
aien lekuan sartu zaizkigu
nagusiya ta erriya.

16

Alde batetik badatorkigu
etxeko nagusi jauna,
ta kentzen digu amarrenetan
len tokatzen zitzaiguna;
gañera berriz datorrenean
errepertoko eguna,
erriyak zintzo kobratzen digu
beak botatzen diguna.

17

Bentajatsua izan ez dediñ
maizterrentzat trataoa,
kentzen digute nai dutenentzat
nagusi jaunak botoa;
errentak eta amarrenak ta
boto gogo gabekoa,
zenbat larrutu bear dezute
nekazari gizajoa?

18

Baserritarrak izanagatik
jakinduri gutxikoak,
ez gerade, ez, *Juan Ilusiyo*,
zuk uste bezin tontoak;
erlijiyua lengo bakarra,
Dn. Karlos eta fueroak,
au nai degu ta lagunduko du
au iristen Jaungoikoak.

* * *

Sail onen aurretik *Inaziyo Egi-jariyo*-k moldatutakoa eskeiñi degu. Aren bertsoen aurka lau bertso-sail atera zituzten ordaiñetan karlistak. Oiek, guk eza-gutzen ditugunak.

Oietako bat, onako au, Erren-teriako Enrike Elizetxearen bil-

duman azaldua, eskuz idatzita-ko orri batean. *Egi-jariyo*-ri puntuz puntu eta zorrotz erantzuten dio.

Egillea nor dan ez da orri ortan esaten, eta ori somatzeko biderik ez degu guk beintzat inunden ikusten.

Izenbururik ez du Elizetxearen orriak. Or goien ezarri deguna, leenengo bertsoaren asiera da. Baiña ori ez da sail onengatik esaten, *Egi-jariyo* dalako orrek jarri zuanagatik baizik. Onen bertsoak, leen esan degunez, bina puntukoak eta erdi-ipurdikoak baitira. Berealaxe oartu zan ortaz bertso auen jartzaillea, eta ortik leendabiziko ziria sartu.

Urrena, *Egi-jariyo* orren pape-ra Donostiako kalean txanponik gabe eman diotela esaten du. Ortxe ikusten da bertso-sail auek danak propagandarako moldatuak zirala.

Egi-jariyo-ren bertsoak 1869 urtearen asierakoak-edo izango zirala esaten genduan. Sail ontako zortzigarren bertsoak dionez, berriz, “ogei ta amabost urte bezela izango dira beteak” liberalak agintean daudela. Baiña noiztik asi bear da kontatzen? Gure iritzirako, Fernando VII il zan ezkerroztik. Eta errege au 1833-ko iraillaren 29-an il baitzan, ogei ta amabost erantsita, 1868 urtearen bukaera edo urrengoaren asiera degu.

Agintari berriak “jesuitakin eta monjakin guztiz erru aundi-koak” dirala esaten digu bederatzigarren bertsoak. Jesuitak, izan ere, 1868-ko urriaren 12-ko agindu baten bidez Españiatik erbestera bialduak ziran.

Moja eta fraileen komentuenak, berriz, urritu edo kendu asmoak zituzten. Ona nola dion Melchor Fernández Almagro-k bere *Historia política de la España contemporánea* (Alianza Editorial 107, Madrid 1968):

“...proponer decretos como el que (...) disponía ‘la extinción de todas las comunidades y asociaciones religiosas restablecidas o creadas por los anteriores Gobiernos desde 1835’, más la exclaustración voluntaria en las comunidades no comprendidas en la anterior medida, y la abolición de todos los privilegios de que aquéllas venían disfrutando: propuesta de la Junta, fechada en 12 de octubre, que el Gobierno hubo de aceptar en 18 siguiente, si bien exceptuando a las Hermanas de la Caridad, San Vicente de Paúl, Santa Isabel, Doctrina Cristiana y demás Congregaciones dedicadas a la enseñanza y beneficencia”.

Izan ere, or esaten dan urte ortan, 1835-ean, gobernuak *Desamortización de Mendizabal* izenekoa egin zuan. Onela nola dion *Espasa* iztegiak:

“...se declararon extinguidos los monasterios, conventos, colegios, congregaciones y demás casas de religiosos de ambos sexos, adjudicándose el Estado sus bienes y ordenándose la venta de ellos y la aplicación de su precio para pago de la Deuda pública, haciéndose otro tanto con los del clero secular...”.

Gobernuaren aginte ori bein baiño geiagotan agertuko zaigu liburu ontako bertsoetan.

(1869)

Bertso Berriak
Iñazio Egijarioari ipiñiak

1 Nere euskaldun maiteak,
gezur-jario bat
gaur zuei agertzea
gogoan jarri zat;
bere burua dauka
egi-jariotzat,
baña aren *egiak*
nik gezurtzat dauzkat.

2 Gure *urlia*, bada,
jakiñ dezazuten,
asitzen da bertatik
apaizak zatitzen,
eta ezur osorik
ez die utzitzen,
pentsa nola gaixoak
diraden gelditzen!

3 Aitzakitzat *botoak*
artzen dituala,
apaizak boto billa
dio dabiltzala,
ta eliz-gizonentzat
au itxusi dala;
zer nolako santua
gure liberala!

4 Ekusteko gauza da
gure liberalak
nola izutzen dituan
apaizen itzalak,
agertuaz onela
zein diran argalak
jendea engañatzeko
beren egiñalak.

5 Apaizak dabiltzala
botoak billatzen,
ta infernura joango
dirala esaten
aek ez dizkienak
karlistai ematen,
gure itzjarioak
du aseguratzen.

6 Baña au esaten du
pruebarikan gabe,
gezurra esateko
zerren dan txit trebe;
ixilik egotea
askoz zuan obe,
beñepein bada bere
zentzuaren jabe.

7 Berak ordea ez dauka
batere beldurrik
infernura joateko
gauza oekgatik,
esanaz baserritar
tontoak bakarrik
ikaratzen dirala
aurkeriakgatik.

8

Nekazari prestuak,
itzjario onek
duda gabe tontotzat
zauzkate bai zuek;
erantzun giozute:
*“Ori uste badek,
tontorik aundienna
dirudik erorrek”.*

9

Emen bukatu bear
nuke nere lana,
gure liberala ez
izatera dana;
baña aiñ pixua da
oraindik diona,
non entzun bear duan
merezi duana.

10

Gogora dakarkigu
azkeneko gerra,
onen gañean biok
konponduko gera;
ni biotzez karlista,
liberala bera,
aitormen au eginta
banoa aurrera.

11

*“Gogoan dauzkat, dio,
nik orduko gauzak:
orduan gaur bezela
zebiltzan apaizak
baserririk baserri
mugitzen biotzak,
liberal beltzen kontra
botarikan lotsak”.*

12

Gure liberal onek
zer gauzak dituan!
Arkitu izan banintz
beraren lekuan,
ixillikan nik ori
idukiko nuan,
eta berak ere au
askoz obe zuan.

13

Ni ere denbora artzaz
ongi naiz oroitzen,
zer gauzak esan eta
egiten zituzten
liberal jaun oriek,
eta naiz arritzen
nola orduko gauzak
gogora dakarzten.

14

Eleizak, komentuak
ta oen interesak,
erlijioak, apaiz,
fraile eta monjak
gogoango dituzte
liberalen tretak,
egiteko aitatzea
on ez diran gauzak.

15

Kontatzen ere du ark
ongi dakiala
apaizak gerra artan
esaten zutela,
agintzen jartzen bazan
jende liberala,
gure fuero maiteak
galduko zirala.

16

Baña ikusirikan
fueoak *bizirik*,
liberalak gordeta
oraindik *osorik*,
etzan, esaten digu
kontentuz beterik,
fueoak gordetzeko
Karlosen bearrik.

17

O, bai, gure fueoak
osorikan daude,
ukitutxo bat ere
iñork eman gabe;
eta bestela gure
liberalai galde
aetatikan falta
ote dan batere.

18

Bitartean gaztelar
arrotz oriekiñ
liberalak gaituzte
ia para berdiñ.
Gertatuko ote zan
ori Karlosekin?
Ta tentatzen gaituzte
lotsa gutxirekin!

19

Gañera gizon oni
kaso egitera,
karlistak badijoaz
laster armetara;
eztakit nondi duan
berri au atera,
beartu nai litzake
ori probatzera.

20

Gero gure *urlia*
sartzen da Elizan;
liberala izanta
pentsatzekoa zan;
Elizari ainbeste
amorio izan
eta an sartutxo bat
egiñ bear etzan?

21

Nola gure *urlia*
dan aiñ jakintsua,
ongi aterarikan
dauka ark kontua:
zeru bat egiteko
bertatik mundua,
apaizak gutxitzea
lenengo puntua.

22

Oraiñ daudenetatik
gutxitzen balira,
asitze baterako
beñepeñ erdira,
gero gañerakoak
eskurako dira;
gutxika joan liteke
ongi urrutira.

23

Gero baten errenta
nai luke birentzat;
liberala aditzen da,
oraiñ oroitzen zat,
emaille ugaria
dana guzientzat;
pruebak ematen ditu
gure onek beintzat.

24

“Entierroak, mezak
eta bataioak,
esaten du liberal
onen juizioak,
doan ez egitea
dira bizioak”.
Zer geiago esango
luke judioak?

25

Bestela Jainkoaren
grazia diru truk
apaizetatik artzen
degula, dio, guk;
orretan erejia
bat esaten diguk,
eta orrekiñ lanak
ik izango dituk.

26

Ez amarrenik eta
ez primiziarik,
ez apaizentzat golpe
bat egin bearrik;
guzia etxerako,
apaizak doarik,
auxe bai zoriona
liberaletatik!

27

Amarren oiek, bada,
eta primiziak,
emendikan aurrera
gerontzat guziak,
jartzen ezpedituzte
gure nagusiak
lengo zarren lekuan
amarren berriak.

28

Emen beldur batek ni
oraintxe jotzen nau:
len ekusi omen da
amarren kentze au;
pagakizun bat kendu
eta ipiñi lau,
aritu izan omen
dira zenbait billau.

29

Amarren, primizia
ta diruagatik,
gañera errietan
agintzeagatik,
eta ez erlijio
guziz santagatik,
apaizak dabiltzala
esaten diguk ik.

30

Oraiñ erantzuteko
esango diat nik:
nekezari jakiñez
pobre bat izanik,
guziak dakigunez
erorrek esanik,
gauz oriek guziak
nondi dakizkik ik?

31

Ire buruaz dituk
apaizak juzgatzen?
Dirua ta agintzea
bazaizkik gustatzen,
faltso testimonio
oriek jasotzen
ez abill, ez, ik uste
dean bezin zuzen.

32

Utzi egiok, bada,
gubernatzeari
Eliza ta apaizak
au dagokanari;
ire buruko lana
ez dek berdiñ ori.
Zergatik orrela gaitz
nai diok iñori?

33

Farragarri, txoraska
eta liberala,
ez nian uste orren
koitadu intzala;
gañerako guziak
uste dek dirala
Elizaren ta apaizen
kontra, i bezala?

34

Laja egiek, bada,
apaizai pakean,
beren dotriñarekiñ
animen lanean;
ez dek damu izango
egunen batean,
eta kontu apaizaz
zer esaten dean.

35

Zergatik uste badek
ire gezurrakiñ
apaiz orien kontra
irten bazarekiñ,
bertatikan bear dek
duda gabe jakiñ
ez aizala irtengo
ire ametsakiñ.

36

Ik nai ukeana dek
liberal jendeak
nai duana egiten
uztea besteak;
ez dik ordea ori
agintzen legeak,
ta etzerate zuek
iñor baño obeak.

37

Erri ta Gobernuko
gauzetan batere
apaizak sartu bear
ez du beñere?
Ongi; bada orduan
utzi zuek ere
Eliza ta apaizak
pertsegitu gabe.

38

Baña baldin ekusten
badute apaizak
botatzen dituztela
lurrera elizak,
beren etxeetatik
bidaltzen jesuitak,
orobat frantziskoak
eta karmelidak.

39

Ta Españako monja
gaixoen negarrak,
eziñ utzirik beren
biotzeko zeldak,
artu dituztelako
ordena kruelak,
ixillik au sufritu
apaiz españolak?



40

Ez, ez, gaur Españian
ez dago legerik
orrela mututzea
agintzen duanik;
eta, liberal jaunok,
pentsatzen nuan nik
bazekizutela au
nik esan bagerik.

41

Engañatzen aiz, bada,
uste deanean
egon bear dutela
gaurko egunean
ixillikan apaizak
beren baztarrean,
zuek nai dezutena
egiñ bitartean.

42

Orra, *Egi-jario*
gezur-esalea,
zer pentsatu dedan gaur
iri esatea:
nik deseatzten diat
Jaunaren pakea,
eta apaizentzako
b jotz bat obea.

43

*Bizi bedi Jesusen
lege txit garbia,
ta bere erlijio
adoragarria,
Maria Santa zeru
lurren miraria,
ta gure Aita Santu
txit maitagarria.*

44

*Atzera protestante
ta judu guzia,
atzera Mahomaren
lege itsusia!
Gugandikan urruti
bebill erejia,
eta orra betiko
ongi España.*

F. M. G. U.

* * *

Paper ontan ere, *Iñaziyo Egi-jariyo* orren paperean bezela, noizean bein letra mota aldatu egiten da, kurtsibaz idazteko. Orrela daudenak, guk ere berdin idatzi ditugu.

Azken bertsoak dionez, protestante, judu eta mahomatarrak emendik bota egin nai ditu sail onen jartzailleak. Gobernu berriak *libertad de cultos* deritzaiona onartu baitzuan; edozein erlijio Españian libre zala, alegia. Ori ez da sail ontan begi onez ikusten. Ezta urrengo bietan ere.

Izenburuak dionez, bertso auek ere *Iñazio Egi-jariyo* dalako orri ordaiñetan jarriak dira, ari puntuz puntu erantzuteko.

Bertsoen atzetik firma bezela ageri diran letra oiek, egillearen izen-abizenen leenbiziko letrak izango dira bearbada. Baiña nor izan diteken guk beintzat ezin somatu dezakegu.

* * *

Bertso-sail luze au iru tokitan arkitu degu: Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman; Chicagoko *New Library*-n, Bonaparteren bilduman; eta Aita Jose Inazio Aranarenean. Irurak moldiztegi-izenik gabeko kanta-paperak dira. Leenengo biak argitalpen bera. Irugarrena, berriz, ezberdiña; baiña aitatzetik merezi duan aldaketarik ez duana.

(1869)

Bertso Berriyak
Inaziyoren kontra Pepetxo Egizuriyak jarriyak

1

Dozenatxo bat bertso
zortziko berriyan
azaldutzera noa
ni Euskalerrian,
naiz dala kalean da
igual basarriyan
danok bizi gaitezen
lege zar garbiyan.

2

Galdetu nai nizuke,
Inaziyo, zuri
nondik atera dezun
zuk egia ori;
gusto ematearren
zenbait pertsonari,
buruak galtzen zabiltz
baserritarrari.

3

Inaziyo, zer diote
or kale aldean?
Gezurra saltzen dute
egi-kolorean;
sarritan badabiltza
baserri-bidean,
probetxurikan gabe
alferrik lanean.

4 Inaziyo, utzi eiezu
apaizai bakean;
deadar egin zuten
an Kadiz aldean
biziko giñadela
gu libertadean,
ez gezurrezko lege
txar oien mendean.

5 Pepetxok esaten dio
Inaziyori berriz:
“Gezur oiek saldutzen
alferrikan dabiltz;
naiz datozela oñez,
igual da zaldiz,
probetxurik ez dute
aterako anitz”.

6 Inaziyo, esango ditut
nik nere gogoak:
baserriko jendeak
ez daude eroak;
badakigu nori eman
guk geren botoak,
guretzat nai ditugu
pakea eta fueroak.

7 Alferrikan dabilta
gezurrak saldutzen,
kalez kale korrika
zapatak urratzen;
Inaziyo, ez badira
laster akordatzen,
egon bearrak dira
penaz zimurtutzen.

8

Inaziyo, dabilta
korrika alferrik,
Lutero ta Calvin
berentzat arturik;
baserriyan ezta nai
gaiztuen legerik,
anima ta gorputza
galduko duenik.

9

Ai, zenbait nagusiren
maizter koitaduak,
fuerzaz emanerazi
berentzat botoak;
an dira amenazak,
an desafioak,
orra, Inaziyotxo,
zer lege-moduak.

10

Baserriyan ez dago
jendea eroa,
maliziarik gabe,
ain gutxi tontoa;
iritxi nai duenak
oriyen botoa,
duda gabe bear du
arras tranposoa.

11

Gure religioak
iraun dezan garbi,
errege egiazko bat
bear da ekarri,
guztien onerako
an tronoan jarri,
tenplorik egin gabe
protestanteari.

12 Protestante, judio,
mahometanoak,
ez dirade guretzat
lege onekoak;
España-n gerade
txit katolikoak,
guk eziñ ametitu
oiei *tenploak*.

Pepetzoren akabera

*Orra, Inaziyotxo,
orra despedidan
engañu gabe esan
gauzak nola diran;
pakea bear degu
nork bere tokian,
erri eta baserri,
erreinu guztian.*

Pepetxo Egizuriya

* * *

Bertso-sail au ere, izenburuak dionez, *Inaziyo Egijariyo* orren kontra atera zan. Egilleak izenorde bat artu zuan: *Pepetxo Egizuriya*. Baiña bera nor dan ez dakigu, eta ori somatzeko biderik ez degu ikusten.

* * *

Bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: Bonaparteren bilduman, Chicagoko *New Library*-n eta D'Abbadieren bilduman, Parisko Liburutegi Nazionalean. Biak ere inprintako bertso-paperak di-

ra, moldiztegi-izenik ez badute ere, baiña ez argitalpen bera. Onena bera irizitita, Chicagokoari kopiatu diogu; eta ona emen Pariskoaren aldaketak: Izenburua: Bertso Berriyak Inazioren kontra Pepetxok jarriyak. 1/6: eta baserriyan; 1/7: danak bizi ditezen; 1/8: Jesusen legean; 4/2: apaizak kalean; 5/2: Inaziyo berriz; 7/8: penaz zizpurutzen; 9/3: bortxaz emanarazi; 9/5: an dira menaxeak; 11/6: au tronoan jarri; 12 eta 13-garrenaren tartean: Au Pepetzoren alegurura; 13/6: nori bere tokian. Papera zikinduta dago, eta 2/1-3 eta 6/1-5 lerroak ezin irakurri dira.

(1869)

**Bertsu Berri-berriyak
Droke ta Antonek jarriyak**

**Egiya pare bi
Inaziyo liberalari
gezurra dariyonari**

- Droke:* Egiyari esan gezur,
gezurrari egiya,
orra liberalaren
betiko erausiya.
- Anton:* Oraintxen asmatu dek
nere pentsatzea,
Inaziori nai nitek
orla erantzutea.
- Droke:* Anton, Anton, adi zak
Inazioren berri,
burutik oñeraño
zioat igerri.
- Anton:* Ixillik aituko iat,
esaiok dan-dana,
otso orrek jantzi ziguk
bildotsaren lana.
- Droke:* Basarritar jantziyan
liberal arroa!
Kadizen sortu al da
moda orrelakoa?

Liberaltxo Inaziyo,
zerana zerala,
ez beza esan gaurdandik
euskalduna dala.

Jainko, zeru, inpernuan
siniste ez duanik,
ez beza esan egundo
euskalduna danik.

Fedea gal badezu,
zeradela nago
protestante guziak
baño ere okerrago.

Ler egitea apaizak
ta inpernurik gabe
nai zenduke, Inaziyo,
jarririk zu jabe.

Ez dezu ori iritxiko,
ez, *arraia-pola,*
zerori lertuta ere
eta egiñik bola.

Basarritar jendeak
ez dira tontoak,
zuk ezarri diztezu
itz orrelakoak.

Oiek botoa zer dan
dakite zearo,
eman ere bai nori
libreki ta oparo.

Ez dute nai, ez, bortxaz,
maizter diralako,
ezer besterik gabe
nagusientzako.

Ez diote eman nai
liberal beltzari,

ematea dalako
danik txarrenari.

Liberal danon buru
deabru Belzebu-k
besterik nai ez luke
beren animen truk.

Liberal *izatea*
ereje da oraiñ,
basarritarrak nai du
beti izan *oien gaiñ*.

Españan agintzea
jende liberala
txit ederki dakite
galmena izan dala.

Ondamena guztiyan,
gerra ta despita,
liberal ujolari
bidea irikita.

Eziñ izan liberal
eta *kristau ona*,
gañera beltza izanik
ote da *gizona?*

Erlijioa oiek gabe
zegoan loretan,
oso-oso fueroak
ta egun ederretan.

Zergatik orain biak
beztu nai diguzte,
eta beren partetik
akastu dituzte?

Nai baluke izan oiek
fueroen alde,
onen erlijioa
gorde bear lukete.

Egizko erlijioa
gure fueroakin
alkar artu da beti,
beti da bat egin.

Biyen kontra dabilta
liberal gaiztuak,
or emen ereiñik
itz eder leunduak.

Oien obra izandu da
oraingo iskanbilla...
Begira zein dabilta
komentuen billa.

Zeñek bota dituzten
beren etxetati
ainbeste gizon prestu,
eta monja ez gutxi.

Oñen punta biyetan
alboka begira
kalez kale dabiltzan
liberalak dira.

Nork ipiñi du España
gerra ta gosean,
protestantei lagunik
sartu ditezean?

Zergatik nai ez dute
errege jartzea,
eta beren okerrak
batek zuzentzea?

Zertako nai dituzte
apaizak gutxitu,
lanak eta okerrak
maizterrari geitu?

Zertako ari dirade
on Elizarenak

tranpa txit politean
egiten berenak?

Zergatik ai dirade
amarren primizi
nausiarena esanaz
dala lendabizi?

Anbat gure Jainkoak
ez du eman danontzat,
ez ala liberalen
gutziarentzat?

Ondo merezi ditu
animen artzaiak
mundutar danengandik
diru bizikaiak.

Ez gauza Jainkozkoa
saldu-erosteko,
bai animak salbatzen
gogor jarduteko.

Ez dute *apaizak* nai
iñoren kalterik,
Jesusen legea ta
pakea besterik.

Apaizak beren mallan
alkar aditurik,
legoak sagraduan
ez naaspillaturik.

Libertade egiazko
Jesukristorena
basarritar ta danok
bear degu aurrena.

Liberalak zerate
danok señaideak,
agiri dira klaru
zuen egiteak.

Gerrateko denboran,
besteik eziñean,
jarri ziñaten berriz
fueroak gordetzean.

Ta ainbeste odol kostako
erregiñ ain gora,
zerona egindakoa
bota ezue kanpora.

Azal gaiztoko kasta,
noiz onduko zera?
Egizazute noizbait
biurtzea onera.

Bestela zuentzako
dago su-leizea,
kristau on diranentzat
zeruratutzea.

Anton: Asko da, Droke; or dago
liberalen plana,
deabrubak daramala
orlakoen lana.

Praxku, Bartolo, Txomin, Erramun eta beste nekazari askok:

Entzun ditugu ikaraz
zuen arrazoiak,
gaixtorako beltz oiek
bai... a zer mutillak!

Itz goxo gezurrezko
oroipen gorriyak
berenganatuzeko
gu nekazariyak.

Ezagutu-izkiyagu
zuben artemañak,
garbi gure lurretik
belar oien zañak.

Botuak nai baituzte
amenazoakin,
arri ta makill berai
ukabillarekin.

Biba, nekazariyak,
gure erlijiyua,
orrekiñ ondo gera
gorderik fueroa.

Biba gure obispoak,
biba Aita Santuba,
fuera beltz guztiyakin
gezur-jariyua.

Droke: Txurrut bat ar dezagun
pipak utzirikan,
zintzurra legunduta
kanta gogotikan.

España-ren kanta berriak(1)

Kantaurrea

*España, gorde ezazu
egi-erlijioa,
España, ondatu zazu
protestantismoa.(2)*

Kantaldiak

1

Gezurak sortu dira
Londres-ko zulotik,
Lutero zakarraren
adarmetondotik:
su ta gar egin gogor
Luzbel-i gogotik,
mundua garbitzeko
bere oker gaiztotik.
España, gorde ezazu...

2

Inpernukoen asmo
galgarriz ase,
or dabil irrintzika
Calvino-jendea;
gartu bedi, kristaua,
gaur zure *fedea*,
gori-gori ager bedi
obra onez betea.
España, gorde ezazu...

3

Jantzi gaitezen gaurtik
zerutar gudari,
gerra bizi bat danok
protestanteari;
San Migel degula guk
aingeru gidari,
onda dezagun arte
ez barka berari.
España, gorde ezazu...

4

Gure errelijioko
euzki eder aurrean,
odei beltz ori zertan
jarri da parean?
Gaizto illun oiek beude
Belzebu-en leizean,
Jainkoarenak gera,
argi ibill gaitean.
España, gorde ezazu...

5

Gere biotzak danok
altxa Jaunagana,
bere gloriarako
egiñik al dana;
guk orain gorderikan
Beraren esana,
betiko emango digu
koroi onen bana.
España, gorde ezazu...

* * *

Bertso-sail au bi tokitan arkitu degu: Loiolako Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman, eta Parisko Liburutegi Nazionalean. Biak moldiztegiren batetik ateratako kanta-paperak dira, eta biak argitalpen bera.

Izenburu luze orrek adierazten duenez, bertso auek ere *Inaziyo Egi-jariyo* orren kontra jarriak dira.

Baiña ori aski ez balitz bezela, zeñen aurka dijoazen are geiago azaltzearren-edo, izenburuaren ondoren dei egin eta paperaren barreneko oar batean onela esaten da: *Inazio'ren bertsu-aldi, zeñaren kontra diraden oiek, izendatzen dira onela: Bertsu Berriak Inaziyo Egijariyok jarriak.*

Kanta-paper onek moldiztegi-izena ere badu, baiña txantxetakoa: *Auzo-erri-*

yan, Nekazariyen moldiztegiyan 1869 urtean.


Urtea ere esaten digu, beraz; eta, ain zuzen, guk onen aurreko paperentzako uste genduana.

Egilleen izena ere ez da benetakoa izango: *Droke ta Antonek jarriyak.*

Bukaeran, bertso auek argitara emateko eta eragozpenik gabe zabaltzeko baimena ematen da: *Imprimase y circule libremente. Licdo. Eskiña. Vº Bº Dr. Espaiñ.* Au ere txantxetan jarria dagoala esan bearrik ez dago.

(1) Edozeñ zortzikoren soñuban kanta litezkeanak. (*Bertso-paperaren oarra.*)

(2) Protestantismoa, ingelesak eta alemanak asmatutako eta orain liberal beltzak Espaiña-n sartu nai luketean erlijio-modu palsoa. (*Id.*)



Donostia. (Juan Mañé y Flaquer: *El Oasis*. *Viaje al País de los Fueros*, 1878.)

(1869)

Bertso Berriak

1

Milla zortzireun eta
irurogei ta zortziyan
asunto bat asi da
gure probintziyan;
gerra kalte degunak,
nere iritziyan,
euskal erriyak gauden
lengo dezentziyan.

2

Orañ urte berriyan
sartuak gerade,
bañan lengo zarrian
asiyak dirade;
lege onetan gauden
ganbiyatu gabe,
iñor egin eztedin
euskaldunen jabe.

3

Araba ta Bizkaiak
legezko indarrak,
Gipuzkoan ez gaude
laguntzalle txarrak;
ona iru probentzi
kantabriatarrak,
sostenitu ditzagun
lengo fuero zarrak.

4

Guk pakia nai degu,
ez gerrarik emen,
zarrak eman ziguten
giyamentuan len;
mudantzak asi dira
egun gutxi barren,
anparatu gaitzala
Jaungoikuak arren!

5

Nere kristau fielak,
legi au guardatu,
mudantza berririk ez
memoriyan artu;
zer egin bear degun
orra enkargatu,
bizirik ez gaitezen
infernuan sartu.

6

Orra klaruan esan
nere ditamena,
umiltzia nai nuke
gaizki dabillena;
gerrak askorentzat du
ondorian pena,
pakian konpontzia
gauzarik onena.

7

Liberalak diyote
egoteko umill,
lengo lege zarrikan
eztutela nai ill;
gu tontuak bagiña
oiek beti abill,
oraindik asuntua
fandanguan dabill.

8

Erregiña emendik
bialdu ta sarri
asunto bat digute
askorentzat jarri;
zertarako dabiltzan
kausari igarri,
begiratu nola dan
asiera orri.

9

Notiziya gaiztuak
dirade azaldu,
kristau fielak ori
egin bear al du?
Lengo legerikan nai
ezpazuten saldu,
jesuitak zertako
kanpora bialdu?

10

Legiaren kontrako
makiña bat etsai,
azi txarrak banatzen
kanpuetan lasai;
sazerdoterik iñork
eztu ikusi nai,
pikardiyen dabiltzan
majaderuak bai.

11

Debaldekua dala
aur bataiatzia,
gañera iltzen dana
enterratutzia;
ezpazaie tokatzen
jornalik artzia,
alferrik da orduan
estudiatzia.

12

Barbero, mediku ta
letraduai galde
ia ote dabiltzan
jornalikan gabe;
lanian trabajatzen
gorputza debalde,
iñor ezta alferrik
enpeñatu zale.

13

Jornala irabazten
daukan enpleuan,
apaizak ere ala
dirade munduan;
zeñi beria kendu
biar dan moduan,
oientzat zer esanik
eztago orduan.

14

Nastuta gabiltzanak
alkargana bildu,
Jaunaren justizian
obe da umildu;
gerrari laga eta
pakiari eldu,
inozente gaudenak
ez gaitezen galdu.

15

Alkar ezin ikusi,
—au mundu argala!—,
uste degu betiko
jaiuak gerala;
alferrik da artzia
indarraren gala,
aingeru guardakuak
anpara gaitzala.

16

Kortian jarri bedi
gizon bat umilla,
berari entregatu
ezpata ta silla,
etsaiaren indarra
utzi dezan illa;
ori deseaten det,
ala izan dedilla.

* * *

Gero zeatzago adieraziko ba-
degu ere, irakurlea jakiñaren gai-
ñean bego bertso auek Xenpela-
rrenak dirala.

Sail ontako zortzigarren ber-
tsoak onela esaten du:

Erregiña emendik
bialdu ta sarri...

Erregiña ori, dakigunez, Isabel
II da, 1868 urteko agorraren 30-
eko iraulketak kanpora bialdu
zuana.

Orregatik, onela dio leenengo
bertsoak:

Milla zortzireun da
irurogei ta zortziyan,
asunto bat asi da
gure probintziyan...

Baiña bertsoak ez daude urte
ortan jarriak, urrengoaren asie-
ran baizik. Orra zer esaten duan
bigarrenak:

Oraiñ urte berriyan
sartuak gerade,
bañan lengo zarrían
asiyak dirade...

Eta irakurleak gogoan artu be-
arke luke 1869-garren ori Xenpe-
lar il zan urtea dala.

Bertsoak iru burutapen dituz-
te: fueroak, pakea eta, irugarre-
na, apaizak eta jesuitak.

Euskaldunak aspalditik beren
fueroengatik kezketan zeuden.
Kendu nai zituztenak bazirala
ondotxo zekiten. Erregiña kanpo-
ra bota zuan iraulketak ere ez ote
zuan olako asmorik izango?

Pakea ere kolokan zebillela
adierazten digute bertso auek.
Ain zuzen, 1869 urteko uztaile-
an, Kataluñako Figueras eta Na-
parroako Iruñea Don Karlosen
alde altxatzeko asmotan ziran.
Baiña liberalak aurretik jakin eta
azpi-lana garaiz desegin zuten.
Partida batzuk ere agertu ziran

La Manchan, Extremaduran, Toledon eta beste zenbait tokitan, baiña menderatuak izan ziran.

Rada karlista jeneralak Bera aldetik mugaz onuzko aldera sartu eta Euskal Erria armetan ipin arazteko asmoak zituan. Baiña ontan ere liberalak arek zer zera-bilkian alde aurrez jakin zuten, eta Radak Frantzian gelditu bearra izan zuan.

Auek guztiak uztailla ezkeroztik gertatu ziran. Bertsoak, berriaz, urte asierakoak dira. Eta gerra etzan Euskal Errian benetan eta indarrean asi, 1872 urtea baiña leen. Ondo aurretik aditu zuan, beraz, Xenpelarrek gerra-usaia. Auxe baitegu bertso auek moldatu zituana.

Iraultzak, leen esan bezela, urriaren 8-an osatu zuan gobernu berria; eta, leen esan bezela, onek andik lau egunera, illaren 12-an, jesuitak erbestera bialdu zituan. Ontaz ere zerbait esaten du Xenpelarrek.

Beste zenbait bertsoan adierazten danez, gobernu berriak apaizak beren lanak debalde egitea nai zuan. Orren kontrako iritzia ematen du gure bertsolariak.

Bertso auek kanta-paperetan zabaldu ziran, baiña egille eta moldiztegi-izenik gabe. Ez da arritzekoa, emen esaten diran guziak etziran gobernuaren gustokoak izango eta.

Bertso-paper ori, dudarik gabe Xenpelarren denborakoa, Donos-

tian arkitu genduan, Joakin Yri-zar jaunaren liburutegian.

Eskuz idatzita, Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu genituan. Yrizarrenak eta Aranarenak alkarren artean aldaketarik ez dute, *fonetismo* batzuk izan ezik. Eta, ortaz gaiñera, azken bertsoaren irugarren lerroa onela du Aranak: Carlosi entregatu.

Bertso auek Xenpelarrenak dirala, beste ainbestetan bezela, Makazagak esan zuan leenengo aldiz, 1932 urtean, *Bertsolariya* astekarian. Geroztikako argitalpen guziak ori bera diote. Makazagak, seguru aski, Errenteriako garai artako bertsozaleen aotik jasoko zuan berri ori; eta, nere iritzirako, ontzat ar genezakeana da.

Makazagak amaika bertso eskeintzen ditu, eta aldaketa askorekin. Gure iritzirako, bertso oiek norbaiten aotik jasoko zituan. Esan ere, aretxek esango zion bertso auek Xenpelarrenak dirala.

Geroztikako argitalpenak ere ori bera dute: bertso gutxi eta aldaketa asko. Inongo paperetatik ez, baiña norbaiten aotik jasoak dirala señale garbia, noski.

* * *

Leenengo doiñua Errenteriako Juan Zabaleta bertsolaria zana-ren kuaderno batetik artua degu.

Ikus 4-garren doiñua, azken orrialdeetan.

Bigarrena, Juan Zabaletaren alarguna zan Monika Galarragak kantatu eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak solfeoz idatzia.

Ikus 5-garren doiñua, azken orrialdeetan.

Irugarrena, Ondarrabian jasoa, Azkueren esku-idatzietan arkitu degu.

Ikus 6-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Bertsolariya astekariak, bere 29 zenbakian, 1932-IV-3-koan, sail ontako amaika bertso argitaratu zituan: 1, 2, 7, 4, 9, 10, 15, 11, 12, 3 eta 16-garrena, ordena ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 2/3: bañan lengo zarretik; 2/5: lege oietan gauden; 3/1: Alaba ta Bizkaia; 3/5: orra iru probentzi; 4/3: zarrak juramentua; 4/4: eman ziguten len; 7/4: ez nai dute-la ill; 7/7: oraindik asuntuan; 9/1: Notiziya berriyak; 9/5: nai ez bazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 10/3: jolas txarrak banatzen; 10/4: kalietan lasai; 10/5: apaizarikan eztu; 10/6: iñork ikusi nai; 11/3: bai eta iltzen dana; 12/5: lana egin gogotik; 12/7: alperrik ez da iñor.

Iruñeko *Barón de Montevilla* zanaren bilduman, sail ontako bederatzi bertso arkitu ditugu: 1, 3, 7, 9, 10, 11, 12, 4 eta 16-garrena, ordena ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat pasa dute; 1/7: iya, mu-

tillak, gauden; 3/1: Araba ta Bizkaian; 3/3: Gipuzkoatik ez gaude; 4/3: zarrak juramentua; 4/4: eman ziguten len; 7/3: lengo fuerorikan; 7/6: aiek beti abil; 9/1: Notiziya berriyak; 9/5: nai ezpazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 10/3: kanpuetan kontari; 10/4: dabiltzanak lasai; 10/5: sazerdoterik ere; 10/6: ez dute ikusi nai; 10/7: pikarditan dabil-tzan; 11/6: jornalak artzia; 11/7: orduan alperrik da; 16/6: atzera dedilla.

Errenteriako Juan Zabaleta bertsolaria zanak, eskuz idatzitako orri batean, sail ontako zazpi bertso zituan: 1, 4, 11, 12, 3, 7 eta 9-garrena, ordena ortan. Aldaketak: 1/3: asunto bat para dute; 1/7: iya, mutillak gauden; 3/1: Alaba ta Bizkaia; 3/5: orra iru probintzi; 4/3: zarrak giyamentua; 4/4: eman ziguten len; 9/1: Notiziya berriyak; 9/5: nai ez bazuten lengo; 9/6: legerikan galdu; 11/7: orduan alperrik da.

Errenteriako Pello Zabaleta bertsolaria zanak sail ontako zazpi bertso buruz zekizkian: 1, 2, 7, 10, 11, 12 eta 15-garrena. Aldaketak: 1/2: irurogei ta zazpiyan; 1/3: asunto bat sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 2/3: bañan lengo zarretik; 2/5: lege oietan gauden; 7/7: oraindik asunto au; 10/3: jolas txarrak zabal-tzen; 10/4: kalietan lasai; 10/5: apaizarikan ez du; 10/6: iñork ikusi nai; 10/7: pikarditan dabil-tzan; 11/3: bai eta iltzen dana; 12/3: aber ote dabil-tzan; 12/5: lanian nekatuz; 12/7: alperrik ez da iñor.

Tolosako Manuel Urreta zanaren pa-peretan, sail ontako bi bertso azaldu dira, 11 eta 12-garrena, paper zaar xamar batean kopiatuak, aldaketa auekin: 11/2: aurrak bataiatzia; 11/3: eta gañe-ra illak; 11/7: orduban alperrik da;

12/1: Barbero, sendakiñai; 12/5: lanian nekatuta; 12/7: iñor ez da orreta; 12/8: saiatzeko zale.

Bertso bakoitzaren azpian onako *es-tribillo* au dakar:

urra yabiru yabiru yabirule,
urra yabiru yabirulete.

Ortaz gainera, besteetan arkitu ez ditugun bi bertso auek dakarzki:

Tabernarik taberna
dabiltzan sagubak,
bigote ta perilla,
bizar zerratubak;
oiek baldin badira
fede-ukatubak,
guk adora dezagun
Jaungoiko Santuba.

Urra yabiru...

Kartzela egiña da
gizonarentzako,
gaizki egin guziyak
ajola uzteko;
ez bada libertaderik
karlistarentzako,
debeka dezatela
liberalentzako.

Urra yabiru...

Bertso onen erdia gainetik tatxatuta dago, eta saietsean beste onela irakurtzen da:

libertadea dute
nai duna egiteko,
debeka bada orduban
liberalentzako.

Jauregi'tar Luisek, *Xenpelar bertsolaria* liburuan, sail ontako lau bertso ditu: 1, 4, 15 eta 6-garrena, ordena ortan. Al-daketak: 1/2: irurogei ta zazpiyan; 1/3: asuntua sortu da; 1/5: gerra kalte degula; 1/7: Euskal-erriyak daude; 1/8: bere dezentziyan; 4/4: giyamentu emen len; 6/1: Orra nik klaro esan; 6/8: litzake onena; 15/1: Alkar ikusi nai ez.

Eta besteetan arkitu ez degun bertso au ere bai:

Orain ikusten dira
zenbait tuno bakar
kalietan ijuka:
"Viva la libertá!".
Neonek galdetu det:
"Gauz onek zer dakar?".
Gezurra esan didate
amabitik amark.

Jauregik *amar* idazten du. Baiña dukarik ez da *amark* bear duala.

(1869)

“Iya guriak egin du...”

1

Iya guriak egin du,
badegu zeñek agindu;
ez oraindik umildu,
alkarregana bildu;
gerra nai duben guziya,
berari kendu biziya.

2

Okasiyua prestatzen,
lotan daudenak esnatzen;
etzait neri gustatzen
maliziyari jostatzen
iñorekin ibiltzia;
ark merezi du illtzia!

3

Gerraren billa gau t'egun
etsaiak arturik lagun;
arrazoi ote degun
edo zer datorkigun
Zasitzerako pentsatu
fusillak nola dantzatu!

4

Ez naiz ni gerraren zale,
baizik pakearen alde;
zeñek nai duen galde,
berari tira dale,
bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan!

5

Umildadean alkarri
errespetua ekarri;
lege eder bat jarri
bizi gaitezen garbi;
ori deseo nuke nik,
ixuri gabe odolik!

6

Gaitzak gerade umiltzen
eta pakean unitzen;
ez da errez ibiltzen
anaiak alkar illtzen,
zer dan entenditu gabe;
ortan galduko gerade!

7

Gu gera iru probintzi,
lengo legerik ez utzi;
oieri firme eutsi,
naiz anka bana autsi;
jaioko dira berriyak,
gu gera euskal erriyak!

8

Alabes eta bizkaino,
gu gera gipuzkoano;
aitak il ziran baño
semeak oraindaño
legea degu guardatu;
letra zarrik ez ukatu!

*Frantzisko Petriarena
(Serpelar)*

* * *

Bertso auek aurrekoen gai be-
ra dute: pakea eta lege zaarrak.

Luis Jauregi apaiz jauna za-
nak onela esaten du bertso auen-
gatik *Xenpelar bertsolaria* libu-
ruan:

“Gerrazale jauntxoak, Xenpe-
lar’ek bertsoekin egiten zien kal-
tea -beren asmoak aurrera era-
mateko, alegia- ikusirik, beren
begien aurretik kentzea erabaki
zuten.

Jaungoikoak eraman ez bazuan gaxotasunez, edo Iparragire'k bezela atzerrira jo bearra izango zuan, edota ilko zuten noski baño noskiago".

Ainbeste denboran Xenpelarren illobarekin bizi izan zan Florentina Pérez Salaberriari txetasun ontaz galdetu genion eta onela erantzun zigun:

— Ez dut aditu. Bestela esaten zuen gureak —Xenpelarren illobak alegia—, emen manifestazioak eta abar izaten ziranean: "Gaur bizi izan bazen nere osaba, ilko luteke! Ez litzake ixilduko; berak onela esaten zuen: "neregatikan esango dute pikaro mingaiñ luzia". Ura etzen ixilik egongo; esango lituzke orain ere esatekoak, eta onezke-ro il zuten!

Xenpelarren illoba oso karlista baitzan, esan bearrik ez dago zer manifestazio izango ziran oiek.

Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna zan Monika Galarragari ere galdetu genion, baiña ez omen zuan olakorik ezer entzun; Jauregik dionik, alegia. Onela esan zigun:

— Nere amona Xenpelarren edade-edadekoa zan, eta auzo-azokoa gaiñera, Bordatxo baserrikoa. Alkar asko ezagutzen omen zuten. Ta gure amona orrek esaten zuen bertso batzuk bazituela Xenpelarrek, liberalak gogor artu eta jarri araziak. Baiña ez dakit zer bertso diran oiek.

Ez genduan, beraz, galdezka ibili ondoren, gauza garbirik aterra. Eta orain berandutxo izango da, nik uste, iñondik argibiderik ateratzeko.

Batzuek Xenpelarrek politika-gauzetan zer iritzi izan zuan galdetzen dute.

Aurreko bertsoetan, zazpigarrenean, onela dio berak:

Liberalak diyote
egoteko umill,
lengo lege zarrikan
eztutela nai ill;
gu tontuak bagiña
oiek beti abill...

Ez du, beraz, bere burua libe-raltzat jotzen.

Oraingo sail ontan, berriz, gerra eta edozein indarkeriren kontra itzegiten du. Eta dudarik ez da karlistak obeto asmatuko zutela, aren esana egin izan balute.

Ez bat eta ez bestea, beraz. Gure ustetan, Xenpelarrek bere burutik sortzen zituan bere irizpideak. Esate baterako, iturria etxean zuan, eta etzeukan uretara auzora irten bearrik.

Orregatik, ez derizkiogu Xenpelar zer koloretakoa zan begiratu bear diogunik, baizik-eta zer esaten duan ondo gogoan artu. Aren bertsoak ikasbide ona dute gu danontzat ere.

* * *

Bertso auen iturririk zaarrena, guk arkitu ditugunetan, Irunen, Valverderen alargunaren moldiztegian inprentatutako bertso-paper bat da. Baiña Xenpelar il eta askoz geroagokoa da. Izenburuak ere onela dio: *Kanta Zarrak*.

Arrezkeroztik makiña bat aldiz argitaratu dira, baiña batetik bestera aldatarik batere ez dutela. Orregatik, ez degu oarretan argitalpen oiek izendatzea beste lanik izango.

Xenpelarrenak dirala, berriz, paper guziak diote. Ez, ordea, besteetan bezela izenburuaren ondoan egillearen izena idatziz, beeko barrenean firma bezela izen-abizenak eta izengoitia erantsiz baik. Eta izenaren aurretik gurutzetxo bat ipintzen diote, illa zala adierazteko-edo.

* * *

Leenengo doiñu au Makazagaren *Xenpelar'en bertsuak* liburutik artua degu. Oni kopia diote bertso auen doiñua argitaratu duten guziak.

Ikus 7-garren doiñua, azken orrialdeetan.

Bigarren doiñua, Goizuetan jaso, Azkueren esku-idatzietatik artu degu.

Ikus 8-garren goiñua, azken orrialdeetan.

Irugarrena ere, Azkueren esku-idatzietatik artua.

Ikus 9-garren doiñua, azken orrialdeetan

Laugarren doiñua, irugarren bertsoarekin, Aita Donostiaren *Cancionero Vasco (Donostia, 1994)* bilduman arkitu

degu, 497 zenbakian, onako argibide auekin:

Infor.: Bautista Tellería, natural de Biriatu (Iduzkiarria), que vivió 28 años en Irún. Loc. rec.: Sara. Fecha: 25 de octubre de 1933.

Ikus 44-garren doiñua azken orrialdeetan

* * *

Bertso-papera, "*Imp. de B. Valverde. - Irún*", Bodleyan Library, Oxford.

Bertso-papera, "*Rentería: Tip. Vda. Valverde*", Florentina Pérez Salaberria, Errenteria; baita ere bertako Enrike Eliztxea.

Bertso-papera, "*Imp. "La Económica", Callejón de Arroca, letra B, bajo (Amara)*", Manuel Urreta zana, Tolosa.

Bertso-papera, "*Imp. Macazaga. - Rentería*", Adelina Sarasola, Lexo bertso-lariaren alaba, Antigua, Donostia.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Jose Maria Esnaola, Tolosa.

Xenpelar'en bertsuak liburua, Makazaga, Errenteri, 1931 urte inguruan.

Bertsolariya astekaria, 16 zenbakia, 1932-I-3.

Euskal-Erriko kanta zarrak, Tomo I, Makazaga, Errenteria.

Jauregi'tar Luis: *Xenpelar bertsolaria* liburua, Itxaropena, Zarautz, 1958.

Euskal Kantak, Donostia, 1959.

Euskal Kantak, Bilbo, 1960.

Mariya, Imprimerie M. Mendiburu, Bordeaux.

(1869)

“Lezio bat formatzen...”

1

Lezio bat formatzen
bear nuke asi,
gogua daukanari
ezin galerazi;
erejeak bezela
askok nai degu bizi,
Jaungoikoagandikan
gabiltza igesi,
laster degula nago
Luzifer nagusi.

2

Kondiziyo gaiztoak
ezin dira aztu,
libertade geiegik
ez bizi poztu;
relijiyo santuba
nai digute ostu,
noizerebait kargubak
artuko dira estu,
orduban damutubak
baliyoko eztu.

3

Ai itxuturik dauden
juiziyo gabeak!
Zenbait sufritzen digu
guztiyon Jabeak!
Mudatu nai ditue
len ziran legeak,
ortikan ez daukagu
ondoren obeak,
oiek serbitutzekoz
egin du gureak.

4

Bizi bear degula
lege berriakin,
ondo luzituko da
ezer gutxirekin;
orretara ez dago
gustorik gurekin,
mejorarik degula
ezin degu jakin,
naiago degu bizi
lengo fueruakin.

5

Relijiyua galtzen
dira aumentuak:
debekutzen elizak
eta konbentubak;
munduban egiñ arren
beren kontentubak,
kastigatuko ditu
Jaungoiko santubak,
Judasen adiskide
desgraziyatubak.

6

Jesusen legeari
nai dionak eutsi,
libertade gaiztoak
bazterrian utzi;
bañan oriek gabe
ezin degu etsi,
beñere juiziyoz
ezin gera jantzi.

7

Españaiko jende
determinatubak,
ez degu izan bear
deskuidatubak;
asko gaude etsaiak
buruban lotubak,
biar baño geiago
indarra artubak,
relijiyoa zer dan
atera kontubak.

8

Botuakin gabiltza
desordenatubak,
tonto guziyak daude
erreatubak;
obratik gaude ondo
eskarmentatubak,
liberal oiek ere
ez dira santubak,
botuak zeñi eman
atera kontubak.

9

Beren alderditikan
ustez dauden sano,
pentsatzen ez dutela
joko dute fondo;
oiek emanagatik
zenbait agirando,
geren kontzientziyan
begiratu ondo,
ez botorikan eman
liberalen bando.

10

Lege berri bat nai da
protestantiena,
orrek ematen digu
biotzean pena;
lengo kostunbrea da
guretzat onena,
badakigu bestela
galdubak gaudena,
noizbait oroituko da
deskuidatzen dana.

11

Oientzat nai lirake
eliza berriyak,
zer deseatzten duten
gaude igarriyak;
oraindik ez daude
konpleto jarriyak,
badabiltza enredo
ikaragarriyak,
liberalen artetik
dira etorriyak.

12

Español umanuak
peligroso gaude,
oraiñ arkitzen gera
erregerik gabe;
oponiyo gogorrak
gure artian daude,
gauzak erreunitu
ez al dira obe?
Tokatzen dana jarri
gradu orren jabe.

13

Karlos setimo jarri
dezagun kortean,
au disponitutzen det
nik nere artean;
Isabela egon da
ainbeste urtean,
orain aldegin digu
sinpleza batean,
españolak gorputz bat
unitu gaitean.

14

Biba gure Karlos eta
lengo fuero zarrak,
berri oietan zenbait
eztira ederrak;
penatzen gaitu oiek
serbitu bearrak,
oraingo pozak ditu
geroko negarrak,
despeida onik eztu
asiera txarrak.

15

Desterratu ditzagun
bizio gaiztoak,
utsa balio dute
munduko gustoak;
eman bear ditugu
txit kontu estuak,
eztegu izan bear
orretzaz aztubak,
presentatuko ditu
Jaungoiko justubak.

16

Relijiyo santuba
ez dezagun galdu,
au zorua ez danak
adituko al du;
ez kostunbre txarrari
iñola ere eldu,
Jesusen konpañiara
obe degu bildu,
ez enfernubagatik
zerurikan saldu.

17

Pekatarari gogorrak,
sinistatu, arren,
guretzat justizia
zeiñ zorrotz datorren;
konsideratu zeñen
peligroso gauden,
geren penitentziak
kunpliturik emen,
Jesusekin gloriak
gozatzeko, amen.

* * *

Bertso aukeratuak ere 1869 urtearen asierakoak dira, onen aurreko beste sail oiek bezela.

Ontan esaten danez, "erejeak bezela askok nai degu bizi"; "relijiyo santuba nai digute ostu"; elizak eta konbentubak debekatzen ari dira; "lege berri bat nai da protestantiena" eta abar eta abar. Gobernu berriak, izan ere, leen esan bezela, *libertad de cultos* deritzaiona ekarri nai zuan, eta bertsolariak orren aurkako arrazoiak azaltzen ditu.

Botazioak aitatzen dituzte 8 eta 9-garren bertsoak. Auteskundera oiek, leen ere esan degunez, 1869 urtean izan ziran.

Urrena, 12-garrenak dionez, Isabel II aldegin eta Espainia erregerik gabe dago. Auek ere 1869 urteari dagozkionak dira.

Eta, 13-garrenean, errege-aulkirako Karlos zazpigarrena eskatzen da.

* * *

Amazazpi bertso auek, Chicagoko *New Library*-n arkitu ditugu, Bonaparteren bilduman, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Izenbururik ere etzuten; eta or goien ezarri deguna leenengo bertsoaren asiera da.

Seigarren bertsoak bi lerro falta ditu. Moldiztegiaren okerren bat izango da, gure iritzirako beintzat.

1869-ko Konstituziyua

Kantartea

*Konstituziyuaz
da España erori,
ill bedi betiko
paper tzar ori.*

Kantaldiak

1

Eziñ guk kontatu,
eziñ benetan,
zenbat gaitz diraden
paper orretan.
Luzbelek sorturik
inpernuetan,
berak zabaltzen du
bazter danetan.

2

Etziran ainbeste
izugarriyak
Ejipton ziraden
zazpi izurriyak,
Sodoma uriko
sugar biziya,
eta ur-ujolde
ondagarriyak.

3

Ori diyo etsaiak
milla dearrekin,
leize bi irikirik
orroarekin;
leize bi miñezko
euzkia aiekin
ez begira nairik
dago odeiekin.

4

Bata da naigabe
ta odolezkua,
bestea tristura
negarrezkua.
Eta, ai!, su-leizera
zuzen dijua
milloika jendea
gizonezkua!

5

O mundu guziko
gaitzen semea,
oker da txarkeriz
dana betea!!!
Inpernuko subaz
betiko errea,
madarikatua
izan zaitea...

* * *

Ikus 10-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Bertso auk Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azalduak dira. Eskuz idatzita daude. Egillearen izenik ez da esaten.

Konstituzioa 1869-ko garagarrillaren 1-ean onartu zan, eta 6-an legetzat atera. Ordukoak dira, beraz, bertso auk, Konstituzio ori begi onez ikusten etzuan batek jarriak.

Baiña erderazko beste bertso batzuen itzulpena dira. Ona emen erderazko oiek:

LA CONSTITUCION DE 1869

Coro

Pues hunde a la España
la Constitución,
"¡Muera por siempre!"
grita la nación.

Estrofas

1/ *Que no hay ya guarismos
ni discursos tales
que sumen los males
del sucio papel.
Le abortó el averno,
y a incendiar el mundo
con él furibundo
corre Luzifer.*

2/ *Ni las siete plagas
del rey obstinado
que en el mar hinchado
cual plomo se hundió,
ni voraces llamas
de ciudades viles,
ni desastres miles
del diluvio atroz.*

3/ *La proclama el monstruo
con fragor horrendo,
dos lagos abriendo
de inmenso dolor;
dos lagos horribles
que, por no alumbrarlos,
que, por no mirarlos,
se encapota el sol.*

4/ *El uno ondeante
de sangre y quebranto,
y el otro de llanto
y acerbo gemir.
Y, ¡ay!, que al hondo abismo
va precipitando
con el negro bando
las almas sin fin.*

5/ *¡Oh peste engendrada
de toda insolencia,
de toda indecencia,
de toda maldad!
Fuego te devore
consumida en teas,
y maldita seas
por siempre jamás...*

Euskerazko bertso auek, erderazko-rik gabe, *Egan* aldizkarian agertu ziran, 1975-ean, Patri Urkizuk Parisko Liburu-

tegi Nazionalean arkitu eta kopiatuta. Eta bertsoen ondoren onela dio: *par Mr. Demarq, fils, p. 70.*



Don Karlos, Parisen, 1871 urte inguruan, fotografia Nadar.
(Jose Maria Tuduriren artxibotik.)

(1869)
Bertsu Berriak
laukoetan esanak sopra egia dana

1

Liberalak apaizak
kendu nai dituzte,
pobrien mesedian
ez dala nik uste.

*Ai, ai, ai, mutillak,
ez dala nik uste.*

2

Zerurikan espero
ez dutenen lanak:
apaizak gorrotatu,
kendu amarrenak.

Ai, ai, ai, mutillak,...

3

Apaizak maite ditu
fedea duenak,
kentzen diozkalako
biotzeko penak.

Ai, ai, ai, mutillak,...

4

Esan bear didazu
klaro ta fede onez
sinisten dezun ala
Eleizan edo ez.

Ai, ai, ai, mutillak,...

5

Gloriako atea
esaten du Eleizak
idikitzeko ala
daukatela apaizak.
Ai, ai, ai, mutillak,...

6

Eleizari kenduta
berentzako artu,
maizterrari itz onak
bañan ez barkatu.
Ai, ai, ai, mutillak,...

7

Amarrenak, gañera
kontribuziyua,
pobrien onerako
beltzen leziyua.
Ai, ai, ai, mutillak,...

8

Apaizari eman ez,
maizterra kargatu;
zer nai lutekean
dezute ezagutu?
Ai, ai, ai, mutillak,...

9

Apaizak pobretuta
pobriak zatitu,
jaun oien desiua
ondo da agertu.
Ai, ai, ai, mutillak,...

10

Apaizak zererebait
sobra zutenean,
etzan kalte izaten
pobrien artean.
Ai, ai, ai, mutillak,...

11

Orañ bizi dirala
apaizak pobrezan,
len bezin emalleak
nai ta ere eziñ izan.
Ai, ai, ai, mutillak,...

12

Apaizak pobretuta
zuk, pobre tritea,
ez dezu mesederik,
beltzak bai ordea.
Ai, ai, ai, mutillak,...

Bertso auek ere 1869-ko Konstituzioari buruz moldatuak dira. Gai nagusia, lege berri orrek Elizari eta apaizei ekarriko dien kaltea da.

Ori zala-ta, bertso auen jartzaillea ez-ezik, berte gizon asko ere kezketan ziran. Ona, adibidez, zer dion Pedro Aguado Bleye-k bere *Manuel de Historia de España* liburuan:

“El artículo discutido con más ardor fue el que establecía la libertad de cultos, y en más de nueve mil escritos con tres millones de firmas se pidió que la religión católica fuese la única tolerada. La libertad de cultos quedó, sin embargo, incluida en la nueva Constitución, que fue aprobada el 1 de junio de 1869 por 214 votos contra 55, y se promulgó solemnemente el 6 de junio.

Esta Constitución reconocía la libertad de cultos, en público y en privado, sin otras limitaciones que las impuestas por reglas universales de moral y derecho...”

* * *

Bertso auek, eskuz idatzita, Aita Jose Inazio Aranaren bilduman agertu dira.

Bertsoen egillea nor izan zan ez da esaten.

Bukaeran onako argibide au ematen zaigu: N. B. *Vide el Periódico “La unión vasco-navarra”, 3 Oct. de 1869, Vitoria.*

Aalegiñak egin ditugu *Unión Vasco-Navarra* ori inun arkituko ote genduan, baiña alperrik.

* * *


Bertso auek *Egan* aldizkarian argitaratu ziran, 1975-eko 1-6 zenbakian, Patri Urkizu-k Parisko Liburutegi Nazionalan arkitu eta kopiatuta.

Bertsoen azpian onako oar au irakurtzen da: “Geiago ere badira. Oiek argitaratu dira papel *Unión Vasco-Navarra* deritzanean. Urriaren 3n 1869gn”.

Itxura danez, bai Aita Jose Inazio Aranaren era, eta bai Parisen dagoana, iturri beretik datoz. Aita Aranak bilduko zituan, alegia; eta, oar ori ipiñi ondoren, paper bat beretzat gorde, eta bestea D’Abbadie edo olako beste euskaltzale-ren bati bialdu.

Bai paper oiek alkarren artean aldaketarik ez dute.

* * *



Karlistak, 1872-1876 gerratean, R. Balaca-ren marrazkia.
(Jaime del Burgo: Veteranos de la Causa, San Sebastián, 1939.)

“Kanonigo bat ere...”

1

Kanonigo bat ere
esango det nola,
bere bigotiekin
Sr. Manterola.
Apaiz oriyek
ibiltzia orla:
bizarra ezpañetan,
bonetian borla;
Jainko Jaunarentzat
bitarteko ona.

2

Kaballerua orrentzat
ze aditu duban,
esplikatu biar det
al dedan moduban,
zerurako bidea
zer nola daguan:
neskatxa bat arturik
bere inguruan,
orra apaizak nola
dabiltzan munduan.

3

Obispuak esan diye
apaiz guziyari
ez argitzen uzteko
inozentiari:
“Gauza txarra izango dek
guretzako ori,
lanian oriyek
biar ditek ari,
izerdiya kendutzen
guretzat lurrari”.

4

Apaizak esan dute
guziyak berentzat:
“Alderdi bat bakarra
ziagok guretzat:
jendia engañatzia
Karlos setimorentzat;
bestela asitzen bada
bakotxa beretzat,
eztik inork ekarko
deus apaizarentzat”.

5

Iya, bada, jendiak,
esnatu zaitezte,
ez apaizari uzteko
gauza gobernatzen.
Ez al dezute ikusten
zer nola dabilten,
zuren fruto guziyak
Elizara biltzen?
Berak neskatxa ederrak
etxian serbitzen?

6

Gauz oiek aritu eta
badet sinistia
jende itxu tristia
zerbait argitzia.
Gauzarik onena da
Jaunari eskatzia,
eta projimo guziyak
alkar serbitzia;
au da zeruretako
bidean jartzia.

* * *

Sei bertso auek Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldu dira. Eskuz idatzita daude. Paperaren eta letraren itxura naiko zaarra da; ziur asko,

bertsoak jarri ziran denborako kopia izango da.

Bertsolaria, Bizente Manterola apaiz eta kanonigoaren aurka asten da; eta gero apaiz guzientzat

gaizki esaka segi. Leen ere esan degunez, apaizik geienak karlisten alde zeuden; eta liberalak eliz-jendea begitan artuta zeukaten.


Bizente Manterola ori donostiarra zan, 1833 urtean jaioa. Isabel II bota zutenean, Don Karlosen alde gogotik asi zan, bai Españian eta bai atzerritik ere, bai gerra aurretik eta bai gerra-denboran ere.

Oso izlari trebe eta iaioa omen zan, eta eztabaida famatuak era-

bili zituan Castelar politikariaren aurka Madrilko Batzar-etxean.

Liburuxka batzuk ere baditu idatziak. Toledon egin zituan bere azken urteak. Alba de Tormesen il zan, 1891 urtean. Aren ezurrak Donostiara ekarri zituzten orain urte batzuk.

Bertso auek ez dute gerrarik aitatzen. Aitatuko luteke noski, asia izan balitz. Orregatik, gure iritzirako beintzat, gerra aurretik jarriak izango dira.



Bizente Manterola kanonigoa (1833-1891). (Enciclopedia Auñamendi.)

(1869)

Bertso Berriak

1

Aspaldi (y) ontan nago
jartzeko bertsuak,
esplikatu nayian
dauzkagun kasuak;
soltatu al bagentzazke
oraingo lazuak,
izango giñake gu
danok ditxosuak.

2

Ditx au falta degu ta
au pesadunbria,
ikusirik Frantziyan
español jendia;
juiziyo gabeko
gizon bat gordia
daukate, jarritzeko
gure erregia.

3

Igelak falta dute
berentzat errege,
an ere ametitzen
baldin badute ere;
bazegokian onuntz
pretenditu gabe,
zergatik aren faltik
eztegu batere.

4 Perjuizio franko
gure Españiak
izan ditu iñon diran(1)
ezin ikusiak;
ematen ari gera
Jaunari graziak,
bota ditugunean
Borbontar guziak.

5 Urte bete laister da
gaudela esperan
erle-kuadrilla ori
etorriko ote dan;
aditzea badegu
daudela fronteran,
orain ez dakigu zer
pasatzen ote dan.

6 Beti dabil onera
sartzeko abiyen,
zer egiteko dauka
orrek Españiyen?
Gertatu geranian
zerbaiten premian,
orreatik geroni
defenditu giñan.

7 Iñor ezta izaten
opinio gabe,
konsideratzen degu
dudarikan gabe;
bañon ori izatia
Españien jabe
pentsatzen dute eta
arriturik gaude.

8

Karlos setimo zanik
Espanian bostek
etzekitela nago,
nik ala uste det;
gu abandonatu ta
beti izandu dek,
orain pretenditzia
gauza polita dek.

9

Izan balitz Karlitos
español noblia,
etzitzaigun egongo
Frantzian gordia;
serbizio gabeko
talentu gabia,
pentsatzen du izatia
gure erregia.

10

Erotu egin zaio
Don Karlos jaunari,
lastima degu bere
daukan jendeari;
gure anai maitiak,
pentsaturik ongi,
atozte guregana,
utzi zazute ori.

11

Badakizute sopra
orren naziyoak
nola eman zizkigun
persekuziyoak;
apuntaturik daude
onen aziyuak,
billa gabiltza orain
erremeryuak.

12

Amabi bertsorekin
alegra gaitian,
etzagun penik pasa
español artian;
esan zagun bibaka
guziyak batian
“Biba gu ta gutarrak!”
aboa betian.

* * *

Amabi bertso auk Errenteria-ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman agertu dira. Kanta-paper bat da.

Orri ori jira guzian guraizez ebakita dago. Orregatik, ez daki-gu moldiztegi izenik bazuan ala ez. Orain dagoan bezela, ez du olakorik ezer.

Bertsoak nork jarriak diran ezin esan, paperak egillearen izenik ez baitu. Baiña irugarren bertsoak onela dio: “Igelak falta dute berentzat errege”. Esopo-ren ipui edo *fábula* baten aitamena da ori. Orregatik, guk uste, Donostiako gizon ikasiren bat izan-go da, ez mendiko bertsolari bat.

Laugarren bertsoak onela dio: “Bota ditugunian Borbontar guziak...”. Borbontarrak ziran, Don Karlos ez-ezik, Isabel II eta Alfonso XII ere. Beraz, oietakorik gabe zegoan orduan España.

Isabel II, dakigunez, 1868-ko iraillaren 30-an bota zuten España-tik. Urrena, *Gobierno provisional* bat jarri zan; gero, Amadeo

de Saboya ekarri zuten; ondoren, Españaiko leenengo errepublika; azkenik, Alfonso XII-ren txanda, 1875-eko ilbeltzaren 14-an errege izatera Madrillera iritxi zana. Borbontarrak gabe, beraz, 1868-tik 1875-era egon zan España.

Bostgarren bertsoak, berriz, onela dio: “Urte bete laister da gaudela esperan / erle-kuadrilla ori noiz etorriko ote dan”. Erle-kuadrilla ori nortzuk osatzen duten, urrengo bertsoetan adierazten da: Karlos VII-ren gizonak. Onek 1868-ko urrian 3-an artu zuan karlisten buruzagitza, bere aitak, Don Juanek, artarako zitu-uan eskubideak pasa zizkionean. Urte bete ori ordutik asita al da? Ditekena da, eta orduan bertso auk 1869-koak izango lirake.

Bederatzigarren bertsoak Don Karlos Frantzian gordea egon da-la esaten du; eta amaikagarrenak, beraren nazioak pertsekuzioak eman dituala. Frantzestea gerraren aitamena da ori.

(1) Bertso-paperak: *dira*.

(1869-VII)

Euskal Erriyari ongi nai diyon batek

1 Euskal Erriyak alkarren kontra
utsetik dirade jira,
obe luteke opiniyuaz
azturik bizi balira;
tema txar baten bidez benetan
okerreratzen badira,
penaz biyotza ilko zait eta
ez naiz egongo begira.

2 Libertadien billa batzuben,
bestiak berriz igasi,
guztiz demanda aundiyan dira
zenbait alkarrekin asi;
len oso lagun ziranak ezin
dute gaur alkar ikusi,
ongi pentsatzen jarri ezkerotz
ematen dute itxusi.

3 Surabak negar egingo luke (*sic*)
okerrerako bagiña,
izugarrizko gauzak pasako
lirakela da jakiña;
gu aita zarren seme leialak
euskaldun onak bagiña,
ez okertzera bear genduke
denok egin alegiña.

4

Euskal Erriyak geren fueruak
gozatzen ditugun arte,
pakian bizi biar genduke
okasiyotik aparte;
zenbat geiago artu asarre
dabilenarekin parte,
orduban eta geiago degu
gerentzat egingo kalte.

5

Anaitasunik ez dute biar
iru probintziyak ausi,
norbaitek zarpa bota ta bera
izan ez dezaten nausi;
erromeritan ibilli obe
dute danboliñ ta guzi,
esanaz: "Biba pakia eta
pakian nai degu bizi!"

6

Gure legien inbiriz bizi
dira kuasikan guziyak,
eta gu geok gera kejatzen
lendabiziko asiyak;
ezaguerazko gizon prestuben
mende gaudela graziyak,
bestela sobra biar genduke
izan gaizki ikusiyak.

7

Lejitimua dala ta Karlos
nai du askok erregetzat,
Txomin paratzen badute ere
neri ardurarik etzat;
prueba aundiyak emango'ituben
bat da konbeni guretzat,
onena bañon oberik danik
neri iruritzen etzat.

8

Errespetatu ditzagun beti
agintzen dauden pertsonak,
non ta biziro txarrak ez diran
an jartzen diran gizonak;
gurekin gaizki ez daukanakin
guk izan biegu onak,
modu (b) ontara beti maiteko
gaitu agintzen dagonak.

9

Relijioa eta fueroak
beldur balira bezela,
demonioa dabil tartean
nastu bear gaituela;
ditugularik gauza eder biyak
billa ibiltzea orrela,
sinis nazute bururik ezak
galdu bearrak gerala.

10

Oso ondatu bañan lenago
Euskal Erriko jendea,
gogoan izan gerra guztia
dala fueroen galtzea;
kaltegarria gizon gaiztoen
predikuak aditzea,
ezinkizuna Karlos txorora
Españian buru jartzea.

11

Gure fueroak eta dotriñak
ez du agintzen kentzea;
guraso ona, esan zadazu
dan projimo amatzea
lapur gisara etorri eta
mendira erematea
ondo kostarik etxean lagun
zenduen seme maitea.

12

Gorde dira ta gordeko ditu
gure liberal jendeak,
guziok lagun egiñ ezkerro,
lege on pare gabeak;
ez esperatu ematerikan
zuen Karlos erregeak
beste gauzarik baserrietan
baizik miñak doloreak.

13

Zenbait alperren aboztua da
gerra eta pikardiya,
fedea oneko familiaren
elemento galgarriya:
nekazalea, esna zaita,(1)
denbora ere da iya,
bestela laster gañean dezu
merezitako jipoya.

* * *

Amairu bertso auk Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzitako orri-pare batean.

Izenburua ere badute: or goien ezarri deguna.

Bertsoen ondoren onela irakurtzen da: "*Donostiyan Uztaren amabostian 1869*".

Ziur aski, Manterolak bertsoak eskuratu zituan eguna adierazi naiko du.

Jarri ere garai ortantxe egingo ziran. Gauzak orduan baitzeuden emen adierazten dan gisan.

Karlistak mugitzen asiak baitziran; eta sail onen jartzailleak, bera liberaletako izanik, baserri-tarrei-eta etxean pake-pakean egon ditezen eskatzen die.

Manterolak ez du bertsolariaren izenik ematen; eta ori somatzeko biderik ez degu orain inundik ikusten. Baiña Ramon Artola ote dan susmoa datorkigu burura.

(1) Esku-idatzian: *zaita*.

(1869)

Bertso Berriak

1
Españian zer den gertatu
orai bear degu kantatu:
 reboluzioenez
 guan den urtean
erregeak tugu botatu;
bertzeik kartzeik ez pensatu.

2
Apez fanfarroi zenbaitek
desafioa bota'itek:
 Karlos errege,
 bortxaz bedere,
paratu bear ome'itek:
balore ona beaitek.

3
Jaunak, zer nai dezute
guzien kontra asita?
 Sotanak galduik,
 fusila eskuan
bela sasira laisterka?
Ori dezute yosteta!

4
Apezak, zer nai dezute
zuek errege bilatzen?
 Partikularki
 Karlos septimoz
nior eztelaik oroitzen?
Ori bai zaiku txokatzen!

5

Utzi Karlos Parisen,
lenago're an bizi zen.
Zer nai dezute
modu orretan
ola ibiliz burlatzen?
Ala ere etzate alketzen.

6

Geren faltaz naisitu
egin zaizkigu apezak.
Ez man olatik,
ez erresponsuik,
ez eta sosik mezentzat;
guarda dezagun gerentzat.

7

Ez dire apezak bakarrak,
baituzte lagun azkarrak;
aundimendiak,
ez galtzeagatik
lengo influjo ta indarrak,
egin dire karlostarrak.

8

Disimuloz obratuz,
opinio guztiak artuz,
zuzenki duazi
beren lanera
mundu guztia enganatuz;
bañan baguaz ezagutuz.

9

Beti orien bizia
izan da ipokresia;
mundu guztia
umil-umila
beren eskura kartzia
da oien lege guztia.

10

Karlosek baitu diruak
oriengandik bilduak,
paperen alde
eman tiozte
bakarra leven lekuan; (*sic*)
ala ere dire galduak.

- 11 Bonuak eta graduak
dirutan tuzte artuak:
ek ezin kobra,
ok ez balio
Karlos errege egin arte;
esperantza ona daukate.
- 12 Galduagatik diruak,
badute konsuelua:
paper oiekin
egin dezakete
gibeleko serbizioa;
orra deskite modua.
- 13 Apezak zer sujetuak
Kristoin dotriña laguntzeko!
Oiek bezala
denak bagiñe
eta ez fede geiago,
galdua zagon gargero.
- 14 Apezaren misionia
da bakea erakustea;
ez partiden bat
armatu eta
bera aitzindari atera,
gerra zibila piztera.
- 15 Bego ezpata bertzentzat,
isopoa da zuentzat;
predikó onak
ejemplo obeak
karidatea pobreantzat,
orra armak apezentzat.
- 16 Jesukristoren legea
dena da libertatea;
borondate onez
enkargatzen du
manamenduak guardatzea;
bortxaz ez du nai itea.

17

Fede onez kunplitzea
nork bere obligazionia,
makurrik gabe
geren dretxoak
elkarri respetatzea,
ori da libertadea.

18

Obispo eta kanonigo,
apez eta fraile,
zuek gurekin
oiu egin zue
zintzurak larrutu arte:
Viva, viva la liberte!

* * *

Emezortzi bertso auek, Gregorio Mujika zanaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude.

Egillearen izenik ez da inun esaten, eta ori somatzeko biderik guk beintzat ez degu ikusten. Auxe bakarrik esan genezake: euskera Naparro aldekoa duala, Bidasoaz iparraldekoa ez bada.

Ala ere, hatxerik gabe idatzi ditugu bertsoak. Gregorio Mujikaren idazkian ala baitaude.

Bertsolaria, bera liberaletakoa izanik, gauzak pranko okertzen asiak ikusten ditu, eta apaiz eta aundimendien errua egiten du.

Sail au noizkoa dan barrundatzeko, leenengo bertsoak ematen du bide. Onela baitio: "reboluzionez guan den urtean erregeak tugu botatu...". Monarkia botata zutela, alegia. Eta, leen esan

degunez, 1868-ko irailaren iraultzak egin baitzuan ori, 1869 urtekoak izango dira.

Amargarren bertsoak onela dio: "Karlosek baitu diruak orientandik bilduak...". Dirurik gabe gerrarik ezin egin baita, karlistak aal zuten tokitik biltzen asiak ziran. Ala, "bonuak eta graduak dirutan tuzte artuak...", amaikagarranak esaten digunez.

Baiña ori dana argituko digun pasarte, Unamunoren *Paz en la guerra* nobelan arkitu degu. Irakurleak jakingo duanez, liburu ontako gertakizunak garai ontan kokatzen dira. Artan, On Jose Maria apaizak eta Pedro Antonio konfiteroak alkarri onela esaten diote:

—Ya sabe usted que el triunfo de nuestra causa está cercano; hemos ganado al ejército, tienen además alarmado al

pueblo las blasfemias y atrocidades que se sueltan en las Constituyentes...

‘¿A dónde irá a parar este hombre?’, pensaba Pedro Antonio, nada alarmado por tales blasfemias.

—Pero para todo hace falta dinero..., hace falta dinero. Usted es uno de los buenos, y, además, no se trata de una cuestión, ¡no! Se trata de que usted tome algunas obligaciones.

—¿Qué obligaciones? —preguntó Pedro Antonio maquinalmente...

—Unas obligaciones de doscientos francos...

Al oír francos, Pedro Antonio, que contaba siempre por reales, ducados o duros, se sobrecogió.

—De doscientos francos, a cargo de Su Majestad Católica el rey don Carlos VII, autorizadas por él. Han de canjearse por un título definitivo de la Deuda Nacional Española, con el interés de tres por ciento, desde que Su Majestad el Rey haya tomado posesión del trono. Hasta que se le entregue a usted el título definitivo se le dará el cinco por ciento. Están emitidas en Amsterdam”.

Gai oni buruz onela dio Melchor Fernández Almagro-k bere *Historia política de la España contemporánea* (Alianza Editorial, 107, Madrid, 1968):

“Se intentó un empréstito con la Banca Cramer de Amsterdam; fueron gestionadas otras operaciones financieras, también en vano, y la suscripción entre los adeptos no era recurso que diese el rendimiento necesario para levantar un ejército y hacer una guerra. Don Carlos y su esposa Margarita de Borbón-Parma die-

ron ejemplo al comprometer sus rentas, enajenar sus joyas y reducir sus gastos en un pie de austeridad que tuvo imitadores”.

* * *

Tolosako Jesus Elozegi zanaren kuaerno batean, “nere aitari ikasitakoak” oarrarekin, sail ontako bost bertso agertu dira, 2, 7, 15, 14 eta 18-garrena, ordena ortan eta aldaketa auekin:

2/2: ixtillu ona jarri ditek; 2/5: paratu bear omen ditek; 2/6: ixtillu ona jarri ditek; 7/2: badituzte lagun azkarrak; 7/5: beren influjo eta indarrak; 7/6: egin ziran karlostarrak; 14/1: Apezen misionea; 14/2: duk pakea erakustea; 14/3: ez armak artu; 14/4: partidak altxa; 14/5: ez aien buru jartzea; 14/6: ez gerra zibilla piztea; 15/1: Utzi ezpata bestentzat; 15/2: isopua duk zuentzat; 15/3: prediku ona; 15/5: karidadea beartsuentzat; 15/6: oiek dira armak apezentzat; 18/1: Apaiz eta kanonigo; 18/2: obispo eta praille; 18/3: oi u egizute; 18/4: nekin batera; 18/5: zintzurra larurutu arte; 18/6: *vive, vive la liberté*.

* * *

Lekarotzen, Aita Donostia zanaren artxiboan, bigarren bertsoa azaldu da, onela ordea:

Apez panpar zenbaitek
desafioa bota'itek:
bortxaz bedere
Karl os errege
para biar omen ditek,
baloria ona, biar dute.

Eta beste bertso-puska au ere bai:

Don Frantzisko Azpiroz
Aldatz'ko abadia,
arek ekarriko du
Karlos erregia.

* * *

Andoaingo norbaitek —beraren izenik
ez genduan idatzi— eman zigun makinaz

idatzitako orri batean, sail ontako bi
bertso arkitu ditugu: 15 eta 18-garrena.

Aldaketak: 15/1: Utzi ezpata bestentzat; 15/3: ejenplu ona; 15/4: karidadia; 15/5: laguntasun beartsuentzat; 15/6: orra armak apaizarentzat; 18/1: Apaiz eta kanonigo; 18/2: obispo eta praile; 18/3: diar eizute; 18/4: nerekin batera; 18/5: eta zintzurra eten arte; 18/6: *vive, vive la liberté*.

(1869)

Garagarrillaren seia Konstituzio berriya(1)

Aur egiteko zegoan nunbait
España eder guztiya,
noiz edo noizbait orra jaioa
da sagu farragarriya.

(Izenezak)

Sei zortziko andi(2)

1

Seigarren aldiz gaur jaio zaigu
Konstituzio berriya,
ondatzeko bai, ez piztutzeko
España maite guztiya;
gañera digu liberal batek,
esan nairikan egiya,
jaio orduko libertadeaz
ezkondu dala galaya.(3)

2

Konstituzio gaixto orrekin
zer dator gaitza besterik?
Ez asieran, ez azkenian
dakar Jaunaren izenik.
Nai bada moro, nai bada ereje,
naiz erlijio bagerik,
gizon dianak aberetzeko
eziñ asmatu oberik.

3

Libertadeak egiazkoak
danak kendurik onari,
guztihak gorde gaixtoentzako,
bideak zabal berari,
lengo lepotik buruba duten
liberal oker xarrari.
Libertade txar, katibutasun
egiazkoa, ken ari...

4

Libertade orren aizkorarekin
moztuta daude fueroak,
bestela aspaldi proba ginduzen
beren prutu txit gozoak.
Alaz guztiaz ere digute
daudela oso-osoak;
gezurrak dira zuben esanak,
liberal inpernukoak.(4)

5

Euskaldun prestu antziñakoak,
lotsaz gorritu ez gaitean,
ixill-ixillik, arren, zaudete
obietako pakean;
zuben onra zan gorde fueroak
ta egon Kristoren legean,
arrokak baño iraungorrago
naiz bizitzaren kaltean.

6

Loiola, Loinaz, Elkano, Okendo,
millaka euskaldun goitubak,
zabiltzatenak izarrez izar
pasiatutzen zerubak,
esnatu, esnatu, Jaungoikuari
erantsirikan korubak,
errege on bat bidaldu deigun
ta izan gaitezen justubak. (Amen)

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bildumatik artuak ditugu. Orri batean eskuz idatzita daude.

Leen ere esan degunez, 1869-ko garagarrillaren 1-ean onartua izan zan Konstituzioa; eta illaren 6-an España guzira legetzat eman-na. Ori da sail onen gaia, izenburuak ere argi eta garbi adierazten duanez. Baiña bertso-jartzai-


lleak ez ditu lege berri oiek maitte...

(1) *Vide el periódico "La unión vasconavarra", 25 Nove. de 1869.* (Esku-idatzaren oarra.)

(2) Kontxeziren kanta doñuban egoki datozenak. (Id.)

(3) Alkate batek, egun ontan Donostian eman zuan bere itzaldi agirikoan. (Id.)

(4) *Inpernukoak* itza tatxatu eta goien beste au idatzita dago: *engañuzkoak*.



Zezenak, Donostiako Konstituzio Plazan, 1845 urtean. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1869)

**Madrideko Duke gaur deitzen dan
Don Karlos zazpigarrenak,
egin dion karta
Dn. Alfonso Borbon bere anaiari**

Nere anai maitea: gizon eta errege naizan alde ditudan sentimentu eta iritziak, agertu izan zaizka naikoa Espāñiari liburu eta papeletan. Bañan alaz ere, alde guzietatik eldu zitzaiztan gogoari toki emanik, eskribitzen det karta au, nun ez bakarrik nere anai biotzekoari itzegiten diot, baizikan ere bai espāñiar guziai, iñor laga gabe.

Ni ezin nezake, nere Alfonso maitea, agertu Espāñiako koro billa eta eskale, ez; nik sinistu bear eta sinisten det eze, legearen esku santuaz, nere-nerea dala, eta legez eta bekokiaren gañean ipiñia daukadala Espāñiako koroa. Jaiotzaz naiz errege, eta au da nere egin bearra edo obligazio sagradua; baña nai nuke jabetasunez dedan au, Espāñiako jendeak amorez sendotu deza-

la bere baimenarekin. Dana dala, ni beartua nago nere erriaren onera zuzentzera nere pentsamentu eta alegin guziak: edo ill beragatik edo bera salbatu.

Nik esatea Espāña guztiko eta ez alde edo partiduko erregea izatea dedala gogo, alferrikakoa da, zergatikan au litzake lotsagarria errege batentzat: batzueri bakarrik agintzea; ez litzake diñatua beretzat majestadea goibetua txikiturik eta despreziaturik agertzea guzien begietan. Nik bada bakarrik nai det izan espāñiar guzien errege; iñor ez det bota nai, ezda nere etsaia balitz ere; errege batek ez du etsairik; orregatik biotz-biotzez deitzen diet guziai, errian izenean; eta guzien bear ez banaiz ere nere guraso edo asabeen tronuan eseritzeko, asko ordea lagunduko lirake guz-

tiak alkaturik, sendotzeko zimendu onakiñ gobernu edo bizi-modua; onela izan dezan España guziak pake eta libertade egiazkoa.

Pensatzen deanean zer egin bear dan gauza aundi au iristeko, bildurtzen naiz nere barren guzian.

Badakit daukadana gogo guztizkoa eraso eta akabatzeko; baño baita ere txit dala larria eta pisu aundikoa; eta gizon justu eta jakintsuen argi bage, eta erreinuko korte edo batzaar, nun guzien interes eta indar bizia osoro ikusi bear danaren laguntza gabe, iñola ere ezin dala.

Nik, bada, Europako erregeai esana dedan bezela, emango diot Españari legeen fundamena, nere iritzian, betiko iraupenekoa.

Zuk eta nik biok batera ikasi genduan oraingo historia edo mundu berrikoa, oroitzen giñela zer gauza izugarriak igaro diran, izanik erregeentzat ikasikizunak eta jendeentzat eskarmentuak; ezagutzen genduen ere gizaldi bakoitzak sortzen dituala munduan oitura berriak eta premia egiazkoak.

Antziñako Españari zetorkion gauzak berritu bearra; oraingoan gerta dira goibera aundiak. Bota eta galdu, bai, egin da asko, eta gitxi berritu. Ill dira gauza zaar batzuek, eziñ berriz jaio diranak. Berri jarri diranak, argitara bezin len asi dirade galtzen. Egiñik ain-

beste, apenas egin da batere. Obra aundi bat, obra neurritz gañetikoa egin bearrekoa dago erreñu ondatu orretan, altxaturik antziñako zimendu sendoe-tan, nun alkartu deizkean bidezko interesak eta opinio arrazoizko guztiak.

Ez det, nere anaia, uts egiten, esaten badizut justiziaren gose eta egarria daukala Españaik; ezagutzen duala gobernu portitz onaren premia estu eta bearrekoa; eta txit asko nai duala, despita gabeko legeak menderatu daitzala bereala, ala txikiak nola aundizkiak.

Españaik ez du nai bere fede santua ofenditu edo injuriazterik; daki egia dala religio katoliko deritzaiona, eta ezagutzen du Eliza Santak, Jesu-Kristok agindu ziona egiteko, bear duala libre izatea eta jabe, animak gobernatzeko.

Aztu bage eta ondo jakiñik ere gaurko egunean ez gerala bizi orain iruregun urte bezela, ez du ordea Españaik nai bere religio katolika baizik iñola ere, izanik bera gure gloria guztiaren seña-lea, gure legearen izatea, eta españolaren arteko lazo bedeinkatua.

Denboral gisa, reboluzioetan igaro dira gauza izugarriak Españian; ala ere Aita Santuarekin egin diran alkartasunezko legeak, artu bear dira umill eta gorde leialkiro.

Eramankizunak erakutsi diote Españiari jakinduria, ezagutzeko egia bakarrik bear duala ondo izateko; errege egiazkoa, ez irudipenazkoa; korte zuzenak eta pakezkoak, erritarren ona billatzen dutenak garbiro; ez batzaar bullosoak eta antzuak, gobernuari amen egiten diotenak, geienak beren enpleo edo asmoakatik; eta gitxienak ere, kontra egiteagatik jaikitzen diranak.

Españiarrak beti nai dute ba-koitzak berak norberaren aldea gobernatzea, eta zuk, nere Alfonso maitea, ondo dakizu, nere gogo bete al izango banu, emango niekela probintzi guziaz euskal probintzi nobleko bizi-modu edo fueroak, zeñak kentzea edo aietarra igualatzea nai du reboluzioak.

Nik nai det erriak eta naiz probintziak berez goberna ditezela beren gauzetan; kuidado eukirik orregatik gai onetan izan leizkian modu bageko usuarioak.

Nere asmo edo gogo firmea da Españiari ematea ainbat itxuk enbusteriakin agindu eta ala be-arrak ez daukena, eta au da libertade, ez liberalkerikoa, zeña dan erejiena, baizikan egiazkoa edo Ebanjelioak dakarkiguna; da orobat lege justu eta Jaungoikoak eman al dezakeana bakarrik; libertade maitagarria España-
rentzat.

Guk, erregeen semeak izanik aitortzen genduan ez dala jendea erregerentzat, baizik errege aientzat; erregeak izan bear dua-

la gizonik prestuena, nola dan kaballerorik aundiena; erregea-
ren gloria eta onrarik aundiena dala pobreen aita izatea eta txi-
kien anparatzallea.

Dago ere Españian, nere anai maitea, beste gauza bildurgarri bat; au da bere azienda edo, argi-
ro esateko, zorra; zeñ gure España-
ñiakoa ikaratzekoa da; daukan guzia ez da asko onetarako; mal-
karrot deritzaiona gañean da; ez dakit, nere anaia, gauza izugarri au iñork onera ekarri al balezake; baño egin al baliteke, baka-
rrik egin lezake legez errege da-
nak.

Gogo andiarekin mirariak egi-
ten dira; pobre badago erreñua, izan bitez pobreak bere ministro-
ak, errege bera, akordaturik D. Enrike errukitsuaz. Ejenplo ema-
ten badu erregeak, guziak ikasi-
ko dute erraz; gitxitu agintariak, eta para onak eta zuzenak; uga-
ritu nekazaritza; oialak, burnia, telak eta eunak egitea sostendu, eta komerzioko saldu-erosiak za-
baldu. Guzien lana izan bear du onek, gobernu eta jendeena, izan-
nik jentil lana bezelakoa España-
ñiako kredituaren salbamena; ekonomiako mirariak egiñaz, izan gaitezen oso espāñolak, esti-
maturik asko etxeko gauzak, de-
seaturik bakarrik estranjeriako ondo datorkigunak. Gaur txit aberats dagon nazio bat, lengo denboran arkitzen zan bere in-
dustria eroria, azienda zorrez be-
terik eta erreñua pobrea. Errege-

aren palaziotik atera zan eta zabaldu zan errietara oitura berri bat: jantzizera bakarrik erreñuko oialak, eta onela piztu izan ziran lantegiak, etaazienda galdua irabazi, eta erreñua aberastu zan.

Orregatik uste det, nere anaia, ezagutzen dedala zerbait nik ere, zer egi eta zer gezur dagoan gai onetako erakutsi berrietan. Berregatik ganbio edo komerzioko libertadea etaiaio Españiari konbeni; Frantziak berak ere atzera egiten dio, eta Norte-Amerikako jendeak gogor egiten diote. Nere iritzia da bestera, Españiako industria anparatu bear dala oso, eta gure erreglia izan bear dala aurreratzea anparatuz.

Esan ditudan erakuskizun edo dotriñetan argitzen dan ona eta txarra, deritzat nik ere ezagutzen dedala; baita ere ikusten det zertan daukaten arrazoia okerreko bidetik orain dabiltzen batzuek; baña ere da egia, oriek dakiena orain, zekiela ere geiena lengoko jendeak, beti ez izanik gordea, batez ere gure egunetan. Jendea-ri esatea erregea dala da bera engañatzea. Aundi izate egiazkoa da jakinduria eta birtute idukitzea; pobrea eta eskalea dira ain sagraduak nola andizkiak; legeak izan bear dirala guzientzat, ala palaziotarako, nola txaboletarako, aberatsak eta andizkiak azpiratu ez ditzen pobre eta txikiak; berri-ru lege zarren indarra, edo beste batzuek egin, bear badira,

berriro; justizia guziaz egiñ; eman bakoitzari berea; eta gobernatza-llak gerokoai begiraturik jaso txikiak; eta ez daukanari zerekin bizi, eman modu onetarako; onela eren umeak jarri ditezen argiak ikasteko eta onak izateko bi-dean, igotzeko diña dirala leku altu edo goienara, naiz Elizan, naiz erregeren onduan.

Antziñako España ona izan zan pobreentzat; ezta izan ala Reboluzioa; zerbait asmatzen asi dira ere egia dala au, republika jartzeko emen amets egiten duten taldeak. Aurki esnatuko dira eta ikusiko dute azkenean eta argiro, errege kristau baten gobernuak egin dezakeala beren onerako, iruregun erregetxok disputan batzaar bullosoetan beñere egingo ez duena. Partidu-jendeak, edo beren agintariak, berez daukate onoreen, aberastasunen eta agintzeko kutizia; baña zer nai izan lezake mundu onetan errege kristau batek, bere jendearen ona baizik? Zer faltako zaio errege oni, zorionekoa munduan izateko, bere erriaren amorioa baizik?

Onela pensatu eta sentituaz, nere Alfonso maitea, naiz leial jatorrizko eta glori-az antziñako Españiako erregetasunari; eta uste det izatea batean gaurko egunari dagokion gizona, edukiaz gogoan etorkizuna.

Ondo dakit izugarria dala Españiako gauzak zuzentzeko artzen dedan lana, eta erantzunki-

zun aundikoa; baña irtetzen ba-naiz nere enpeñoakin, neurri ga-bea izango da nere gloria. Izanik jaiotzaz Españaiko koroaren ja-be-gai, nabill, eta esperantza ez-kutuak animatzen nau, eze, Jaungoikoaren laguntzarekin, Españ-erriak eta nik egin bear ditugula gauza aundiak; eta esango duala ondorengo gizal-diak errege on bat izan nintzala, eta Españ-erria erri aundi bat.

Zuk, nere anaia, daukazun ez-kerro Aita Santu gure animetako errege zori-onekoaren soldadu izateko ditxa pare gabea, eska zaiozu berari neretzat eta Espa-ñairentzat bere bendizioa.

Geldi zaitetz Jaungoikoarekin, eta berak gorde zaitzala.

Zurea biotzez, zure anaia:

Karlos.

Parisen, garagarrillaren oge ta amarrian, milla ta zortziregun eta iruroge ta bederatzigarren ur-tean.

* * *

Irakurleak igerriko zionez, Don Karlosek bere anai Alfonsori zuzendudako eskutitz au, etzan onentzat bakarrik idatzia, Espa-ña guziarentzat baizik, beraren asmoak zer ziran adieraztearren. Ona nola dion Melchor Fernán-dez Almagro-k bere *Historia política de la España contemporánea*

(*Alianza Editorial 197, Madrid 1968*):

“Era forzoso dirigirse al pueblo espa-ñol, evidentemente, en ratificación de principios y esperanzas, como lo hizo don Carlos por medio de carta —30 de junio de 1869— a su hermano Alfonso, redac-tada por Aparisi y Guijarro, quien realiza-ba una extraordinaria labor en actos y publicaciones múltiples, abogando por los derechos de la rama carlista al trono de España, en su folleto La cuestión dinásti-ca, e impulsando la publicación de periódicos, de Círtulos y Comitès”.

Eskutitz ori paperetan inpren-tatu eta alde guzietara zabaldua izan zan. Orri oietako bat Parisko Liburutegi Nazionalean azaldu da. Andik kopiatu degu.

Bukaera aldean, Don Karlosen anaia Aita Santuaren soldadua dala esaten da. *Zuavo pontificio* izenekoetan sartu eta Erroman baitzan.

Eskutitz au itzulpena da nos-ki. Erderaz jaioa alegia, eta nor-baitek euskeratua. Itzultzaille onen lana nolakoa izan zan era-kusteko ez-ezik, agiri onek zer dion obeto jabetu gaitezen, mere-zi duala uste degu erderazkoa ere eskeintzea. Emen erabiltzen di-ran burutapenak bertsoetan ere ikusiko baititugu.

Onela dio:

“Mi querido hermano: En folletos y pe-riódicos se han dado a conocer bastante mis ideas y sentimientos de hombre y de rey. Cediendo, sin embargo, al general veheméntísimo deseo que ha llegado has-

ta mí desde todos los pueblos de la Península, escribo esta carta, en que no hablo sólo al hermano de mi corazón, sino a todos los españoles, sin excepción alguna, que también son mis hermanos.

Yo no puedo, mi querido Alfonso, presentarme a España como pretendiente a la Corona; yo debo creer y creo que la Corona de España está ya puesta sobre mi frente por la santa mano de la ley. Con ese derecho nací, que es al propio tiempo obligación sagrada; mas deseo que ese derecho mío sea confirmado por el amor de mi pueblo. Mi obligación, por lo demás, es consagrar a este pueblo todos mis sentimientos y todas mis fuerzas; morir por él o salvarle.

Decir que aspiro a ser rey de España y no de un partido es casi vulgaridad; porque ¿qué hombre digno de ser rey se contenta con serlo de un partido? En tal caso se degrada a sí propio, descendiendo de la alta y serena región donde habita la majestad y a donde no pueden llegar rastreas y lastimosas miserias. Yo no debo ni quiero ser rey sino de todos los españoles; a ninguno rechazo, ni a los que se digan mis enemigos, porque un rey no puede tener enemigos; a todos llamo y les llamo afectuosamente en nombre de la patria, y si de todos no necesito para subir al trono de mis mayores, quizá necesite de todos para establecer sobre sólidas bases la gobernación del Estado y dar fecunda paz y libertad verdadera a mi amadísima patria.

Cuando pienso en qué deberá hacerse para conseguir tan altos fines, pone miedo en mi corazón la magnitud de la empresa.

Yo sé que tengo el deseo ardiente de acometerla y la resuelta voluntad de ter-

minarla, mas no se me esconde que las dificultades son imponderables y que no sería hacedero vencerlas sin el consejo de los varones más imparciales y probos del reino, congregados en Cortes que verdaderamente representen todas las fuerzas vivas y todos sus elementos conservadores.

Yo daré con esas Cortes a España una ley fundamental que, según expresé en mi carta a los soberanos de Europa, espero que ha de ser definitiva y española.

Juntos estudiamos, hermano mío, la historia moderna, meditando también sobre grandes catástrofes, que son enseñanzas a los reyes y a la vez escarmiento a los pueblos. Juntos hemos meditado también en que cada siglo puede tener, y tiene de hecho, legítimas necesidades y naturales aspiraciones.

La España antigua necesitaba de grandes reformas; en la España moderna ha habido grandes trastornos. Mucho se ha destruido, poco se ha reformado. Murieron antiguas instituciones, algunas de las cuales no pueden renacer; hase intentado crear otras nuevas, que ayer vinieron a la luz y se están ya muriendo. Con haberse hecho tanto, está por hacerse casi todo. Hay que acometer una obra inmensa de reconstrucción social y política, levantando en este país desolado, sobre bases cuya bondad acreditan los siglos, un edificio grandioso en que puedan tener cabida todos los intereses legítimos y todas las opiniones racionales.

No me engaño, hermano mío, al asegurarte que España tiene hambre y sed de justicia, que siente la urgentísima e imperiosa necesidad de un gobierno digno y enérgico, justiciero y honrado, y que

ansiosamente espera a que en su dilatado imperio reine la ley, a la cual debemos estar todos sujetos, grandes y pequeños.

España no quiere que se ultraje ni ofenda la ley de sus padres; y poseyendo en el catolicismo la verdad, comprende que si ha de llenar cumplidamente su encargo divino, la Iglesia ha de ser libre.

Sabiendo y no ignorando que el siglo XIX no es el XVI, España está resuelta a conservar a todo trance la unidad católica, símbolo de nuestras glorias patrias, espíritu de nuestras leyes, bendito lazo de unión entre todos los españoles.

Cosas funestas, en medio de tempestades revolucionarias, han pasado en España. Pero sobre esas cosas que pasaron, hay concordatos que se deben profundamente acatar y religiosamente cumplir.

El pueblo español, amaestrado por una experiencia dolorosa, desea en verdad que su rey sea rey de veras, y no sombra de rey; y que sean sus Cortes ordenada y pacífica Junta de independientes e incorruptibles procuradores de los pueblos, pero no asambleas tumultuosas y estériles de diputados y empleados o de diputados pretendientes, de mayorías serviles y de minorías sediciosas.

Ama el pueblo español la descentralización y siempre la amó, y bien sabes, hermano mío, que si cumpliera mi deseo, así como el espíritu revolucionario pretende igualar a las provincias vascas a las restantes de España, éstas se asemejarían o se igualarían en su régimen interior con aquellas afortunadas provincias.

Yo quiero que el municipio tenga vida próspera y propia, y que la tenga la provincia, pero viendo, sin embargo, y procurando evitar abusos posibles.

Mi pensamiento fijo, mi deseo constante, es cabalmente dar a España lo que no tiene, a pesar de mentidas vociferaciones de algunos ilusos; es dar a España la amada libertad que sólo conoce de nombre; la libertad que es hija del evangelio, no el liberalismo que es hijo de la protesta; la libertad, que es al fin el reinado de las leyes cuando las leyes son justas, esto es, conforme al derecho de la naturaleza, al derecho de Dios.

Nosotros, hijos de reyes, reconocemos que no es el pueblo para el rey, sino el rey para el pueblo; que un rey debe ser el hombre más honrado de su pueblo, como es el primer caballero; que un rey debe honrarse con el título especial de padre de los pobres y tutor de los débiles.

Hay en la actualidad, mi querido Alfonso, una cuestión temerosísima: la cuestión de Hacienda. Espanta el considerar el déficit en la española; no bastan a cubrirlo las fuerzas productoras del país; la bancarrota es inminente. Yo no sé si puede salvarse a España de esta catástrofe; pero si es posible, sólo su rey legítimo la puede salvar.

Una inquebrantable voluntad obra maravillas. Si el país está pobre, vivan pobremente hasta los ministros, hasta el mismo rey, que debe acordarse de don Enrique el Doliente. Si el rey es el primero en dar ejemplo, todo será llano; suprimir ministros y reducir provincias y disminuir empleos y moralizar la administración, al mismo tiempo que se fomente la agricultura, proteja la industria y aliente el comercio. Salvar la Hacienda y el crédito de España es empresa titánica a la que todos debemos contribuir, Gobierno y pueblo. Menester es que mientras se hagan milagros de economía seamos todos muy

españoles, estimando en mucho las cosas del país, apeteciendo sólo las útiles del extranjero. En una nación hoy poderosísima languidecía en tiempos pasados la industria, su principal fuente de riqueza, y estaba la Hacienda mal parada y el reino pobre; del Alcazar Real salió y derramóse por los pueblos una moda: la de vestir sólo las telas del país. Con esto, la industria, reanimada, dio origen dichoso a la salvación de la Hacienda y a la prosperidad del país.

Creo, por lo demás, comprender lo que hay de verdad y lo que hay de mentira en ciertas teorías modernas, y, por lo tanto, aplicadas a España, reputo por error muy funesto la libertad del comercio, que Francia repugna y rechazan los Estados Unidos. Entiendo, por el contrario, que se debe proteger eficazmente la industria nacional. Progresar protegiendo, debe ser nuestra fórmula.

Y por cuanto parece comprender lo que hay de verdad y de mentira en estas teorías, se me alcanza también en qué puntos lleva razón la parte del pueblo que hoy aparece más extraviada; pero es seguro que casi todo lo que hay de razonable en sus aspiraciones no es invención de ayer, sino doctrinas de antiguo conocidas, aunque no siempre, y singularmente en el tiempo actual, observadas. Engaña al pueblo quien le diga que es rey; pero es verdad que la virtud y el saber son la principal nobleza; que la persona del mendigo es tan sagrada como la del prócer; que la ley debe guardar así las puertas del palacio como las puertas de la cabaña; que conviene crear instituciones nuevas si las antiguas no bastasen para evitar que la grandeza y la riqueza abusen de la pobreza y la humildad; que de-

biendo hacerse justicia igualmente a todos y conservar a todos igualmente sus derechos, le está bien a un gobierno previsor mirar especialmente a los pequeños, y directa e indirectamente procurar que no falte el trabajo a los pobres y que puedan sus hijos que hayan recibido de Dios un claro entendimiento adquirir la ciencia que, acompañada de la virtud, les allane el camino hasta las más altas dignidades del Estado.

La España antigua fue buena para los pueblos; no lo ha sido la revolución. La parte del pueblo que hoy sueña en la república va ya entreviendo la verdad; al fin se verá clara y potente como la luz y verá que la monarquía cristiana puede hacer en su favor lo que nunca harán 300 reyezuelos disputando en una asamblea clamorosa. Los partidos, o los jefes de los partidos, codician honores, o riquezas, o imperio; pero ¿qué puede apetecer en el mundo un rey cristiano, sino el bien de su pueblo? ¿Qué le puede faltar a ese rey en el mundo, para ser feliz, sino el amor de su pueblo?

Pensando y sintiendo así, querido Alfonso, soy fiel a las buenas tradiciones de la antigua y gloriosa monarquía española, y creo a la vez ser hombre del tiempo presente que no desatiende el porvenir.

Comprendo bien que es tremenda la responsabilidad de quien tome sobre sí restaurar las cosas de España; mas si sale vencedor de su empresa, inmensa será su gloria. Nacido con derecho a la corona de España, y mirando en este sagrado derecho una sagrada obligación, yo acepto aquella responsabilidad y busco esta gloria, y me anima la secreta esperanza de que con la ayuda de Dios el pueblo español y yo hemos de hacer co-

sas grandes; y ha de decir el siglo futuro que yo fui un buen rey y el pueblo español un gran pueblo.

Tú, hermano mío, que tienes la dicha envidiable de servir bajo la bandera del

inmortal pontífice, pide a ese nuestro rey espiritual para España y para mí su bendición apostólica.

Y a Dios que te guarde, hermano mío. Tuyo de corazón, tu hermano, Carlos”.



Alfonso Karlos, don Karlosen anaia, bere azken urteetan.
(Jaime del Burgo: Veteranos de la Causa, San Sebastián, 1939.)

(1869)

Ta noiz zuazte?

1

Donostiako basarritarrak
eragiñazten dizkigute farrak;
igualak dira gazte ta zarrak,
danak dira Karlosen maiztarrak.

Ta noiz zuazte?

Galdezka gabiltza jai ta aste.

Bañon ez gera juango; ez det uste.

2

Donostiako basarritarrak
arturik daude subak eta garrak;
aplakatu dira oien indarrak,
umilduko'itu beren biarrak.

Ta noiz zuazte?...

3

Donostiako basarritarrak
guziak eztirare gizon txarrak;
Antigualdian dira on xamarrak,
baño ausi biar zaizke bizkarrak.

Ta noiz zuazte?...

4

Barullo franko izandu degu
basarritarrakin uda ta negu;
bañon guk beti gauza bati eldu,
ez beñere onradikan galdu.

Ta noiz zuazte?...

5

Jai egunetan basarrietan
oiekin gabiltza beti erriyertan;
bistan egongo da begiyetan,
asten bagerade egiyetan.

Ta noiz zuazte?...

6

Astigarrako basarritarrak,
Loiolan berriz aiek diadarrak:
Bibaka Karlos ta karlostarrak!
An sartu ziran gure atzaparrak.

Ta noiz zuazte?...

7

San Ignaziyoz da urtebete,
Astigarragan goguan izango dute;
aurten ere etorri, nai badute,
esanaz bibaka Karlos siete.

Ta noiz zuazte?...

8

Astigarrako jende kanallak,
egin nai zituzten an egiñalak;
urdiru ziozkaten bizkarrak
jaun oieri donostiarrak.

Ta noiz zuazte?...

9

Karlos setimo gabe etsiko
ezin dutela ta eztutela utziko;
bañan isildu dira betiko,
eztira len bezin maiz asiko.

Ta noiz zuazte?...

10

Basarritarrak duten pelia:
Karlos setimo nai dutela erregia;
guk berriz nai ura bañan obia,
ori da guzien naigabia.

Ta noiz zuazte?...

11

“Karlos setimo errege jarri
biar degu” esanaz dabilta alkarri;
baldin nai badezute, ekarri
soroetako txori-izugarri.

Ta noiz zuazte?...

12

Republika da guk nai deguna,
betiko artu biar degun laguna;
oraindik etorriko da eguna
pozez zelebratu biaguna.

Ta noiz zuazte?...

* * *

Bertso auek, izenburu orrekin, Loiolako Aita Jose Inazio Arana-ren bilduman arkitu ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko kanta-pa-per bat da.

Paperaren beeko barrenean onako oar au irakurtzen da: *“Abi-sua kanta abek erosi nai dituen-tzat. Saltzen dira txanpon ba-na, Garibai kalean, letra B, bost-garren bizitzan”*.

* * *

Bertsolariak dionez, aurreko urteko San Inazioetan, Donostia-ko Loiolan liskarren bat gertatua zan astigarragar eta donostiarren artean. Zer izan ote zan ikasiko ote genduan saiatuak gera, baiña ez duge aztarrenik atera.

Azken bertsoan, errepublika-ren alde azaltzen da bertsolaria. Artean etorri gabea zan, beraz. Amadeo de Saboya-k 1873-ko otsaillaren 11-n utzi zuan erre-ge-tza. Orduan jarri zuten errepu-blika Españan.

Pio Barojak, bere *Zalacain, el aventurero* nobelan, onela dio:

“La alusión a la guerra próxima se nota-ba en una porción de indicios y seña-les. Curas, alcaldes y jaunchos se prepa-raban. Muchas veces, al cruzar un pue-blo, se oía una voz aguda como de Carna-val, que gritaba en vasco: ¿Noiz zuazte? (¿Cuándo os vais?) Lo que quería decir: ¿Cuándo os echáis al campo?”

* * *

Jose Manterolaren bilduman ere ar-kitu ditugu bertso auek; baiña eskuz idatzita eta aitatzetik merezi duan alda-ketarik gabe.

Parisko Liburutegi Nazionalean ere badituzte bertso auek, Aita Aranaren bil-dumako argitalpen ori bera ain zuzen. Baiña argibide jakingarri bat dauka pa-per onek eskuz erantsita: 1869. Urte or-tan jarritako bertsoak izango dira, ziur asko.

Egan aldizkarian ere agertu ziran bertso auek (1975, 1-6), Patri Urkizuk Parisen arkitu eta kopiatuta.

* * *

Doiñua, *Urra Papito*-rena dute bertso auek. Bertso-sail baten asiera zan ori,

guk bertso oiek eskuratu ez baditugu ere. Gaur, berriz, *Juana Bixenta Olabe*rena esanda entenitzen da. Bilintxek bere bertso oiek doiñu ortan jarri baitzitu, eta arrezkeroztik doiñuaren izena ere aldatu egin zan.

Doiñu ori, Santesteban-ek bere *Cantos populares bascongados* kanta-bilduman dakarren bezela ezartzen degu guk emen.

Ikus 11-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1869)

Zaude ta gero...

1

Errepublika, errepublika,
atoz, Sastrea, badator korrika;
laztandu zazu ta an zintzilika
josirik zaude farra ta irrika.
Zaude ta gero,
Karlosen alde gaudela bero
esango degu, bai, egunero.

2

Errepublika egiazkua
degu euskaldunok antziñakua;
zuk nai dezuna Frantziakua,
ainbat Errobespier modukua.
Zaude ta gero...

3

Castelar bera, juan dan urtean,
gure alde aritu da Gortean;
Sastrea, orrela itzegitean,
ari zera zerorren kaltean.
Zaude ta gero...

4

Errepublika nai dezu lagun,
etxean iduki ta ez dezu ezagun;
Sastrea, zaude sastre ta josedun,
pake-pakian kanta dezagun.
Zaude ta gero...

5

Gobernatzeaz oso azturik,
zaude jostorrazt ori mugiturik,
sillan umill-umill makurturik;
ez dezu bestela zuk dirurik.
Zaude ta gero...

6

Gaizki esaka Astigarrari,
Oiartzun da beste ingurukuari
zertako jardun? Zuk josteari
kontu; ez besteren biarrari.
Zaude ta gero...

7

Gaur gauza bat ta biar bestia,
zuben onra da txit farragarria;
aspaldi galdu idan guztia, *(sic)*
gezurra bera dezute egia.
Zaude ta gero...

* * *

Bertso auek, izenburu ori dutela, Aita
Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu
ditugu.

Egillea nor dan ez da esaten.
Sail onek aurrekoari erantzuna ematen
dio.

(1869)

Bertso Berriak
D. Karlos eta relijioaren gañean jarriak

Lenbiziko partia

- 1 Prim eta Serranoren lenbiziko lana,
"¡Abajo los Borbones!" ots egiten zana;
jentiak ikusirik txit ongi ez dana,
"¡Arriba los Borbones!" bueltatzen da dana.
- 2 Berak duan artian oraindik korona,
galdua izango da deskuidatzen dana;
baña beti degu guk esperantza ona
don Karlos erregia etorriko dana.
- 3 Biba Karlos setimo, doña Margarita,
laister ikusiko dira tronuan jarrita;
Aita Santuak ere koroia ezarrita,
Frantziako arraian dago etorrita.
- 4 Ikasi duenian ediaeren berri, (*sic*)
orain dabil ikusten makiña bat erri;
falta egiten digu Españían geuri,
ojala baletorke andik naiz etorri.
- 5 Egun onen batian badegu espera,
zenbat amaren seme beraren eske da;
Jaungoikoaren grazi, fediaz batera,
Españiako puntura etorriak gera.

6

Españaiko koroia beretzat egiña,
guk orixe logratzen egin alegiña;
Maroto traidoria etzalako fiña,
guk pagatu bear degu aren uts egiña.

7

Berak ipiñi eta gezurrezko planak,
karlistok ill zituzten jeneral fiñ danak;
traidore andienai onraduen famak,
orduan geitu ziran guretzako lanak.

8

Isegi baldin balezte lepotik tornuan,
bakia irikitzeke guk obe genduan;
gerra akabatu ez biar zan moduan,
ainbat traidore daude argatik munduan.(1)

9

Borla berdiarekin txapela zuria,
zaldi gañian dator D. Karlos guria,
ezin arrastaturik gugana bidia,
tronotik kendutzeke beste aguria.

10

Agure beltz orrekin ezkera konpondu,
Karlos gure genduke goiz edo berandu;
oraiñdañoko denpora Frantzian eroan du,
aurrera, españolak, biarko lagundu.

11

Traidore asko dago españolen artian,
egon ezin diranak etxian pakian;
ibilten badira berentzat kaltian,
damu izango dute egunen batian.

12

Irabaziko degula Españian plazia,
alde guztietatik dago notizia;
zenbat amaren seme, dolorez azia,
Euskal Errira dator kentzeke bizia.

13

Urre gorria ez dakar, ezpata zorrotza,
bere kontra dagueinari kentzeke biotza;
Marotok izan baleu animako lotsa,
orain etzan egin biar ainbeste eriotza.

- 14 Eguzkiak eman du señale garbia:
odola bezin gorri goizian argia;
norbaitek botatzeko lepora kargia,
nun izango dedan orren deskargia.
- 15 Apaiz tartian ere zerbait bada paso:
batzuk ill erazi, beste batzuek preso;
euskaldunen artian egon animoso,
gorroto andia dago apaizarentzako.
- 16 Egi bat esango diot Serrano jaunari,
gizonen arrazoia nai baleuke jarri;
atzera joateko ustez ez dala etorri,
danok obedeitzeko errege guzi orri.
- 17 Lanbide orretara nai ezpadu jarri,
aldunak eramaten guztiok alkarri;
galtzen duena gero egongo da larri,
ezta zertan besteri kulparik ezarri.
- 18 Biba D. Karlos eta agur liberala,
fedian firme dago gure jenerala;
aitaren semeak, artu atxur eta pala,
errege Madrillara sartu biar dala.
- 19 Ea, neure karlistak, egon animoso,
Españiako koroia geuretzat da oso;
oraindño egon arren nunbaiten penoso,
laister jarriko gera gu ere eroso.
- 20 Lenengo asiera, orain despedida,
laister kuratuko da sail onen erida;
pensatuzeko lanak egiten badira,
liberalok gorrotoz gugana begira.
- 21 Au onenbesterekin nai det akabatu,
dakiguna guztia ezin deklaratu;
batekin egiten bada, bestiakin erratu,
kantatu det beñepein, naiz deilla aserratu.

Bigarren partia

- 1 Berriz nua kantatzen zenbait bertso berri,
notizia berriak nai nituzke jarri;
gerra kontu oietan estu eta larri,
fedian firme dago nai duena garbi.
- 2 Batzuek liberal eta bestiak fedia,
denok egin nai degu bakoitzak beria;
ongi goza dezala duanak eria,
guk logratzen badegu ori mesedia.
- 3 Errege, naiz diputadu, igual alkatia,
edozein eginda ere nai degu pakia;
zuzen ez dabillanak beretzat kaltia,
gorputz egiñ ez eta anima galtzia.
- 4 Nafarrua eta Mantxa, Aragoi eta Kataluñ,
euskaldunak baditu beretzako lagun;
anparoen pozean zerbait esan deigun,
dolorez pasatuta zenbait gau eta egun.
- 5 Lengo lege zarrari deigula segi,
Manterolak esan du makiña bat egi:
zerbait barkatu arren jentiok alkarri,
lekurik ez emateko libertariari.
- 6 Karlosek bidaldu digu guri notizia,
oñian idukitzeko len irabazia;
deseatzen badegu bera ikustia,
logratuko digula nai degun guztia.
- 7 Jeneral bat Cabrera, beste bat Elio,
liberalok oientzat ez due balio;
aurrera etorriko dira isill eta serio,
batzuek emen larri ori dala medio.
- 8 Bata da Elio eta bestia Cabrera,
Madrillen sartuko dira goizetik gabera;
estimatuko gaitu portatzen bagera,
laister juango gera gu bere aldera.

- 9 Ikusiko bagenduke guk bere sarrera,
karlistok juateko beraren aurrera;
liberal tristiak berriz begira lurrera,
aurrerago larriago sarturik urrera.
- 10 Ezin ikusi degu mundu onetan alkar,
izketako bidea motibuak dakar;
erreinu onetan gu zenbat gizon kaskar,
elizarako manso, kaferako azkar.
- 11 Kristandade gaiztoko liberal guztiak,
governatuko ditu goiko Nagusiak;
fedia gordetzeko gu emen utziak,
alegratzen gaitu Karlos ikustiak.
- 12 Kristandade eta fedia galduak,(2)
Jesusen biotzeko odola salduak;
berak mundu onetara ontzat bidalduak,
gorputz eta anima gaude argalduak.
- 13 Animarik ez dala dago sinistia,(3)
egunian bost aldiz balitz ikustia;
Jaunak artuko du zerutik listia,
nolan arkituko dan anima tristia.
- 14 Madrildik artu ditugu notizia berriak:
ondata dituela baztarrak arriak;
Jesusek bidaldu eta oiek pozgarriak,(4)
kantatzen sekutzen dira gure eztarriak.
- 15 Oreiek nola zeuden ain aserria,
libre baizan bakoitza Jaunen arria;
señorak bazeuden bidean jarriak,
besua ausi eta akordagarriak.
- 16 Pekatori galduak konberti gaitian,
denbora dan artian akorda gaitian;
beti sakrilegoan egon ez gaitian,
grillu eta borrero gogorren artian.

17

Iñoiz baldin badegu ezertan erratu,
konfesio jeneralak dana du barkatu;
egindako gauza txarrrik ez arren ukatu,
berriz nai ez badegu fedia trukatu.

18

Lenago egin arren zuek pikardia,
Jesusi eskeñi biotzaren erdia;
orain onak eraginda txarraren ordia,
berak egingo digu miserikordia.

19

Ea, liberal gaixuak, zaitetze entregatu,
orra pasadizuak zuzen deklaratu;
nai badegu Jesusi biotza goratu,
ez degula faltako zeñek anparatu.

20

Birjiña Santisima, zeruko Erregiña,
fedia gordetzera egizu alegiña;
biotzeko tristura, zeuganako miña,
barkatu egiguzu, arren, gure uts egiña.

21

Jarriko al gerade zurekiñ deskansuz,
fedia sendatzera saiatuta kontuz;
D. Karlos erregia bere tokamentuz,
Madrillen sartuko da, biba, amen, Jesus!

Setiembre 14 de 1869.

* * *

Bertso-sail luze au bi tokitan arkitu degu: Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman eta Parisko Liburutegi Nazionalean. Biak moldiztegi-izenik gabeko kanta-paperak dira, eta argitalpen bera.

Bertso-saillaren bukaeran eguna esaten da: 1869-ko iraillaren 14-a. Mesede bikaiña guretzat, orrek bertsoak noizkoak di-

ran esaten digu eta. Ain zuzen, bertsoetan aitatzen diran gertae-ra guziak urte ortakoak edo leenagokoak ditugu.

Bertso auen jartzaillea, bertsolari jatorra izateko zerbait falta zuana zan. Berealaxe antzeman-go dio irakurleak. Are geiago, batzuetan ez dakigu zer izango dan: edo euskera traketsa edo

guk ezin ulertua. Orrelakoak bere ortan utzi ditugu.

Leendabiziko zatiaren leenengo bertsoan Juan Prim (1814-1870) eta Francisko Serrano (1810-1885) jeneralak aitatzen dira. Oiek, Isabel II erregina Españiatik botatzen geienbat saiatutako gizonak ziran. Erregina ori Borbondarra zan. Orretxegatik esango du bertsoak “*¡Abajo los Borbones!*” ziotela. Orduan jende asko jarri zan Don Karlosen alde. Ta au ere Borbondarra izanik, orregatik jendea “*¡Arriba los Borbones!*” esaten asi.

Are geiago: Serrano jeneralak, Madrillen sartu zanean, Isabel II-ren aizpari, Luisa Fernandari, eman nai izan zion Españiko koroia. Baiña Prim eta bere lagunak, “*¡Abajo los Borbones!*” deadar egiñez, aurka altxatu omen ziran.

Irugarren bertsoak, Don Karlos “Frantziako arraian dago etorrita” esaten digu. Karlistak, izan ere, leen esan degunez, 1869-ko uztaillean, Kataluñako Figueras eta Perpiñan artu nai izan zituzten, bertako soldaduak beren alde altxa zitezen azpi-lana eginda. Etzuten orrelakorik lortu. Baiña, ori zala-ta, Don Karlosek muga pasa eta Españiako lurra zanpatu zuan, doi-doi bada ere.

Laugarren bertsoan, “ediaren berri” dio kanta-paperak. Gaizki dagoala ematen du. Baiña berez nola bearko luke: *idearen berri, fediaren berri, jendiaren berri...?*

Rafael Maroto jenerala (1783-1847) aitatzen digute sei, zazpi eta zortzigarren bertsoak. Onek bideratu zuan leenengo gerratearen bukaera, Bergarako besarkada prestatu. Baiña konponketa ura saldukerizat artu zuten karlistak. Orren aurretik, zazpigarren bertsoak dionez, “karlistok ill zituzten jeneral fiñ danak”. Marotoren aginduz onako jaun auek afusillatuak izan ziran Lizarrako Puy ermitaren ondoan: García, Sanz eta Guergué jeneralak; Carmona brigadierra, Urra intendentea eta Ibáñez ofiziala.

Bederatzigarren bertsoak onela dio: “tronotik kendutzeko beste aguria”. Nor ote da agure ori? Dakigunez, Isabel II erregina 1869-ko iraillaren 30-ean atera zan Españiatik. Urrena, *gobierno provisional* bat jarri zuten. Eta Saboyako Amadeo, 1871-ko ilbeltzaren 2-an iritxi zan Madrillera, erregetza artzera. Bertso auek jarri eta askoz geroago, beraz. Ortaz gainera, etzan agurea, ogei ta sei urteko gizon gaztea baizik. Arengatik etzegoan, beraz, ori esaterik. Orregatik, besteren bat izango da.

Gobierno provisional orrek, izan ere, 1869-ko garagarrillaren 7-an, Serrano jenerala *regente* aukeratu zuan. Onek, 1810 urtean jaioa baitzan, berrogei ta emeretzi urte zituan, kargu ortara altxatu zutenean, eta beragatik esango du ori. Ala, gobernuak *regente* eta bertsolariak *agure* izen-

datu zuten. Ain zuzen, amaseigarren bertsoak Serranori berari itzegiten dio.

Bigarren zatiaren laugarren bertsoak Españaiko lurralde batzuk aitatzen ditu. Leen esan degunez, izan ere, karlistak, azpilana eginda Naparroan, Iruñen sartu nai izan zuten; baita Figueras eta Perpiñan-en ere, Kataluñan. Ortaz gaiñera, La Mancha-n eta abar talde armatu edo *partida* batzuk mendira irten ziran. Denbora gutxi iraun zutenak danak ere, baiña gerra bazetorrela garbi adierazten zuten.

Bostgarren bertsoak Bizente Manterola apaiz eta kanonigoa aitatzen digu. Ainbeste lan egin baitzuan donostiar onek Don Karlosen alde. Baiña jaun onen argibideak leen ere eman ditugu.

Zazpigarren eta zortzigarren bertsoak Cabrera eta Joakin Elio (1806-1876) jeneralak aitatzen dizkigute.

Ramon Cabrera (1806-1877), leenengo gerratean, karlisten jeneraletan onenetako bat izan zan, Zumalakarregirekin batera. Bigarren gerraren asieran, Ingalaterran bizi zan. Karlistak beren buru ipiñi nai izan zuten. Baiña berak etzuan nai izan. Ezezko ori 1870-eko martxoaren 19-an eman zuan; bertso auek azaldu eta andik illabete batzuetara, beraz; karlistak eskeiñitako buruzagitza onartuko zualakoan zue-dela, alegia.

-
- (1) Bertso-paperak: *anbait*.
 - (2) Bertso-paperak: *galdurik*.
 - (3) Bertso-paperak: *sinistua*.
 - (4) Bertso-paperak: *pozgarria*.

(1869)

Zortziko barriak

1

Oge ta amabost urte
diraz iraguak
agintzen deuskubela
liberal gaiztuak.
Astruzija andijakaz,
madarikatuak,
engañau zitubezan
karlista zintzuak.

2

Judasek saldu eban
Zeruko Maisua,
Maroto jeneralak
Karlos gizausua.
Billaukerija onegaz
jaso zan tronua,
España guztijentzat
zori gaiztokua.

3

Isabelen gerizan
baltz infernukuak
bete ditubez ondo
euren poltsikuak.
Kendu deuskubez guri
geldika foruak,
askok artu ditube
gradu ta enpliuak.

4

Iñoz aspertu eziñik
dauken egarrija,
mutildu dabe ederto
Españako errija.
Geratu da erreñu au
—o ze lotsarija!—
euren asmuakgaitik
galduta guztija.

5

Eskerrik baltzenagaz
-o ze jente fiña!-
azkenez bota dabe
euren erregiña.
Agintari izatia
—ez iñoren miña—
izan da, liberalak,
beti zuben griña.

6

Agintari jarri da
jente itxusija:
Serrano ta Topete,
Prim da famelija.
Onelan bete dabe
dauken banerija,
orbandurik galanto
euren kontzientzija.

7

Agintari izateko
onen astruzijak:
emon dituz lenengo
berba pozgarrijak.
Laster ezagutu dau
erreñu guztijak
zelan baltzak dirian
beti guzurtijak.

8

Ardijen narrubagaz
jantziriko otsuak
izan dira ta dira
liberal paltsuak.
Otso onen artian
ez dira mankuak
ardi triskantzarako
gaurko ministruak.

9

Eleixa santiari
deutsen gorrotuak
artu eragin deutsez
diabruzko asmuak.
Erbestetu ditubez
Jesusen soldauak,
eta botatu tarras
mojen konbentuak.

10

Lenengo itxi ditubez
ondasun bagarik,
gero bota ditubez
euren etxeetatik.
Orain moja triste asko
dagoz gosiak illik,
gizon gogor onentzat
ez dau parkamenik.

11

Liberalen artian
daukaz diabruak
arimak galduteko
lagun asartuak.
Entzun dituz Madrilgo
diputau lekuak
dar-dar eragiteko
berbeta moduak.

12

Ukatu da Jesusen
jaungoikotasuna,
ta bardin Marijaren
dontzellatasuna.
Andija da benetan
Jaunen ontasuna
iragoteko isillik
iraiñ aiñ astuna.

13

Ainbeste pekatubaz
aspertu bagarik,
aldendu gura dabe
fedia gugandik.
Baltzen gaiztotasunak
ez dauko neurrik,
ez dago euren artian
fededun gizonik.

14

Mesprezijau ditubez
erregu beruak:
Españan ez sartzeko
jaungoiko paltsuak.
Eregi daijezala
diñue tenpluak
ereje ta judegu,
jentil da turkuak.

15

Oraindiño badago
Españan lotsarik,
ezin igaro leikez
gauza onek geldirik.
Euskaldunen artian
ez al dau mutillik?
Ala dagoz gizonak
ollo biurturik?

16 Amar milla aingerugaz
ez orrelangorik,
euskaldunen bijotza
ez dago olloturik.
Jakiko gera laster
danok bat egiñik,
liberal arruari
jarkiten gogotik.

17 Egon ezkeru danok
alkar ondo arturik,
garaitza irabazteko
ez dago bildurrik.
Nozbait egongo bada
Españan bakerik,
ez dau geratu biar
liberal sustrairik.

18 Ea, bada, mutillak,
gogor sendaturik,
fusil eta makillak
artu ber-bertatik.
Jaunak egongo dala
beti gure aldetik
Birjiña Marijagaz
dirausku zerutik.

19 Irazartu da nozbait
lo egon dan legoia,
Españan entzungo da
laster bere orroia.
Alperrik jaki kontra
Tirio ta Troia,
Karlosek jantziko dau
errege koroia.

20

Don Karlosek emon dau
errege berbia,
gura dabela gorde
Jaunaren legia.
Izaten bada errege
Bere Mesedia,
sendatuko da Españan
Kristoren fedia.

21

Karlos zazpigarrena,
geure jaun maitia,
zure premiñan dago
emengo jentia.
Zapaldurik betiko
liberal kastia,
zugaz eukiko dogu
biar dun bakia.

22

Españako koroia
buruan jantzita,
Don Karlos izango da
españolen aita.
Esan bada gogotik
bildurrari itxita:
*Bizi bedi Don Karlos
ta andra Margarita!*

* * *

Bertso auek bi tokitatik ditugu: Aita Jose Inazio Aranaren bildumatik eta Parisko Liburutegi Nazionaletik. Bietan bertso-paper berdiña da, argitalpen bera, moldiztegi-izenik gabea.

Eskuz idatzita ere azaldu dira bertso auek Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduma ortan. Iru kopia gaiñera, iruretan bertsoak berdin daudelarik.

Kopia oietako batek izenburua onela du: *Zortziko ederrak ogei ta bi eta Cabre-
ra-ren karta bi*. Ogei ta bi zortziko oiek

* * *

bai, antxe ditu kopia orrek; baiña Cabre-
ra-ren eskutizik ez dago.

Aldaketak: 1/2: dira igaruak; 1/3: agintzen digutela; 1/5: Astuziya andiya-
kin; 1/7: engañatu zituzten; 2/1: Juda-
sek saldu zuen; 2/4: Karlos gizaxua;
2/5: Billaukeri onekin; 2/7: España da-
narentzat; 3/1: Isabelen ondoan; 3/2:
beltz infernukoak; 3/3: bete dituzte on-
do; 3/4: beren poltxilloak; 3/5: Kendu
dizkigute ere; 3/6: geldika fueroak; 3/7:
askok artu dituzte; 4/2: duten egarriya;
4/3: ondatu dute ederki; 4/6: o lotsaga-
rriya; 4/7: beren asmoakgatik; 5/1: Es-
kerrik beltzaenakin; 5/3: azkenik bota
dute; 5/4: beren erregiña; 6/5: Onelan
bete dute; 6/7: mantxaturik galanki;
6/8: beren konzienziya; 7/2: oien astuzi-
yak; 7/3: lenengo eman dituzte; 7/4:
itzak pozgarriyak; 7/7: nola beltzak dira-
den; 7/8: beti gezurtiyak; 8/1: Ardi na-
rrubarekin; 8/2: jantzitako otsuak; 8/5:
Otso oien artean; 8/7: ardi triskiltzara-
ko; 9/1: Eleiza Santagana; 9/2: dauken
gorrotuak; 9/3: artu eragin dizte; 9/5:
Erbestetu dituzte; 9/7: eta bota txit
arras; 10/1: Lenengo utzi dituzte; 10/2:
ondasun bagerik; 10/3: gero bota dituz-
te; 10/4: beren etxetatik; 10/5: Orain
moja asko daude; 10/6: gosiak iya illik;
10/7: gizon gogor oientzat; 10/8: ez dao
barkamenik; 11/2: dauzka deabruak;
11/3: animak galdutzeko; 11/4: lagun
trebetuak; 11/5: Aitu ditu Madrilgo;
11/8: itzaldi moduak; 12/7: igarotzeko
isillik; 13/1: Pekatu ainbesterekin;
13/2: aspertu bagerik; 13/3: aldendu
nai lukete; 13/7: ez dago oien artean;
14/1: Desprezia dituzte; 14/5: Iriki di-
tzatela; 14/6: diote tenploak; 14/7: ereje
ta judiyo; 15/1: Oraindaño badago;
15/3: ezin litezke igaro; 15/4: gauza

oiek geldirik; 15/6: ez al da mutillik?;
15/7: edo daude gizonak; 16/1: Amar
milla aingeruak; 16/2: ez orrelakorik;
16/8: jarkitzen gogotik; 17/5: Noizbait
egongo bada; 17/6: Españan pakerik;
17/7: ez du gelditu bear; 18/2: gogor
sendoturik; 18/7: eta Birjiñ Mariyak;
18/8: digute zerutik; 19/1: Esnatu da
noizbait; 19/3: Españan aituko da;
19/5: Alperrik jaiki kontra; 19/7: Karlo-
sek jantziko du; 20/1: Don Karlosek
eman du; 20/2: errege itz-andia; 20/3:
naiko dubela gorde; 20/7: sendotuko da
Españan; 21/2: gure jaun maitia; 21/3:
zure premiyan dago; 21/7: zurekin izan-
go da; 21/8: bear dan pakia; 22/6: bil-
durrari utzita; 22/7: bizi bitez Don Kar-
los; 22/8: eta Margarita.

Aldaketa auek zera salatzen digute:
leenengo bizkaieraz agertu zirala bertso
auek, eta urrena beste argitalpen bat
prestatu zala gipuzkoarrentzat.

Patri Urkizuk, Parisko Liburutegi Na-
zionalean arkitu eta kopiatuta, *Egan* al-
dizkarian (1975, 1-6) argitaratu zituan
bertso auek. Izenburua: Ogeita bi ber-
tso-berri. Aldaketak, aurreko orrek di-
tuanak.

Beste zenbait tokitan ere arkitu ditu-
gu. Baiña iturri oien berri ondoren
emango degu.

* * *

Leenengo bertsoak dionez, li-
beralak agintzen dutela "oge ta
amabost urte diraz iraguak".
Ogei ta seigarrena igarotzen ari,
beraz. Fernando VII il zanean,
1833-an, liberalak gelditu ziran
Españiako agintearekin. Orrega-

tik, 1869 urtean jarritako bertsoak izango dira auek.

Baiña bestela ere, aitatzen diran gertaerak kontuan artuta alegia, errez somatu diteke noizkoak diran.

“Azkenez bota dabe euren erregiña” dio bostgarren bertsoak; eta 1868-ko iraillean gertatu zan ori.

Ondoren gobernu berria eratu zan: Serrano leendakari; Prim, *ministro de la guerra*; eta Topete, *ministro de marina*. Jaun oiek seigarren bertsoak izendatzen ditu.

Bederatzi eta amargarren bertsoak diotena leen ere argitu degu, bear diran aitamenak egin da.

Amalaugarren bertsoak diona, berriz, beste aitamen onek uler araziko digu:

“El artículo discutido con más ardor fue el que establecía la libertad de cultos, y en más de nueve mil escritos con tres millones de firmas se pidió que la religión católica fuese la única tolerada. La libertad de cultos quedó, sin embargo, incluida en la nueva Constitución, que fue aprobada el 1 de Junio de 1869 por 214 votos contra 55, y se promulgó solemnemente el 6 de junio”.

Bertso ortatik aurrera, armak artzera dei egiten du jartzailleak.

* * *

Baiña nor ote degu bera? Tolosako Manuel Urreta zanaren bil-

duman, *Mikelo* izenordeaz firmatuta eta makinaz idatzita, *Agui-las Vasconas* izeneko artikulua bat arkitu degu. Idazlan orrekin batera, eskutitz bat. Onela dio:

“...le envío estas tres cuartillas, con el ruego de que tan pronto le sea posible me las devuelva, bien corregido el texto vasco... Las necesito para dejar terminado el folleto de nuestro malogrado Montevilla...”.

Eskutitz ori Madrillen 1936-ko uztaren 18-an idatzia da. Gerra asi zan egunean, alegia. Eta arritzekoa da, noski, egun ortan Madrillen egindako eskutitza Tolosaraíño iritxi izana. Baiña Urretak atzera bueltatzerik ez eta beraren paperetan gelditu zan idazlan ori. Gure mesedetarako gelditu ere, or esaten diranak oso goangarriak baitira. Onela dio:

“...Una tarde otoñal llegamos a la villa vizcaína de Lequeitio y en modestísimo hogar charlamos con uno de esos hombres ejemplares en los que palpitan todas las abnegaciones. Charla que transformaremos en monólogo en estas cuartillas. Sea él, pues, quien con toda sencillez ponga de resalto su grandeza moral:

—Hasta 1870 ignorábamos lo que era el carlismo. Dicho año leímos unos versos, algunas de cuyas estrofas recuerdo:

Oge ta amairu urte
dira igaruak,
agintzen deuskuela
liberal gaiztuak.
Judasek saldu eban
Zeruko Maisua,
Maroto jeneralak
Karlos gizaixua.

Seguía expresando que el hermano de Amadeo de Saboya era el carcelero del Papa y que el próximo rugido del león hispano sería formidable.

Los seminaristas aprendimos pronto esta composición y las canciones que sin cesar entonaban los bertsoaris, uno de los cuales, hijo por cierto de esta villa, aún vive con sus 88 años, privado de la vista. Le conocían sus coetáneos por Bizentitxu y se llama Vicente Eguileor. Un hermano suyo, Modesto, músico veterano, lo puede ver todos los días, aunque no hablar, porque perdió totalmente la audición...

Aquí Mikelo se distrae un momento y recurre a sus papeles viejos. Tiene memoria de que conserva algún bertso berriya de Bizentitxu. Aquí está. Y es precisamente el que nuestro veterano sólo recordaba fragmentariamente”.

Segidan ogei ta bi bertso auek kopiatzen ditu, zenbait aldaketa-rekin ordea. Aldaketa oien berri aurrerago emango degu.

* * *

D’Abbadie jaunak euskal olerki-sariketak urtero antolatzen zituana garai artan. Oietako batzuk Saran egin ziran. Baiña epaimaikoen erabakia etzan, 1874 urtean, danen gustokoa izan.

Orren berri Auñamendi Enziklopediak (Literatura, I) ematen digu. Berak orduko egunkari batetik artzen ditu argibideak: Cours de poésie basque á Sare, par M. Guilbeau, L’Avenir des Pyrénées, 1874-IX-19.

Egunkari ori ez degu guk esku artean izan. Orregatik, Auñamendi-ri kopiatzen diogu:

“El fallo del jurado indignó sobre manera a M. Guilbeau. Dice este señor que los concursos fundados por D’Abbadie han venido desnaturalizándose paulatinamente. En sus comienzos se trataba de elevar la literatura vasca. Los poetas acudieron en abundancia durante los primeros años. De ellos salieron, según Guilbeau, verdaderas obras maestras en su clase. En esa época todo se hacía a la luz del día; se rendía cuenta de los fallos anualmente, estimando el valor de cada poesía y el de otras que merecían una mención honorífica. Pero despues, sigue Guilbeau, un jurado tenebroso, que guarda el más riguroso incógnito, a pesar de las interpolaciones dirigidas a él, se encierra en el mayor mutismo. Esto ha provocado cierta frialdad entre nuestros poetas populares. Pero todavía, este año, ha venido a sumarse un nuevo factor perturbador: el político.

Este año de 1874 ha recibido el primer premio un canto vizcaíno cuya lectura, según Guilbeau, ha provocado la indignación general. El alcalde de Sara, según él, habría rehusado dar los honores públicos al Biscaitar, impidiendo el canto en público de la citada poesía, que, a juicio de Guilbeau, es mediocre, no solamente en cuanto al tema, sino también en la forma, el fondo y el valor literario. Y se pregunta: ¿por qué mezclar a los carlistas en nuestras fiestas públicas? Preferimos —dice— la tranquilidad de los campos al trepidar de las armas y a la sangre fratricida que se derrama al otro lado de los Pirineos...

...El autor parece escudarse tras las iniciales M. A. E. No da Guilbeau el título de la poesía: se trata de Jaungoikoa ta Erriya ("Dios y la Patria"). "Ea bada, mutillak, jaqui gogorturic, fusillac bayonetac artu berbertatik".

Itz oiek, sail ontako emezortzigarren bertsoaren asiera dira.

Gure iritzirako beintzat, orain adieraziko deguna gertatuko zan.

Esan degunez, bertso oiek 1869 urtean jarri ziran, eta pape-retan zabaldu ere bai. Baiña andik bost urtera, gerra beroenean zala, Sarako sariketara bialdu zituan norbaitek, egilleak-edo, eta leenengo saria irabazi.

Jaungoikoa ta Errija jarri zien izenburutzat. Eta firma: *Bizkaitarra*.

Argitaratu ere egin zituzten gero Sarako sariketaren antolatzaileak, izenburu luze onekin: *1874 / Neurtizlarien gudua. / Sarako bestan lehen garait-saria, makilla / eraman duen kantua biskaitarrak egina. / Jaungoikua ta errija*.

Baiña ez bertso guziak, emezortzi baizik, aldaketa batzuk egiñez. Bear ere bai zenbait alditan, bertsoak gaurkotasuna galdu etzezen. Onela zion, adibidez, emeretzigarrenak: "Españan entzungo da laster bere orroia...". Karlistak artean beren etxeetan baitziran. Baiña Sarara bialduta-ko oietan beste onela esaten da: "Españan entzuten da orain bere orroia...". Karlistak 1874 urte ortan gerran jo eta ke ari baitziran.

Auñamendi-k esan digunez, firma bezela letra auek dituzte Sarako bertsoak: *M. A. E.* Letra oiek ez dira ondo uztartzen leen eman degun izenarekin: *Bizente Egileor*. Auskalo egiazko egillea nor izango zan.

* * *

Sarako sariketara bialdutako bertsoak onako auek dira: 18, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 19, 21, 22 eta 18-garrena berriro, ordena ortan.

Aldaketak: 1/8: español zintzuak; 4/4: España errija; 4/5: Geratu erreñu au; 4/7: alkarren jelosijaz; 5/6: diruba, atsegiña; 9/7; eta bota lutarraz; 11/8: izkuntza-moduak; 12/7: igaroteko isilik; 13/1: Baltzen gaiztotasunak; 13/2: ez dauko neurrik; 13/3: ezin dabez ikusten; 13/4: fededun gizonik; 13/5: Pekatu andijenez; 13/6: aspertu bagarik; 13/7: aldendu gura dabe; 13/8: fedia gugandik; 14/2: onen erreguak; 14/7: eretiko, judegu; 15/6: ote da mutillik?; 16/5: Jaki gaitazan beraz; 18/2: jaki gogorturik; 18/5: Jaungoikua ta Marija; 18/6: doguz gure aldetik; 18/7: Europa kontra izanik; 18/8: ez dogu bildurrik; 19/1: Bai, bai, irazartu da; 19/2: lo zegon legoia; 19/3: Españan entzuten da; 19/4: orain bere orroia; 21/4: euskaldun jentia.

Bertso bakoitzaren bukaeran, emezortzigarren bertsoaren asiera errepikatzuten da: Ea, bada...

* * *

Bertso auek, Manuel Urretaren bilduman ere agertu dira leen aitaturako

Mikelo orren paperetan dauden bezela, aldaketa auek dituztela:

1/2: dira igaruak; 1/5: Palsokeri aundiagaz; 2/5: Palsokeriya onegaz; 3/4: euren poltsilluak; 3/6: geldika fue-ruak; 3/7: askok artu ditubez; 4/5: Ze-gatu da errentia; 4/6: onela lotsagarriya; 6/6: daukeen uskeriya; 7/2: onen astu-ziyak; 7/3: emon ditubez lenengo; 7/5: Laster ezagutu dan; 8/2: jantzirik otsuak; 9/4: diabru asmuak; 9/7: eta botatu-er; 10/1: Lelengo itxi dabez; 12/1: Ukatuta Jesusen; 12/6: Jaunaren ontasuna; 14/1: Despreziyau ditubez; 15/6: ez al dago mutillik?; 16/3: euskal-dunen biotzak; 16/4: ez dagoz olloturik; 16/5: Jagiko gara laster; 18/2: gogoz sendaturik; 19/5: Alperrik jagi kontra; 19/6: Tiro eta Troia; 21/8: biar dan ba-ki; 22/6: bildurra itxita.

Urretaren bilduman bertso auen bes-te kopia bat ere bada. Baiña aurreko orri kopian. Okerrak zuzentzearen, alda-keta berriren batzuk sartzen ditu; baiña onera aldatzerik merezi ez dutenak.

* * *

Bertso auek, gure paperetan idatzita daukagunez, *El Fuerista* aldizkarian ere agertu ziran, firma onekin: *Bizente Egile-or*, "*Bizentitxu*". Baiña, auek idazterako-an, ezin izan degu aldizkari ori eskuetan erabiltzerik izan.

Aldaketak: 1/2: dira igaruak; 1/5: paltsokeri aundiagaz; 2/4: Karlos gizaixua; 2/5: Paltsokeri onegaz; 3/1: Isabe-lekerixan; 3/7: ta askok astu ditubez; 4/3: legortu dabe ederki; 4/4: España dierriya; 4/5: Zeatu da errentia; 4/6: zer lotsagarriya; 4/7: utziz asmo orregaz;

5/2: o zer jente piña; 6/6: daukuen us-keriya; 7/2: onen astuziyak; 7/3: emon ditubez lengo; 7/5: Laister ezagun dau; 7/7: zelatan baltzak diran; 8/2: jantzirik otsuak; 8/5: Otso oien artian; 9/4: dea-bru asmuak; 9/6: Jaunan soldaduak; 9/7: eta bota lurrera; 10/1: Lenengo itxi dabez; 10/7: gizon gogor oientzat; 10/8: ez dago parkamenik; 11/3: onenak gal-duteko; 11/4: lagunak sartuak; 11/5: Entzun dira Madrilgo; 11/6: diputau-le-kuan; 11/7: dardarra eragiteko; 11/8: zer berba moduak; 12/1: Ukatuta Jesu-sen; 12/7: igaroteko ixilik; 13/6: ez dau-ka neurrik; 14/1: Despreziyau ditubez; 14/2: fededun beruak; 14/3: Españan sartzeatik; 14/5: Oiei, ereji oiei; 14/7: betoz ereje, judu; 15/4: gauz oiek geldi-rik; 15/6: ez dago mutillik?; 15/7: edo dagoz gizonak; 16/3: euskaldunen bio-tzak; 16/4; ez dagoz olloturik; 16/5: Ja-giko gara laister; 17/2: elkar ondo artu-rik; 17/5: Noizbait egongo bada; 18/2: gogoz sendaturik; 19/5: Alperrik jagi aurka; 19/6: Tiro eta Troia; 21/8: biar dan bakia; 22/4: erritarren aita; 22/6: bildurra itxita; 22/8: ta Andre Margarita.

* * *

Gernikako Julio Bareño zanaren bil-duman, sail ontako amabost bertso agertu dira: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 15, 16, 19 eta 22-garrena.

Izenburua: Karlisten kantak.

Oar auek: Lekeitio 1872. Egileor-ek egiñak. Don Juan Banda-ormatxeak bialdu.

Aldaketak: 1/2: dira igaruak; 1/5: Paltsokeri andijaz; 2/4: Karlos gizaixua; 2/5: Paltsokeri onegaz; 3/7: askok artu

ditubez; 4/5: Geratu da errentia; 4/6: ze lotsagarrija; 4/8: galdu da guztija; 6/5: Onelan bota dabe; 6/6: dauken uskerija (banerija); 6/7: orbandurik galanki; 8/2: jantzirik otsuak; 9/4: diabru asmuak; 9/7: eta bota tuturrez; 10/1: Lenengo itxi dabez; 10/6: dagoz gosez illik; 11/3: animak galduteko; 11/4: lagun ausartuak; 12/6: Jaunaren ontasuna; 15/3: ezin igaro leitez; 15/6: ez dago mutillik?; 16/3: euskaldunen biotzak; 16/4: eztauz olloturik; 18/5: Jauna egongo dala; 22/6: bildurra itxita; 22/8: ta Doña Margarita.

* * *

Oñatiko Daniel Mugarza adiskideak, 1967-ko abenduaren 18-an, onela esaten zigun eskutitz batean:

"...me ha hecho recordar unos versos que más de una vez oí cantar (aún no he olvidado el tono con que lo hacía) a un veterano de la segunda guerra carlista, vizcaino él, que fue de la Artillería del Ejército Real, D. Cipriano Viciola, que vivió y murió en esta villa, y con el que traté en mis años mozos.

Haciendo un esfuerzo he podido componer algunos de los versos de referencia, que creo le interesarán...

...Versos que debieron circular en la época inmediatamente anterior a la segunda guerra carlista".

Zortzi bertso bialdu zizkigun: 1, 2, 6, 8, 3, 4, 12 eta 21-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/5: Astuzi aundiarekin; 1/7: engañatu zituen; 2/5: Malkorkeri onekin; 3/5: kendu digute guri; 3/6: Gernikan forua; 3/7: askok artu digute; 3/8: kargu ta enplioa; 4/3: mutildu dabe ederki; 4/4: Españi guzia; 4/5: Euren asmoagaitik; 4/6: a ze lotsagarria; 4/7: alperrik galdu dute; 4/8: erreñu guztia; 6/1: Agintari jarri dira; 6/5: legia betetzeko; 6/6: dauken maneria; 6/7: ondaturik galanki; 8/2: jantzirik otsua; 8/3: dira eta izan dira; 8/5: Otso oien artean; 12/3: bai eta Mariaren; 12/6: Jaunaren ondasuna; 12/7: igaroteko ixillik; 21/2: gure jaun maitia; 21/8: bear dan bakia.

Eta itz auekin bukatzen zuan: "Él cantaba más estrofas que no recuerdo".

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, berriz, leenengo bertsoa, aldaketa bakarrarekin: 1/5: Paltsokeri aundiya-gaz.

Doiñua ere bai, baiña oso ezaguna: "Ai gure antxiñeko guraso nobliak...".

Ikus 12-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1869)

Himno patriótico
para los voluntarios realistas vasco-navarros,
dedicado al Excmo. Sr. Marqués de Valdespina
Letra de T. Z. Música de G. de I.

1

Suba, bai, euskaldunak,
suba Luziferri;
etzaitezela izan
orren errukarri;
beltzak ekarri zuten
orixen txit larri,
gerra, mutillak, gerra
jende faltso arri.

2

Ea bada abiya, gipuzkoatarrak,
zuekin datoz Bizkai eta arabarrak;
batutzen dira ere txit gogoz nafarrak,
kentzeko Españatik betiko negarrak.

3

Libra zagun, mutillak, España lepratik,
arturik ontarako fusillak bertatik;
ekarriko dizkigu pakiak gerratik,
poztutzen dala oso munduba gugatik.

4

Españan española da Don Karlosena,
ekarri zagun ura al degun lenena;
konfiantza jar zagun oso arentxena,
berak emango digu gustorik onena.

5

Biba, biba, biba, gure Jaungoikua,
biba, biba, biba, Aita Erromakua;
biba Karlos errege Españiyakua,
biba Don Karlos eta jende bertakua.

* * *

Bertso auek, or goiko erderazko izenburuarekin, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzitako orri batean.

Urtea ere orri orrek berak ematen digu: 1869.

Marqués de Valdespina orren argibideak aurrerago emango ditugu.

Bertso auek T. Z. dalako bate-nak omen dira. Izki oien atzean nor ezkututzen dan, guk beintzat ezin somatu. Ezta G. de I. musikalari ori nor dan ere. Musika ere nola eskuratu?

Apaizak eta liberalak

1 Agintari liberal
gaurkoak nai ditu
amarrenak kendu ta
apaizak gutxitu.
Ez dagozkion gauzak
zertako mugitu?
Ori ez luke egingo
asmo onak balitu.

2 Otso odolgiroak
oi duben bezela,
artzairik inor gabe
kanpoan daudela,
or emen triskillatu
artalde ergela,
arkumez ase arte
beraren sabela.

3 Orobat liberalak
apaizak kendurik,
Jainkoaren itzari
ez eman lekurik;
modu ortan jendia
ona ez aditurik,
onda dediñ liberal
dotriñan sarturik.

4 Orregatik dabilta
guda amorratuan,
beren dotriña txarrak
guri ezin sartuan.
Ai euskaldun maiteak,
zaudete kontuan!
España dana iya
daukate ondatuan.

5 Libertadea dute
kantatzen plazetan,
paper danetan eta
beren ezpañetan;
bañan ikusten degu
beren egiñetan
katibutasun bera
bazter guzietan.

6 Zer eskubiderekin
liberal legoak
darabiltzki nolanai
gauza Elizakoak?
Jainkoak para ditu
oien gañekoak,
or daude obispoak
eta arzobispoak.

7 Zer arrazoi bide du
jende liberalak
zuzendutzeko kontra
beren egiñalak,
urraturikan beti
Eleizaren galak,
jaso ez ditzan onek
zerurontz egalak?

8

Arrazoiaren faltan
liberalen griña,
agintzen dauden arte
egiñ alegiña
nunai kastigatzeko
gizadi berdiña,
gordetzen dubelako
kontzientzi piña.

9

Segi zazute bide
arrazoiarena,
Konkordatoak nai du
begiratu aurrena
Elizaren ona ta
erlijioarena.
Ori begiratzen da
kenduta amarrena?

10

Konkordatoak berak
Elizako lanak
apaiz nagusiari
daduzka emanak;
zenbat izango diran
parroko diranak,
eta nola mantendu
oso apaiz danak.

11

O nere biotzeko
euskaldun erria!
Zorionekoa zu
ta maitagarria,
gordetzen dezulako
fedezko bizia,
eta Jainkozko itzaren
zeruko azia!

12

Apaizak ereiten du
zeru-azi ona,
zerurako egin du
Jainkoak gizona.
Ara egatuko da
grazian dagona,
orretarako degu
munduban egona.

13

Ez liberal beltzaren
dotriñak artzeko,
gure biotz leialak
puzunitutzeko;
ez berdin oien bidez
animak galtzeko,
berakin inpernuban
gero kiskaltzeko.

14

Jarraitu, bai, kristauak,
zeru dotriñari;
ez kaso dotriñetan
liberal beltzari.
Arren konberti dediñ
erregu Jaunari,
grazia guztiontzat
eskatu berari.

* * *

Amalau bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude.

Egillearen izenik ez da esaten, eta pena artzekoa da, bertso-jartzaille ona baitzan.

Bertsoak jarri ziran urterik ere ez da adierazten. Baiña aurreko sailla moldatu zan garaikoa izango da au ere.

**Gernikako arbolari
zortziko azalbidetua**
(Zorzico glosado al árbol de Guernica)

*Agur, Gernika-aritza,
agur da osasuna!
Izarrez gain altxatu
gurutze orriduna;
sustraiak zabaldurik
lur danen barruna,
esan: Libre izan bedi
erri euskalduna.*

Azalbidea

1
Esan beza edozeñek,
bada fededuna,
maitaturik egia
dan libretasuna,
Jainkoaren Semeak
ekarri ziguna:
*Agur, Gernika-aritza,
agur da osasuna!*

2
Itzez, soñuz, eskribuz
goitu al deguna
euskaldunen *lauburu*
gutziz ezaguna,
garaimen andienak
eman dizkiguna,
*izarrez gain altxatu
gurutze orriduna.*

3

Sartu biyotzetara
maitatzen deguna:
libretasun zeruko
landare biguna,
lora dediñ arbola
karidadeduna,
sustraiak zabaldurik
lur danen barruna.

4

Gorderik erlijio
bakar Jainkoduna,
gure aiton prestuben
legedi kutuna,
ta aiek itzegin zuten
euskara eztiduna,
esan: Libre izan bedi
erri euskalduna.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzita, eta bi kopia gaiñera.

Egilea nor dan ez da esaten.

Beste sail batzuetan bezela, liberalak eta karlistak alkarrekin zerabilkiten ikamika azaltzen da emen: aiek libertadea oiukatzen zuten; auek, berriz, baietz, libertadea oso bearra zala erantzuten zuten; baiña egiazkoa.

Kopia oietako batean, euskal bertsoen atzetik, erdal itzulpena dator:

Versión libre

*¡Salve, oh roble de Guernica,
salve por siempre y salud!
Tu cruz frondosa, altiva,
con eterna juventud,
clame al mundo difundiendo
por doquiera su virtud:
¡Viva siempre el pueblo euskarol!
¡Fuera inicua esclavitud!*

Glosa

1/ No haya mortal en cuyo seno se albergue la divina fe, y que ame la verdadera libertad, traída a nosotros por el Hijo de Dios Excelso, que no diga con entusiasmo:

¡Salve, oh roble de Guernica,
salve por siempre y salud!

2/ Ensalcemos a porfia con voces y escritos, ensalcemos con músicas sonoras tu renombre, ¡oh lábaro bascongado!, a cuya sombra debemos los mayores triunfos. Reine, sí:

tu cruz fondosa, altiva,
con eterna juventud.


3/ Plantado y floreciente en lo íntimo de nuestro corazón el árbol amado de celestial libertad, produzca opimos fru-

tos de amor y caridad, y caridad y amor:

Clame al mundo difundiendo
por doquiera su virtud!

4/ Guardando y cobijando incólumes entre tu cruz y frondosas ramas nuestra divina y única religión, nuestras propias leyes y gobierno, con el suavísimo euskara que hablaron y nos legaron nuestros nobilísimos y honrados antepasados, clama con nosotros, oh sagrado árbol:

¡Viva libre el pueblo euskarol!
¡Fuera inicua esclavitud!



Gernika, 1870-eko Batzar batean. R. Becerro de Bengoaren marrazkia.
(Enciclopedia Auñamendi.)

(1870)
Euskaldunai
Diputazioaren asmoen gañean itz bi

1
Probintzi onetako
Diputazioak
egun oetan egin
dituan asmoak
garbiro agertzea
eman dit gogoak,
laguntzen badit beintzat
gure Jaungoikoak.

2
Igaz Ondarrabian
bildu ziran Juntak,
agerturikan beren
belarrien puntak;
arbola nolakoa
alakoak frutak
eman zituzten eta
oraiñ dira festak.

3
Junta aek bilduak
ote ziran legez,
nik eztet nai gauza au
erabaki nerez;
baña ara joan ziran
jaun askoren ustez,
etziran Junta aek
bilduak txit bidez.

4

Ala jaun aek laster
irten ziran andik,
esanaz Junta aek
legeak ausirik
bildu zirala, eta
aetan parterik
etzutela artuko
berak ezergatik.

5

An gelditu ziranak
bakarrik orduan,
moldaturikan Juntak
al zuten moduan,
kontrariozik bage
beintzat inguruan,
beren griñak agertu
zituzten puntuan.

6

Beste zer egiñik ez
bazuten bezala,
Eleiz-gauzetan sartu
ziran bereala.
Arritzekoa ez da
jende liberala
beti Eleizarekin
ametsetan dala?

7

Eleizaren ta apaizen
gañeko gauzetan,
sarturik Juntak bear
etzuten lanetan,
legeak artu bage
batere ezertan,
nastu zuten guzia
probintzi onetan.

8

Apaizen *arregloa*
deitzen ziotela,
Juntak eman zituzten
zenbait erregela,
obispo jauna ezertan
artzen etzutela,
aen egitekoa
au bazan bezela.

9

Ta Diputazioa
zuten enkargatu,
Juntak erabakia
zezala kunplitu,
naiz apaizak onela
erdira gutxitu,
ta kristau fielak ez
txit ondo gelditu.

10

Arreglo ori zer dan
ez da zer esanik,
probintzian ekusten
dana ekusirik;
bada jende guzia
dago arriturik,
emen pasatzen dana
eziñ sinisturik.

11

Diputazioa da
bere ordenetan
egia esateko
gogorra benetan;
gizon prestu asko da
egon kartzeletan,
kontra egiñ dielako
ari zerbaitetan.

12

Orra, euskaldun onak,
zuen begietan
zer gizon bildu ziran
igazko Juntetan,
Diputazioa ere
sortu zan aetan;
euskaldunen antza non
da gizon oietan?

13

Nagoan ezkeroztik
esan bearrean
zer zan nere asmoa
asi naizanean,
agertuko det emen
instante batean
Diputazioak zer
oraiñ nai lukean.

14

Nai luke noski bere
burua garbitu,
ekusten nago eta
ezin det sinistu.
Gauzak dauden bezela
nork ipiñi ditu?
Euskaldunok txorotzat
tratatu nai gaitu?

15

Gure obispo jaunak
garbiro esan dio:
“Zure lan orrek ez du
batere balio.
Ze Junta Jeneral ta
ze Diputazio?
Ori obispoari
legez dagokio”.

16

Ta Diputazioak,
erantzun ordean
lan au obeko dala
konpondu onean,
erantzun dio bere
itxutasunean
aurrera joango dala
asi dan bidean.

17

Bada artu ezkeroz
Juntan enkargua,
egin bearra dala
aen agindua,
naiz kontra obispoa
naiz Aita Santua
irten dedilla, ta naiz
ondatu mundua.

18

Obispoak orduan,
arrazoiarekin,
“*Or konpon* -esan dio-
dotriña oiekin;
baña orain betiko
bear dezu jakin,
nola zabiltzan zure
obispoarekin.

19

Jakizu, bada, dala
nere deretxoa
indar bage uztea
zure *arregloa*;
ta diot *utsa dala*
orren balioa.
Eleizaren legeen
kontra bait-dijoa”.

20

Histori au guzia
erri bakoitzean
artu du alkateak
liburu batean;
ta Diputazioak
bera bidaltzean,
gelditu nai du nonbait
txit leku onean.

21

Baña liburu orrek
berberak bakarrik
Diputazioa du
uzten ondaturik;
eta au ikusteko
ez badu begirik,
itxua dagoala
ez dago dudarik.

22

Bada liburu orrek
esaten duana
da Diputazioak
egin duan lana
eraman bear dala
obispoagana,
onek ikusi dezan
egin bear dana.

23

Beraz Diputazio
orren lan guzia
dago obispoaren
eskura utzia;
ta Diputazioak
galdu du auzia,
gaizki zebillen eta
ondo merezia.

24

Eta oraindik ere
Diputazioak,
naiz agirian egon
beren lan gaiztoak,
euskaldunok bagina
bezela txoroak,
“kulpa guziak, dio,
ditu obispoak”.

25

Baña alferrik dabill
Diputazioa,
euskaldunok ez degu
galdu juizioa;
mintzatu ezkeroztik
gure obispoa,
guretzat egia da
ark esandakoa.

26

Eleizaren gauzetan
edozein sartzea
arrazoi askogatik
da gauza tristea;
da azpikoaz gora
gauzak iraultzea
da guzion artean
gerra ipintzea.

27

Diputazioak du
izan desgrazia,
egiteko onra bage
orixe guzia;
eta ukatu bage
gauza aiñ argia,
obe luke aitortu
garbiro egia.

28

Baña Juntak ta berak
duten kulpa ori,
egotzi nai balio
oraindik besteri,
gezur ori ez dio
pasako iñori,
ta orretzaz seguru
beti bizi bedi.

29

Ori guzia ala da,
ez dago dudarik;
ori ez da ordea
guzia oraindik;
lenengo esan dedan
liburu artatik
beste gauza bat ere
ateratzen det nik.

30

Liburu artan dago
letraz ezarria
gauza bat, ezin esan
ainbat itsusia:
Madridko ministro bat
—o zer miseria!—
erabakitzen emen
dabillgun auzia.

31

Ministro ari gure
Diputazioa
juan zaio eskatzera
bere anparoa;
eta agertu dio
bere deseoa:
ontzat eman dezala
bere arregloa.

32

Baña pauso orretan
Diputazioak
nun du gure onra ta
nun gure fueruak?
Zenbat gauza ematen
dizkidan gogoak!
Zenbat sufritzen duan
gure Jaungoikoak!

33

Oneraño iristen
nintzan instantean,
ta “asko det” neregan
nion bitartean,
sartu da persona bat
gaur nere etxean,
liburu bat duala
eskuen artean.

34

Liburu ederra ta
estimagarria!
Nola esaten duan
garbiro egia!
Ta jakitean berak
dakarren guzia,
nola arrituko dan
gure probintzia!

35

D. Migel Dorronsoro,
euskaldun noblea,
da liburu txit eder
orren egillea;
ta ori egitean
beraren idea:
beste liburu ari
autsak astintzea.

36

Euskaldun fiña beziñ
katoliko ona,
ederki mintzatzen da
Dorronsorora jauna,
esanaz dijoala
obispoagana,
Eleizaren gauzetan
zerbait nai duana.

37

Dorronsorora jaunaren
arrazoi argiak,
batez ere zergatik
diraden egiak,
Diputazioaren
astuzi andiak
auts biurtzen dituzte
garbiro guziak.

38

Liburu au benetan
da txit pozgarria,
da lañoak kenduko
dituan argia;
bazan dudarik gabe
beraren premia,
eta pozez beteko
da Euskal Erria.

39

Baña liburu orrek
bere akabera
dakar guziz tristea,
egia esatera:
desgrazia andi bat
gauetik goizera
letorkigula ematen
digu aditzera.

40

Liburu orrek bada
dio azkenean
nola obispo jauna
dan eziñ bestean
arkitu txit garbiro
esan bearrean
zer egiteko duten
ipintzen trantzean.

41

Au da ALDEGITEKO
BERAK GUGANDIKAN,
GURE ANIMEN ARTZAI
DEGUN ALDETIKAN,
utziaz gu guziok
ordu artatikan
errukigarri alde
guzietatikan.

42

Nork esan pauso orren
ondoren tristeak?
Eta zeñek kontatu
animen kalteak?
Itxirikan orrela
zerura bideak,
zer egingo genduke
euskaldun pobreak?

43

Eta ori noren gaiñ
joango litzakean,
obispo jaunak dio
esan itz batean
Diputazioari,
kargu egitean:
“Zergatik sartu zera
zu nere lanean?”

44

Orra ze peligroan
geraden arkitzen,
ta Diputazioa
ez bada zentzutzen,
gauza izugarri bat
du bere gain artzen;
ondo pensa dezala
zer duan egiten.

* * *

Berrogei ta lau bertso auek, moldiztegi-izena onela duan kanta-paper batetik ditugu: *Azpeitian: Pablo Martinez-en moldiztegiuan.*

Kanta-paper ori, beti ere argitalpen bera, toki auetan arkitu degu: Aita Jose Inazio Aranaren bilduman; Parisko Liburutegi Nazionalean, eskuz idatzita oar au duala: 1870, Arana; Oiartzungo Manuel Lekuona apaiz jauna zanaren bilduman; Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bilduman, eskuz erantsita itz auek dituala: *Aqui sepuso aler hum carabintero que no savia el Bascuence;* eta guk ulertzen ez degun beste itz bat.

Bigarren bertsoak onela dio: "Igaz Ondarrabian bildu ziran Juntak...". Batzar oiek 1869-ko uztailaren 2-tik 12-ra egin ziran. Orregatik, bertso-sail au 1870 urtekoa degu.

* * *

Bertso auek diotena liburu onek argituko digu: Liborio de Ramery Zuzuarregui: *El liberalismo y los fueros bascongados, Madrid, 1896*, bere *La Revolución en Guipúzcoa* izeneko atalean:

"La Junta revolucionaria constituida en San Sebastián, se encargó, en efecto, de revelarnos la honda transformación que se venía operando aquí, y que raya en lo inverosímil, probándose de esa suerte la influencia poderosa que la perturbación en las leyes ejerce en la desorganización de los pueblos. Por extraño que eso parezca, en estas montañas, en las que nació San Ignacio de Loyola, Patrono de la provincia y fundador de la Compañía de Jesús, lumbrera insigne y brazo poderoso y auxiliar de la Iglesia santa, sus mismos paisanos se atrevieron a expulsar a los jesuitas, renegando con ese solo acto de todas las tradiciones más queridas de la patria. Se disolvieron y recogieron además los fondos de las Conferencias de San Vicente de Paul; se llegó a silbar en una iglesia, la de San Bicente, de San Sebastián, al santo y Rdo. Sr. Arzobispo P. Claret; se cerraron varias

iglesias; se procesó a multitud de Ayuntamientos, dejándolos aislados de la Diputación foral y obligándolos a jurar la Constitución sin salvar los fueros, como ella se lo tenía ordenado; se destituyó a todos los funcionarios de los municipios que se negaron también a jurar la Constitución, porque querían emplear la salvedad que la Diputación Foral les tenía prevenida; y se convocaron, en fin, las Juntas revolucionarias de Fuenterrabía, que con la Diputación que en ellas se nombró, se erigieron, constituyeron y entremetieron en la esfera propia y en los derechos peculiares de la autoridad episcopal, hasta formular, con absoluta independencia del Sr. Obispo de la diócesis, un arreglo parroquial, con tanto abuso de poder, que en comunicación de 29 de noviembre de 1869 se vio obligado el Sr. Obispo a comunicar a la provincia entera, con la terrible y dolorosa amenaza de retirar su ministerio pastoral, con todas sus consecuencias, de esta parte de su territorio.

Para vergüenza y confusión de los liberales que provocaron el conflicto, y para que los que no lo son concluyan de persuadirse de lo que el país puede esperar de la dominación liberal, insertamos a continuación la comunicación del Sr. Obispo, que creemos es poco conocida, porque hubo interés en ocultarla, y que dice así:

“Obispado de Vitoria.- A pesar del extraño desvío con que V. E. ha recibido mis reclamaciones y protestas sobre incompetencia e improcedencia del arreglo parroquial de esa provincia, que V. E. está llevando a cabo, cumple hoy a mi lealtad anunciarle que, fuerte en mi derecho, me hallo determinado a dirigir mi sentida queja a S. A. el Regente del Reino, y hasta, en último caso, a retirar mi ministerio

pastoral, con todas sus consecuencias, de esa parte de territorio, declinando sobre V. E. la responsabilidad de tan grave medida para esa provincia. Dios guarde a V. E. muchos años.- Vitoria, 26 de Noviembre de 1869.- Diego Mariano, Obispo”.

Que ni la Junta, ni la Diputación, ni el Gobierno tenían ni tienen atribuciones para proceder al arreglo parroquial, que es de la competencia exclusiva y privativa del señor Obispo, lo dice textualmente una ley vigente y concordada, porque es terminante en este punto el art. 24 del Concordato, que concede a los muy Rdos. Arzobispos y Rdos. Obispos el derecho de proceder a formar un nuevo arreglo y demarcación parroquial de sus respectivas diócesis, oyendo al efecto a los Cabildos Catedrales, Arciprestes y Fiscales de los tribunales eclesiásticos, tomando, por su parte, todas las disposiciones necesarias a fin de que pueda darse por concluido, y poniéndolo en ejecución previo el acuerdo con el Gobierno de S. M.

Y sin embargo de tan clara prescripción, que guarda armonía con otras leyes vigentes, en las Juntas generales de Guipúzcoa, tierra clásica de la fe cristiana, fue posible llegar a tamaño abuso, merced a los contrafueros introducidos desde el año 1841 y durante todo el reinado de Isabel II. Doloroso es haberlo de confesar, siquiera hayamos presenciado ese escándalo la mayoría de los hijos del país, con asombro inexplicable y con luto en el corazón.

El huracán revolucionario, gracias a los desafueros cometidos, invadió también estas religiosas y queridísimas montañas, y haciendo alarde de mentido furorismo, porque así lo hizo la Junta revolu-

cionaria de San Sebastián, no sólo no logró que se nos devolvieran los Fueros, sino que gobernó contra ellos, dirigiendo sus tiros contra la Iglesia, e invadiendo, con asombro del católico pueblo guipuzcoano, las atribuciones del Excmo. e Ilmo. señor Obispo de la diócesis vascongada, a pretexto de que S. E. I. difería demasiado el arreglo parroquial.

D. Enrique Lemos, como representante de Hernani, según consta en la pág. 49 del registro de las Juntas de Fuenterrabía, fue el que inició el asunto, presentando al efecto una proposición; y como ocurría la dificultad de concluir el trabajo en los pocos días que quedaban, el procurador D. Leandro Souza Ladrón de Guevara aseguró tener estudiado el asunto, presentando el plan que podía servir de base. Como las Juntas de Azcoitia de 1691 declararon que en asuntos disputables jurídicamente no se pudiese votar sin oír a los consultores, y como era además de costumbre que estos formaran parte de las Comisiones a las que pasasen asuntos de cierta gravedad, pareció lo más conducente que ni formaran parte de la Comisión, ni siquiera se les oyera. En cambio la Comisión llamó a su seno al señor Souza, que tenía estudiado el plan, prescindiendo de los asesores, porque no era dudoso en realidad ni jurídicamente discutible o disputable, que las Juntas de Fuenterrabía no tenían, en efecto, atribuciones de ninguna clase para acordar el arreglo del culto y clero.

Sin embargo, el arreglo se hizo por la Comisión, y la Junta lo aprobó, por nulo y atentatorio que en sí fuese, tratando de ponerlo además en ejecución, porque en circulares de 21 de Julio y de 14 de Agosto se dictaron reglas para su cumplimien-

to. Algunos Ayuntamientos se opusieron respetuosamente a ejecutar las órdenes de la Diputación; otros dimitieron sus cargos, sin que les fuese admitida su dimisión, y otros, protestando respetuosamente, se excusaron de infringir leyes del reino que no se oponían al Fuero y de usurpar los derechos del Prelado. Aunque esta conducta no constituía en realidad ni delito ni falta, más de sesenta pundonorosos, respetables y honrados guipuzcoanos se vieron atropellados y metidos en las cárceles por esta causa.

En tal conflicto, la Diputación quiso ampararse con la protección del Gobierno, solicitando, con gran desprestigio suyo, la aprobación del acuerdo de las Juntas de Fuenterrabía. La resolución del Gobierno, atentatoria a nuestros derechos, y contra la cual tampoco se protestó, no fue completamente satisfactoria. Atendido el malestar que todo esto produjo en el país, la Diputación publicó en su consecuencia un manifiesto, haciendo en él dos afirmaciones inexactas, a saber:

1^a. Que las Juntas de Fuenterrabía no habían hecho ni más ni menos que lo que tantas otras Juntas o Diputaciones Forales llevaban hecho en los últimos treinta años.

Y 2^a. Que el acuerdo de las Juntas de Fuenterrabía sobre el culto y clero, era un hecho práctico y consumado.

El dignísimo patricio guipuzcoano D. Miguel Dorronsoro, de quien tenemos la seguridad de que, si viviera, estaría hoy a nuestro lado, y al que deseamos tributar el pequeño testimonio de nuestra modesta consideración y de nuestro respeto, por la rectitud de juicio y el acierto con que, según nuestro humilde sentir, apre-

ció y juzgó todas las cuestiones forales del país en los escritos suyos, que hemos tenido el gusto de leer, porque no tuvimos tampoco el gusto de conocerle, probó cumplidísimamente la inexactitud de esas dos afirmaciones en su folleto, fechado en Azpeitia a 12 de Enero de 1870, como probó asimismo la inexactitud de otra tercera afirmación hecha por la Diputación dirigiéndose al Prelado, en el sentido de que no era exacto que ella hubiese suprimido ni creado una sola parroquia, ni marcado límites nuevos(1).

El Sr. Dorronsoró demostró, en efecto, que suprimió nada menos que cuarenta y siete parroquias y ayudas de parroquia; que las Juntas y Diputaciones forales anteriores nunca intentaron hacer por sí arreglo ninguno general, ni suprimieron el diezmo ni la primicia, ni redujeron el personal del clero; que fue la Diputación provincial y no la foral, la que intentó ese arreglo en Guipúzcoa, en la aciaga época de 1841 a 1843; pero que aun entonces procedió con muchísima más prudencia y delicadeza; que casi la totalidad de los pueblos dejaron entonces de cumplir sus órdenes, a pesar de lo cual ni se procesó a los Ayuntamientos, ni se causó el más leve disgusto a nadie; que las Juntas y Diputaciones forales siempre que se trató del arreglo general del culto y clero, y muy especialmente desde que se celebró el Concordato, respetaron el derecho de los propietarios y los excitaron a hacer la prestación voluntaria del diezmo y la primicia; declarando que los que no lo hacían, estaban obligados a contribuir en metálico; que dictaron reglas para la formación de presupuestos en los pocos pueblos que en todo o en parte cubrían con la contribución pecuniaria aquellas obligacio-

nes, declarando que la Diputación podía modificar esos presupuestos, derecho que negaba el Ayuntamiento de San Sebastián; que siempre reconocieron y respetaron el derecho del Diocesano, como así resulta de los acuerdos adoptados por la Junta de Zarauz del año 1863, que obra en la página 55 del registro, y de las de Zumaya del año 1868, que se encuentra a la página 75 del registro, celebradas estas últimas un año antes que las de Fuenterrabía, lo que demuestra a la vez que no es que hubiese podido cambiar la opinión del país en tan poco tiempo; que es, por lo mismo, inexacto que las Juntas y Diputaciones forales habidas desde el convenio de Vergara hasta el año 1868, hubiesen hecho nunca lo que las de Fuenterrabía; que lejos de ser un hecho práctico y consumado el acuerdo de las Juntas referidas, y de haberse prestado a ejecutarlo contribuyendo en metálico para las atenciones del culto, muchos Ayuntamientos dejaron de ejecutar sus órdenes a pesar de las amenazas, e hicieron el diezmo y la primicia con más religiosidad que nunca, incluso muchos de los pueblos, cuyos representantes y apoderados en aquellas Juntas aceptaron el dictamen de la Comisión, lo que prueba también que prefirieron seguir sus opiniones particulares a arreglar su conducta al sentimiento general de los pueblos cuya representación tenían; y, en fin, que todos los esfuerzos de las Juntas de Fuenterrabía y los de la Diputación, que creyeron imponer al país sus opiniones aun en materias religiosas, apoyadas por el señor Corregidor político, se estrellaron ante la firmeza de estos católicos habitantes, que no quisieron tener parte en el atentado cometido contra los derechos del Prelado, que son los dere-

chos de la Iglesia católica; por cuya razón la resolución del Gobierno, aunque poco favorable a sus deseos, la obtuvo además la Diputación exponiendo lo contrario de lo que en realidad sucedió.”

* * *

Irugarren eta laugarren bertsoak diotenez, biltzar aiek legez eta bidez bilduak ote ziran duda egiñik, irten egin ziran andik jaun batzuk.

Ramery jaunak ez digu orri buruz ezer ere esaten. Baiña biltzar aietako Registro izeneko liburuak argituko digu txeetasun ori. Leenengo egunean, 1869-ko uztailaren 2-an, gertatu omen zan ori:

“Seguidamente se levantó el Sr. representante de Segura, y manifestó que si bien no habrá encontrado la comisión ningún defecto extrínseco en los poderes de Azpeitia, Oyarzun, Zumaya y Legazpia, a lo que se contestó afirmativamente, es sin embargo cierto que los actuales Ayuntamientos de esos pueblos son ilegítimos como se prueba en la protesta que, suscrita por él y otros Sres. Procuradores, se ve en el doloroso caso de presentar y que le obliga a retirarse de la Junta, como así lo hizo en el acto, igualmente que las representaciones de Beasain, Ataur, Azcoitia, Elgueta, Sayaz, Cegama, Olavide, Andoain, Larraul, Zarauz, Zaldivia, Urnieta, río Oria, Aizpurua, Areria, Asteasu, Gaviria, Ainsuberrueluz, Elduayen, Cestona, Soravilla, Ezquioga, Artamalástegui, Bozue mayor, Andatzabea, Salinas, Escoriaza del valle real de Leniz y Astigarraga.

El Sr. Corregidor político hizo uso de la palabra, y manifestó que esos Ayuntamientos eran tan legítimos como todos los demás que funcionan en la provincia, haciendo para justificar esta verdad una breve historia reducida a decir que los actuales Ayuntamientos de dichos pueblos se constituyeron legalmente, que verificadas las elecciones por sufragio universal en la misma forma que en el resto de la Nación, los Tribunales de Justicia empezaron a entender de ellas a causa de hechos graves y que pueden influir en su validez o nulidad; que la Diputación provincial, sin otra mira que dictar una medida justa y legal, le consultó sobre si debía esperar el resultado de las causas criminales o si podía fallar desde luego por lo que de sí arrojaban las actas; que él a su vez elevó la consulta al Excmo. Sr. Ministro de la Gobernación; quien, en razón de ser una cuestión no prevista en la ley electoral, la pasó a informe del Consejo de Estado; y por último que el Gobierno resolverá con el acierto y espíritu de rectitud y justicia que le distinguen la citada consulta, cuya resolución queda en comunicar tan pronto como le sea conocida. La Junta escuchó con señaladas muestras de agrado y satisfacción las precedentes palabras del Sr. Corregidor, y acordó hacer un recuento de los fuegos que representaban los apoderados presentes en el salón y los que lo abandonaron...”

(1) Migel Dorronsororen liburuxka orren izenburua, Ion Bilbaok bere Bibliografian dakarrenez: Breves palabras sobre dos afirmaciones que la Diputación Foral ha estampado en el recurso elevado al Gobierno solicitando la aprobación del acuerdo de la Junta de Fuenterrabía y la de sus actos en el arreglo del Culto y Clero. Azpeitia: P. Martínez (1879) (40 pp.).



Ondarribia XIX mendean. (La Ilustración Española y Americana aldizkaria, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)



Migel Dorronsoro jauna. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1870)

Bertso Berriak
kartzelerako aurrean jarriak

1 Dozen erdi bat bertso
gauzak jakiteko,
ta zer motibo degun
adierazteko;
kulparik ez degunik
ez dute usteko,
aiuntamentu asko(1)
kartzelan sartzeko.

2 Diputazio jauna
enpeñatu da asko
apaizen arregloa
gerok egiteko;
konformatzen ez gera
gauza onetarako,
gere kontzientzia
garbi izateko.

3 Ez da onetarako
katoliko ona,
ez bada obispoarekiñ
kontatzen aurrena;
alfer-alferrik dabill
diputadu jauna,
ez du konbertituko
jende euskalduna.

4 Legeak faltatuta
gauzak agintzeko,
obe litzake ez balitz
askoz guretzako;
konforme gaude danok
errespetatzeko,
baña ez Elizari
iñoiz faltatzeko.

5 Relijiyua degu
guztien gañetik,
estimatzen deguna
biotz-biotzetik;
segituko degu bai
firme beragatik,
naiz kartzelara eraman
kausa onegatik.

6 Ona emen esplikatu
gauza itz gutxian,
jakiñ dediñ kanpoan
baita ere errian;
gauzak pasatzen dira
gure Españian,
aundiagoak berriz
emen probintzian.

* * *

Azpeitiko kartzelan ipiñiak

1 Azpeitiko kartzelan,
nai bada sinistu,
zazpi aiuntamentu
gerade juntatu;
eskatzen zan fianzak
gaitu ikaratu,
zergatik aundiena
ziguten markatu.

2 Juntatu geranean
kartzelan erriak,
pasa ditugu danok
geren eskariak;
ondo erantzun digu
emen justiziak,
ikusirik daudela
gaizki familiak.

3 Fianza admititurik
laugarren partea,
etxera irteten da
konforme jendea,
dana korajetsuba,
gañera firmea,
kunplitzen dakiena
txit zorrotz legea.

4 Kartzelan izan gera
obsekiatuak,
jakitea txit on da
gauza au munduak;
Azpeiti, Azkoitiak
eta inguruak
alibiatu ditu
gure trabajuak.

5 Presentatzen zitzaizkun
danoi kartzelara,
allegatu bezela,
gauzak eskeintzera;
oiak falta ikusirik,
zijoazen etxera,
bear ginduzen danak
lasterka ekartzera.

6
Etziran onenbestez
oiek konformatu,
zer nai genduan geiago
ziguten galdetu;
bada ezertxo ere
etzagu faltatu,
argatik ez dakigu
zer modu pagatu.

7
Jendeen borondatea
ain zan txit aundia,
beren gañ artu dute
nekearen erdia;
arindu digute asko
oiek desgrazia,
izandu dutelako
gure errukia.

8
Eskerrak danoi milla
presoen partetik,
egiñ dizkigutzuten
mesedeakgatik;
Jaunak paga deizuela
guztioi gugatik,
bada agur batekin
bagoaz emendik.

* * *

Bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman eta Parisko Liburutegi Nazionalean. Bietan argitalpen bera, *Azpeitian: Pablo Martinez-en moldizteguian* inprentatutako kanta-papera.

Parisko ortan bi ale daude. Batean, eskuz idatzita, onako

auek irakurtzen dira: *1870, Arana*. Bestean, ontan ere eskuz, beste auek: *reçu en Febrier, 1872*. Bertso-papera noiz bialdu eta eskuratu zan esan naiko dute urte oiek.

Aurreko saillean agertu degunez, Ondarrabiko 1869-ko batzarra etzan oso gozoa izan. Are

geiago: ondoren, Liborio Ramery jaunak esan digunez, zenbait gizon kartzelara eramanak izan ziran:

“...otros, protestando respetuosamente, se excusaron de infringir leyes del reino que no se oponían al Fuero y de usurpar los derechos del Prelado. Aunque esta conducta no constituía en realidad ni delito ni falta, más de sesenta pundonorosos, respetables y honrados guipuzcoanos se vieron atropellados y metidos en las cárceles por esta causa”.

Kartzeleratze ori degu, ain zuzen, sail onen gaia. Amalau bertso dira danetara, baiña bi zati-tan eratuta daude. Leenengo zatiaren bertsoak, izenburuak adierazten duanez, “kartzelerako aurrean jarriak”; besteak, berriz, “Azpeitiko kartzelan ipiñiak”.

Azpeitiko Udalan, Juzgaduan edo beste nunbait, gai oni buruz zeatz itzegiten duan paper edo ageririk izango da, ziur aski.


* * *

Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Gerardo Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman, eta bai jaun onek berak 1934-an Jose Ariztimuño *Aitzol* zanari bialdutakoetan, sail ontako zazpi bertso agertu dira: 1, 4, 5, 2, 3 eta 6-garrena, leenengo zatiarenak; eta leendabizikoa, bigarren zatiarena.

Aldaketak, leenengo zatiaren bertsoetan: 1/5: errurik ez degunik; 2/5: ez gera konformatzen; 2/6: gauza orretarako; 2/7: geure kontzientziak; 3/1: Ez da orretarako; 4/1: Legiak faltatu; 5/8: gauza orregatik; 6/2: gauzak itz gutxitan.

Bigarren zatiaren leendabiziko bertsoarenak: 1/2: zazpi aiuntamentu; 1/3: falta.

(1) Bertso-paperak: *askok*.



Azpeitia, XIX mendean. (Enciclopedia Auñamendi.)

Bertsu Berriak **prestutasunaren alde arrazoiz jarriak**

1 Zortziko batzuetan
guaz agertzera,
munduak jakin dezan,
gure gertaera:
zer motiboz gaituzten
erritik atera,
eta danok ekarri
kartzela batera.(1)

2 Itxuraz bakarrikan
gauzak juzgatzeko,
kulpadunak gerala
bada pensatzeko;
bañan gogoa duanak
ondo jakiteko,
ez du arrazoen bistan
ala sinistuko.

3 Diputazio jaunak
aiuntamentuari
eman die ordena
urru ta zorrotz, bai:
arreglua jartzeko
Eleizako gauzai,
gusto emategatik
jende liberalai.

4 Errespeto guztian
degu kontestatu:
gauza oetarako
ez geradela gu;
Jainkoak dituala
obispoak autu,
ta aien gauzetan eziñ
gintezkeala sartu.

5 Berak ere dezala
txit ondo pensatu
obispoak neurtzeko
ez dala Aita Santu;
gere kontzientzirik
ez dedin kargatu,
ez degula nai orlako
ordenik kunplitu.

6 Diputazio jaunak
fueoak nun ditu?
Gobernadoreari
da garratz kejatu,
esanaz obedientzia
diogula ukatu!
Orra zeatik gaituzten
presondeian sartu.

7 Kontzientzi garbia
daukagun bezela,
onratzat daramagu
oraingo kartzela;
euskaldunak ez giñan
izango bestela,
Jainkoak eta gizonak
juzga gaitzatela.

8

Erlijiyua degu
guztien gañetik,
argatik ez degu nai
utzi ezergatik;
segituko degu, bai,
firme beragatik,
naiz destierrua eman
orren gauzakgatik.

9

Legeai faltatuta
gauzak egiteko,
beltzak bezelakorik
ez da inon sortuko.
Zer! Gu oien gutizia
beti kunplitzeko?...
Ez, ez... bada infernua
oiek kiskaltzeko.

10

Ona emen esplikatu
gauzak itz gutxian,
jakiñ dediñ Españian
ta mundu guztian.
O zenbat gertatzen da
gaurko egunian,
panfarroi daudelako
beltzak agintian!

Bertsolariak presoai:

Gizon prestu leialak,
egiaz barkatu,
lizentzi gabe badet
zuen izena artu;
agur batekin orain
bear det bukatu,
esanaz probintziya
dezuela onratu.

* * *

Onako sail onek aurrekoaren gai bera du: Elizaren gauzetan sartu nai etzuten gizonen kartze-leratzea. Ala, leen emandako argibideekin, irakurleak nekerik gabe ulertuko du.

Bertso auek ere paperetan zabaldu ziran, *Azpeitian: Pablo Martinez'en moldizteguian* inprentatuta. Ale bat, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azaldu da; bestea, Parisko Liburutegi Nazionalean. Onek eraskin bat du eskuz egiña: 1869.

La Constancia egunkariak ere argitaratu zituan bertso auek,

1935-eko otsaillaren 10-ean, aurretik oar au egiñez: "Azkeneko karlostar gerrate aurrean Azpeitiko kartzelan egondako alkate jaunak".

Egan aldizkariak ere agertu zituan, 1975 urtean, onela adieraziz: "Paris-eko liburutegi nazionalean Patri Urkizu-k kopiatuta".

(1) Azkoitia, Zestua, Zarautz, Aia, Biddania, Segura eta Zegamako alkate eta aiuntamentu jaun, iñork baño maiteago dituztenak Relijioa eta Fuegoak, Azpeitiko kartzelan preso daudenak. (Bertso-paperaren oarra.)

(1870-III-20)

Bertso Berriak
tontoen zintzagarriak Baionako urian jarriak

1

Bele asko dabilta
gure probintziyan,
Bergaran galdutako
kausa piztu nayan;
furoak daudeztela
galtzeko zoriyan
deadarka diyote
errabi andiyan.

2

Ez dirade oroitzen
euren egin-bideaz,
ezta're bear bezela
lege gordetzeaz;
baizikan geiago're
boltsak betetzeaz,
baserritar gaixoak
oso engañatuaz.

3

Esaten diyozkate
milla enbusteri,
pakez bizi nai duben
jende gaixuari,
senarrari eziñan
onen andreari,
pakeen orde z gerra
para deion ari.

4

Askok erantzun diye:
“Fuera gerratia!
Pakiaren fabore
guk borondatia!”
Artan dagola gure
ondo izatia,
gañerakoa dala
tonto engañatzia.

5

Erantzuera onekin
txit koleraturik,
eskeñitzen dizkie
lau tiro bertatik,
baldin aiek deitzean
oso sinisturik
ezpadira altxatzen
fusil bana arturik.

6

Antxinatik dakite
bai baserritarrak
txit seguru daudela
gure lege zarrak;
berritzen badituzte
lengoko negarrak,
erruki ditut bele
eta beletarrak.

7

Len errelijiyua
ta orain fueruak
dabilzkite aotan
Pedroen soldaduak,
altxa erazi naian
bordari prestubak,
Karlos badatorrela
oso sinistubak.

8

Goguan daukatenak
juan zan gerratea,
ez diyote ematen
beren sinistea,
naiago dutelako
gaur duten pakea,
ez oiekin batean
lurperatutzea.

9

Orra, aditzalleak,
zer karidadea:
anaiaren tartean
gerra paratzea;
orrela nai badute
zabaldu fedea,
laister izango dute
desengaño tristea.

10

Jesusek para zuan
Ebanjeliyua,
da maita dezagula
gure projimua;
dizaiogun kupira
ta ez gorrotua,
naiz judua izan ta
naiz izan morua.

11

Bada guziok gera
Jaunaren semeak,
kristau onak bezela
igual erejeak;
barkatu dezaizkigun
gure utsegiteak,
eskatu bear dizkagu
bere mesedeak.

12

Allende Salazar da
gure jenerala,
ementxen jaiotako
gizon liberala;
batere duda gabe
dakigu ura dala
fueroen defensari
gutzizko leiala.

13

Iñork nai balituke
arriskoan jarri,
lagunduko diogu
guziyok alkarri;
altxatzen badirade
mendietan, sarri
ibilli bear dute
oso farragarri.

14

Orra amalau bertso
presaka jarriak,
jakiñaren gañean
degozten guziak;
sortutzen badigute
gerrarik etsayak,
bekaiza(1) izan bezaio
euskaldun erriyak.

* * *

Amalau bertso auek, garai ar-
tako egunkari batetik ditugu: *Au-
rrerá. Diario liberal de Guipúzcoa.
San Sebastián. Domingo 20 de
Marzo de 1870.*

Egunkari ori, Errenteriako En-
rike Elizetxea zanaren bilduman
arkitu degu.

Izenburuaren gañean oar au
irakurtzen da: *Publicamos con su-
mo placer la siguiente composi-
ción que se nos remite.*

Bertso auetan salatzen danez,
gerra prestatzen asiak ziran kar-
listak; eta bertsolariak —nor
izango zan ez dakigu— jendea ja-

kiñaren gaiñean jarri nai du, iñor engañatu ez dedin.

Bertso auen jartzailleak oso begitan artuak dauzka *beleak*, bazterrak naasten dabiltzanak. Oiek zein diran esan bearrik ez dago: apaizak: “Pedroen soldaduak”, zazpigarren bertsoak dienez.

Ain zuzen, andik lau illabetera irten ziran mendira karlistak, beste probintzietan ere bai, baiña batez ere Araban. Abuztuaren 26-an asi; baiña andik egun gutxira sakabanatu ziran. Orrela bukatu zan orduko festa.

Amabigarren bertsoak Allende Salazar jenerala aitatzten du.

Onela dio Julio Arostegik bere *El carlismo alavés y la guerra civil de 1870-1876* (Vitoria, 1970) liburuan:

“El Capitán General, José Allende Salazar, desde su nombramiento en diciembre de 1868, había dirigido alocuciones a los carlistas, exhortándoles a la tranquilidad y jugando la baza, poco efectiva, de su paisanaje vasco. En la de febrero de 1869 decía unas palabras que habían de resultar proféticas: ‘No siempre podréis celebrar un convenio de Vergara’. Aunque es de suponer que estas palabras no afectarán entonces al exultante carlismo sino en el levantamiento de sus ánimos”.

(1) *Aversión.* (Aurrerá egunkariaren oarra.)



Elgeta, Bergarako bide zaarretik. Pellicer-en marrazkia.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Bertso berriak

1

Cazador Arapilles
au da batalloia,
alako^z osatua
balego milloia;
ejerzizio ona
ta berak sasoia,
oiek nai dituanak
badu arrazoia.

2

Tolosan egon dira
piskatxo batean,
gustoa ematen dute
entrebiteartean;
estimatuak oso
neskatxen artean,
negarra gelditu da
orain juatean.

3

Bertako mutil txarrai
menosprezia,
kasorik egin nai ez
estimazioa;
armadunen aldeko
konbersazioa,
soldaduak daukate
estimazioa.

4 Ezkontzeko geienen
aginduak naski,
etziraden konpontzen
alkarrekin gaizki;
ibillera guziak
iñork ez dakizki,
bañan esango ditut
ikusiak itz bi.

5 Zidurien zirala
soldadu-andreak,
partieran ibilli
dira zelebrea;
karrasiaz negarrak
ta pesalunbrea,
arritu dira oso
bistako jendeak.

6 Lanak eman dizkate
partitu eziñak,
zergatik alkargana
zeuden aĩn etziñak;
korrika soldaduen
segi alegiñak,
badira ixuriak
negarrak samiñak.

7 Estazio aldean
nobi ta nobio,
partierak egiten
agur da adio;
eziñ gelditu dala
malkoa jario,
amanzebatuakin
ez da misterio.

8

Baziran pañuelo
erregalatuak,
malkoakin bustita
an entregatuak,
akordatzeagatik
alkarren kontuak;
orra zer lan dituan
enamoratuak.

9

Alkanzatatuzen saia
baldin al baleri,(1)
obe da parte eman
gobiernoari:
berriz biraldu zala
batalloia ori,
bestela penaz illko
dirala dirudi.

10

Desordenako pozak
ondore tristea,
inoiz kastigatzen da
bata edo bestea;
ez arren arriskatu
geiegi, gaztea,
baldin ezpadezu nai
gaizki ikustea.

11

Tronpetaren soñua
nai dute aditu,
musikari atzetik
gañera segitu;
dantza ta jolasetan
gero dibertitu,
soldaduak orrela
engañatzen ditu.

12

Batean eziñ sartu
gaizto ta on danak,
asko izango dira
garbi dabiltzanak;
guzientzat ez daude
itz oiek esanak,
ez beretzat aditu
kulpante ez danak.

13

Anka jaso ta salto
libre zaudetenak,
trabak, tristurak eta
biotzean penak;
paradero onik ez
gaizki dabillanak,
erremedi gaitzala
Jaungoikoak denak.

* * *

Bertso auek Tolosako Manuel Urreta zanaren eskutik jaso genituan, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Paperak ez du bertsolariaren izenik esaten; eta nor izan zan somatzeko biderik ez degu ikusten.

Urterik ere ez da ageri. Baiña paper zaarra da. Eun urte paseak izango ditu.

Tolosan *Cazadores de Arapiles*-edo izeneko batalloia izana da. Ura joaterakoan, neskaten pena! Orixe da bertsoen gaia.

Batalloi ori Tolosan noiz izan zan, Udalaren agiriren batean,

egunkariren batean edo nun ere bait esango da noski. Baiña ez gera billa saiatu, ortarako denbora geiegi bearko genduala pentsatuz.

Ala ere, gure iritzirako, karlisten denboran izango zan. Orduan, izan ere, soldadu-taldeak ara-onera ibili bearko baitzuten.

* * *


Tolosako Timoteo Adurriaga zanaren kuadernoan ere arkitu ditugu bertso auek, eskuz idatzita.

Aldaketak: 1/1: Cazador de Arapiles; 2/3: gustatu ere dira; 5/5: karraxia ne-

garra; 6/1: Lanak eman zizkaten; 6/5: korrika soldaduai; 6/6: segi alegiña; 6/8: negarra samiña; 7/6: malkua dariyo; 10/4: bat edo bestia; 11/1: Korneta-
ren soñua; 11/3: gañera musikari; 11/4: atzetik segitu.

Eta 13-garrenaren leenengo erdia eta 12-garrengoaren bigarrenengo erdia alkarri erantsita, bertso bakarra egiñez. Eta, era ortan, sail onek amabi bertso ditu Adurriagaren kuadernoan.

(1) Bertso-paperak: *baldiñ al baliri*.



Karlistak Tolosan bigarren gerratean. (Enciclopedia Auñamendi.)

Soldaduakin Tolosako neskatxak

1

Tolosako neskatxak
bostetatikan bi,
aurten gelditu dira
guztiz errukarri;
biyotzetikan triste,
animatik larri,
alargundu dirala
esanaz alkarri,
amaika malko eder
zaiote erori.

2

Bi batalloi Tolosan
genduzkagun puntuz,(1)
Cantabria deritzaio
berari tituluz;
bizkorrak izan dira
jaun oriek buruz,
konpleto izateko
argiz eta diruz,
betiko ezin bizi
iñolako moduz.

3

Urriyaren emeretzian
batalloi bat martxa,
txokaturik dadukat
neska orien festa:
gonak beren tokira
iñola ezin altxa,
ziruriten iriki
ziotela bretxa,
igual gelditzen da
itzaltzian atxa.

4

Tristegua izan zan
illaren ogeya,
emendikan juan zan
beste batalloya;
neska orien malkua
zan ain ugariya,
udara izan bazan
ai zer igariya,
Tolosako kaletan
zajuan ibaya.

5

Cantabria-ko sarjento,
kabo ta rasuak
emen pasa dituzte
txit egun gozuak;
neskatxari utzirik
kaiolan zozuak,
igasi egingo du ta
andikan gaxuak,
ezin berriya izango
dute gurasuak.

6

“Si te he visto no me acuerdo”,
aiek orain Pamplonan,
“Te quiero mucho” esanaz
neska danari an.
“Si te he visto no me acuerdo”
egunero marmar,
fiñak ez dirala izango
millatatik amar,
ederki egin dizute,
zertan aidi eman?

7

Korridan zezena iltzera
juaten dan espada,
muleta gorriakin
tentatzen asten da;
zezena bere jeniyo
oso zorutzen da;
zuen intentziyua
ere iguala da,(2)
kapote, galtza gorri
txaketilletara.

8

“Juan zan Mondanairu,
juan zan Jiménez,
juan zan García eta
juan zan Alvarez;
aiek egongo ditun
Pamplonatik parrez,
kartatxo bat bakarra
egin nai ere ez,
il biarrak gaitun
sabeleko miñez”.

9

Etorri zaizkizute
lenguan ordañak,
apenas diran oiek(3)
aik bezin lirañak;
bañan izango dute
zuetako griña,
baita itz egiteko
mingain atsegiña,
sendatuko dizute
daukazuten miña.

* * *

Bertso auek aurreko saillaren gaia dute: soldaduak —bi bata-lloi— Tolosan izanak dira, adiskide kutunak egin dituzte neskatxetan, eta auen pena aiek Iruñera alde egitean!

Baiña, azken bertsoak dionez, ordaiñak etorri dira, eta neskatxen miñak sendabidean jarri ere bai.

Egillearen izenik ez da esaten. Urterik ere ez. Baiña Tolosan orrelako soldadu-taldeak joan eta etorri ibiltzeko, karlisten gerra denborako kontua izango da.

Bertsoak, Tolosako Timoteo Adurriagaren kuadernoan arkitu genituan, Izenburua ere toki beretik artua degu.

(1) Adurriagaren kuadernoan: *Bi bata-lloi genduzkagun Tolosan puntuz. Adurriagak bertsoak kopiatzerakoan, konturatu gabe itzak tokiz aldatu egingo zitu.*

(2) Adurriagaren kuadernoan: *ere igual iguala da.*

(3) Adurriagaren kuadernoan: *aiek.* Baiña urrengo itza ere *aik* da eta emen *oiek* bearko du.

Bertso Berriak

1

Karta bat etorri zat
orain Bergarati:
bertsoak paratzeko
neskatxe sail bati;
soldaruen ondoren
dabiltzala beti,
nunbait beren gustoak
kunplitzeagatik.

2

Lau dira prinzipalin
ibiltzen diranak,
ipintzen dituztenak
izketako lanak;
ez ditut klaratu nai
orien izenak,
zeren lotsatzen nauen
guziak esanak.

3

Kastigatzeko ez da
diliturik oso,
bañan ibillieran
dabiltz peligroso;
beste dama gaztiak
ez ponturik jaso,
itzegin bear nuke
al-bait kurioso.

4
Esateko moduan,
soldaruak nora,
beti neskatxe aiek
badijoaz ara;
gizon artetik ezin
dirade atara,
iñor engañatzeko
da zenbait pikara.

5
Soldaruak berekin
beti badituzte,
bestetara juaterik
ez genduke uste;
oso gustatzen zaie
aiekiko juste,
aien faltan besteak
beartzen dituzte.

6
Kanterara dijoaz(1)
edo arrubira,
mutill asko ikusten
dituen tokira;
nunbait ez due eta
lotsatzen eztira,
danak inkietatzen
ibillitzen dira.

7
Al dituzten arropak
ipiñi soñean,
mutilla ta ezkontza
beti mingañean;
artarako saiatu
bai alegiñean,
bañan gelditzen dira
beti eziñean.

8

Itzegiteko orra
emen delituak,
zergatikan dabiltzan
sobresalituak;
itzak jarri ezker
ondo neurrituak,
izan bear ditue
beren merituak.

9

Orra emakumian
bildurrez gizonak,
galtzak bajatu dira,
indar dute gonak.(2)
Nola ikusi bear
dirade gauz onak?
Umill egon bearko
baju dagoanak.

10

Mutillak ez daukate
len aÑe fantasi,
agertzeko bildurrez
izkutuan kasi;
desiertoen billa
bearko da asi,
erretiratutzeko
neskatxen igasi.

11

Neskatxek mutill billa
oiek bai moduak,
obra onak asteko
ai zer zimenduak;
gu ez gera egingo
ta berak galduak,
arrapatuko ditu
dagoen munduak.

12

Naiz zar eta naiz gazte
edozein maltraste,
berentzat modukoak
billatzen dituzte;
gaiztoak ibilli nai
alkarrekiñ naste,
ez dira sujetatzen
gauza diran arte.

13

Sasoi duten artean
ala ibilitu,
gustoak konprituaz
etsaia serbitu;
beti ezkontzeko ta
neskazar gelditu,
jeneral ibillera
txarrak oiek ditu.

14

Modu asko oi dira
gero suzeditu,
osasuna akaso
betiko eritu;
estimaziorik ez
eta errenditu,
gaiztoak aitzenean
bearrez supritu.

15

Konsejatzen zaituztet,
mirabe gazteak,
eskarmentatutzeko
batzu ez besteak;
eztu iñor edertzen
itxusi asteak,
damu alferrik oi du
galtzen dan tristeak.

16

Dama garbi kastoak,
 au ontzat aditu:
 mutillen billa zeuek(3)
 ez iñor mugitu;
 lanean da kondutan
 ondo presomitu,
 ezkongaiak ugari
 ark izango ditu.

17

Bergarako erria
 noble ta leiala,
 ez det esan gaiztoak
 or asko dirala;
 arbola-adar iarrak
 oi diran bezela,
 kulpanteak beretzat
 aditu ditzala.

* * *

Tolosan ez-ezik, Bergaran ere bazan, bertso auetan ageri danez beintzat, neskatxa soldaduzalerik.

Iru tokitan arkitu ditugu bertso auek: Oiartzungo Manuel Lekuona apaiz jaunaren bilduman, moldiztegi izenik gabeko paper batean; Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bilduman, *Azpeitian: Pablo Martinez-en moldiztegiuan* argitara emandako kanta-paper batean; eta Tolosako Fakundo Adu-riaga *Besamotza* zanaren kua-dernoan, eskuz idatzita.

Danetan zaarrena Lekuonarena dala ematen du, eta berari kopia-riatu diogu.

Leenengo bertsoak dionez, karta bat etorri zaio Bergaratik bertsolariari "bertsoak paratzeko" eskatuz. Ain zuzen, Alzoko Manuel Antonio Imaz (1811-1893) bertsolariaren paperetan onako eskutitz au arkitu genduan:

"Vergara, 17 de dicbre de 1870

Sr. D. Manuel Imaz

Muy Sor mío: Habrá recibido Vd. unos versos sacados a las chicas de Vergara para que los arregle; pero tenga Vd. la bondad de no hacer caso, porque son cuentos de un chiquillo que es capaz de perder la conducta al que la conserva buena.

Todo lo escrito en esos papeles que a V. le ha remitido son mentiras que no vale la pena de ocuparse en ellas.

Sin más, mande lo que guste a su att^o. s. s. q. b. s. m.

Gabriel Iza"

Gabriel Iza orrek dionez, bertsoaren batzuk bialdu zizkion norbaitek Altzoko Imaz bertsolariari, zuzentzeko eskatuz; Bergarako neskatxei ateratako bertsoak, ain zuzen.

Altzoko Imazek noren esana egin ote zuan? Gabriel Iza orrena ala bestearena? Bergarako neskatxei jarri eta zuzendu bear ziran bertsoak ez ote ziran onako auek izango? Gauzak itxura badi. Baiña kontu segururik ezin jakin.

Eskutitz orrek aitatzen dituan bertsoak onako auek balira, orduan noiz jarriak diran ere jakingo genduke, urtea eta eguna ortxe baititu: 1870-eko abenduaren 7-a.

Orduantxe asiak ziran karlistak beren bigarren gerratea atera nairik. Eta gobernua indarra onera ekartzen ere bai. Oietakoak izan ditezke, beraz, Bergarako soldadu oiek. Eta aurreko bi sailletan agertu diran Tolosakoak ere bai.

* * *

Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bertso-paperak onako aldaketa auek ditu: 8/3: zergatik an dabiltzan; 8/7: izan bear ditu; 9/4: indar ditu gonak; 9/6: dirade gizonak; 14/8: bearko sufritu; 15/4: batzuek besteak; 16/1: Dama garbi gazteak; 16/3: mutillen billa zeurek; 16/6: ondo prokuratu; 16/8: arek izango ditu; 17/5: arbola adar larrak. Ortaz gaiñera, fonetismo asko kendu dira.

* * *

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren kuadernoak onako aldaketa auek: 3/5: beste dama guztiak; 3/8: al balitz kurioso; 8/7: izan bear ditu; 9/6: dirade gizonak; 11/1: Neskatxa mutil billa; 11/2: oiek bai kontuak; 11/8: dijoan munduak; 14/2: gero suzeditzen; 14/4: betiko eritzen; 14/6: gero errenditu; 14/8: bearko sufritu; 16/1: Dama eder gazteak; 16/2: danentzat aditu; 16/3: mutillen billa zeurek; 16/6: ondo prokuratu; 16/7: ezkongaiia ugari; 17/2: leial da noblea; 17/5: arbola adar larrak; 17/6: oi diran modura.

(1) Bertso-paperak: *Kantera dijoaz.*

(2) Bertso-paperak: *indarnitu gonak.* Adurriagaren bilduman: *indar dute gonak.*

(3) Bertso-paperak: *mutillen billa zeuroak.*

(1870)

**Karlos zazpigarrenaren
Bertso Berriak**

1

Paper batian ditut
bertsuak ikusi:
liberalak dirala
oraindik nagusi;
esplikatubak daude
entero itxusi,
gezurra pranko eta
fundamentu gutxi,
erantzun gabe eziñ
ixilikan utzi.

2

Bertso oietan eman
diguten ordena:
libertadia dala
legerik onena.
Españolak onekin
artzen degun pena!
Iñon lanikan ez ta
miseriya dana,
nola sinistu oiek
esaten dutena?

3

Beste bertso batian
ikusi dedana:
pakia dala gauza
emen biar dana.
Estimatzekua da
orlako esana,
bañon beren kulpa da
guk ez au izana;
liberal jende orrek
nastu digu dana.

4

Liberalak zer diran
pensatzen jartzian,
tristura bat sartzen da
nere biotzian.
Españolak geienak
lanaren eskian,
gosiak amorratzen,
miseri tristian;
zeñek oieri utzi
orrela pakian?

5

Liberal progresista
republikanuak
ateratzen dituzte
orlako planuak,
esanaz diradela
karlistak bobuak,
gañera burutikan
juiziyoz galduak;
orra engañatzeko
beltzaren moduak.

6

Jakin bear dezute,
liberal guztiak,
gaizki zabiltzatela
zar eta gaztiak.
Pena emango dizute
Karlos ikustiak,
bañon baliyo ez du
burlaka astiak;
zuek aña badira
oraindik bestiak.

7

Zer esan jakin ez ta
da beltzak sortuba
etzaiola tokatzen
Karlosi tronuba.
Engañatzen dirala
gauza seguruba,
karlistak ez daukagu
firmeza galduba;
Dn. Karlos izango da
guztियon buruba.

8

Juiziyo gutxiko ta
talentu gabia
esaten dute dala
Karlos erregia;
etzubela egon biar
Frantziyan gordia,
baldin izandu balitz
español noblia.
Zaute pazientziyan,
laister emen dira.

9

Arritzekua ez da
jende liberala
karlistarekin beti
ametsetan dala?
Jakin bear dezute
esaten dedala
Karlos septimo dala
español leiala;
Españian biar du
sartu beriala.

10

Nai eztezute bañon,
beltz gizarajuak,
aginduko dizute
karlista majuak.
Udaberriko lorak
bezela kanpuak,
Dn. Karlos destinatatu
digu Jaungoikuak,
errege izateko
Españiakuak.

11

Begiratu txit ondo,
español nobliak,
gauz onik ez dubela
oraingo legiak;
elkar ezin degula
ikusi jendiak,
irabazirik ez du
iñondik pobriak,
ez baldin baditugu
alderdi obiak.

12

Biba Karlos errege,
biba, Jaime, aurrera!
Españian ditugu
goizetik gabera.
Etortzen diranian
baguaz kalera,
altxatubaz guziok
Karlosen bandera,
esanaz jendiari:
Españolak gera!

* * *

Amabi bertso auek eskuz idatzita agertu dira, Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman. Baiña bi kopia dira, bertso guziak berdin dituztenak, aitatzerik merezi ez duten uskeri batzuk izan ezik.

Itxura danez, bertso-paperen bat atera zuten liberalak karlisten aurka; eta auetako batek bertso auekin erantzuten die.

Liberalen bertso-paper ori ez det uste eskuratu degunik. Gerra

artako bertso-sail asko galduak izango dira, izan ere, eta oraingo au oietako bat.

Izenburuaren gainean idatzi degun urtea, 1870 alegia, ez da guk asmatua, esku-idatziak alaxe duana baizik.

Azken bertsoak Jaime aitatzen du. Ori Don Karlosen semea izan zan.



Don Karlos. (Jaime del Burgo: Veteranos de la Causa, San Sebastián, 1939.)

Bertso Berriyak

1

Bertso berri batzuek
bear ditut para,
txit estadu txarrian
arkitutzen gera;
oraingo gaztietan
filda onik bada,
oso itxutu dira
soldaduetara.

2

Errepara zazute,
aien gurasuak,
zer modutan dabilzan
alaba gaxuak;
ez ditut denak sartzen,
badira batzuak
soldadu zarretara
enamoratuak.

3

Modu orretan dabil
zenbait neskatx ero,
soldaduen ondotik
izugarri bero,
noizean bein bezela're
kasik egunero;
orain kontentu dira
naiz negarrez gero.

4

Zenbait neskatxa gazte
badabill seriyo,
oker egiñ duena
ez da misteriyο;
zenbat tropa txandatu
ainbeste nobiyo,
bostek galdu bear du
au dala meriyo.

5

“Zer pasa zaiñ, alaba?”
asi zaio ama.
Orduko nobiyua
aspertu ta juana.
Ukatu naiagatik
agertuko dana,
nork berak jaso bear
azkenian txalma.

6

Zer pasa bear zaien
esango det klaro:
egun ale batzuek
gustora igaro;
Kastillara juatian
majuak akabo,
ez dituzte ikusiko
sekulan geiago.

7

Eztiro ateratzen da
oien aotik itza,
maliziya kolkuan
Luziferren gisa;
inbusteriya franko,
txit kariño pixka,
gaztiak engañatzen
ederki dabilta.

8

Asten bazaio esaten
zerbait jolas ariñ,
orlako personari
ez kasorik egiñ;
belarriyak itxi ta
ankari eragiñ,
geroko okerrikan
etorri ez dediñ.

9

Matrimoniotako
zenbait dama gazte
soldaduen ondotik
txoratzen zerate;
ardallan or dabilta
alkarrekin naste,
orren inozenterik
zan ez nuen uste.

10

Neskatxarena utsa,
andrietan ere
badirala aditzen det
askotxo ala ere;
orla bizitzia ez da
posible ta alere
ez lirake aspertuko
batzuek beñere.

11

Gizonak jakitian
artzen du kolera;
andriak beriala:
“Gezurti bat zera”.
Garbitasuna oiekin
nork bear du atera?
Orrela ibiltzia
beretzat kalte da.

12

Neskatxa ongi litzake(1)
ura kontentu balitz,
mantenu ona luke
ogiz ta aragiz;
gero txokolatia
egunian bi aldiz,
sagardua ere bai
egarritzen balitz.

* * *

Bertso auen iru kopia arkitu ditugu, irurak makinaz idatzita. Oietako bi Erreterian: Enrike Elizetxea zanaren bilduman, eta bestea Joakin Ganborena Zabalarenean. Eta irugarrena Oiarzunen, Soraburu baserrian.

Iru kopia auek aldaketarik ez dute, kopiatazaillearen uste gabe-ko oker bat edo beste izan ezik.

Gaia zer dan leenengo bertsoak adierazten du: neskatxak "oso itxutu dira soldaduetara". Nungo neskatxak, ordea? Nork eta noiz jarritako bertsoak?

Txeetasun oiek Erreteriako Manuel Elizetxea adiskideak argitu zizkigun, bere eskutitz baten bidez. Artan agertzen zuanez, *Auspoa*-n 74-75-garrenean, *Erretereria*'ko bertsolari zaarrak izeneko liburuan alegia, onela esaten da, Jose Miguel Salaberria Iraola bertsolariak itzegitean:

"Jose Migelen bertso gutxi jaso degu; jarrialdi baten berri ta bi bertso erdizka; besterik ez".

Eta Manuel Elizetxeak onela jarraitzen zuan:

"Ba nik uste det baditutela beste amar... Zure idaztitan len-dabiziko bertsoak onela esaten du:

Neskatxetan ezikan
andrietan ere...

Nere paperian onela dago:

Neskatxarena utsa
andrietan ere..."

Ondoren iru bertso kopiutzen zituan: sail ontako 1, 4 eta 9-garrena.

Orduan oartu giñan bertso-sail ori guk ere bagenduala. Onako au alegia. Eta guk *Auspoa*-ren 74-75-garrenean agertzen genituan bi puska aiek, sail ontako 6 eta 10-garrenaren zatiak zirala.

Sail orretzaz onela esaten genduan: "Orra jarrialdi ori nola sortu zan: gerra denboran, Erretereria liberalen mende gertatu zan. Orregatik, erria kanpoko soldaduz beterik egon zan. Auek majo-

keritan asi ziran erriko neskatxe-kin, baita auetako zenbaitek aurrerabidea eman ere. Eta Jose Migelek bertsoak jarri zizkien”.

Argibide auen emalea, Jose Migelen ondorengo bat izan zan: Errenteriako Inazio Odriozola.

Beraz, Manuel Elizetxearen eskutitzari eskerrak, txetasun

guziak, edo geienak beintzat, argi gelditu dira: nungo neskatxak ziran, bertsolaria nor izan zan, eta noizko bertsoak diran ere bai: karlisten bigarren gerra-denborakoak, 1872-1876-koak, gutxi gora-beera.

(1) Paperetan: *Neskatxa bera ongi litzake.*



Las grandes causas sufren
i' unos grandes aversos.
I' semejantes al altivo cedro,
se doblan, i' avers tambien, i' impuro
del aversán, pero no se avergen, para
levantarse despues con majestosa
gloria. Un triunfo sin contrariedades
no es glorioso. La virtud es tanto
más preciosa, cuanto más grande
ha sido la lucha. Lucharemos, pues,
y al fin venceremos, porque Dios
está con nosotros.

El no pensaba yo i' mediados del
siglo XIX. y así sigo pensando
en los albores del siglo XX.
Vizcaya, 1904.

Carlos

Karlos VII, karlisten erregea, eta aren esku-idazki bat. (Album tradicionalista, 1833-1933.)

(1870)
Sastrea!

**Sastre, Sastre, Sastre, azak eta naste,
zure bizar luziak izutzen gaituzte, e!**

1

Periko izan arren
gure kapitan,
Sastreari ez diyo
ajolarikan;
ez; arren esanetan
gure gizonetan
irtentzeko ez emen da
odolikan.
Nai dezutenean
irten mendira,
lotan dauden abek
jaikiko dira.

2

Jakiteko zein dan
jende noblea,
nai genuke izan
libertadea;
bai, or dago Sastrea,
pasatzen du astea
preparatzen bere mendeko
jendea.
Ez gaitu ikaratzen
oien fusillak,
indar geiago du
gure makillak.

3

Gizon jakintsua
dago Sastrea,
pozik balegoke
bere emaztea.
Bai, izan du suerte
kantua ikastea;
kontentu biziko da
orrekin jendea.
Plomox *tenor* eta
Sastrea *baju*,
egiten digute
nai aña *oju*.

4

Sastreak nai badu
liberala izan,
ez digu ajolik
orreatikan;
ez, eta zergatikan
oien tabernetan
ikusten ez da alperrak
besterikan.
Lana utzi eta
beti kantari,
asko zor diyote
liberalari.

5

Liberala bada
biyotz guztitik,
ez digu egin bear
guri burlarik;
ez, eta orreatik
gabiltza alperrik,
ezin erakutsirik
oiei legerik.
Etortzen danean
gure erregea,
jakingo'ute zer dan
libertadea.

6 Sastrea izan arren
boluntariyo,
Perikori oraindik
agindu ez diyo;
o, au bada kapitan,
ura berriz kabo,
agintzeko arrepublikaren
zai dago.
Orduan jantziko
ditu galoiak,
jaten ez badizka
gutziz ordoiak.

7 Etortzen danean
arrepublika,
ondo beteko du
Sastreak tripa.
A, juango da korrika,
lana utzirika,
ustutzerera sagarduaren
barrika.
Pakean nai badu
jendeak bizi,
dijula orduan
kanpoa igasi.

8 Periko izatean
gobernadore,
Sastrea egingo du
erriko alkate;
e, konsola zaitzte:
emango du parte
ez itxitzeko tabernak
goiza arte.
Sastrea izatean
gure alkatia,
pozaz biziko da
emen jendia.

* * *

Bertso auek Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzita.

Karlistak jarriak dira, baiña gerra aurrean, artean mendira irten gabe zeudela. Giroa berotzen ari zan, ordea; eta tiroka asteko ezer gutxi falta zan. Ala ematen du bertsoak irakurrita.

Bertsoen ondoren onela irakurtzen da Manterolaren bilduman: *La Boina blanca*. Egunkari edo aldizkariren bat zan ori. Roman Oyarzun-ek bere *Historia del carlismo* liburuan dionez, Zumarragan argitaratzen zan. Ion Bilbao-k ere aitatzen du bere bibliografian: *La boina blanca*. (*Periódico diario carlista*). Zumárraga, 1870.

Urte ontan argitaratutako bertsoak izango dira, beraz.

Urrengo saillean ikusiko degunez, erantzuna bertsoan eman zioten sail oni liberalak.

Barón de Montevilla-k ere jaso zituan bertso auek bere bilduman, irugarren bertsoaren bukeran oar jakingarri au egiñez:

“*Pero también bajo el popular donostiarra Plomox, y no tenor; el Sastre (Arrieta) falleció poco después en Oiquina, siendo capitán de miqueletes, luchando contra los carlistas*”.

Leenengo bertsoan *Periko* izeneko bat aitatzen da. Orri buruz argibide au jaso genduan Azkoitiko Floreagako Julian Larrañagaren aotik:

“Periko, Donostiako Aiuntamentuan enpliatzen zan gizona zan. Ta karlista zan, da San Karlos eguna etorri zanean, badakizu nola zelebratzen zeben karlistak San Karlos eguna; ba, ordun afaldu zun da pixka bat argitu zan; da, argitu zanian, kalian *benga* dantza ta *benga!* Ta nunbait zeozer izango zan an, da bota egin zeben Aiuntamentutik. Ta gero ordun atera zizkioten mikelleteak:

Perikok obe zuen
ibili ez bazan
San Karlos egunian
plazetan dantzan;
Karlos jartzen danian
Españian errege,
Periko izango dek
gobernadore.

Geiago ere baziran, ordea”.

Bertso onen azken ziriari, sail ontako zortzigarren bertsoak erantzuten dio.

Iru jarrialdi izan ziran, beraz: leendabizikoa, Azkoitiko jaun orrek puska eman diguna; bigarrena onako au, *La Boina Blanca*-n agertua, zein egunetan ezin esan badegu ere; eta irugarrena, onen atzetik datorrena.

* * *

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, 1932 urtean Plazentziako Urzelaik bialduak, puska auek arkitu ditugu:

Periko, Periko,
etzera betiko,
etzerade geiago
agintzen jarriko, o!

Periko omen degu
danen kapitan,
ez digu ajolarik
orregatikan.

Sastre, Sastre, Sastre,
azkar eta naste,
zure bizar aundiyak
izutzen gaituzte, e!

Perikok obe zuan
S. Karlos egunean
ez bazan ibili
tabernan dantzan.

Baita argibide au ere: "Periko-
Periko Donostiko itxasgizona
zan. Karlistetara joanta, txalupa
nagusi egin zuten. Guda bukatu-
ta berriz Donostira ixil-ixilik eto-
rri bear".

Eta, azkenik, 13-garren doi-
ñua, azken orri-aldeetan.

* * *

Aita Apalategiren paperetan
bertso auek agertu dira:

Periko, Periko,
etziñan betiko;
etzera geiago
agintzen jarriko. Eup!



Donostiako Santa Maria eta Kale Nagusia.
(Juan Mañe y Flaquer, *El Oasis*, Viaje al País de los Fueros, 1878.)

(1870)

Bertso Berriak

**Karlistak gustora irtengo lirake
boina txuri aña gizon balirake.**

1 Nabarbendu dira
karlistak emen,
eztakit nik, jaunak,
zer darabilten;
ez kasorikan egiñ
nai badute irten,
errez illko ditugu
guziak aurten.
Karlos ori bada
orren abilla,
liberalen kontra
irten dedilla.

2 Oiek eztaukate
lengo indarrik,
argatik eztegu
oien bildurrik;
nai badute irten
karlistak bakarrik,
etzaiote lajako
sano ezurrik.
Luzaro Karlosek
bizi nai badu,
Frantzian gordeta
egon obe du.

3

Nai dezutenean
irten mendira,
gustora egongo naiz,
jaunak, begira;
asi baño lenago
bueltatuko dira,
baldin bizirikan
lajako balira.
Karlos, bi urtian
zer zabiltzate?
Mendira irtentzeko
ordu dezute.

4

Alferrik dabilta
beti lanian,
Karlosen legia
jarri nayian;
eziñ bizi liteke
karlisten mendian,
obe da egotia
libertadian.
Ezer egin ez ta
bazterrak nastu,
Karlosen legiak
gauza onik ez du.

5

Amorratzen daude
ia gero nola,
ezin sosegatu
dirade iñola;
liberala ikusirik
agintzen dagola,
pozi biurturik
daukate odola.
Gure armen beldurrik
ez omen dute,
karlista jaun oiek
ala diote.

6

Ez izutzekotan
gure fusillak,
indarra biar du
oien makillak;
mingaña franko badu
Karlosen kuadrillak,
arrantxua jateko
ai zer mutillak!
Oientzat ez degu
bear fusillik,
obe luteke askoz
egon ixillik.

7

Boluntarioak
dirala kaso,
bururikan eziñ
dezute jaso;
irten zaitezte eta
orduan akaso,
sutan izango zerate
biktorioso.
Sasoi ona da ta
irten lenbailen,
menditan elurra
egin baño len.

8

Ikaratzekotan
nere bizarrak,
eztauzka Karlosek
soldadu txarrak,
andaluzaren gisa
mingañez azkarrak;
garaituko ditugu
zuen indarrak.
Pezta bat egunian,
gañera erropa,
merke billatu du
Karlosek tropa.

9

Galduko dirala
gure fueroak,
ori diozute
enbusteroak;
gure legearekin
daude seguroak,
galdu naiagatik
zuen partidoak.
Alferrik dabilta
jendia biltzen,
oien partidoa
Bergaran ill zen.

10

Karlosen persona
maite izan dute,
kintotik asi ta
setimo arte;
orrela saiatutzen
baldin bazerate,
Dn. Karlos tronuan
jarriko dezute.
Koroi espāñola
Dn. Karlosentzat
aundiegi dala
iruritzen zat.

11

Ezta basta iñori
kantak jartzia,
eta *Boina Blanca*-n
farrez letzia;
kontrarioa zein dan
nai det agertzia,
ikaratu egiñ
al da firmatzia?
Arriya tira ta
eskuak gorde,
karlisten kontuak
orla dirade.

12

Kantak aterata
firmik baterez,
ia gizon txarrak
diran edo ez;
orra guzia jarri
klaro eta legez,
ez zuek bezela
gaitz egin da iges.
Orain arte bertsoak
ditut ikusi
gazetetan jarriak
firma ta guzi.

Sastria ta Lopez.


* * *

Bertso auek, leengoak bezela, Jose Manterolaren bilduman arkitu ditugu, eskuz idatzita. Inun ere argitaratu ote ziran ez dakigu.

Leen esan degunez, aurreko sailaren erantzuna dira. Auek jarri zituana, karlisten bertsoen arrazoiei buelta ematen saiatzen da. *La Boina Blanca* ere aitatzen du.

Izenpetu ere egiten dira bertso auek: *Sastria ta Lopez*. *Sastre* orrengatik geroago zerbait esango degu. *Lopez*, berriz, ez dakigu nor izan zan.

Baiña bertso auen benetako egilleak berak ote ziran? Dakigunez, enkarguz jarritako bertsoak sarritan izaten ziran garai artan.



Karlistak *partida* edo talde berri bat osatzen.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Guda-kanta

Kantartea

Su ta gar agiri da
Jaunaren ezpata,
guazen ondoren egan
danok kanpora ta.

Kantaldiak

1

Jaunak autatua da
gure erregea,
legez izan gañera
dauka bertutea.
Onegan dauka Jaunak
bere onorea,
eta Españak ere
dauka salbatzea.

2

Españolen odola
badegu benetan,
irakiñ beza leial
oraiñ biotzetan.
Etsaiak senti beza
baza gogorretan
gizon indar andiko
bana bakoitzetan.

3

Ara nola dabiltzan
arro-arroturik,
birauka, Satanasi
pozik jarraiturik.
Jainkorik gabe dabiltz
or amorraturik,
geldi bitez betiko
oso ondaturik.

4

Ea, galai zaldunak,
aurrera ta aurrera;
aizeak astindurik
badator bandera.
Lenengo datorrela
erregea bera,
etsaiak zeaturik
zuek koroitzera.

5

Ari begiraturik
indartu besoak,
ezarririk onela
armen letreroak:
“Iraun bezate guban
erri ta Fuegoak,
legezko errege ta
erreljioak”.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude. Ez da egillearen izenik esaten.

Ezta zein urtetakoak diran ere. Baiña gerra asi baño leena-

gokoak izango dira, mutillak ar-
mak artzera bultzatzeko ja-
rriak.

Baiña erderazko beste bertso batzuen itzulpena dira. Ona emen beste oiek:

HIMNO NACIONAL**Coro**

Ya fulminante brilla
la espada del Señor;
volemós denodados
al campo del honor.

Estrofas

- 1/ Su imagen ha grabado
en el heroico pecho
del rey, que a su derecho
se enlaza la virtud.
En su gallarda mano,
que armó la bizarría,
su gloria Dios le fia
y España la salud.
- 2/ Si sangre de españoles
en nuestros pechos arde,
hagamos noble alarde
de corazón leal.
Desnudos los aceros,
sienta la vil ralea,
trabada la pelea,
un héroe en cada cual.
- 3/ Oíd cómo blasfema
con bocas desgarradas,
morir en las pisadas
del infernal dragón.
Muerda el inmundo polvo,
en su impiedad hundida,
de Dios aborrecida,
cubierta de baldón.
- 4/ Vosotros a porfía
seguid la enseña honrosa
que llama victoriosa
de en medio de la lid.
Con ella va delante,
los aires complaciendo,
laureles esparciendo,
el ínclito adalid.
- 5/ Fortaleced los brazos;
y en el acero ardiente
cual lema esté fulgente
a gloria del blasón:
"Amor de dulce patria,
laurel inmaculado,
monarca idolatrado
y hermosa religión".



Oñati aldeko karlista bat.
(La Ilustración Española y Americana, 1872,
Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

**“Errege,
Karlos Españakoa...”**

(Bata)

Errege,
Karlos Españakoa.

(Bikoa)

Zerade egiazkoa
ta onena
jaun gure Españarena.
Zure jendeak du
Eleiza Ama apaindu
garaitzaz, geiago
eta biziago
zeruko izar argiyak baño,
danok zoratzerano.

(Berriz: Errege...)

Dala Aita Santua
animen burua,
zu kristau erregez,
legez eta bidez.
Nolatan ez gerade gu poztuko
betiko?

(Biya)

Gure zoriona
da onlako gizona.
Guazen, bai, aurrera
Kristoren aldera.
Alkar lagundurik,
España goiturik,
geu gerok mendetzen

saiatu gaitzen;
eta egin al dana
ixur dedin gugana
graziya,
Jainkozko zorion guztiya,
zeruko on guztiya.
(Berriz: Dala...)

* * *

Onako au Aita Jose Inazio
Aranaren bertso-bilduman ager-
tu da.

Esan bearrik ez dago San Ina-
zioren martxaren doiñuarekin
kantatzeko egiña dala.

(1870-VIII-28)

**Lenengo erten aldiya
(1870-garreneko S. Agustiñetan)**

- 1 Azkoiti Azpeitiko
boluntarioak
ez dira falso eta
gezur jarioak;
orain artu dituzte
eren medioak:
Izarraitzko mendira
dirade igoak.

- 2 Izarraitztik erten da(1)
lenengo martxan,(2)
istanteko jendea
Sasiolan an zan;(3)
estrapozua franko
bitartean bazan,
erori gaberikan
ez dakit iñor zan.

- 3 Andikan Mutrikora
abiatu dira,
amarranen diruak(4)
or ere badira;
oriek artu eta
egin degu jira,
onezkero frantzesez
ikasiak dira.(5)

4 Gero berriz bazkaldu
gendun Ondarruan,
ezeren aitzakirik,
jaunak, ez genduan:
arrantxera leialak(6)
an izan genduan,
arrezkero kozinan
geuk egin genduan.

5 Igandea Araban,
astelena Oñatin,
entregatzeko ordena
genduen armakin;
pena eta tristura
bazan, bai, gurekin,
oek dira gure martxak
nai duenak jakin.

6 Txanton Amilibia(7)
da gizon abilla,
ez dute arrapatu
ibillirik billa;
ondoren bazituen
gutxienaz milla,
damu duen guziya
izorra dedilla.

* * *

Sei bertso auek Aita Apalategi-
ren kuadernoetan arkitu ditugu;
eta aren paper edo orri batean
ere bai. Bertsoak berdin daude bi
iturri oietan. Berak, Azkoitiko
Floreagako(8) Eustakio izeneko
bati jaso zizkion.

Azkoitiko boluntarioak eginda-
ko ibillaldi baten berri ematen di-

gute: Izarraitz, Sasiola, Mutriku,
Ondarroa, Araba, Oñati...

Irtenaldi ori, izenburuan esa-
ten danez, 1870-eko abuztuaren
azken aldera izan zan.

Izenburuaren azpian argibide
jakingarri auek dauzka Apalate-
giren orriak:

“Azpeitiarrek armak eliz atzean. Azkoitiarrek Txalintxoko bordetan. Mandiolatza aundi. Zopabero pertzak”.

Eta doiñuaren asiera ere bai.

Ikus 14-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1) Astelena zan. (Aita Apalategiren oarra.)

(2) Aita Apalategiengan: *lenengo mar-txean*.

(3) Konbentu zarra. (*Id.*) Debatik Mendarora bitartean.

(4) *Los diezmos de aquel verano, 10 o 12 mil reales. (Id.)*

(5) *Alude a los naguis que huyeron a Francia y volvieron con el indulto de Amadeo. (71). (Id.)*

(6) Ango emakumeak. (*Id.*) Baiña bearbada *leiala* bearko luke, ondoren *genduan* dator eta.

(7) Jose Antonio Amilibia, (zarauzterra), gure nagusi. (*Id.*)

(8) Floreaga (Plorea) Azkoitin dago.



Karlistak mendian. (Jose Maria Tuduri artxiboa.)

(1870)

Gu gera

Estrebilloa

*Ta gu gera, ta gu gera
dabilena gora bera,
para naian bere aldera,
ta gu gera, ta gu gera,
kirlis Karlos, Karlos kirlis,
ekarri nai luteke onera.*

1

Bigarren txandan sentitutzen det
ate joka dan-dan,
ate onduan norbait dago ta
galde zazu nor dan.

Ta gu gera...

2

Etzaitzuet nik ezagutzen da
zuazte ortikan,
eztegu kirlis-karlostarrekin
egitekorikan.

Ta gu gera...

3

Ez gera gaitzik egitera gu
etorri onera;
iriki zazu atia eta
konponduko gera.

Ta gu gera...

4

Iriki zazu, etzaitezela
orrelakua izan;
konposizio bat egin biar
degu gizon gisan.

Ta gu gera...

5

Ortik ibilli, ortik ibilli,
Maria Fandango,
konposiziorikan gurekin
eztezu izango.

Ta gu gera...

6

Altza pilili, altza monona,
ai au fandangua,
dantzan asiko giñake balitz
gure gustokua.

Ta gu gera...

7

Bat eta bi ta iru eta lau,
bost eta bi zazpi,
oiek diote *mos bis bis bis*,
guretarrak zapi.

Ta gu gera...

8

Zubek gurekin juntatutzia
al dezute uste?
Ustiak erdi ustela du ta,
jaunak, noiz zuazte?

Ta gu gera...

* * *

Bertso auek, *Donostiyan*: -
Juan Osesen moldizteguiyan ar-
gitara emandako kanta-paper
batetik ditugu. Paper ori, Jose
Manterola zanaren bilduman
azaldu da. Egillearen izenik ez da
esaten. Izenburua, or goien eza-
rri degun ori bera dauka.

Mutil koxkorrak, mutur joka
asi aurretik, alkarri laiñezak
esaten dizkiote. Bertso auek
ere, eta onen antzeko beste sai-
llak berdin, tiroka asi baiño le-
en liberalak eta karlistak alka-
rri egiten zizkioten arronkak
dira.

Auek liberalak jarriak dira. Baiña alkarrizketan eratuta dau-de. Leendabiziko bertsoa etxeko-jaunak-edo kantatzen du. Bigarrena, morroiak-edo. Irugarrena eta laugarrena, karlistak kanpotik. Eta gainontzekoak, liberalak.

Gerra asi aurrekoak dirala ematen du. Baiña paperaren goenean, eskuz idatzita, onela irakurtzen da: *Día 9 Mayo 1874. 500 ej.* Manterolak papera egun ortan eskuratu zuala esan naiko du bearbada, eta zenbat ale inprentatu ziran.

Kantarteak —*estrebilloa* esaten zaio emen— baditu bere zelebrekeriak, bertso-paper ortan dagoan bezela beintzat. Guka asten da: *gu gera*. Irugarren pertsonara aldatzen da: *dabillena, bere*. Berriz guka: *gu gera*. Eta irugarren pertsonaz osterera ere: *luteke*. Ortaz gainera, *gera* eta *dabillena* ez dira alkarrekin ondo uztartzen.

Naaspil ori nola askatu? Bearbada, *Gu gera* karlisten kantaren bat izango zan, gure eskuetara iritxi ez bada ere. Ori kantari ibiliko ziran karlistak, eta liberalak bertso auekin erantzun: *bigarren txandan...*

* * *

Pio Barojak, bere *Zalacain, el aventurero* nobelan, kanta-arte eta leenengo bertsoa eskeintzen ditu, aurretik onela esanez:

“*Se cantaba también en Guipúzcoa una canción en vascuence que aludía a la guerra, y que se llamaba Gu guerá (Nosotros somos)*”.

Pio Baroja, 1872-ko abendua-ren 28-an jaioa baitzan, bertso auek leenagokoak dira, oker ez bagaude beintzat. Dion ori, bere aita zanari entzuna izango zuan.

Bere *Memorias. Desde la última vuelta del camino* liburuan, bertso auen aitamena berriz egiten du. Baiña ezer berririk esan gabe. Ez dakigu beste aitamenik inñun egiten duan.

* * *

Bertso auek kantatzeko bi doiñu bildu ditugu. Leenengoa, Julio Caro Baroja jaunak kantatua da. Bigarrena, Oiartzungo Sarobe-errekako Martina Makulegi andreak.

Ikus 15 eta 16-garren doiñuak, azken orrialdeetan.

* * *

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman, eskuz idatzita, sail ontako sei bertso azaldu dira: 1, 5, 3, 7, 2 eta 8-garrena.

Aldaketak: 2/3: ez det nik kirris ez Karlosekin; 3/1: Ez gera gaitzikan egitera; 3/3: iriki zazu ate ori ta; 7/1: Karlos bat eta bi iru lau bost; 7/2: sei ta bat zazpi; 8/3: ustiak erdiya ustela du ta.

Eta kantartean: 2: dabiltzanak gora bera; 6: ekarri nairikan onera.

* * *

Irunen jaio eta Plazentzin bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman, eskuz idatzita, bi bertso: 1 eta 2-garrena.

Aldaketak: 1/3: ate onduan norbait bada ta; 2/1: Tunante, pikaro, zikiñak; 2/3: ez degu guk Karlos kirlisekin. Eta kantartean: 2: gabiltzanak gora bera; 3: etorri nairikan onera; 6: eraman nairikan aurrera.

* * *

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, eskuz idatzita eta 1935-ean Donostiako Lizaso ta Aranguren'tar Andonik bialduta, bi bertso: 1 eta 5-garrena.

Aldaketak: 5/3: bertso oietan bat ere ez. Eta kantartean: 2: gabiltzanok gora bera; 3: para naiean beste aldera; eta gailñontzeko lerroak falta.

* * *

Santiago Aizarnak, *El Diario Vasco* egunkarian, 1978-ko maiatzaren 9-an, *Noiztik ikaratu ditu karlistak denbora txarrak?* izeneko idazlanean, bertso auen aitamena egiten du:

"...leendik nere aitonari entzundako bertso aiek:

Bigarren txandan jotzen digute
atea dan, dan, dan,
atal ondoan norbait bada ta
galde zazute nor dedan.
Ta gu gera, ta gu gera
gabiltzanok gora bera,
Kirlis Karlos, Karlos Kirlis
ekarri naiean onera!

* * *

Aita Donostiaren *Cancionero Vasco* kanta bildumak (Donostia, 1994), 310 zenbakian, sail ontako leenengo bertsoa dakar, Lekarotzen, 1912-ko otsaillan jaso, era ontan:

Bigarren txandan
sentitzen det atia:
kan, kan, kan, kan.
Atal ondoan norbait bada ta
galdin zazu nor dan:
Ta gu gera, ta gu gera
gabiltzanak...

Eta doiñua ere bai. Ikus 17-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Aita Apalategiren paperetan onela agertu dira sail ontako estribilloa eta bi bertso:

Ta gu gera, ta gu gera
gabiltzanak gora-bera,
Karlos setimoren aldera.
Ta gu gera, ta gu gera
gabiltzanak gora-bera,
bota nairikan dagoena.

Bat eta bi, iru ta lau,
bost eta bi zazpi,
Karlos setimo il dala bañon
oraindikan bizi.

Ortik ibilli, ortik ibilli,
Maria Fandango,
zer ikusirik ez den izango
nerekin geiago.

Eta doiñua ere bai. Ikus 18-garrena,
azken orrialdeetan

Ondoren onela esaten du:

“El cantar es seguramente anterior al levantamiento de Abril de 1872. El inspector de Policía de S. S. D. Tomás Ichaso de Puente la Reina (Guerra de Africa) publicó un periódico carlista ‘Ta gu gera’ que le valió la condena de Recondo en Vergara”.



Zutik, don Karlos eta bere anai Alfonso Karlos. Eserita, Ramon Cabrera jenerala. (Jose Maria Tuduriren artxihoa.)



(1870)

Ramón Cabrera
(1806-1877)

Karlos errege eta
Cabrera alkate,
liberal jendiandako
izango da kalte.

* * *

Bertso edo kopla bakarra degu oraingo ontan. *Barón de Montevilla* zanaren bilduman agertua da. Geiago ere izango ziran noski.

Ala ere, kopla bakar orrek bigarren gerra aurreko gertakizun jakingarri bat gogorarazten digu.

Leenengo gerratean oso fama-tua izan zan Cabrera jenerala. Zumalakarregi eta bera izan ziran, dudarik gabe, karlisten buruzagirik onenak.

Urrengo altxa-aldia prestatzen ari zirala, 1869 urtean, artean bizi zan eta uraxe nai zuten karlistak beren soldadu guzien buru ipiñi. Arek ere ala naiko zuala

uste osoan zeuden. Kopla onek ere alaxe erakusten du.

Baiña ura ez izan leengoa, oker ez banago or goien ere esan degunez. Urteetan aurrera zijoan eta Londresen bizi zan, protestante batekin ezkondua. Ala, ezezkoa eman zuan. Ura gabe gerrari ekin bearko ziotela, Vevey-ko batzarrean (1870-IV-18) ikusi edo erabaki zuten karlistak. Orren aurreko kopla izango da, beraz, onako au. Are geiago, Alfonso XII etorri zanean, Cabrera-k ura aitortu zuan erregetzat.

* * *

Cabrera aitatzen duan beste kopla edo bertso-puska bat ere badegu. Baiña au, dirudianez, liberalak karlistei iseka egiteko jarria izango da.

Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai*

zanaren bildumatik artua degu. Onela dio:

Biba Don Ramon Cabrera,
mendra santu saltzera,
agintariyak igasi,
soldaduak larrera.

“Biba esan dezagun...”

1

Biba esan dezagun
indar guztiakin,
biba gure fueruak
Jaungoikuarekin,
relijio bakarra
Aita Santuakin,
Karlos gure erregia
Margaritarekin!

2

Botatzen badigute
bonba eta bala,
aserra aziko dira
karlisten fafarrak;
eta soñu jotzean
gure atabalak,
ixilduko dirade
beltzen fanfarradak.

3

Ez bada ikaratu
kontrarioakin,
ezta oiek dituzten
fusil da balakin;
Tristany ta Elio
dijuaz gurekin,
beñe bigundu ez diran
ezpat gogorrakin.

* * *

Onako auek bertso geiago izango ziran, baiña iru bakarrik ezagutzen ditugu. Tolosako Farkundo Adurriaga *Besamotza* zarenaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita.

Noizkoak ote ditugu? Leenengo bertsoak Don Karlos eta Doña Margarita aitatzten ditu. Bigarren gerratekoak, beraz.

Bigarren bertsoak dionez, ordea, atabalak ez du oraindik soi-

ñurik jo. Gerra asi gabea dala, alegia; jendea artarako deiaren zai zegoala.

Irugarrenak, Tristany eta Elio aitatzten ditu. Tristany (1814-1899) katalana zan. Eta Elio (1806-1876) naparra, Iruñekoa. Biak ere leenengo gerratean saiatuak; baiña bigarreanean jeneral izan ziranak. Oiek buruzagi izan-go dirala eta zertaz bildurturik ez dagoala...

(1870)

“Liberalak gerade beltzetarakuak...”

1

“Liberalak gerade
beltzetarakuak,
protestante danakin
bat egindakuak”.
Erri ontan badira
ori esandakuak,
gu baño lenagotik
beltz izandakuak.

2

Liberalak gerade
nausi Españian,
gauzak disponitzeko
Madridko kortian.
Beti egon ez dedin
agintzen Frantzia,
orain pensatu degu
errege jartzia.

3

Zuek, baserritarrak,
ez dezute kulparik,
botuak ematen dituzu
ugazabagatik;
beste batzuek berriz
abariarengatik,
orren relia onak(1)
gordetziagatik.

4

Ia, baserritarrak,
atera kontuak,
abarien alde emanik
zaudenak botuak:
aurtengo amarrenak
daudez barkatuak,
eta gañera berriz
zuen pekatuak.

5

Ingles eta frantzes,
aleman da nasi,
España guziya
ondatuta utzi.
Diruak bildu eta
juan dira igesi,
obe ziran sekula
ezpalira ikusi.

Bost bertso auek Irun'en jaio eta Plazentzian bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren esku-idatzietatik ditugu. Baita ere jaun orrek berak 1932 urtean Jose Ariz-timuño *Aitzol* zanaren bildumara bialdutako esku-idatzietatik.

Sail onek, dudarik gabe, bertso geiago ere izango zituan.

Egillea nor izan zan ez da esaten.

Bigarren bertsoa, bi bertsoaren pusketekin egiña izango da, puntu guziak ez baitira alkarrekin ongi ezkontzen.

Bertso ortan esaten danez, errege jartzea pentsatu dute liberalak. Ori bi bider gertatu zan, eta urte gutxiren barruan gertatu ere: leenengo, 1870 urtean, errege bi-

lla asi eta Amadeo de Saboya ekarri zutenean; bestea, Españaiko leendabiziko errepublika kendu eta Alfonso XII izendatu zutenean. Errege au 1875-eko ilbeltzaren 14-ean sartu zan Madrillen.

Baiña, sail ontan esaten danez, liberalak protestante guziekin bat eginda omen daude; eta baserritarrak, ugazaben eta abadeen esanetara ematen omen dute beren botoa. Olamoduzko arrazoiak, gure iritzirako, Isabel II kendu eta konstituzio berria egiten ari ziran denborakoak dira. Ala, 1870 urtekoak izango ditugu bertso auek.

(1) *Relia* idazten du Andres Ezenarrok bere bi esku-idatzietan. Bearbada, *errial* bearko luke. *Regla* edo *erregla* izateak itxura gutxiago du.

(1870)

Zortziko barrijak
zeintzuen agertuten dan Españari egin deutesen
irain astuna Aostako dukia erreinu onetako
erregetzat autu dabeen gizonak.

1

Gertu, españatarrak,
ez lo egin, gertu,
gure erreñu maiti au
ez daiten ondatu.
Gizonik galduenak
dituguz gaur buru,
España nai dabenak
betiko zapaldu.

2

Adi, españatarrak,
adi, belarrijak,
entzun nortzuk dirian
gure agintarriak.
Esango deutesubedaz
egija garbijak,
edegi dagijezen
itxuak begijak.

3

Ez uste diriala
gaurko jaun barrijak
jauregi zabaletan
jaio eta azijak.
Geienok orain arte
arrote jantziyak,
euki ditubez lagun
ugari zorrijak.

4 Betu matxinadetan,
betu txarren alde,
zelanbait enpliu bat
lograu al badabe.
Betu jan-edanetan
baña betu gose,
onen tripa zitala
ezin bete leike.

5 Lapur galantak dira
ta dagoz oituak
atrapetan ederto
iñoren laukuak.
Eurekgandu ditubez
mojen konbentuak,
eta elejetako
basu sagraduak.

6 Badago kartzeletan
burdiñaz beterik
agintari onek baño
eun bider obarik.
Nekez aurkituko da
Españan legerik,
onek sarri askotan
ausi ez dabenik.

7 Azkenez aitu ondo,
—o zer lotsarija!—
ikaraz bete beite
erreñu guztija.
Emon dabe sarritan
juezak epaija,
gizon geizto oneri
kentzeko bizija.

8

Begira, españatarrak,
ze gizon ondrauak
zuzentzaille daukazan
Espanña geixuak:
arima baltzak daukez,
esku odolduak,
agintarijen ordez
dira borrreruak.

9

Onen asmu zantarrak
ezin dira amaitu,
orain gura gaitubez
italianotu.
Ez dira lan txarrian
diabruok sartu,
beintzat odol tantarik
zanetan badogu.

10

Eurok ibilli dira
lupatzaz betetan
Españako koroia
bazter guztijetan.
Baña Italijara
ez neban pentsetan
juango ziriala
errege topetan.

11

Iminten ez badeuste
auan tapotza,
esango dot argiro
egija billotsa:
gizon prestugez onek
ez dira izan lotsa,
errege nonbretako
Amadeo motza.

12

Españako errege
Juan Priñen taijua,
galdareru arteko
titiriterua.
Ago gugandik urrin,
Aosta zorua,
beintzat euki nai badok
osorik burua.

13

Ez deuskuk, Prim, sartuko
guri larakua,
emonaz erregetzat
eure mozolua.
Iñoz sartuten badok
emen, arraiua,
egingo deustubegu
bijori guk sua.

14

Jakin daijen guztijak
zelango pritzija,
zelango prendia dan
errege barrija,
agertutera nua
bere irudija,
edozein aldetatik
ondo itxusija.

15

Biktor Manuel paltso
madarikatua,
zeiñek daukan lotuta
gure Aita Santua,
Italijako errege
eskomulgatua,
auxe da Amadeo orrek
daukan gurasua.

16

Aita deungia bada,
semia benetan
aiten antzekua da
gauza guztijetan.
Sarturik daguala
entzun dot sarritan
masoiak deituriko
batzar zikiñetan.

17

Barriz, izan ezkerro
masoi artekua,
ziur Eleixiari
deutso gorrotua.
Ezin ukatu leike
gizon ain dontsua,
izan biar dabela
Priñen gogokua.

18

Gorputza dauko berak
ezin ederraua:
otso-belarrijakaz
akerren burua:
surra zapal-zapala,
begi okertua,
naiñok esango leuke
dala diabrua.

19

Ez jakuz iziotuko
erraijak danori,
arrika bialtzeko
errege motz ori?
Ia, bada, mutillak,
ia zoli-zoli
bertatik bota daigun
galdareru ori.

20

Esan dajogun gogor
Prim da lagunari
zezindu dagijela
italijar ori.
Españako koroia
ez emon iñori,
izan ezik Don Karlos
zazpigarrenari.

21

Arren entzun azkenez,
euskaldun maitiak:
gorde daiguzan ondo
Bizkaiko legiak.
Gizaldi guzietan
emengo jentiak
izan dira eurakgaitik
oneraz betiak.

22

Gernikako arbola
beneragarrija,
bizkaitar noblientzat
kontsolagarrija,
Jaunak gorde zaitzala
oso ta garbija,
iñoz galdu ez daiten
euskaldun errija.

23

Zure gerizapian
danok auspazturik,
egingo dogu diar
bijotz-bijotzetik:
“Errege barri (j) ori
atzera bertatik!
Emen ez dogu biar
txilibiterurik!”

24

Bizi bedi betiko
Jaungoiko altsua,
eta munduan dana
bere ordekoa,
gure Aita Santu maite
Pio baketsua,
Biktor Manuel baltzak
asko samindua.

25

Oso ondatu beitez
gure arerijuak,
oñian egoteko
emengo ekanduak.
Azkenez esan sendo,
euskaldun zintzuak:
“Biba Don Karlos eta
Bizkaiko Foruak!”

* * *

Ogei ta bost bertso auek Paris-ko Liburutegi Nazionaletik ditugu.

Kanta-paper bat da, *Impr. La-serre*-n argitara emana. Baionakoa zan moldiztegi ori. Bertso auek, beraz, emen ezin eta araiño eraman bear izan zituzten karlistak, inprentatuko baziran.

Kanta-paperak, or goien ezarri degun izenburu luze ori dauka; eta, besterik gabe, bertsoen gaia ederki adierazten digu.

Leen ere esan degunez, 1868-ko iraillean, Isabel II erbestera botatakoan, agintari berriak *Cortes Constituyentes* izeneko batzarrak egiten asi ziran. Baiña etziran

jaun oiek bertso-jartzaille onen gogogoak. Leenengo zortzi bertsoetan, aien aurka itzegiten du.

Bitarte ortan, España erregerik gabeko erreinua izan zan. Utsune ori nolabait ere bete egin bear zala-ta, atzerriko nazioetan errege billa asi ziran agintari berri oiek. Oietako bat, Juan Prim jenerala, bertso auek iru bat aldiz aitutzen dutena. Azkenean, Italiakoa ekarri zuten: Saboyako Amadeo, Aostako dukea.

Baiña italiar bat España errege ekartzea etzuten askok begi onez ikusi. Are gutxiago karlistak. Bederatzigarren bertsoetik

aurrera, ortaz mintzatzen da sail onen jartzaillea.

Amadeo ori, 1871-ko ilbeltza-ren 2-an iritxi zan Madrillera. Aren leendabiziko lana, Juan Prim jeneralaren gorputzari bisita egitea izan zan. Sei egun aurretik, izan ere, 1870-eko abenduaren 27-an, Madrilleko *Calle del Turco* deritzaionean, tirokatu egin zuten, eta andik iru egunera il baitzan.

Bertso auetan ez da ez Prim il danik eta ez Amadeo etorria danik esaten. Oiek gertatu aurretik jarritako bertsoak dira, beraz. Askoz leenagokoak ez, ordea, izenburuak dionez Amadeo erregetzat aukeratuta dago eta.

Amadeo, Españaiko erregetza eskeiñi eta zalantzan egon omen zan denbora askoan, baiezkoa 1870-eko urrian 31-n eman zuan arte. Españaiko *Cortes* izeneko Biltzarrak azaroaren 16-an onartu, eta abenduaren 4-an ari erabaki orren berri eman.

Isabel II erregiñak eta Don Karlosek etzuten aukerapen ori ontzat artu. Protesta egiñez, agiri bana idatzi eta zabaldu zuten. Onako bertso-sail au, Don Karlosen agiri orren umea dala esan diteke.

Bi bertсотan, 15 eta 24-garretan, Italiako erregea zan Biktor Manuel aitutzen da, Aita Santuaren etsaia zala esanez. Amadeo, ain zuzen, Biktor Manuel orren bigarren semea zan.

Italiak, mendeetan zatituta egon ondoren, batasuna egin berria zuan. Aita Santuak ango lurralde batzuk bazituan bereak, gazteleraz *Estados Pontificios* deitzen diranak, eta Biktor Manuel ori aien jabe egin zan. Beraren gudariak 1870-eko iraillaren 20-an sartu ziran Erroman. Aita Santuak etzuan indarkeri ori ontzat artu, eta bere burua prisioneroztat eduki zuan andik aurrera.

* * *

Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 631 zenbakian, doiñua eta leenengo iru bertsoak eskeintzen dizkigu, Arabazegin, Maria Madalena Uriarteren aotik jasota. Bertsoak aldatetarik ez dute. Oar au ere egiten du:

“Los versos se cantaron mucho en la última guerra carlista. Se conoce que el autor no era del grupo de los improvisadores iliteratos, no sólo por la pureza de su léxico, sino hasta por españatarrak y España, que el pueblo dice españiarrak y Espaiña”.

Bai. Irakurlea ere bereala oartuko zanez, bertso auek gizon ikasiren batek jarriak dira; ez erriko bertsolariren batek. Ala ere, ez degu orregatik obeak diranik pentsatu bear. Sarritan alde-rantziz gertatzen da: eskola gabeak, eskolatuak baiño bertso obeak jarri dituztela.

Ikus doiñua, 19-garrena, azken orrialdeetan.



Saboiako Amadeo eta bere emaztea. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)



Saboiako Amadeo eta bere emaztea il egin nai izan zituztenean, 1872-VII-18-an.
(Marqués de Lozoya: Historia de España, Tomo VI, Salvat, Barcelona, 1970.)

(1870)

**Bertso Berriak
(Amadeorenak)**

1

Milla zortzireun da
irurogei ta amargarren
urtia izango da
gaudela barrunen:
españolak izandu
gera orain da len,
baño ikusten dana
desgraziyaz arren:
italiano biurtu
nai gaituzte emen.

2

Agintari ederrak
dauzkagu Españiyan,
nai dutena egiten
juan dan aspaldiyan;
errege bat billatu
dute Italiyan,
españolaren buru
jartzeko abiyan;
oñik ez du sartuko
gure alderdiyan.

3

Españolak egiaz
baldin bagera gu,
italianuari gerra
egin biar diyogu:
ekarri nai dubana
Juan Prim da seguru,
orrek nai izatia
bastante eztegu,
Españiyan lau partetik
iruk nai ezpadegu.

4

Españiyan ainbeste
gobernu itxusi
nun arkitu liteken
eztet nik ikasi;
gizon kuriyosua
dauzkagu nagusi,
Serrano, Prim ta Topete
dirala lenbizi;
komediante oberik
eztet nik ikusi.

5

Zenbat errege diran
esatera nua,
artu nai lituzkenak
Españiko korua:
Montpensier frantzes
zuten lenengua,
gero berriz Fernando
Portugalekua,
orain Duque de Aosta
Italiyakua.

6

Oiek basta eztirala
Prusiyan ere bai,
Priñentzat erregiak
badirade nun-nai;
baño prusianua
frantzesak etzuban nai,
orreatikan gerra
daukate nundinai,
kulpante zein ote dan
eztet nik esan nai.

7

Errege oietatik
Priñen gustokua
Duque de Aosta da
Italiyakua;
entendimentuz ezta
biziro tontua,
musiko ederra ta
dantzari bapua,
arpa jotzeko ezta
leku txarrekua.

8

Ibilli gabetanik
erritik errira,
itxasoz ekartzeko
konformatu dira;
ekartzen dutenian
lenengo pelira,
errege arpa jotzen,
Serrano begira,
Prim eta Figuerola
dantzatuko dira.

9

Italianu ori
españolen buru
ezta ikusi biar
lotsarik badegu;
biyotzetik esaten
dizutet seguru:
deskuiduan sartzen
ikusten badegu,
atzetikan arrika
bialduko degu.

10

Priñek nai izatia
eztegu guk basta
errege nonbratzeko
Duque de Aosta;
zergatik españolen
gustokua ezta,
danak artuko degu
eskuban arbasta,
emendik bialtzeko
italiano kasta.

11

Eskubide aundiyak
Prim orrek daukazki,
erregiak ez dauzka
entero galesti;
azkenian tropa ere
jartzen ai da noski
italianuaren alde
jeneral da guzti;
jendia engañatzen
ez dabilta gaizki.

12

Orra emen bertso oiek
daukaten benira,
Duque de Aostaren
onrarako dira;
Priñek egiñagatik
makiña bat jira,
etzaigu etorriko
ori Española;
deskansuz baleoke
arpari begira.

13

Españolen artian
geienak gerade
nai degunak jartzia
Don Karlos errege;
liberal triste batzuk
baizik ez dirade
italiano arpa
jotzallian alde;
bestela bat-banaka
guztiyori galde.

14

Pena eman diyote
liberal oieri
guk nai ez izatiak(1)
italianu ori;
klaro esaten diyot
español danari
korua ez emateko
estranjeruari,
baizik gure Don Karlos
zazpigarrenari.

15

Orra amabost bertso
oraingo berriyak,
Zeferino Ilarrazak
euskeraz jarriyak;
karlista jaio nitzan
Jaunari graziyak,
oponiyo onetan
aurrera aziyak,
biba Don Karlos eta
karlista guziyak.

* * *

Amadeo de Saboya Españaiko errege egitea ezin eraman eta aren aurka jarritako bertsoak ditugu auek.

Gauza bera genduan aurreko saillean ere. Orregatik, an esanak onerako ere balio dute. Ala ere, an ez eta emen aitatzen diranak badira, eta oiek zerbait argitu bearra dago.

Bostgarren bertsoan iru erregegai aitatzen dira. Urrengo bertsoan, berriz, laugarrena: Leopoldo Hohenzollern printzipea, prusianoa. Baiña Frantziak etzuan iñola ere aleman bat Españian errege jartzerik nai, eta Prusiarren aurka gerra jo zuan: liburuetan *guerra franco-prusiana* deritzana, alegia. Orretzaz seigarren bertso orrek itzegiten du.

Errege berria itxasoz ekartzeko asmoak dituztela esaten du zortzigarren bertsoak. Alaxe egin zuten. Amadeo ori Spezzia-n Nu-

mancia itxasontzian sartu eta Cartagena-n atera zan legorrera, 1870-eko abenduaren 30-ean.

Leen ere esanik daukagunez, garai artako bertso-saillik geienak egillearen izenik gabe argitaratu ziran. Agidanean, egilleak bildur ziran beren burua agertzeko. Oraingo ontan ez, ordea. Amabostgarren bertsoak bertsolariaren izen-abizenak ematen dizkigu: Zeferino Ilarraza. Bertsolari onetzaz berri auek arkitu ditugu Jose Ariztimuño Aitzol zarenaren bilduman:

“Ceferino Ilarraza nació en Araya (Alava) el 3 de Julio de 1844 y murió el 4 de Julio de 1888. Hijo de Bonifacio, teniente coronel al mando del batallón de Guipúzcoa...”

Arabarra, beraz. Guk, beintzat, Arabako euskera nolakoa zan ez dakigu. Baiña bertso auek darabilkiten euskalkia gipuzkoe-

ra jatorra da. Bearbada, an jaioa-gatik, Gipuzkoan egingo zuan bere bizitzarik geiena Ilarraza orrek.

* * *

Barón de Montevillaren bilduman sail ontako iru bertso dau-de, 8, 10 eta 15-garrena, argibide gogoangarri onekin:

“El veterano irunés D. Segundo Pica-bea, hijo del jefe militar del distrito de Irún, que nos ha proporcionado estos fragmentos, nos dice que se esparcieron profusamente en 1870 por Guipúzcoa; que una mañana aparecieron sembrando las calles de la ciudad de Fuenterrabía y de la Marina. Se cantaron preferentemente en las sidrerías, hasta su prohibición por la autoridad. Pero los carlistas supieron burlar la ley, reemplazando ésa y otras canciones con ésta:

Biba lau eta iru,
biba bost eta bi,
biba sei eta bat”.

Alegia, zenbakiak erabili, bai-ña beti ere zazpi ateratzeko. Don Karlos ere zazpigarrena baitzan.

* * *

Amabost bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bildumatik ditugu. *Impr. Las-serre* moldiztegian argitara emandako kanta-paper bat da. Baionakoa zan etxe ori. Itxura danez, emengo inprentak libe-ralen mende egongo ziran, eta bertsoak argitaratzera araiño joan bear.

* * *

Tolosako Fakundo Adurriaga *Besa-motza* zanaren bilduman, eskuz idatzita, sail ontako zazpi bertso: 1, 5, 7, 9, 8 eta 15-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/4: gaudela barrenen; 1/7: italiano biurtu; 1/8: nai gaituzte emen; 1/9: bañan gu len gisan; 1/10: oraindik firme gaude; 5/1: Erregiak zein diran; 5/2: esango det nik; 5/3: korua artutzeko; 5/4: gure Españira; 5/6-10: falta; 7/1: falta; 7/5: bastante al da ba; 7/6: Priñek agintzia; 7/7: errege non-bratzeko; 7/8: Duque de Aosta; 8/6: le-nengo benida; 9/1: Orren etorrerari; 9/2: alegiña kontu; 9/3: zergatikan ori; 9/4-8: falta.

10-garrena:

Ori Priñek beretzat
gustokua du ta,
guri agintzen jarri
Duque de Aosta;
artzen baldin badegu
eskuan arbasta,
arin bialduko degu
italiano kasta,
ori gure bentajako
etorriko ezta.

15/1: Orra zazpi bertso; 15/2: Fran-tziyan jarriyak.

* * *

Tolosako Manuel Urreta zanaren bil-duman, amabi bertso: 1, 3, 4, 5, 6, 11, 7, 8, 10, 9 eta 15-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/3: urte au izango da; 1/8: zori txarrez arren; 3/8: naikua ez degu; 4/2: aginte itxusi; 4/3: non arkitu litezken; 4/4: esango det aurki; 4/5: gi-zon txukun garbiyak; 4/7: Serrano,

Prim, Topete; 5/3: artu nai lutekenak; 6/1: Oiek naiko ez dirala; 6/6: frantzesak etzun nai; 6/7: orregatikan gerra; 6/10: nik ez det esan nai; 8/3: itxasoz ekartzera; 8/5: ekartzen dutenengo; 9/7: uste gabe sartutzen; 9/8: ote dan nabaitu; 9/9: t'atzetikan arrika; 10/6: gogokua ezta; 10/7: denok artuko degu; 11/4: biziro galesti; 11/7: italianoan aldera; 11/8: jeneral ta guzia; 15/5: euskaldun jaio nintzan.

Eta beste bertso berri au:

Bidezko datorrena
nai degu errege,
gañerakuan ez da
posible-ta lege;
ez estranjeruak ta
bertako gai gabe,
nolanaikoengana
ezin gu egin jabe,
Karlos setimo betor,
pozkiro gerade.

* * *

Sail osorik ez, baiña bertso batzuk arkitutako beste zenbait toki: Aita Donostiaren artxiboa, Arjentinatik bialdu-tako kuaderno batean, makinaz idatzita; Aita Donostiaren artxiboa, makinaz idatzita orri batean; Barón de Montevilla zarenaren bilduma; eta Zarauzko Juan Bautista Gesalaga bertsolariaren aotik jasotak. Baiña aitatzerik merezi duan aldaketarik ez dute.

Baita ere Aita Donostiaren *Cancionero Vasco (Donostia, 1994)* bilduman, 798 zenbakian, argibide auekin: *Infor.: Bautista Tellería, natural de Biriatu. Loc. rec.: Sara. Fecha: 25 de octubre de 1933.*

Ikus 45-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1) Bertso-papera: guk nai ez izatia.

(1871)

Españaiko legeen gañean

- 1
Españiko legea
daukat txokatuta,
bertsoetan baleude
ongi notatuta;
Viva libertad dago
txit publikatuta,
bañan otsuentzako,
ardiak lotuta.

- 2
Bildurrez asitzen naiz
egiak kontatzen,
utziko ez digute
publiko kantatzen;
ixilik jardun bear
baztarrian leitzen,
liberalak dauzkagun
artian agintzen.

- 3
Errege legezkua
jarri nai ez dute,
ta erreinuan beti
droga ta dispute;
asko agintzen jarri,
danak diruz bete:
“Guri obedituaz
umil or zaudete!”

4

Gallendu diralako
gaiztuak indarrez,
Españari begira(1)
legoke negarrez;
diru errezak bildu
dizkigute aurrez,
eta nazio dana
bete dute zorrez.

5

Erregiña prinzipal
len dute iduki,
au da aitzekitako,
edozeñek daki;
salduta biraldu zan
ura're poliki,
gerozko egunetan
ez gabiltz obeki.

6

*“¡Fuera rey absoluto!
¡Viva liberalak!”*,
iñork ezin ixildu
oien au zabalak;
etsaien banderako
kasta prinzipalak,
libertadian billa
beren egiñalak.

7

Jefe ta ministroen
errentak azitzen,
erretiratu arren
askori korritzen;
enpleatu geiegi
dituzte jarritzen,
lanik asko badago
oien diña biltzen.

8

Gauza errazak zeuden,
geza ta gaziak
tragatu dituztela
dira notiziak,
naiz besterenak izan
al diran guziak;
ondorenguentzat
eztaude utziak.

9

Errian etxe eta
finka danak saldu,
kapellani ta zenso
aienari eldu;
kasturik utzi gabe(2)
sakelara bildu,
Españiya gaixua
orra oso galdu.

10

Fraile asko bigaldu,
artu konbentuak,
monjan gauzak orobat
ala tratatuak;
oiek edozein libre,
bestiak lotuak,
nazkagarriak dira
orlako kontuak.

11

Oiek dana jan-eran,
ez daude aseak,
amorratzen dabiltza
oraindik goseak,
tamañan arreglatzen
kleroen klaseak;
liberal oiek dira
orrelakoxeak.

12

Gisadua nai dute
orla konponduta,
apaiz asko kenduaz
tenploak bakanduta;
oieri gutxi eman,
guri asko kendu,
danetatik berentzat
nai lukia bildu.

13

Apaizetara dute
orain gorrotua,
propiedadeara
urrengo saltua;
ori ezagututzen
ez dezun tontua,
etzaduzkate gaizki
buruan lotua.

14

Len bide gabe gauzak
orra eramanak,
orain ere asko nai,
emen daude lanak;
propiedade, komertzio,
industri ta danak
billatutzen dituzte
orla dabiltzan jaunak.

15

Berentzako errentak
ipini dituzte,
nundik kunplitu falta
ta derrigor eske;
bestek bear duanik
nunbait ez dute uste,
azkazaletaraño
jan bear gaituzte.

16

Oiek ala ikusten
eta oien alde
dabiltzanari egin
nai nioke galde:
deabruak nunbait ondo
itxutuak daude,
ala engañatziaz
arriturik gaude.

17

Prim ill omen digute
sarturikan bala,
beste zientotxo bi
bota biar ala;
traidore jende ori
garbitu biarko da,
gauza onik izango
ez degu bestela.

18

Errege omen dute
estranjeriatik,
arrekin nai dutena
egitiagatik;
berentzat modukua
nunbait dute senti,
eta bat tajuzkua
billatzen due beti.

19

Kanpokuen mendian
Españaia laga,
gauza onikan ezin
orrela atera;
lenago oker dabil
ta orain kontrara,
au ezin ametitu
gizonikan bada.

20

Tokatutzen dana guk
nai degu errege,
gañerakuan ez da
posible-ta lege;
ez estranjero eta
kondutarik gabe,
Carlos séptimo betor,
kontentu gerade.

* * *

Liberalen kontrako sei bertso eman zizkigun Altzoko Manuel Antonio Imaz (1811-1893) bertsolariaren alaba baten alabak, orduan larogei ta lau urte zituan Paula Jauregik alegia, bere aitona orrek jarriak zirala esanez. Sei bertso oiek sail ontako 1, 2, 6, 10, 15 eta 17-garrena dira.

Sei bertso oietatik atera genduan, egillearen izenik gabeko sail au Altzoko Imazena zala.

Bertso-sail ori, Tolosako Farkundo Adurriaga *Besamotza* zarenaren eskuz idatzitako bildumatik genduan.

Doiñua ere kantatu zigun Paula Jauregi dalako orrek.

Ikus 20-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

“Prim il omen digute” esaten du amazpigarren bertsoak.

Juan Prim jenerala (1814-1870), karlisten leen gerratean

eta Afrikakoan parte artutakoa, Isabel II erbestera bialdu zutene-teko bat izan zan. Ondoren, gobernu berrian goeneko aginpidea eskutik izan zuan. Saboiako Amadeo ekartzea ere berari zor omen zitzaion. Baiña onek Espaiñiako lurra zanpatzerakoan, albiste au eman zioten: Prim jeneralaren il-berria.

Eriotz ori 1870-ko Urtezar bezperan gertatu zan, Madrillen, ezezagun batzuek jeneral ori tirokatuta.

Bertso auek 1871 urte asierakoak izango dira, beraz.

Imazen beste billoba batek, Josefak, bere aitonak bertso geiago ere bazituala esan zigun, gerra oni buruz jarriak. Puntu auek eman ere bai:

Republikano ta liberalak
irin bateko opillak,
denak igualak.

Baiña puntu oiek dituan bertso-saillik ez degu iñun arkitu.

Altzoko Imaz bertsolari onek gerrate ontan karlisten alde bertso asko jarri zituala, Tolosako Manuel Urreta zanari entzun nion leenengoz.

Beste bide batetik gauza bera ikasi degu. *Barón de Montevilla* zanak karlisten gerrateetako kanta bilduma eder bat osatu zuan. Ta bilduma ortako itzaurrean, onela dio jaun orrek:

“Un tal Imaz de Alzo escribió también muchos versos, y según me comunicó el Párroco de dicho pueblo, D. José Antonio Iruñ, su familia no conservaba ninguno, a pesar del interés que tenían en reunirlos, pues sabían que estaban desparramados entre algunos amigos del coblakari”.

Baiña bertso oiek izenik gabe argitaratzen zituan noski. Beste-la egitea bizitza arriskuan jartzea baitzan.

Ala, zillarrezko kubierto-pilla eder bat omen zuten bertsolari orren etxean, Altzoko Legarren. Baiña liberalak, egun batean etorri, guziak artu eta eramán egin zituzten. Imazen alaba batek, etxera ezkondu zanak, onela esaten omen zuan gero:

- Guk ez genduan nunbait komeniko zillarrezko kutxariekin jatea!

Baiña liberalak jakin izan balute etxe artako gizonak beren aurka bertsoak jartzen zituala, zillarrerria baiño estimagarriagoa dan zerbait kenduko zioten agian.

* * *

Amazazpigarren bertsoa Aita Donostiak ere badakar bere *Cancionero Vasco (Donostia, 1994)* bilduman; baiña beste onela:


Prim ill omen dute
sarturikan bala,
bertze “ziento ocho bi”
bota biarrak ala,
traidore jendi oiek
garbitu zaudela;
gauz onarik ez degu
izango bestela.

Ondoren, argibide auek ematen ditu: *Loc. rec.: Lekarotz. Fecha: 17 de febrero de 1912.*

Ona emen doiñua, 21-garrena, azken orrialdeetan.

(1) Adurriagaren esku-idatzian: *Españako begira.*

(2) Adurriagaren esku-idatzian: *kastarik utzi gabe.*



Burrukaldia Oñatin. (Enciclopedia-Auñamendi.)

(1872-V-3)

“Sententziatu ginduzen...”

Sententzitu ginduzen
maiatzan iruan:
laugarren goizerako
il bear genduan;
oraindik bizirikan
gaude gu munduan;
oiek egitekuak
dauzkate buruan!
Nere kristau maitiak,
au artu goguan:
mudatuko'ira Karlos
datorren orduan.

* * *

Bertso bakarra oraingo ontan,
lagunak izango bazituan ere. *Ba-
rón de Montevilla* zanaren bildu-
man azaldua da.

Emen ageri danez, karlistaren
batzuk liberalen mende erori di-
ra, eta auek iltzera kondentzen
dituzte, azkenean bizirik atera-
tzen badira ere.

Eguna ere ematen du bertso
onek: “maiatzaren iruan”; eta

Don Karlos artean etorri gabea
dala dio.

Baiña onek, leen ere esan
degunez, maiatzaren 1-ean iga-
ro zuan muga, eta biaramone-
an Beran sartu. Bertsolaria ar-
tean berri ori ikasi gabe egongo
zan.

Seguru ezin jakin, baiña ona-
ko bertso au gerra asi berri-be-
rrian jarria izango da.



Karlos VII, karlisten eregea. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1871-1873)

“Erregea badegu italianoa...”

1 Erregea badegu
italianoa,
italianoa,
pertz konpontzalle eta
gañera tuertoa,
pertz konpontzalle eta
gañera tuertoa.

2 Batzuk karlistek eta
bestek liberalak,
bestek liberalak,
ore baten opillek,
denak igualak,
ore baten opillek,
denak igualak.

3 Beltzak bonbeatzeko
ontzi zar batean
junta egin genduen
geren artean.
Sei zazpi urtean
alperrik nekean,
orain emen gabiltza
beltzen artean.

* * *

Bertso auek Iruñeko *Príncipe de Viana* (VII-VIII, 1969) aldizkari-ritik artuak ditugu, *Bertso zahar batzuek* izenburuarekin *Gorka Trintxerpe*-ren idazlantxo batetik.

Argibide guziak berak ematen baititu, kopiatu beste lanik ez degu aldi ontan:

“Lehengo batean, billatu gabe arkituak, entzun nitun bertso zahar batzuek... Gutxi dira, bi lauko ta zortziko bat.

Lehenengoak aipatzen du, zalantzik gabe, Saboyako Amadeo, naiz ez esan izenik. Gizon ona zan, liburuak diotenez, Amadeo zalako hori, borondate onekoa beintzat; italianoa, ordea, ta handik ekarri ta jarria, Isabel bigarrenak iges egin zuenean, ez baizitzaien iduritzen erregerik gabe egon zitekenik. Baina alde bate-

koak eta bestekoak danak gorroto zioten eta parragarritzat hartu zuten eta bi urte bakarrik iraun zitun. Lehendabiziko lauko aipatu hortan parragarri uzten du ta arrunt tonto bezala, eta izen hortako erregeak etzezaken iraun.

Urrengoetan ageri dira gudak dakarzikin desilusio ta samiñak. Bertso hauek ez dute gai berdina eta baliteke ez izatea garai berekoak ere... Badirudi zortzikoak hitz egiten dula karlisten lehendabiziko gudaz; hura bakarrik izandu baitzan sei zazpi urtekoa. Eta azkeneko utsegunea: zer ote da *bonbeatzeko*-ren esan nahia?”

Amadeo erregea 1871-ko ilbeltzaren 2-an iritxi zan Madrillerara; eta andik bi urtera, 1873-ko otsaillaren 11-n utzi zuan erregetza. Tarte ortan jarritako bertsoak, beraz, onako auek.

(1872)
Orokietea

Bat eta bi, iru ta lau,
bost eta sei zazpi,
Karlos sepimo Orokietan
ibili da gaizki.

Ikus 22 doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Kopla bakarra oraingo ontan; baiña bere doiñuarekin. *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik artuak ditugu. Berak nundikan zituan, itz auekin adierazten du:

“*Comunicado por Azkue que no la publicó en su Cancionero. De Sor Antonia, de Ezcurra (AN)*”.

Kopla ori liberalak jarria da noski. Egun artan ia-ia nai zuten guzia egin baitzuten. Don Karlos arrapatu ez beste guziak bai beintzat.

Rada karlisten jeneralak 1872-ko apirillaren 21-ean igaro zuan muga, gerrari asiera emanez.

Don Karlosek ere berdin egin zuan andik amar egunera. Maiatzaren leenengo egunaren gauean Larrun mendiaren egale-tik barrena bide egiñik, 2-an Bera-Bidasoara iritxi zan.

Don Karlos etorria zala jakindakoan, karlistak pozak zoratzen jarri ziran. Eunka eta eunka mutil beren etxeetatik irten eta arengana zijoazen, bideak betean. Baiña armarik ez eta maki-llak-eta eskuetan artuta.

Liberalak, berriz, sua piztu berrian itzaltzen errezagoa zala-ta, aien aurka bereala mugitu ziran.

Don Karlos goizegi etorria zan. Mutil guziak batera bildu bearrean, askoz obe zuten talde txikitan banatu eta mendietan izkutatu.

Ala, maiatzaren 4-an, karlista-mordo aundi bat Orokietan zan. Don Karlos ere bai aiekin batean. Beste talde bat, berriz, auzo-erri batean omen zan: Eltzaburur.

Alakoren batean, ordea, arratsaldeko iruretan, Moriones liberal jenerala bere mutillekin azaldu zan. Labaindik zetozen. Karlistarik geienak igesari eman zioten. Milla bat mutil, berriz, bertan gelditu ziran, eta ordu t'erdian arpegi eman omen zioten etsaiari. Baiña armarik ez, muni-ziorik ere ez eta inguru guzia artuta zeukaten. Zazpireun prisionero egin omen zituzten liberalak, eta erriko elizan sartu. Kanarias, Kuba eta olakoetara bialdu omen zituzten gero.

Don Karlos ere oso larri ibili zan. Ozta-ozta libratu zan liberalen eskuetan erortzetik. Inguru artako gizon bat gidari zuala, Lantzeko errekatik barrena, Al-dudera biaramonean iritxi zan.

Gurutze Gorria izeneko elkarteak Españian sortu berria omen zan. Baiña artean iñungo gerretan parte artu gabe omen zegon, eta Orokietan estraiñatu omen zan.

Orren oroigarri, arri-pilare bat ezarri zuten andik urteetara Orokietako plazan, onela dion idazki batekin:

"A los héroes camilleros de Navarra de la Cruz Roja Española, en homenaje a su humanitaria actuación en la acción de Oroquieta los días 3, 4 y 5 de mayo de 1872, por la que recibió su bautismo de sangre el actual cuerpo de tropas sanitarias de esta benemérita institución".

Orain urte gutxi, berriz, beste bi idazki erantsi zizkioten pilare zaarrari, bat erderaz eta bestea euskeraz.

Ara onek nola dion:

"Españiako Gurutze Gorriak bere sorreraren 125 urteurrenean, Orokietako ekintzan parte hartu zuten erakundeko boluntarioen omenez. 1989-ko uztaila".

* * *

Aita Apalategiren paperetan beste onela agertu da kanta au:

Bat eta bi ta iru ta lau
ta bost eta bi zazpi,
Karlos setimo il dala bañan
oraindakian bizi.

Beste letra au, bearbada, liberalen goiko letra orri kontra egiteko asmatuko zuten karlistak.

Eta ikus doiñua, 23-garrena azken orrialdeetan.



Orokietako burrukaldia, 1872-V-4-an. (Enciclopedia Auñamendi.)



Soldadu zaurituak Orokietatik Iruñera. (La Ilustración Española y Americana,
Jose Mari Tuduriren artxiboa.)

(1872-V-7)
Soldau-bertsoak
(Arrigorriaga)

- 1 Bilbaoko (y) organuek fama andije dute, kanpora urten ezkerokarlistek alkate.
- 2 Luzaroko bizija baldin al balute, portalekin barrutik egon badakute.(1)
- 3 Tiroka ziruela montoi batetikan, arin joandu ziriela alde arerikan.
- 4 Kolunaz etor ziela goitiko torrera, milla kaballeria sobre Santanderra.

5

Arma las bayonetas
guziok batera,
etzatiela (y) aztuko
(y) orduko sarrera.

6

San Tomas eguneko
amar d'erdietan,
larri asko ziguela(2)
(y) Ategorrietan.

7

Apatxak "arameta"
(y) akalarra galtzetan,
(y) orren arin ziuela
kobardiok baltzetan.(3)

8

Biziak alimatu,
ildakuak ito,
(y) orain kanteu bier dau:
(y) al dan Karlos kinto.(4)

Bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman azaldu dira, 1934 urtean bialdutako bertsoetan.

Bialtzailleak —nor dan ez da esaten— oar jakingarri batzuk egiten ditu. Asieran onako au:

“Jose Repuerto Bilbao, 78 urteko aguretxoari jaso neutsazan. *Eskekua* da aguretxu ori: Errigoitiko semia, Arrietakua”.

Bukaeran, berriz, beste oar au:

“Amorebietako gerria baño iru edo lau egun lenago kanteu ei zituen bertso onek ‘Nabarnizeko karteruek’, kolunan ioiazala kanteu be! Soldau guziak erantzun lenengoko bertsuaz, ta Nabarniztarak barra-barra bertso barriak”.

Bidean zijoazela, bat-batean asmatutako bertsoak dirala esan nai du, beraz. Gure iritzirako, lenengo bostak bai; ala izango dira. Baiña azkeneko iruak ez; oiek ez daukate aurrekoekin zer ikusirik. Beste sail batekoak dira.

“Amorebietako gerria” baiño leenagokoak baldin badira, Arrigorriagako burrukaldia aitaturko dute.

Bizkaitarrak armetan altxa berriak ziraneko kontua, alegia. 1872-ko maiatzaren 7-an, liberalak milia bat gizonak, Bilbotik irten eta Arrigorriagan karlistekin topo egin zuten. Alkarri tiroka asi eta liberalak errira sartu eta antxe babestu ziran. Illunabarra zan. Biaramon goizean, liberalak ezin bururik agertu. Tiroa berealaxe zuten, karlistak erriaren jira guzia artua zuten eta. Bilbora ostera joango baziran, andik beste soldadu-talde bat bialdu bearizan zuten, bidea libratzera.

Bertso auek erronka ori jotzen dute: erritik atera ezkeru, liberalak zer egiñik ez daukatela.

Bertsoak ez dakit ondo kopiatuta dauden. Bialtzailleak oar batzuk egiten ditu an eta emen, argi egin asmoan. Ala ere, esan naia illun samar gelditu da zenbait tokitan.

Leenengo izenburua bialtzailleak ezarria da. Bigarrena, berriaz, guk erantsia, bertso auen gai nagusia orixe baita.

(1) Zortzi bider esan arren, beti jotzen dau orraxa: “al badute”, “badakute”. (Bialtzaillearen oarra.)

(2) Aguretxuak olantxe oguzi oi dauz; zuzentzen asi ezkeru... an doa anka gora!... Asi barriro ta... beti bat! (Id.)

(3) Ezta ondo agiri zer esan nai daben: galtzak... akalarra... kobardiok; gauz onik ez, biarbada! (Id.)

(4) “Viva Karlos Vrik eztau esaten; beti oguzi darua: “iya dan”, “yal dan”. (Id.)



Karlisten soldadu berriak. (Marques de Lozoya: Historia de España, Tomo VI, Salvat, Barcelona, 1940.)

(1872-V-14)

Mañariko atakearenak

- 1 Marques de Valdespina
belarritik gorra,
laster asko egin zuten
Ministro de Guerra.
- 2 Zorrilla ta Cabrera,
Ollo ta Elio,
gerra konpondutzeko
etzuten balio.
- 3 Don Lionen mutillak
Mañariko atakan
sei gizon bota zituen
lenengo deskargan.
- 4 Izan ezpalebe orrek
jepien paltie,
zietz apurtuko eben
Serrano-ren tropie.
- 5 Serrano ei dator, bai,
bederatzi millarekin,
baita Don Lion be
bere mutillekin.

6

Bizkaiko Arrazuko
jesuita piña,
pediaren bandora
egin dau alegiña.

7

Arek izan balitu
lagunak obiak,
antziña egingo ziran
Españan bakiak.

8

Markiñako ferillua (*sic*)
Don Jose de Txirten,
goseak ilten egoan eta
komandante urten.

9

Amaikari negar eragin dautsok
igaz eta aurten,
majo dok ibilli orretan
ondokiñak jaten.

* * *

Bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman azaldu dira, *Poesías Populares 1936* sortan, urte ortan bialdutakoetan alegia, *Aitita Malutako'ren abestiak* mordoskan, oar onekin:

“Markina'ko (Barinaga) Jose Maria Arriaga Zuazo'k Mendiola'tar Josebari artua”.

Leenengo bertsoan aitatzten dan *marqués de Valdespina* ori, Jose Maria Orbe zeritzan, eta Astigarragako markesa esan oi zioten, beraren jauregi ederra erri ortan baitago. Karlisten buruzagietako bat izanik, Mañarian ere an omen zan.

Bigarren bertsoan aitatzten diran Ollo eta Elio, karlistetako bi jeneral izan ziran.

Bai Cabrera ere, baiña leenengo gerratekoa. Bigarrenengoan, leen esan bezela, karlista guzien agintea eman nai zioten; baiña etzuan nai izan. Are geiago: liberalen alde azaldu zan.

Zorrilla ori, berriz, Manuel Ruiz Zorrilla izango da, garai artan Madrilleko gobernuaren buru zana.

Urrengo iru bertsoak Mañariako burrukaldia aitatzten dute. Sail ontako gai nagusia orixe baita, izenburua jartzeko orretzaz

baliatu gera. 1872 urteko maiatzaren 14-an gertatu zan.

Liberalak, aal zituzten indar guziak bildu eta Durangora jo zuten.


Karlistak Mañariko mendietan itxogin zieten. Arkaiztegi zakar oiek toki ona zutela pentsatuko zuten.

Baiña, batetik, soldadu berriak ziran; eta, bestetik, munizio gutxi omen zuten. Ala ere, arpegi eman zioten beren arerioari denbora puska batean. Baiña bi or-

duren buruan amor eman eta lekua ustu bearra izan zuten.

Liberalen buruzagiak Serrano eta Letona ziran. Serrano ori bostgarren bertsoak aitatzen du. Beste aitamen bat ere egiten du bertso orrek: Don Lion. Karlisten buruzagi bat zan au: Leon Iriarte jauna.

Seigarren bertsoan aitatzen dan "Arrazuko jesuita piña" orretzaz geroago mintzatuko gera; eta zortzigarren bertsoaren "Don Jose de Txirten", ez dakigu nor izan zan.



Mañariako burrukaldia, 1872-V-16-an. (La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1872-V-16)

“Armak lepora...”

Armak lepora,
guztiok batera;
goazen, mutillak,
Oñati aldera.

Bertso edo kopla au *Barón de Montevilla* zanaren bilduman azaldu da.

Aurretik onela dio “*Primera estrofa de una marcha guerrera*”.

Ondoren, beste adierazpen au:

“Aunque variaba la localidad del último verso, según la oportunidad del momento, era lo más frecuente designar Oñate, tal vez por la acción de Zubillaga entre las fuerzas del general Ulibarri y el batallón de Cazadores de Mendigorria, que costó la vida a dicho general”.


Bertso ori nundik duan adierazteko, onela dio: “*Proporcionado por Juan Carlos Guerra*”.

“Armak lepora” dion ortan, onako oar au egiten du *Barón de Montevilla* orrek:

“Aunque parezca un disparate el echarse el fusil al cuello, no lo es por cuanto los voluntarios lo llevaban como el acullu”.

Burrukaldi ori 1872-ko maiatzaren 16-an gertatu zan. Libera-lak batalloi ori bialdu zuten, Aia-stuy karlisten buruzagia arrapatzearren-edo. Oñatira iritxita-koan, karlistak Aretxabaletako Goronaetan zirala eta bazetozela. Arako bidea artu eta iru kilome-trora, Zubillaga baiño leentxea-go, Madalenako ermitan, karlis-tekin topo egin. Auek, askoz geia-go baitziran, beren egalak luzatu eta aurreratu egin zituzten, libe-ralak erdian arrapatu nairik. Auek, ordea, atzera egin zuten orduan, baiña astiro eta etsaiari erantzunez; eta, gizon asko gal-duagatik, Oñatira sartu ziran. Karlistak erriaren jira guzia artu zuten; baiña, atakerik jo gabe, erretiratu egin ziran.

Karlisten jenerala Frantzisko Ulibarri zan, bizkaitarra. Bala batek jo eta andik egun batzuetara il zan, Aretxabaletako Kakote-gi-goienean.



Gerrara. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1872-V-24)

“Arginzoniz-ek egin ei deutse...”

- 1 Arginzoniz-ek egin ei deutse
bizkaitarrari tranpia,
orregaitikan gure mutillak
entregau dabez armiak.
- 2 Merezi luke kokotetikan
iru balazo emotea,
besti guztien eskarmentutzat
ixegita ipintea.
- 3 Beste bat bere bada orrekin
Allendez edo *Mallendez*,
eurak erak ondo artun da
besteak ipiñi aldrebes.
- 4 Kanta kantari baniñarduban
neu Gernikako kalean,
guardazibil bat etorri eta
eruan ninduban aurrean.
- 5 Ni kartzelara eruan arren
ez deukie bentajarik,
kartzelia pagatuteko
sekula ez daukie dirurik.

6 Abantetan danian
Sarasola onuntz,
orduan markiñarrak
arin elizaruntz.

7 Ia, bada, arin-arin,
zalduntxo gaztia,
noizbait amaitu daigun
liberal kastia.

8 Liberalak azpira,
Lagunero negarrez,
Don Leon Iriarte
“kobarde” didarrez.

Bertso auek Jose Ariztimuño
Aitzol zanaren bilduman azaldu
dira, *Poesías Populares 1936* ize-
neko sortan, *Aitita Malutako'ren*
abestiak mordoskan.

Jose Maria Arriaga Zuazo'k
Ibarrangeluan irurogei ta amairu

urteko Beitia'tar Petra'ri jaso ziz-
kion.

* * *

Gernikako Julio Bareño jau-
nak ere bialdu zizkigun bertso
auek, 1959-ko garagarrillaren
26-an. Onela diote:

1 Arginzoniz-ek egin ei deutse
bizkaitarrari tranpie,
orregaitikan entregau eben
gure mutillek armie.

2 Merezi luke kokotatikan
iru balazo emotie,
bestien eskarmentutzat
esegita imintie.

3 Orrek baditu beste batzuk be
Allendes edo *Mallendres*,
eurok guztiok alkar artunde
bestiok ipiñi aldrebes.

4 Kanta kantari baniñarduen,
bai, Gernikako kalian,
etorri jatan gordazibil bat,
artu nenduan aurrian.

5 Bai eta sartu kartzelan bere
eskarmentako ustian,
baña an bere ez ni ixildu
neuriak kantau artian.

6 Nik kartzelan euki eta be
eztaukazu probetxurik:
kartzelajie pagatutzeko
etzat sobretan dirurik.

7 Nik batze'ittudan kuarto xamarrak
trabenerako beti nik,
mundu onetan eztau ni baño
atsotxu mozkorragorik.

Julio Bareño jaunak, bertsoen aurretik, oar au egiten du: "Karlisten bigarren gerra ostian, Amoroto'ko andratxu batek atara eta abestua".

Bertsoen atzetik, berriz, beste oar au: "Bere buruz mozkor egin-da ibiltan ei zan atsotxu ori".

Azkeneko lau bertsoak, bai, bere buruari jarriak ditu atso orrek edo bertso auen egilleak, nornai izanik ere. Baiña leenengo iruak, gerra artako gertaera bati atereak dira.

Leenengo bertsoan, *Arginsolez* idazten du Bareño jaunak. Baiña *Arginzoniz* bear du.

Bigarren bertsoaren laugarren lerroan, *egitade mentien* idatzi

zuan Bareño jaunak. Baiña du-darik ez da *esegita imintie* bear duala.

Bizkaiko karlistak beren diputazioa aukeratu zutenean, Arginzoniz ori, Antonio izenez, diputadu izendatu zuten.

Karlistak Mañarian porrot egindakoan, etsi eta Serrano-rekin, liberalen jeneralekin alegia, izketan asi zan Arginzoniz ori. Ez bera bakarrik; baita beste zenbait lagun ere: Urkizu, Orue, Artiñano...

Ala, 1872-ko maiatzaren 24-ean, *Convenio de Amorebieta* deritzana firmatu zuten. Liberalak, barkatu egiten zieten arma entregatzen zuten karlista guziei;

eta fueroak gordetzeko itza eman ere bai. Karlista diputadu oiek, berriz, idazki bat zabaldu zuten, pakea bear zala esanez:

“...solos, aislados y sin elementos, formamos un decidido pero escaso puñado de hombres. ¿No es una temeridad insigne proseguir combatiendo? ¡Sí y mil veces sí! Vizcaya ha cumplido su compromiso como buena, y lo ha sellado con su sangre en el campo del honor...”

Baiña karlistak etzuten konponketa ori begi onez ikusi. Saldukeritzat jo zuten. Bertso auek ere alaxe artzen dute. Don Karlosek onela esaten zion Dorregarai jeneralari eskutitz batean: “Des-

pués de Vergara no hay nombre tan vil como Amorebieta”.

Ala, denbora gutxiko pakea izan zan. Udazkenean berriro altxatu ziran karlistak.

* * *

Sail ontako leenengo bertsoa *Barón de Montevilla* zanaren bilduman ere. Onela dio arkitu degu:

“Al tiempo del Convenio de Amorebieta, una mujer de Durango cantaba:

Angizoniek egin ei deutse
bizkaitarrairi tranpia;
orregatikan geure mutillak
entregau dabe armia”.

(1872-V-25)

Bertso Berriak

1 Bertso berri batzuek
nai nituzke jarri,
aditzen emateko
euskaldun danari
iru probintzia onetan
eztala konbeni
tiroka asitzerik
bata bestiari.

2 Konsentituta egon da
Oñatin Gerriko,
karlistak aginduta
lau tiro artzeko;
orra naikua susto
gizon bat iltzeko,
graziak Unzetari
an sortu zalako.

3 Kristauak figurako
persona salbajiak
orain asi dirade
galtzen familiak;
oiek balituzkie
Jaunaren poderiak,
errukari giñake
liberal tristiak.

4
Karlista asko dabil
mendiyan orainguan,
nundik iges egingo
bide desiyoan;
D. Karlosen fabore
armia lepuan,
ez dute errentarik
espero orainguan.

5
Gizonaren itzakin
ondo engañatuta,
asko ikusi dira
buruak galduta,
bi atake baño len
oso damututa;
orra urrengorako
eskarmentatuta.

6
Euskal erri guziak
danok uniturik,
ez genduke jaso bear
iñork ere armarik;
Fueroak defenditzeko
ez da bear armarik,
gobiernuaren kontra
egon baño geldirik.

7
Euskal Erri onetan
ez dago kintarik,
ezta kontribuzioa
pagatu bearrik;
ezpadute entregatzen
karlistak armarik,
oker oiek guziyak
espero ditut nik.

8

Gobiernuan fabore
eibartar guzia,
dakigulako nola
dan gure legia;
ez luke jaso bear
Bizkaian armia,
Kastillan jarritzeko
oien erregia.

9

D. Francisco Serrano
jeneralen jefia,
karlista jendiantzat
entero noblia;
odolik ikusi gabe
egin du pakia,
laister ikusiko da
Bizkaian gerria.

10

Eibarko boluntariyoak
eta nere lagunak,
alkar maitatutzeko
egiñ alegiñak;
gauza on guztiak dira
unioak egiñak,
iduki tesoia ta
izan danok fiñak.

11

Karlista asko dabill
mendiyan arlote,
utsa tripia ondo
beteta baleuke;
jefiak berentzako
jiratzen omen dute,
beste soldadu guziyak
padezitzen dauzkate.

12

Orra bertso berriak
Eibarren jarriak,
gezurrik esan gabe,
guztiak egiak;
karlista guzientzat
akordagarriak,
Velasco-k afusilatu
Calle aita-semiak.

* * *

Bertso auek Jose Manterola zanaren bildumatik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko kanta-pa-per bat da.

Orriaren goenean, onela dago eskuz idatzita: *27 Agosto, 500 ejs.* Manterolak papera noiz eskuratu zuan adierazi naiko du. Baiña urterik ez du esaten.

Egillearen izenik ez da ageri. Baiña nungotarra zan bai, ama-bigarren bertsoan: "Orra bertso berriak Eibarren jarriak...". Edo-ta bertsoak an moldatu zituala.

Bigarren bertsoa ondo ulertzeko, argibide onek asko lagunduko digu:

"Ya que hemos citado en esta nota la partida de Ayastuy, creemos buena la ocasión para relatar lo que ocurrió el 5 de mayo de 1872. Entró en Oñate y colocó un par de voluntarios de vigías en la torre. Al poco rato vieron acercarse desde San Pedro a un grupo de hombres, y sospechando fuesen liberales, bajaron a todo correr y se presentaron en el Ayuntamiento, donde encontraron al alcalde Casimiro Guerrico, al que sin preámbulo al-

guno le acusaron de traidor por haber comunicado a los liberales su llegada. Guerrico se defendió alegando que él no sabía nada; los hombres de Ayastuy, sin hacer caso a sus palabras, decidieron pasarlo por las armas al momento. Cuando estaban a punto de efectuar la descarga, apareció el oficial carlista Unceta, que amenazando con su pistola dispersó a sus hombres y evitó el crimen. Este suceso dio origen a unos verso berriak muy cantados por aquellos días, debidos a un bersolari de Eibar".(1)

Urrengo bertsoetan, mendian karlista asko dabillela esaten du bertsolariak; baiña olakorik bear ez dala eta pakearen alde agertzen du bere burua.

Bederatzigarren bertsoan, Francisco Serrano jenerala aita-tzen da. "Odolik ikusi gabe egin du pakia" esaten da arengatik. Leen ere esan degunez, liberale-takoa zan jaun ori, eta ari esker-rak egin zan *Convenio de Amorebieta* dalakoa, 1872-ko maiatzaren 24-an.

Baiña bertsolariak fede gutxi ematen dio itzarmen orri, eta ge-

rra oster a laster asiko dala uste du. Ala esaten du bederatzigaziren bertso ortan.

Zazpigarrenean, berriz, armak eta indarkeriak kintak eta kontribuzioak ekarriko dituztela abisatzen du.

Azken bertsoak onela dio: "Velasco-k afusilatu Calle aita-semiak". Argibide bat bear du onek ere. *Convenio de Amorebieta* dalako orrek onela esaten zuan:

"Indulto de toda pena a los que levantados en armas en Vizcaya las entreguen, los que podrán volver a sus casas exentos de toda responsabilidad, y recibirán de los alcaldes respectivos, debidamente autorizados por este cuartel general, las correspondientes certificaciones de indulto".

Karlistetako batzuek orixe egin zuten: arma entregatu eta etxera bildu. Beste batzuek, ordea, leen ere esan degunez, saldukeritzat artu zuten ori. Orregatik il erazi zituan Velasco-k Calle aita-semeak. Ona nola gertatu ziran gauzak:

"...Antonio López de Calle era vitoriano, combatiente de la primera guerra, y por estas fechas tenía el grado de comandante retirado. Participante en la rebelión de 1870, como vimos, regresó después a su casa en Vitoria. El treinta de abril de 1872 marchó de nuevo de Vitoria y formó su partida, a cuyo itinerario conocido nos hemos referido ya. Gracias a un relato de Aniceto Osuna y a otros documentos aportados por él, conocemos hoy las circunstancias en que se efectuó la entrega de Calle. Osuna, secretario del ayunta-

miento de Villarreal, fue comisionado por el Capitán general de Vascongadas —general Serrano del Castillo— para que acompañando al brigadier Verdugo se entrevistaran con Calle en la ermita de Nuestra Señora de Mariaca, junto al puerto de Cruceta, muy cerca de Ibarra de Aramayona, 'donde solían reunirse los principales cabecillas'. La entrevista se celebró, en efecto, el venticuatro de mayo y Calle aceptó a presentarse a indulto en Aramayona ante la columna liberal allí establecida. Osuna aduce para certificar la veracidad de su exposición el testimonio del brigadier Verdugo, quien desde Madrid confirma las palabras de Osuna y dice que éste prestó un gran servicio 'contribuyendo a la entrega de las fuerzas que en armas mandaba el cabecilla Velasco (sic), en la provincia de Alava'. No es de suponer, sin embargo, que Velasco asistiera a la entrevista, puesto que la reacción inmediata fue la aprehensión de Calle y de su hijo y su fusilamiento al día siguiente en los alrededores de Ibarra. Triste fin de la carrera de este anciano guerrillero vitoriano, que valió además a Velasco la fama 'por la energía con que castigó a los que se acogieron al Convenio de Amorebieta', como dice Hernando".(2)

Esan ditugun guziak kontuan artuta, bertso auek 1872-ko maiatzaren bukaerakoak-edo izango dira, seguru asko.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman ere agertu dira bertso auek; baiña Manterolak dituan bezelaxe, aldaketarik gabe alegia, eta adierazpen onekin:

“Otro hijo de Calle sentó plaza en el ejército carlista con posterioridad a la muerte de su padre e hizo toda la campaña”.

Oñatiko Iñaki Zumalde adiskideak ere bialdu zizkigun bertso auek, makinaz idatzita eta iru aldaketa auekin:

2/8: an sartu zalako; 7/3: ezta kontribuziyoak; 8/2: Eibar ta guziya.

(1) Ignacio Zumalde: *Historia de Oñate, San Sebastián, 1957.*

(2) Julio Arostegui Sánchez: *El carlismo alavés y la guerra civil de 1870-1876, Vitoria, 1970.*

(1872-V)
“Karlistak badaukie...”

- 1 Karlistak badaukie
mendijan indarririk,
ezkara geratuko
Karlos imin barik.
- 2 Don Karlosek emon dau
errege-berbia:
jabon gura leukela
Kristoren fedia.
- 3 Attaren seme, artu
atxur eta pala,
errege Madridera
etorriko bada.
- 4 Don Karlosek ei dauko
ezpata zorrotza,
tronutik kenduteko
Amadeo motza.
- 5 Amadeok baditu
pezeta bikuak,
Don Karlosek bere bai
boluntariuak.

6

Biba Don Karlos eta
adios liberalak,
fedian firme dagoz
gure jeneralak.

7

Karlosek esan ei dau
Begoña ganian
Bilbaon sartuko dala
kaballo ganian.

8

Biba Don Karlos eta
Doña Margaritta,
Españan imindeko
pareja politta.

9

San Jose arratsaldeko
iru ta erdijetan,
Txintxillas larri dabill
Gernika ibarretan.

10

Mañariko atakan
laprast einda jausi,
liberalak azpira,
karlistak nagusi.

11

Bilbaoko baltzak barruban dira
ate-bentanak itxirik,
erretxiñezko kandela ederrak
prozesiñotan errerik.

* * *

Kopla auek Bilboko *Euskadi*
egunkarian agertu ziran,
1932-ko urriaren 22-an, *Muxi-
ka'ko* firmatzen duan batek
bialduta.

Bertsoen oiñean, onako oar au
irakurtzen da:

“Karlatarren abestijok atsotxu
zar bateri entzun dautsataz”.

Ondoren, egunkariko periodis-
taren batek, bere jakinduri apu-
rra erakustearren, beste oar au
egiten zuan:

"Durangon ein ei dabe
lastozko zubija,
andixik pasetako
Karlosen zaldija.

Atsotxu zarrak bertso au ez-
tautzu abestu ala?"

Bertso auetan iru edo lau sail
naastuta daude. Andik eta emen-
dik artutako puskak dira, alegia.
Sail oietako batzuk liburu ontan
daude.

Laugarren eta bostgarren ber-
tsoak diotenez, Amadeo Espa-
ñian da. Errege ori, leen esan be-
zela, italiarra berez, 1871-ko il-
beltzaren 2-an iritxi zan Madrille-
ra; 1873-ko otsaillaren 11-n utzi
zuan erregetza, eta biaramonean
Lisboara alde egin.

Bederatzigarrenak dionez, la-
rri ibillia da Txintxillas izeneko


bat, San Jose arratsaldean, Ger-
nikako ibarretan. Gertaera orren
berri ez degu iñon arkitu.

Amargarrenak Mañariko ata-
kea aitatzen digu. Dakigunez,
1872-ko maiatzaren 14-an gerta-
tu zan, karlistak galtzaille atera
ziralarik. Baiña emen alderantziz
epaitzen da: "liberalak azpira,
karlistak nagusi".

Amargarren bertso au beste
onela arkitu degu *Barón de Mon-
tevilla* zanaren bilduman:

Mañariko atakian
labanduta jausi,
beltzak azpira eta
karlistak nagusi.

Mañariko atake ori izango da
bertso auek aitatzen duten azken
gertakizuna.



“Karlistak badaukie mendijan indarririk...” (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1872)

Bertso Berriak
Urta Papito-ren doñuan kantatzeko

1

Bertso berriak nua paratzen,
dibersiyuaz denbora pasatzen;
liberalari diyet esaten
badijuazela umiltzen.

*Ta noiz zatozte
maiztarretara kapoien eske,
maiztarretara kapoien eske?*

2

Basa-mutillak ostera ere
mendi gañetan animoz gaude;
aurki dirade baztarren jabe,
reboluziyua mendiyen dute.

Ta noiz zatozte...

3

Bandera ere dute zuriya,
biba ederrez ongi jantziya:
Biba Jaungoiko, biba Españiya,
ta Karlos errege maitagarriya.

Ta noiz zatozte...

4

Liberal txarren paper oietan
gezurra dabill alde guzietan;
beldur dirade oraingo onetan,
estu asko dira beren galtzetan.

Ta noiz zatozte...

5

Egiten dituzte prisioneruak
betetzearren beren goguak;
armarik gabeko paisanuak,
karlisten usaiko onraduak.

Ta noiz zatozte...

6

Mendi-mutillak kontentu dira,
kañoi ta armaz jantzi dira;
Donosti aldian txit larri dira,
karlisten bistan beldurtzen dira.

Ta noiz zatozte...

7

Fedia dute eren biotzean,
salto ta brinko ongi jartzean;
fusil da kartutxo bizkarrean,
garboz dabilta mendi-egalean.

Ta noiz zatozte...

8

Firmezan daude basko-nabarrak,
arrotutzeko zuei kalparrak;
betoz Trillo ta Moriontarrak,
ikaratuko ez dira menditarrak.

Ta noiz zatozte...

9

Jende asko ta baserritarrak,
fedea oneko oñez azkarrak;
beldur gabeko arras bizkorrak,
egin dizute burla ta farrak.

Ta noiz zatozte...

10

Norte aldian daude kuadrillak,
Pelayoren soldadu txit abillak;
fedian aldeko arrosa umillak,
zuei konpontzeko zapata ebillak.

Ta noiz zatozte...

11

Danok atozte Karlosengana,
onengan daude onra ta fama;
zuek naiago Judasengana,
beti aurrera ondo ez dana.

Ta noiz zatozte...

12

Emen gabiltza aitaren seme,
armak arturik mendi ta kale;
liberal txarrei egiñaz galde:
Zuen artian zenbat tunante?

Ta noiz zatozte...

* * *

Bertso auk Tolosatik ditugu, Timoteo eta Fakundo Adurriagaren bildumatik.

Anai auk bertso auen kopia bana egin zuten, eta biak bertso guziak berdin dituzte, ustegabeko okerren bat edo beste izan ezik. Izenburua ere berdin biak: guk or goien ezarri deguna. Txee-tasun auk gauza bat adierazten digute: kanta-paperen batetik kopiatuko zituztela Adurriaga anai oiek bertso auk.

Bertso auk *Urta Papito* doiñuarekin kantatu bear dirala esaten da izenburuaren azpian. Doiñu orri orrela deitzen zitzaion garai batean. Baiña, leen esan bezela, Bilintxek artaz baliatu zan *Juana Bixenta Olabe*-ren bertso famatuak moldatzeko, eta arrezkeroztik doiñuaren izena aldatu egin zan.

Bertsoak aditzera ematen dutenez, mutillak mendian dira, "fusil da kartutxo bizkarrean". Gerra piztu da, beraz, baiña asi berrian dago.

Zortzigarren bertsoak Trillo

eta Moriontarrak aitatzen ditu. Trillo ori ez dakigu liberaletako jeneralen bat edo nor izango zan. Moriontarrak, berriz, Moriones jenerala eta beraren soldaduen-gatik esango da.

Leen esan degunez, jeneral orrek egurra eman zien karlistei Orokietan, 1872-ko maiatzaren 4-an. Baiña karlistak ez dira aren bildur, ordaiñak emateko asmotan baizik. Orokietakoa ger-tatu ondorengo bertsoak, beraz.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, sail ontako zortzi bertso agertu dira, eskuz idatzita eta ordena ontan: 1, 11, 12, 9, 10, 5, 8 eta 6-garrena.

Aldaketak: 1/3: liberal txarrai die esaten; 6/2: kañoi eta armaz ondo jantzi dira; 6/3: Donosti aldian larri dira; 8/1: Firme daude basko-nabarrak; 8/2: zuei konpontzeko kalparrak; 8/3: betoz Trillo eta Murriontarrak; 10/3: bildur gabeko arras umillak.



Gerrako ibillerak. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1872-V)
Bertso Berriak

1 Bertso bi paratzeko
enkargatu naute,
artu biarko nitek
orrenbeste neke;
Patrizio eguna zan
señaladamente,
karlistak mendietan
asi ziran fuerte.

2 Lenbiziko atakia
zan Orokietan,
preso artu nai zuten
Karlos ori bertan;
liberalikan etzan
an sartu ezertan,
karlistaren traizioa
besterikan etzan.

3 Díaz de Rada zuten
jeneral nonbratu,
jefe txarra etzuten
napar oek artu;
beren errege nai
zuan preso artu,
logratu etzualako
Frantzira pasatu.

4

Ura entregatuta
segidan Carasa,
Beratikan igasi
juandu zan aisa;
jaun orrek bazedukan
gizon fiñen traza,
traidore bota dute
ura dala kausa.

5

Probintziako buru
zuten Errekondo,
engañatu zituan
atauntarrak ondo;
errietatik atera
makiña bat fondo,
Frantziara juateko
jarri arte ondo.

6

Azpeitin Amillibi,
arabarrak Calle,
erakutsi zizkian
makiña bat balle;
jaun oiek engañatzen
apenas da zalle,
Lomak probatu ditu
bost alditan ere.

7

Bizkaian para dute
diputaziua,
egitiagatikan
beren desiua;
marqués de Valdespinak
du afiziua,
Bizkaian ipintzeko
ejerziziua.

8

Bizkaitarrak badute
borondate ona,
D. Karlos ekartzeko
Frantziatik ona;
ezta erraz egiten
galdutako lana,
berriz dijuazela
Arginzoniz-gana

9

Orain gerra polit bat
badegu ikusi:
liberalak ondoren,
karlistak igasi;
ala ere nai dute
Españan nagusi,(1)
Karlosek koronarik
ez digu merezi.

10

Iru probintzietako
euskaldun jendia
lastima ematen dit
orla ikustia;
armak eskuan artuta
gizonak iltzia,
reljio ona al da
orla ibiltzia?

11

Apaiz da jesubita,
fraile, mojarakin,
konpondu zaiezkite
D. Karlos orrekin;
lanik eztu izango
gure koroakin,
Frantzira dijuala
Margaritarekin.

12

Amabi bertsorekin
orra despedida,
probintzin Karlosekin
kontentatu dira;
Frantzira egin bear
digu erretira,
aspaldi egon dira
jaun orren begira.

* * *

Bertso auek Jose Manterola zanaren bilduman agertu dira. Kanta-paper bat da, *Donostiyan*: - *Juan Osesen moldizteguiyan* argitara emana.

Paperaren buruan, Manterolak bere ale ori noiz eskuratu zuan eta zenbat paper egin ziran adierazteko-edo, onela dago eskuz idatzita: *26 agosto 1874, 500 ejs.*

Aitamen asko egiten dira bertso auetan, eta kondaira-liburuen laguntza eta argia bearko ditugu, gauza guziak ondo ulertzeko.

Leenengo bertsoak dionez, Patrizio egunean asi ziran karlistak mendietan fuerte. San Patrizio eguna esan naiko du. Egun ori martxoaren 17-an izaten zan. Karlistak geroxeago irten ziran mendira. Baiña bere prestamenak egiten asiak izango ziran.

Bigarren bertsoak Orokieta oroitarazten du. Angoa, leen esan bezela, 1872-ko maiatzaren 4-an gertatu zan. Liberalak gaillen,

karlistak egurra jaso, eta Don Karlosek ozta-ozta Frantziara iges egin.

Baiña "karlistaren traizioa besterikan etzan" esanda bukatzen du bertso orrek. Eta urrengoak saldukeri ori zer izan zan adierazi nai du.

An, ordea, etzan saldukeririk izan. Ala diote kondaira-idazle guziak. Karlistak artean oso gaizki antolatuta zeudela; besterik ez. Baiña gizonak beti orixe egiten du, bere asmotan uts egiten duanean: errudun bat billatu. Karlistak ere berdin; errua Díaz de Rada jeneralari erantsi zioten. Rada orrek idazki bat argitaratu zuan, bere burua garbituz.

Lau, bost eta seigarren bertsoetan izendatzen diran Carasa, Errekondo eta Amilibi oiek, karlistetako iru buruzagi izan ziran. Orokietakoa gertatuagatik, ez etsi nai eta ara-onera ibili ziran denbora puska batean. Baiña azkenean berak ere Frantziara alde egin bear izan zuten.

Seigarrenean aitatzen dan Calle ori nor zan eta zer gertatu zitzaien, aurreko sail batean esan degu.

Bertso berean agertzen dan Loma ori, liberaletako jeneral bat izan zan. Leen ere itzegin degu jaun orretzaz.

Zazpigarrenak aitatzen digun *marqués de Valdespina* ori, leen esan bezela, Juan Nepomuceno de Orbe zeritzan (1819-1891). Ederrak benetan aren Ermua eta Astigarragako jauregiak. Gerra

ontan, Bizkaiko karlisten buru izan zan.

Zortzigarrenean aitatzen dan Arginzoniz ori nor izan zan, leen ere esanik daukagu, Amorebieta-ko itzarmena aitatu degunean.

Bertso auetan azaltzen diran izen eta gertaerak, gerraren asierakoak dira. Orokietakoa gertatu eta andik laster jarritako bertsoak ditugu, beraz, gure iritzirako beintzat.

(1) Bertso-paperak: España nagusi.



Saboyako Amadeo, (Marqués de Lozoya, Historia de España, Tomo VI, Salvat, Barcelona, 1970.)

(1872)

**Errege Dn. Amadeori
zortzikoa**

1 Hispano errege berri
italianoa,
gu ikustera dator
benedikatoa;
errezibitu zagon
euskara errikoak,
eman zaiogun danak
ondo etorria.

2 Iru probintziako
zar eta gazteak
saludatzen zaitugu,
Amadeo bata;
ondo dijuakizula
zere biajean
euskaldunen artera,
ek ezagutzera.

3 Gera biyotz oneko
emengo jendeak,
lanerako azkarrak,
gerran temibleak;
ez bildurrikan izan
gipuzkoanoak
beren leialtasuna
autsiko dutela.

4

Emengo lege zarrak
dirade Fueroak,
ok ematen digute
ondasun guztia;
zure erreinaduban
guardatu gaizkitzu,
ta guk fideltasuna
jurtzen dizugu.

* * *

Lau bertso auek, or goiko izenburuarekin eta azken orrialdeetan ezarriko degun doiñuarekin, Jose Manterola zanaren bilduman azaldu dira. Eskuz idatzita daude.

Barón de Montevilla-ren bilduman ere arkitu ditugu bertso eta doiñu auek, baiña batere aldaketarik ez gabe.

Bertsoak deitu badiegu ere, ez dakigu ortaraiño irixten diran. Neurria bai, gordetzen dute; baiña puntu traketsagorik erabiltzerik ez dago.

Amadeo erregea, leen esan bezela, 1870-eko abenduaren 30-ean iritxi zan Españaia.

1872-ko uztaren 18-an, festaren batetik erregiñarekin zetorrela, tiroka artu zuten zortzi-bederatzi bat lagunek. Kotxea zuloz josita gelditu zan, baiña errege-erregiñak etzuten ikuturik ere izan.

Andik bi egunera, Españian barrena ibillaldi bat egitera irten zan erregea. Onela dio Pirala kondairalariak:

“Emprendió el rey el 20 su proyectado viaje a Valladolid, Burgos, Palencia, Santander, Bilbao, San Sebastián, Gijón, Oviedo, El Ferrol y La Coruña, precediendo la orden de que de ninguna manera se gastara en festejos oficiales, lo cual vería con disgusto, y en todos puntos fue recibido con más o menos entusiasmo, pero captándose por su comportamiento verdaderas simpatías. Veían un rey joven, sabían que era valiente, habían visto que era constitucional y el primer servidor de la ley...”

Itxura danez, bertso auek erregeari Donostian ongi-etorria egiteko jarriak dira. Donostiako udal-agirietan, garai artako agerkari eta paperetan, berri geiago emango da erregearen etorrera onetzaz.

Ikus doiñua, 24-garrena, azken orrialdeetan.

“Agoztuko illaren laugarren eguna...”

Agoztuko illaren
laugarren eguna,
bizi gean arten Donostian
aztuko etzaiguna.
Erregek iru egun
pasa dizkiguna,
amaika apaizek galdu
digute beren osasuna.

2

Etorri zaigulako
gure erregea,
Donostiko apaiz geienak
oso erre dira.
Etorri izan bazan
Karlos orla errira,
aguro artuko ziguten (pozik?)
apaizak erdira.

* * *

Bi bertso auek, dudarik gabe,
sail luzeago baten kondarrak
izango dira. Gaiñontzeko lagu-
nak galdu, alegia, eta auek baka-
rrik gorde.

Aita Frantzisko Apalategiren
kuadernoetan edo esku-idazkie-
tan azalduak dira.

Berak, Jose Antonio Arteaga-
ren aotik jaso zituan. Jaun au

Donostiako Loiolakoa zan, Uru-
mea ibaiaren ertzean dagoan Az-
tiñenea baserrikoa.

Zenbait lerrotan oso neurri
traketsa dute bertso auk. Baiña
ori bere buruan gorde zituanaren
akatsa izan diteke noski.

Bertsoen gaia, Saboiako Ama-
deo errege berriak 1871-ko uda-

ran probintzi auetara egin zuan
bisita da.

Baiña Donostiako apaizak,
bertsolariak esaten duanez
beintzat, ez omen ziran errege
orren zaleak.

Aren orde Don Karlos etorri
izan balitz, arrera ohea egingo
ziotela alegia.

Marcha de Dorregaray

Dorregaray, Dorregaray,
Don Karlosen jenerala,
Dorregaray, Dorregaray,
soldaduakaz baltzak ilten;
bildur barik
Jangoikuaren izena
gerra onetan
goraldu guk bai degu.
Dorregaray, Dorregaray,
Don Karlosen jenerala,
Dorregaray, Dorregaray,
soldaduakaz baltzak ilten.

* * *

Bertso au, goiko izenburua eta doiñua, *Barón de Montevilla* zarenaren bilduman arkitu genituan.

Ondoren oar au: *Recogidos en Ochandiano, Vizcaya, por Don Elias de Burgos, en Abril de 1925.*

Bertso au ez da iñola ere bertsolari batek asmatua. Bein irakurtzea naikoa da ortaz konturatzeko.

Antonio Dorregaray jenerala Zeutan jaio zan, 1823-ko uztaren 11-n. Leenengo gerratean, amabi urterekin, karlistetara joan zan.

Gerra bukatzean, subteniente zan. Bergarako Besarkada onarturik, militar jarraitu zuan. 1848-ko altxa-aldian, karlisten aurka burrukatu zan. Afrikako gerran (1859-1860) parte artu zuan. Karlos zazpigarrenarekin, karlisten buruzagirik goenetako eta famatuenetako bat izan zan. Naparrotik Maestrazgo aldera bialdu zuten, ango karlisten buruzagi izatera. Baiña an indarririk ez liberalei arpegi emateko, eta bi batalloirekin Naparroara itzuli zan, Pirineo mendietatik eta

Frantziatik barrena bidea egiñez.
Zaragozan il zan, 1882-ko mar-
txoaren 21-ean.

Dorregaray, Dorregaray,
arixek ekarriko dau,
Dorregaray, Dorregaray,
arixek ekarriko dau, bai.

* * *

* * *

Jaime del Burgok, bere *Vetera-
nos de la Causa* liburuan, beste
puska au dakar:

Azkenik, ikus doiñua, 25-ga-
rrena, azken orrialdeetan.



Antonio Dorregaray jenerala.
(Enciclopedia Auñamendi.)

(1872-XII)

“Santa Krutz Gipuzkoan...”

Orokietakoa eta Amorebieta-ko gertatu ondoren, sua itzalia zala ematen zuan. Baiña etsi-errezak ez izaki guziak. Oietakoa Santa Krutz apaiza.

Mutil talde bat bildu eta gerra bere kasa egiten asi zan. Preso egin zuten; baiña Aramaion iges egin eta Frantziara joan zan. Andik, 1872 urtearen bukaeran, abixua bialdu zien bere mutillei; eta ostera ere asi.

Ordukoak dira orain azalduko ditugun bertsoak.

* * *

Juan Olazabal Ramery jaunaren *El cura Santa Cruz guerrillero* liburuan (Vitoria, 1928), onela esaten da:

“No es pues de extrañar que, al entrar Santa Cruz por segunda vez en Guipúz-

coa el 1º de Diciembre del 72, su llegada fuese saludada con hurras de gozo popular y que su nombre corriera como un re-guero de pólvora en las tres provincias, y que el entusiasmo despertara de nuevo, y la gente confiase en él: ‘éste es el hombre’, se empezó a decir en efecto; éste es el carlista fino, el defensor de Dios, el hombre de fe, el hombre de abnegación y de sacrificio, y sobre todo el hombre valiente y arrojado; y no aquellos falsos y cobardes, que vendieron a nuestros hijos y se entregaron de cualquier manera”.

Bigarren txandan ere
nai geniyon eldu;

-rezaban ciertas coplas que en la baja Guipúzcoa se hicieron populares por entonces(1)-

Grada nagusi zala
asko giñan bildu;
tranpa biziyan, tranpa biziyan
nai giñuzten saldu,
Santa Krutz Gipuzkuan
ezpalitz azaldu.

Santa Krutz Gipuzkuan
azaldu zan joia,
jenero gaixtuaren
kontrako legoia.

Iya, mutillak, salto ta laixter,
orain duk sasoia,
aguro gure mende
diyegu masoia.

Así se sentía en Guipúzcoa en aquellos días; éste era el ambiente que se respiraba. Santa Cruz era el ídolo de todos; sus muchachos lo aclamaban, el país lo protegía y vitoreaba, y su celebridad llegó a ser tanta, que rebasando la frontera, hasta los periódicos extranjeros, franceses e ingleses, le dedicaban sendas columnas, haciéndose eco de sus proezas legendarias. El levantamiento estaba asegurado...".

Bi bertso oiek, liburu ortako
ainbeste gauza bezela, Don Manuel Lekuona apaiz jauna zanak bilduak dira.

Bigarren txanda dala esaten dute bertsoak. Leenengoa noiz, beraz? 1872-ko udaberrian, mutillak mendira irten, Orokietan eta Mañarian gauzak oker gertatu eta etxera itzuli bearrean arkitu ziranean.

Euskal Erriko karlisten buru Eustakio Díaz de Rada zan orduan, naparra bera. Orixe da leenengo bertsoak aitatzen duan *Grada*.

* * *

Bigarren bertsoa, Don Manuel Lekuonak 1924-ko *Eusko-Folklo-*

re urtekarian argitara emana zeukan, Oiartzungo Juan Migel Millene orrena zala esanez eta beste onela:

Santa Krutz Gipuzkoara
azaldu zan joia!
Etsai gaixtuarentzat
kontrako leoia.

Iya, mutillak, salto ta laster!
Auxen duk sasoia!
Geren mendian degu
denboraz masoia.

Aurretik adierazpen au egiten du:

"Del arriba citado Juan Miguel es la siguiente copla que debía formar parte de una composición encomiástica del famoso jefe de guerrilleros Cura Santa Cruz".

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman ere azaldu dira bertso auek, aurretik onako oar au dutela:

"La popularidad de Santa Cruz llegó a ocupar un puesto a través de la sencilla poesía de nuestras bardos, cantándose versos cuyo autor, Juan Miguel el de Millene, en Oyarzun, los tituló "Bertso Berriyak", de este corte..."

Eta ondoren bertsoak, Olazabalen liburuan dauden bezelaxe, leenengo bertsoaren asiera izan ezik:

Lenbiziko tranpiya
Eskoda-k egin du...

Eskoda ori nor zan eta egin zuan tranpiya zer izan zan, Ro-

man Oyarzun-ek argituko digu, bere *La historia del carlismo* liburuan:

"Se distinguió por su felonía el coronel de carabineros Escoda, quien se comprometió solemnemente, en documento firmado en Sare (Francia), con Díaz de Rada, y ante los testigos don Cruz de Ochoa, Pérez Tafalla y Zabalza, a pronunciarse con todas sus fuerzas en favor de don Carlos; pero con el siniestro propósito de preparar una celada y apoderarse de todos los jefes carlistas, lo que se pudo evitar merced a las precauciones tomadas por éstos, que se presentaron frente a los carabineros de Escoda en el término de Vera de Bidasoa, pero asegurándose la retirada a Francia, la que efectuaron al percatarse de la vil traición de aquél".

Bera-Bidasoako ori, 1870-eko abuztuaren 27-an gertatu zan.

* * *

El Día egunkariak ere argitaratu zituan bertso auek, 1931-ko apirillaren 7-an; baiña leenengo bertsoaren asierako bi lerroak falta dituala.

* * *

Iruñeko Dolores Baleztenak, bere *Cancionero popular carlista* izeneko liburuskan, (*Temas Españoles*, núm. 323, Madrid, 1957), bertso auek *El Día* egunkariak bezelaxe ditu,

Baiña doiñua ere badu. Liburu ontako 26-garrena, azken orrialdeetan.

Irakurlea oartuko zanez, bostgarren lerroak luzapen nabarmena dauka bi bertsoetan. Baiña doiñu ontan orrelakorik ez dago; eta era ontan obeto dagoala derizkiogu, bertsoa zortziko txikiaren neurrietara sartuta alegia.

* * *

Beste bertso-puska au, Santa Krutz apaizaren alde moldatua, Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan azaldu da. Sail berekoa dan ez badakigu ere, ona emen:

Santa Krutzen mutillak
beltzakin aserre,
irtengo dira beren
nagusiyen alde.

* * *

Azkenik, Aita Apalategiren paperetan, egunkari edo aldizkari baten punta bat azaldu da, bertso auekin:

Beltzak pena omen dute(2)
Amadero jona,
"republika rojo"-re
ez duk agitz ona.
Betor, betor Don Karlos!
Ura da gizona,
Españiko errege
tokatzen zaiona.(3)

Lenbiziko tranpiya
Eskoda-k egin du,
zenbait familiyetan
negarra eman du;
tranpa biziyañ tranpa
nai giñuzten saldu,
Santa Krutz gipuzkoarra
ezpalitz azaldu.

Santa Krutz gipuzkoarra
azaldu dan joia,
etsai gaixtuarentzat
kontrako leoia.
Iya, mutillak, salto ta laister!
Auxen duk sasoiak!
Geren mendean degu
denboraz masoia.

(1) *Las coplas eran del bertsolari oyarzuarra* Juan Miel de Millene. (Juan Olazabal jaunaren oarra.)

(2) *Del versolari de Oyarzun* Juan Miguel Millene. *Proporcionada por el Presbitero don Manuel Lecuona.*

(3) Leen esan bezela, Amadeo erregeak 1873-ko otsaillaren 11-n utzi zuan erregetza. Orduan Espainiako leenengo errepublika etorri zan.

(1872-XII)
Bertso Berriak
sazerdotien onrari

1

Iñola al baldin badegu,
kantaz zabaldu biagu
nola juan diran mendiyetara
sazerdoteak soldadu;
Jaunak orla agintzen al du?

2

Ai au atrozidadia,
gure jaun admirabilia!
Arnak artuta mendira irtenta
al da Kristoren legia?
Orra apaizaren fedia!

3

Jaungoikuen ministruak
dirade gure maistruak;
konspiratzeko, gerra jartzeko
entero dira listuak;
ez al dira oiek gaiztuak?

4

Sazerdotiak garboso
arrotu zaizkigu oso;
santidadeko kapak jantzi ta
tiroka digute eraso:
ori eztator alkaso.

5

Orra oien epistola,
ebanjelio ta estola:
esku batian Santo Kristo ta
beste eskuban pistola;
relijiyua ezta orla.

6

Ministro biyotz fuertiak
dauzka Jaungoiko maitiak;
mendira irten ta tiroka aitzeko
txit dira balientiak
emengo sazerdotiak.

7

Jauna abandonatuta,
baldin bada're aztuta,
gerra egitera mendira juanta
al da apaizaren konduta,
armak eskuban artuta?

8

Konfesiyuak utzita,
mendiyetan dute zita;
antxen dabilta erresetoko(1)
mantu beltzak erantzita,
boina txuriak jantzita.

9

Relijiyoko nagusi
asko ditugu ikusi
tenpluak utzirikan alde bat
mendira juaten igesi;
ori ez al da itxusi?

10

Esperimentu fuertiak
badauzka Jainko maitiak:
len ere nola kruzifikatu
zuten gizon tunantiak,
judiuben sazerdotiak.

* * *

Bertso auek, izenburu orrekin, Jose Manterola zanaren bilduman azaldu dira, dudarik gabe gerra denborakoa dan bertso-paper batean.

Moldiztegiaren izena: *Imp. de Juan Osés, plaza de la Constitución, 7*

Izenburuaren gaiñean eskuz idatzita: *24 Abril 1874, 500 ejs.* Leen ere esan izan degunez, Manterola jaunak papera zein egunetan eskuratu zuan eta zenbat ale inprentatu ziran esan naiko dute itz oiek.

Bostgarren bertsoa ezaguna da gaur egunean ere; besteak ez. Baiña bostgarren orren berri zutenak, bertso orrek lagunak zitu-tuala bazekiten.

Bertsoen egillea nor ote zan galdetuta, batek Zizurkilko Otañotarrak jarriak ote ziran erantzun zigun. Beste batek, berriz, Oiartzungo Eperrak. Baiña ori esateko zer motibo zuten galdetu eta erantzunik etzuten ematen. Irudipenak, beraz. Ala, bertso auek, gerra artako geien-geienak bezela, egillearen izenik gabe agertu ziran eta orrela bearko dute betiko.

Sail onek bertso mota berezia du. Oso gutxitan erabili dana. Baiña bertso mota bereziak doiñua ere berezia eskatzen du. Bertso auek, ordea, doiñurik gabe agertu zaizkigu.

Gerra asieran, Santa Krutz ez-
ezik, beste apaiz batzuk ere mendira irten ziran mutilen buruzagi. Liberalak ezin ori ontzat artu noski. Bertso-sail bat baiño geiago jarri zituzten apaiz oien aurka. Oietako bat, onako au.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman sail ontako bost bertso azaldu dira: 1, 8, 7, 9 eta 5-garrena, ordena ortan.

Aldaketak: 1/2: kantuz zabaldu biar degu: 1/3: nola jua diran sazerdotiak; 1/4: mendiyetara soldadu; 7/3: mendira juanta tiroka aitz...; 8/2: mendiyetara bisita; 8/4: mantu beltzak irauntzita; 8/5: txapel txuriyak jantzita; 9/3: santi-dadeko kapak utzita.

Eta bertsoen ondoren onako oar au: *Francisco Elorza, Párroco de Vera de Bidasoa, y a éste por un aldeano.*

* * *

Tolosako Jesus Elosegí zanaren kua-
derno batean, eskuz idatzita, sail ontako 5 eta 9-garren bertsoak, aldaketa auekin: 9/2: oiek ditugu ikusi; 9/3: santida-deko kapa jantzita; 9/4: tiroka zaizkigute asi.

(1) Bertso-paperak: *antxen dabiltza errespeto.*

(1873)

Bertso Berriak
erlijioaren alde liberalak apaizen kontra
jarri zituzten bertsuak zatituaz
(Aresoarren doñuan kantatzeko)

1

Iñola al baldin badegu,
kantaz erantzungo degu,
sazerdotiak mendira juana
ez dala bekatu;
alferrikan dute damu,
probatutzia naiko du,
liberal oien dotriña txarrak
gezur asko du.(1)

2

Ai, au atrozidadia,
liberal txarrai begira,
dotriñ oiekiñ ukatzen dute
Kristoren legia.
Non da orien fedia?
Sustantziarik gabia;
modu orretan ez da billatzen
zerura bidia.

3

Jaungoikuaren ministruak
dirade gure maisuak,
oien dotriñik ez dute entzun nai
liberal gaiztuak;
gero ondoren juzguak,
danak gezurrez nastuak,
ebanjelioko konseju onak
zergatik dauden aztuak.

4

Sazerdotiak mendira,
egia da, juan dira;
iñor batallan eritzen bada
beriala an dira;
ikaratutzen ez dira,
karidadez jazten dira,
ipokrisizko zuen dotriñak
onelakuak al dira?

5

Ez luteke nai pistola,
ezbada libru ta estola,
animako gauzak prestatutzeko
apostoluak bezela;
au da zeruko eskela,
Jauna berekin dutela,
gezurra ta droga aurretikan
ez, zuek bezela.

6

Artzazu ezpata, Pedro,
falta egin lezake gero,
liberalik gauzez baletorke
Karlos preso artzeko;
kargu au da zuretzako,
errege defenditzeko,
mesederik asko egiñ dizu
Malko eritzeko.

7

Ministro biotz nobliak
dauzka Jaungoiko maitiak,
mendietara irten dirade
entero zeloz betiak;
ez dirade tunantiak,
bestela balientiak,
eren biotzak sutu zituan
Jaunaren legiak.

8

Ez dabilta Jaunaz aztuta,
aiñ gutxi fedia galduta,
ez bada Jesusen lege onak
biotzak piztuta;
liberal txarren konduta
Judas bezela tratuka,
diabruaren eskolan dabilta
errege salduta.

9

Zuekiñ nago izketan,
pensatzen Orokietan,
Don Karlos ara eraman zenduten
iltzeko ustietan;
triste geunden biotzetan
egun samiñ orietan,
ala ere Jaunak salbatu zuan
bere eskuetan.

10

Liberalak zer diote?
Konfesatu nai al dute?
Sazerdotiak mendira juana
ongi damu dute.
Relijiuua non dute?
Au ere galdu nai dute,
Aita Santuai berak nor diran
galdetzia dute.

11

Jesus kruzifikatzeko
bazan eskribarik asko,
txit lagun onak ziraden oek
liberalentzako.
Aren jantziak norako?
Partituta zuentzako,
aukeratuak zerate zuek
au imitatzeko.

12

A, liberal pobriak,
zuek zerate obiak,
zeren laguntzat artutzeko
juduen sazerdotiak.
Dio Madridko jendiak:
“Jesuita eta frailiak
asesinatu ote zituzten
mendiko abariak?”

13

Non dirade konbentuak,
monjen dote sagraduak?
Liberal fede oneko oietan
daude ezkutatuak;
itxuraz dira justuak,
azaletikan santuak,
nola emango ote dituzte
elizen kontuak?

14

Non dira testamentuak,
fundazio ta zensuak?
Danak guziak txupatu ditu
liberal gaiztuak.
Pobre ta anima gaixuak
negar ta suspiriuak.
Pazientzia noiz arte ote du
gure Jaungoikuak?

15

Ainbeste gure konbentu,
asko erre ta puskatu,
gañera beste orien gauzak
liberalak saldu.
Ori nai diet galdetu,
arren erantzun biar du:
ainbeste milloi eder nora
diran ezkutatu.

16 Zuazte Urnietara,
baserri eta kalera,
begiratze bat egin zazute
eliza aldera;
danak erre ta lurrera,
ango jendia eskera,
zuen bengantzak betetzearren
ai ango galera!

17 Amarren da primiziak
artzen ditu nagusiak,
modu onetan probetu dira
eliza guztiak.
O, liberal itsusiak,
ai zer nolako aziak!
Kontu oriek artuko ditu
laister justiziak.

18 Kantatu dezagun garboz,
arma ederrak badatoz,
gazte guztiak mendietara
gerra egin deseioz,
balientiak jenioz,
Mariaren amodioz;
filisteuak kastigatzeko
etorri da Karlos.

19 Don Karlos zazpigarrena
gure errege txit ona,
kulpa duana zuzendutzeko
ez da izango azkena;
au da beraren esana:
laister etortzen ez dana
enbustieriaz ondorendikan
ez juateko argana.

20

Bertso au da ogeigarrena,
liberal jaunen azkena,
republikatik ez dute atera
deseo zutena;
gero onen ondorena
ez da berentzat onena:
biurtu biar itz gutxirekiñ
gaizki eramana.



Liberalen aurreko saillari, beste sail onekin eman zioten erantzuna karlistak, asieran izenburu luze ori ezarriz.

Bertso-papera, gerra-denborakoa, Aita Jose Inazio Arana zana-ren bilduman arkitu genduan. Moldiztegi-izena onela du: *Bayonne, impr. E. Lasserre, r. Orbe, 20.*

Itxura danez, karlistak artean etzuten inprentarik zuan erririk beren mendean. Orregatik, Baionaraiño joan bear izan zuten bertso auk inprentatzera. Ortxe ikusten da bertsoen indarra eta garrantzia gerra artan.

Aresoarren doiñu ori, Xenpelarren *Aizak i, mutill mañontzi* bertsoena da.

Karlista bertsolariak bertsorik bertso erantzuten dio liberalari, zenbait aldiz leendabiziko lerroa ere aren bertsoetatik artuz.

Baiña karlisten sail onek ogei bertso ditu, eta liberalen saillean aitatzen ez diran gai batzuk ere erabiltzen ditu.

Bederatzigarren bertsoak Orokietako burrukaz itzegiten du. Dakigunez, 1872-ko maiatzaren 4-an gertatu zan. Bertso auk geroago jarriak, beraz.

Amargarren bertsoak Aita Santua aitatzen du. Pio IX-ak, izan ere, *Syllabus* izeneko agiri edo erabakia eman zuan 1864 urtean, Elizak liberalen dotriñari zer zerizkion adieraziz.

Amabigarren bertsoak, 1834 urteko gertaera latz bat gogoratzen du. Kolera gaitz kutsakorra Españian indarrean zebillen. Bai Madrillen ere. Fraileak iturrietan pozoia botatzen zutela eta izurrite ura ortik etorria zala zabaldu zan. Ala, egun batez, jendea berotu, Madrilleko jesuiten ikastetxe batera sartu eta arrapatu zituzten guziei bizia kendu zieten. Berdin egin zuten San Francisco el Grande eta Santo Tomas komentuetan. Illak, guzira, eun baiño geiago.

Urrengo iru bertsoak, erderaz *desamortización de Mendizabal*


deitzen dana aitatzten dute. Mendizabal ministroak, izan ere, 1835-eko urriaren 11-ko agindu batez, praile eta monja guziak beren komentuetatik atera arazi eta sakabanatu egin zituan. Komentuak, lurrak eta ondasun guziak beretzat artu zituan gobernuak, eta salgai jarri. Orduan ere ekonomia gaizki baitzebillen, karlistei gerra egiteko diru asko bear zan eta.

Oar bat egin bearrean gaude, ordea. Mendizabal, ministroaren izenordea zan. Bere izen-abizenak Juan Alvarez Méndez zituan. Kadizen jaioa zan. Eta familiaren jatorria ere judutarra omen zuan.

Amaseigarren bertsoak liberalak Urnieta nola erre zuten gogorra arazten digu. Karlisten leenengo gerratean gertatu zan ori.

Azken bertsoak errepublikaren aitamena egiten du. Errepublikak orrek amaika illabete iraun zituan: 1873-ko otsaillaren 11-tik 1874-ko ilbeltzaren 3-ra. Birtarte ortan moldatutako bertsoak ote dira, beraz? Ala errepublika bukatutakoan?

(1) Lerro onek silaba bat falta du. Bearbada, *gezurrik asko du* jarriko zuan bertsolariak, eta moldiztegiak uts egin.



Manuel Santa Krutz apaiza. (La Ilustración Española y Americana,
Jose Maria Tuduriren artxiboa.)



Santa Krutz apaiza bere mutillekin. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1873)

**Edozeñ zortzikotan
kantatu litezkean
bertso berriak**

1

Aspaldian gabiltza
Karlos jarri nairik,
alegiña egiten
gu geren aldetik;
azioa irabazi,
presoak liberrik,
onela noiz bukatu
gerrik ta naspillik?

2

Biguñ bear degula
diote portatu,
onraduak gerala
dezaten aitortu;
orduan ta geiago
etsaia oi da arrotu:
guk arma kendu ta utzi,
ark bigarrena artu.

3

Biguñ izatea on da,
ez dago dudarik;
Jesusen lege ederrak
ez du nai bengantzik;
baña ez du debekatzen
iñolaz defensik,
au irteten ezpada
pisu ta neurritik.

4

Etsaia menderatu,
ken arma, libre utzi;
ark egiño ote digu
orrenbeste guri?
Beste fusil batekiñ
bai agudo itzuli,
askotan eta askotan
degunez ikusi.

5

Beñ preso egindakoa
berriz armatzea,
ostera gure kontra
tiroka ikustea,
arren balaz illtzea,
erida artzea,
au al da onradu ta
biguñ izatea?

6

Sikiera kanjeo bat
egiteko gorde,
gure jende gaxoa
trukatu aen orde.
Nork ezagutzen ez du
litzakela obe,
presoa aberatsa
izan edo pobre?

7

Etzetik bear dala
karidadea asi,
eskoletan genduan
aspaldi ikasi;
ez gauzikan alrebes
aditu ta nasi,
dotriñari ez dionik
ez esanarazi.

8

Batzuek diotenez,
Santa Kruz gogorra,
suplikak aditzeko
osoro da gorra;
etzan arren biotza
añ legor-legorra,
bear zuan neurrian
zan kupidakorra.

9

“Obligatua nago
ni nereen alde
egitera alegiña,
iñoiz aztu gabe
ez naizela mutillen
biziaren jabe,
liberalai uzteko
preso egiñ ta libre”.

10

Au zion Santa Kruzek
arrazoiarekiñ,
faltatuko ere zuan
ezpazuan egiñ;
liberalak fusillak
plomozko balakiñ
oi dituzte kargatu,
ez konpiteakiñ.

11

Naiko karlistak ill ta
gero ezin bestean
errenditzen badira
errien batean,
aieri nola utzi
guk libertadean,
biur ditezen berriz
kañoi ta arma artean?

12

Odol gutxi ixurtzeko
biderik onena
krueldade gabeko
justizi zuzena.
Artara izango da
gerrik laburrena,
bestela txit luzea
onen iraupena.

13

Argatik Santa Kruzek
aurren-aurrenetik
zuan onela obratu,
ez izan dudarik.
Arkitu al dezute
zuek bide oberik?
Asi bearako noski
Santa Kruzenetik.

14

Biguñegi ibiltzea
gure etsaiakiñ
da *gogor portatzea*
osoro gurekiñ;
gauzai dei bear zaie
eren izenakiñ,
ez *gogor* ta *biguñez*
naspillarik egiñ.

15

Ernialdeko jefe
txit balientea,
ez da zutzaz aztuko
euskaldun jendea;
alfer da edozeñ gauza
kontra esatea,
euskaldunak zukanontz
du borondatea.

16

Kontuan eroriko
dira noiz edo noiz,
egiya agertuko da,
ez guk nai beziñ goiz;
juzgatzen bazaituzte
bear dan arrazoiz,
zure kontra epairik
eziñ eman iñoz.

* * *

Bertso auek iru toki auetan arkitu ditugu: Parisko Liburutegi Nazionalean, *Bayonne, imp. Lamaiguere* moldiztegian inprentatutako paper batean; Juan Olazabal zanaren *El cura Santa Cruz guerrillero (Vitoria, 1928)* liburuan; eta, eskuz idatzita, *Barón de Montevilla* zanaren bilduman.

Bertsoak berdin daude iru tokietan, batere aldaketarik gabe.

Prisioneroak dira bertso auen gaia. Emen esaten danez, beren eskuetan eroritakoak, arma kendü eta libre uzten zituzten karlistak. Baiña era ortan libratutakoak zer egiten zuten? Arma berriz artu eta ostera karlistei gerra egin. Truke egiteko bazan ere, gorde egin bear zirala. Bestela, oso gerra luzea izango zala. Santa Krutzek etzuala orrela egiten...

Ain zuzen, orixe dala uste degu bertso auen bigarren intenzioa: Santa Krutzen izena gar-

bitzea. Fama txarra baitzuan, bai liberalen artean eta bai karlisten artean ere: gizonak errez illerazten zituala eta abar.

Gu ez gera iñor auzi ortan sartzeko. Olazabal eta beste idazle batzuk gogotik jardunak dira ori argitu nairik. Auxe bakarrik adierazi nai genduke: bertso auek ere Errialdeko apaizaren alde jarriak dirala.

Sail ontako zenbait bertsotan, Santa Krutzen itzak eta egiñak igarotzat jotzen dira. Emendik joana zala esan naiko du orrek, eta 1873-ko uztaillean alde egin zuan arek Frantzira. Geroztikako bertsoak, beraz.

Ain zuzen, Parisko paperean, saiets batean, onela dago eskuz idatzita: *reçu en 1873*. Puntuz utzi deguna, ezin irakurri izan degu. Baiña, ziur aski, uztailletik abendura bitarteko illabeteren bat izango da.



Santa Krutz apaiza bere mutillekin. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1873)

Bertso Berriak

1

Diputadua dala
diyo Potzoloiek,
guk galde dizaiogun:
Ta *bastoia* non dek?
Entregatu uala
onezkero badek
dozen erdi bat urte;
bururik ez al dek?

2

Agintea artu ta utzi
noiznai dala egiten,
Potxolito gureak
noski du pensatzen?
Diputadu izatea
zaio asko gustatzen,
baña obligazioak
ez daki konplitzen.

3

Zertako Ondarrabian,
Juntetako sala
utzirik, irten etzan
besteak bezala?
Ark esan bear zuan
bidezkoa etzala
an bildu zuten *Junta*
eta bazijoala.

4

Au egin bearrean
bastaia umill-umill
eman zien, ta etzan
portatu txit abill;
orañ damaturikan
buru austen dabill,
baña aren agintea
aspalditxo zan ill.

5

Zer nai diok Santa Krutz
balienteari?
Geldi utzi akiok
erori danari;
badek irekiñ pare
Ernialde jarri,
jendeak obeto dik
zer aizen igarri.

6

Zergatik Ernialde
ez dek ekusi nai?
Iñoiz aren laurdenik
egiteko ez aiz gai;
euskaldunak egia
konprenditzen dik, bai,
kaso asko egiñ gabe
ire esakaiai.

7

Santa Krutz ibilli dek
or bala tartean,
i Peña de la Plata-n
berriz bitartean;
ura gose ta egarri,
i tripa betean,
ollo, kafe ta koñak
naiz jai, naiz astein.

8

Letu zak fueroen
liburu lodia,
Gipuzkoan eskatzen dik
ark *residencia*;
baña Peña Plata-tik
alde egon Frantzia,
naiz era batera utzi
gure probintzia...

9

Gañera urte bakarra
diputaduentzat
señalaturik zeok,
ez bost ta sei beintzat;
baña laburtxo izan
eun ere iretzat,
eternidaderako
al badek arrezak.

10

Zaldiz balio ez dek,
oñez gutxiago,
ezer ez badezakek
ixilikan ago;
ik beñepen esan dek
ez dan gauza franko,
muturik egotea
uan ederrago.

11

*Oiartzunen nago ni
zion Otsaillean,
guri zuzendu zigun
papertxo batean;
zuen artera nator
ta zuen artean
perill guziaz nai det
sartu nik partean.*

12

Baña ez pensatu zala
Oiartzunen sartu,
paper ura Frantzian
zuan ark moldatu.
Geroenean ere
nola arraxkatu?
Añ sagar gordiñikan
ez du nai otzkatu.

13

Jartzen danean fruta
sasoi obetxuan,
ikusiko dezute
Potxoloren auan;
ez eskutik kentzera
joan ari orduan,
bastoirik baldin badu
jotzeko buruan.

14

Beltzak erriyetatik
badute aldegiten,
bideak garbi-garbi
badirade jartzen,
orduan Naparrotik
kanpora irteten
ikusiko dezute,
eta muga utzitzen.

15

Bost urteko kontuak
deseatzen dira,
sartutako diruak
urtu ote dira?
Zaiezko kartutxotan
gastatu balira,
berdiñ zitzaigukean
botatzea ibaira.

16

Gazteak nai lituzke
soldadu eraman,
nolako da inortxo
aren deiera joan?
Diputadu *bidezko*
batek balu esan
joateko, an ziraden
guziak lasterkan.

17

Multak ipiñtzeko da
mutill txit azkarra,
bost eunetik asi ta
zortzi millatara;
adiskideai gutxi,
ez diranai karga
egiteko asmoakiñ
jarri ote du ala?

18

Liburutxo polit bat
artu det eskuan,
bertsoak ipiñtzeko
sartu nau gogoan;
nezakeana esan det
euskara klaruan,
itzegingo dizutet
geiago urrenguan.

* * *

Bertso auek ere iru toki auetan
arkitu ditugu: Parisko Liburutegi
Nazionalean, moldiztegi-izenik ga-
beko kanta-paper batean; Juan
Olazabal zanaren *El cura Santa*

Cruz guerrillero (Vitoria, 1928) li-
buruan; eta, eskuz idatzita, *Barón*
de Montevilla zanaren bilduman.
Iru toki oietan berdin daude ber-
tsoak; aldaketarik gabe alegia.

Izenburuaren gainetik, oar luze eta jakingarri au du bertso-pa-per onek:

“Diputadutza utzi eta gero ere nola diputadu izan ditekean;

Urte batekin *tir....aka tir....aka* nola sei urte egiñ ditezkean;

Gipuzkoa, Naparroko mendi Frantzia ukitzen dagoan batetik, ederki nola administratu, gobernatu, arreglatu, konpondu (multak boteaz) ditekean; Gipuzkoako lurrean sartu gabe nola Oiartzu-na joan eta an egon litekean;

eta beste onelako milagro asko esplikatzen dituzten BERTSO BERRIAK”.

* * *

Bestetan, bertsoak diotena argitzen jarduten gera. Oraingo ontan lan ori egiñik arkitu degu. *Diario de San Sebastián* egunkariak, 1874-ko azaroaren 23-an, *Ernai*, *gipuzkoatarrak* izeneko idazki bat agertzen du. Idazki ori, gure iritzirako beintzat, bertsoen anaia izango da bearbada; biak aita baten semeak alegia. Ori irakurri ondoren, ez du iñork beste argibiderik bearke.

Baiña *Diario de San Sebastián* orrek onako sarrera au egiten dio erderaz:

“Como documento curioso para la historia del carlismo publicamos a continuación la hoja original que los partidarios

del bandido Santa Cruz han publicado en la frontera contra el aspirante D. Miguel Dorronsoro. Véanse los elogios que aún se atreven a hacer muchos carlistas del cura de Hernialde de triste recordación, y véanse las censuras que dirigen al famoso escribano de Ataun, al que niegan hasta la honradez y la hombría de bien. Publicamos este documento en la lengua en que se ha escrito, a fin de que no pierdan en la traducción nada de su fuerza los razonamientos que en él se exponen.

El escrito ha salido a no dudarlo, a juzgar por su estilo sermonesco y su lenguaje, de la pluma de algún rechoncho cura de Goyarri”.

Bearbada arrazoi izango du ortan: itz lauuko idazki ori apaiz batek idatzia izatea, Don Patrizio Orkaiztegi-edo, au Santa Krutzen aldekoa baitzan.

Bertsoak ere, irakurlea oartuko zanez, ez dira bertsolari jator batek moldatuak.

Itz lauuko idazki ori, Juan Olazabal jaunaren liburuak ere badakar.

Ona emen idazki ori:

“Eman dituzue, gipuzkoatar onraduak, zeren semeak, eta zeren dirua kontribuzio eta errazio-etan, zuen fueroak, zuen lege antziñakoa eta Españaren bidezko erregea defenditzeko. Baiña *bidezko* errege defenditzean, dukarik eztago *bidezko* alkateak, *bidezko* errejidoreak, *bidezko* juezak eta *bidezko* diputadua nai dituzutela. Baita ere, jakiña da, zuen fuero zoriongarriai orrela

eusten diezuenean, ez dituzuela naiko fuero oek aurrena oñ-pean ibilli, gero aldare batean ipiñtze-ko.

Ongi bada: zuen *diputadu* dala dio, diputadu ez dan batek. Zuen diputadu dala dio, *diputazioko bastoia* Ondarrabian, oraiñ lau urte pasatuak dirala, utzi zuan batek. Jaun au da *D. Migel Dorronsoro*. Onek utzi zuan, milla zortzireun eta irurogei ta bederatzigarren urtean, Uztaren biye-an, bere diputadutzako agintea, Ondarrabiako *Junten* izena batzuek eman zien aetan, eta orrekiñ aditzera eman zuan ezagutzen zituala *Junta* aek legezkoztat, bidezkoztat; beste gizon onradu geienak irten baziran ere saloitik, esanaz etzutela an egon nai, zerren aek egiazko *Juntak* etziran, bada asko alkate eta aiuntamentu Gipuzkoan orduan zeudenak legearen kontra ipiñiak ziran, eta oek juntetara biraltzen zituzten gizonak *deretxo gabe* zi-joazen. Irakurri itzazute Onda-r-rabiako juntetako paperak edo *errejistroa*, bada or dituzue aiuntamentu-etxe guzietan eta beste leku askotan, eta ekusiko dezue esan dedana ta ekiago.(1)

Au onela izan eta balorea badu Dorronsoro jaunak orañ presentatzeko zuen artean eta, bastoiari beti kontu egin balio bezela, beti eutsi balio bezela, agintea iñoiz utzi ezpalu bezela, *ni naiz gipuzkoatarren diputadua* esateko!... Ikusten dezute zeñ *zuzen-bidez-*

ko diputadutza duan Dorronsoro jaunak?

Orañ gazte jendea deitu du gerrara Dorronsoro jaunak, bost eun errealetik zortzi millara bitarteko multaren azpian, joaten ezpadira. Gipuzkoako mutillak ez dute multa beldur premirik joateko, baña *Diputadu bidezko batek* deitu bear lituzke. Gañera, zertako da bost eun errealetik zortzi millarako zabaltasun ori? Esan balu bost eunetik millara, korriente; esan balu zazpi millatik zortzi millara, korriente orduan ere; bañan bitarte andi orrekin edozeñek usteko du nai diyela bere deboziokoai multa gutxirekiñ utzi, eta bere gustokiak ez dituanai zortzi milla bizkarrera bota. Baliteke ez ala izatea, baña gerta liteke aren asmoak jendeak asmatzea ere.(2)

Fueroaz konforme nonbratuta dagoala dio berak. Au ez da egia; eta baietz uste badu, esan dezala nongo Juntetan nonbratua izan dan, eta zer agintzen duan *Fueroak* onetarako. Zaute seguru; ez du esango, zergatik ezin dezake esan bere *ez-arrazoia* agertu gabe. Eta onelakoak itzegiñ bear Santa Kruz gogoangarriaren kontra! Amaika traba egiten zuan Santa Kruz jaunak bidezko agiñterik etzuanarentzat. Baña ura zuzena zan; arrekiñ jendeak zuzen ibili biar zuan; eta Dn. Migel Dorronsorori etzizaon gustatzen Santa Kruz, atso zimur ille-zuri eta ortz-ustel bati ispillu leiala

gustatzen etzaion bezela, zerren bere itsustasun eta urte pilla an ikusten dituan. Eta Ernialdeko zuzentzalea erretiratu danean, aurrena, arnas andi batekiñ bere burua lasa-lasa egiñ du Dorronsorok; piska bateko bederik beldurra utzi du, eta aua bete-betean milla gauza, batzuek ez diranak, eta diranak berriz ankaz go-ora, buruaz beera, jantzia alde-erantzira ipiñirik, esan dizkigu paper batean, eta oraindik ere beste asko esan gabe gelditu zaiozkala dio. Ez beintzat alegi-ña, guzia biltzen, egiñ faltaz.(3)

Esan esan, Dorronsorora jauna: or dabil nonbait bedorren pape-rari Dn. Tomas Egibar eta Aman-tegik liburutxo batean eman dion errespuesta bat. Itzegiñ beza ber-riz onen gañean; eta ekusi deze-la gipuzkoatarrak, ea bedorrek edo Santa Kruz balienteak ote duan arrazoi.(4)

Eta zuek, gipuzkoatarrak, erreligioaren alde, fueroen alde, Karlos zazpigarrenaren alde za-biltzaten eta lan egiten dezute-nak, eskatu bidezko diputadu bat; eskatu deretxoz tokatzen zaiona; eskatu fueroaz konforme nonbratutako bat; eta ezin bali-teke Juntarik orañ egiñ, nonbra-tu dedilla al dan bezela, baña ez dezala artu tokatzen ez zaion ize-nik; ez dezala esan: *fueroaz kon-forme nonbratua nago, ez dagoa-larik*. Au izango litzake fueroak oñ-pean ibiltzea; fueroak ez errespetatzea. Eta, zuek errespe-

tatzen ezpadituzue, ez pensatu bestek errespetatuko dituala.

España bidezko erregea nai dezute. Ala bear da; baña *bidez-koak* izan ditezela ere *diputadu* eta *agintari* guziak. Eska zaiozute au humilkiro Dn. Karlosi, eta Dn. Karlosek emango dizue eskatua; bada merezi du, zuek bezela, be-re odola, izerdia eta dezakean gu-zia ematen duanak.

Ernai, gipuzkoatarrak, eta be-gira berandutxo ez zaiztean esna-ratu! Kontuz ibilli eta gizon onra-duak eskatu!

Orra zer esaten dizuen zuen anai batek”.

(1) *Erregistro* orrek onela dio:

“...se presentó el Sr. D. Miguel de Dor-ronsororo.

En observancia de lo acordado por las generales de 1849, una comisión compuesta por dos Sres. constituyentes del Ayuntamiento de esta ciudad salió de la sala con el objeto de acompañar al seno de la representación del país al Sr. Diputado general en ejercicio, y a breve rato se presentó el Sr. D. Miguel de Dorronsororo, que lo ha sido durante el año último foral. Entregó S. S.^a a la Junta el bastón de la provincia y leyó la memoria siguiente...”.

(2) Gai onetaz ara zer dion Juan Olazabal zanak bere *El cura Santa Cruz guerrillero* (Vitoria, 1928) liburuan:

“El 6 de Abril, colocado ya en funciones de dictador el Sr. Dorronsororo, expedía desde Echalar la primera Circular impresa, diciendo a los Alcaldes que había llegado la hora de que todos, pobres y ricos, sin excepción, hicieran un último esfuerzo para acabar de una vez con la revolución y reintegrar los fueros y libertades, y que, en la imposibilidad de reunir juntas generales ni

diputación extraordinaria, de conformidad con el comandante general, acordó declarar soldados de D. Carlos a todos los guipuzcoanos solteros de 18 a 40 años de edad, reputándose solteros a los casados con posterioridad al 21 de abril de 1872; que el servicio era personal sin sustitución ni redención... conminando la falta o deserción, de 500 a 8.000 reales mensuales hasta que se presentase o fuese habido, haciéndola efectiva en sus bienes o en los de sus padres, tutores o educadores”.


Etxalarko erria aitatzen zaigu emen; eta, zazpigarren eta zortzigarren bertsoak, ain zuzen, Peña Plata izendatzen di-

gute. Irakurleak jakingo duanez, Etxalar eta Sara bitarteko mendi bat da ori, muga-mugan altxatzen dana. Migel Dorronoro ori antxe zala, alegia, Gipuzkoatik urruti samar.

Baiña argibide geiago nai dituanak, irakurtzea dauka *Saldando cuentas con Dorronoro* izeneko atala, Olabazabalen liburu ortan.

(3) Urrengo bertso-sail batean aitatu-ko degu *Alocución Manifiesto* izeneko idazkia.

(4) Tomas Egibar onen liburuskaz urrengo bertso-sail batean itzegingo degu.



Santa Krutz apaiza. (Jaime del Burgo: *Veteranos de la Causa*, San Sebastián, 1939.)

(1873)

Kanta Berriak

1 Karlistak ezagutzen
degu Errialde,
gauza franko aren kontra
itzegiñ dirade,
ai, ai, ai, mutillak,
itzegiñ dirade.

2 Ez nolanai sinistu
esaten dan gauzik;
non dala uste dezute
ura beziñ fiñik?
Ai, ai, mutillak,
ura beziñ fiñik?

3 Egia agertuko da
goiz edo berandu,
ez beintzat esperantzik
egundaño galdu,
ai, ai, ai, mutillak,
egundaño galdu.

4 Norbaitek nai zukean
ura desfamatu;
isabelino bat zan,
au kontuan artu,
ai, ai, ai, mutillak,
au kontuan artu.

5

Liburutxo batean
dator errespuesta,
letu gabe uraxen
utzi bear ezta,
ai, ai, ai, mutillak,
utzi bear ezta.

6

Antxen degu ikusiko
zer dan arrazoia,
baita gizontxo batek
altxa duan loia,
ai, ai, ai, mutillak,
altxa duan loia.

7

Isabel ta Alponsoren
deboziyokoak
dirade Santa Krutzen
oso kontrakoak,
ai, ai, ai, mutillak,
oso kontrakoak.

8

Eziñ dute ikusi
begiz liberalak,
egiñ dituzte kontra
beren egiñalak,
ai, ai, ai, mutillak,
beren egiñalak.

9

Karlista fiñarentzat
marka segurua:
beltzak erakustea
eren amorrua,
ai, ai, ai, mutillak,
eren amorrua.

10

Zeñ Ernialde ainbat
dute gorrotatu?
Aren burua aspaldi
zuten preziatu,
ai, ai, ai, mutillak,
zuten preziatu.

- 11 Liberal beltz oriyen
diputaziyoak
millaka nai zituan
luzatu duroak,
ai, ai, ai, mutillak,
luzatu duroak.
- 12 Galestiyago ez da
ikusi bururik,
ez baitu inork jartzen
ark ainbat beldurrik,
ai, ai, ai, mutillak,
ark ainbat beldurrik.
- 13 Zenbat neke, peligro
ez du ark pasatu?
Negu biziz zitzaigun
Gipuzkoan agertu,
ai, ai, ai, mutillak,
Gipuzkoan agertu.
- 14 Amorebietarekiñ
geunden oso illik,
etzala inon uste zan
altxako karlistik,
ai, ai, ai, mutillak,
altxako karlistik.
- 15 Onetan sartzen dira
ogei ta amazazpi,
orra zer jendetzakiñ
Santa Krutz zan asi,
ai, ai, ai, mutillak,
Santa Krutz zan asi.
- 16 Ez lo, ez jan ta ez ezer
mendiz mendi dabil,
euskaldunen biyotzak
animatzen agitz,
ai, ai, ai, mutillak,
animatzen agitz.

- 17 Asko gazte pozikan
 aiekiñ joan ziran,
 fiñtasuna ikusi ta
 gustatu baitziran,
 ai, ai, ai, mutillak,
 gustatu baitziran.
- 18 Geroztik aien lanak
 kaburik etzuten,
 beltz guziak ikaraz
 ipiñi zituzten,
 ai, ai, ai, mutillak,
 ipiñi zituzten.
- 19 Fusil, polbora, balak,
 jana ta jantzia,
 nonbait moldatzen zuten
 bear zan guzia,
 ai, ai, ai, mutillak,
 bear zan guzia.
- 20 Azkenean kañoiak
 zituzten eratu,
 instrumentu berriak
 baitere asmatu,
 ai, ai, ai, mutillak,
 baitere asmatu.
- 21 Noizbait igaroko da
 emengo itsumena,
 izango al da aientzat
 zor dan aitormena,
 ai, ai, ai, mutillak,
 zor dan aitormena.

* * *

Bertso edo kopla auek ere iru tokitan arkitu ditugu: Parisko Liburutegi Nazionalean, moldizte-

gi-izenik gabeko kanta-paper batean; Juan Olazabal jaunaren Santa Krutz apaizaren bizi-

tzan(1); eta *Barón de Montevilla* zanaren bilduman, eskuz idatzi-ta.

Iru toki oietan berdin-berdin daude bertsoak, batere aldaketa-rik gabe.

Bertso-sail onek, izenburua-ren gaiñetik, onela dio:

“Jaun batek Santa Krutzen kontra eta beste batek alde esan dutenaren gañean”.

Kontrakoa Migel Dorronsoro zan, Ataungo semea, eta gerra-denboran Gipuzkoako *diputado general* izan zana. Lizarraga jeneralaren lagun aundia izanik, Santa Krutz begitan artuta zeukan. Ala, 1873-ko uztaren 15-ean, *Alocución-Manifiesto* izenburuarekin, idazki bero bat atera zuan Ernialdeko apaizaren aurka. Ain zuzen, Santa Krutz orduantxe zan mutillak utzi eta Frantzira joana,

Santa Krutzen alde itzezin zuana, berriz, Tomas Egibar Amantegi izan zan. Onek liburuska bat atera zuan, andik illabetera, Baionan inprentatua,

izenburu onekin: “*Nos hace hablar el Sr. Dorronsoro. Cuatro palabras sobre la alocución-manifiesto (15 Julio 1873) del Diputado General. Liburuxka ori irakurri nai duanak, Olazabal jaunaren liburuan arkituko du.*”

Amargarren bertsoak esaten digunez, liberalak Santa Krutzen “*burua aspaldi zuten preziatu*”. Alaxe zan: amar milla pezeta agindu baitzituzten Santa Krutz arrapatzen zuanarentzat, naiz bizirik naiz illik ekarri.

Santa Krutz ogei ta amazazpi mutillekin asi zala esaten digu amabostgarren bertsoak. Ontaz, Tomas Egibar orren liburuan, le-rrero auek arkitu ditugu:

“...D. Manuel Santa Cruz entró en España la noche del 1º de Diciembre de 1871 con 37 héroes contra la voluntad expresa del Sr. Dorronsoro, quien prohibió, a los que tenían el cargo de los depósitos, facilitar arma alguna al emprendedor y casi temerario cabecilla...”.

(1) Juan de Olazabal y Ramery: *El cura Santa Cruz guerrillero, Vitoria, 1928.*



Manuel Santa Krutz, beste iru apaizekin.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1873)

Bertso Berriak

1
Kopla berri batzubenek
bear dizkat jarri
gure Ernialdeko
sazerdote orri.
Españiyako buru
al dago bedorri?
Txantxetako gradubak
etzaizka etorri.(1)

2
Relijiyua zer dan
nai dubenak jakiñ,
konsejatu dedilla
Santa Krutz-erekiñ;
obra onaren partez
eriyotzak egiñ,
kantak jarri biaizkat
konsolatu dediñ.

3
Itzegiten badegu
tokatzen dan gisan,
onra-bide aundirik
ez litzake izan;
relijjiyo santuba
utzirik elizan,
insultuak ematen
orra nun dabilzan.

4

Gerra irabazteko
atera du plana,
uste det badaukala
egun biko lana;
engañagarriya da
gezurrezko fama,
au da denborarekiñ
ikusiko dana.

5

Jaun orrekiñ jendia
deskontentu dabil:
non-nai dirubak kendu
eta gizonak ill;
etxietatik berriz
orrenbeste mutill,
tragatuko lituke
Kadiz eta Madrill.(2)

6

Dirubak eskatutzen
asi da erriero,
Iruran izandu da
oraindik berriro;
milla duro emateko
bestela lau tiro,
desafiyo eginda
zan Amasara iyo.

7

Erraziyuen billa
sartzen dira gabaz,
kargatubak debiltza
maleziz eta tranpaz;
eltze zarraren gisako
korneta bat juaz,
morralak betetzian
eskapa dijuaz.

8

Eun lagun badira
lareun erraziyo,
or dabilta egiten
erozein traiziyo;
baldin justiziarik
egiñ nai bazayo,
laister ikusi biar du
azken juiziyo.

9

Oien kornetak diyo
beti erretira,
kale iskiñatikan
leku urrutira.
Basakerraren gisa
eskapa mendira,
laister prisionero
Donostiyan dira.

10

Preziso galosuak
ez daude jantziyan,
armak Eibarren da
arropak Frantziyan;
lotsagarri dabilta
beren dezentziyan,
Lisboara bialdu
biaute ontziyan.

11

Apaiz errespetuan
daudela erriyan,
etzaiote tokatzen
armakiñ mendiyan;
lenago geunden asko
oien inbiriyan,
berak para gaituzte
kolera aundiyan.

12

Orra lau gizonekiñ
naziyua nastu,
Españiyan eginda
makiña bat gastu;
mezarik eman ez da
binajerak ustu,
karlistak berri onik
zabalduko ez du.

* * *

Bertso auek Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Izenburuaren gaiñetik, eskuz erantsita, itz eta zenbaki auek ditu: *Octubre 9, 1000 ejs.* Bestetan ere esan degunez, Manterolak paper ori zein egunetan jaso zuan eta zenbat ale inprentatu ziran esan naiko du.

Santa Krutz eta gerrara joandako beste apaizen aurkako bertsoak ditugu auek ere. Santa Krutzek, leen esan bezela, urtebete egin zuan gerran: 1872-ko udaratik 1873-ko udara bitartean.

Beste argibide bat ere ematen dute bertsoak; seigarren bertsoak, Santa Krutz Iruran izan berria dala esaten digu. Baiña paraje oietan maiz samar ibiliko baitzan, ez det uste ortik ezer ere atera dezakegunik.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, sail ontako lau bertso arkitu ditugu; 1, 2, 6 eta 9-garrena.

Aldaketak: 1/1: Paratzera nijua; 1/2: bertso bat edo bi; 1/4: sazerdotiari; 1/6: eginda berori; 1/7: txantxetako gradua; 1/8: etzaio erori; 2/1: Relijiyua nola dan; 2/3: Santa Kruz apezakiñ; 2/4: informatu dediñ; 2/5-6: falta; 2/7: kantak jartzera nua; 6/1: Iruran izandu da; 6/2: oraindik berriro; 6/3: dirua kendutzen dabill; 6/4: erritik erriro; 6/8: Amasara igo; 9/1: Karlistaren korneta; 9/3: kale eskiñetatik; 9/4: toki urrutira; 9/5: bara akerraren jira; 9/6: lasterka sasira; 9/7: presio-nero laxter.

* * *

Bigarren bertsoa onela jaso zion Juan San Martin adiskideak, 1885 urtean Markina Etxeberrian jaio eta Eibarren bizi zan Joakin Olañeta *Ertzil* zanari:

Relijiyua zer dan
nai duenak jakin,
enterau egin deilla
Santa Kurtzekin;
obra onak atzera ta
eriotzak egin,
ia asetzen bada
iñun odolakin.

-
- (1) Bertso-paperak: *etzaiz etorri*.
(2) Bertso-paperak: *Cadiz eta Madrid*.



Bera-Bidasoa. (La Ilustración Española y Americana,
Jose Maria Tururiren artxiboa.)

(1873)

**Zein dira, bada, zein dira
juan zaizkigunak mendira?**

Estrbillua:

Emengo apaizak
bezelakorik eztago inon:
tiroka tiraka *pim pom*
dabiltza *ti ta tikiti pim pom.*

1

Zein dira mendiyetan
diranak pozkiroz?
Relijiyuen alde
dabiltzanak tiroz?
Apaizak...

2

Zein dirade tenpluak
abandonatuta
soldadu juan diranak
oso arrotuta?
Apaizak...

3

Zein dira gure ustez
txit onak ziranak?
Orain gizonak iltzen
pozez dabiltzanak?
Apaizak...

4

Zein dira lotsa gabe
diabruz josiyak,
Jaunak bere eskutik
dauzkanak utziyak?
Apaizak...

5 Zein dira gerrarako
gizon billa aurten
ari diranak fuerzan
jendia eramaten?
Apaizak...

6 Zein dira mingañ eder
biotzez palsuak,
onak nai gaituztenak
buelatu gaiztuak?
Apaizak...

7 Zein dabilta soldadu
gure Españiyan,
basoko auntzak bezela
saltoka mendiyan?
Apaizak...

8 Eztezula asmatzen
ara nik apustu,
odola ixurtzen dala
diradenak poztu?
Apaizak...

9 Orra nik asmatu
ibilli gabe estu:
bai, apaizak dirade,
justu, justu, justu.
Apaizak...

Emengo apaizak bezelakorik
eztago iñon:
tiroka tiraka *pim pom*
dabilta *ti ta tikiti pim pom*.

* * *

Bertso edo koplak auek, izen-
buru orrekin, Jose Manterola za-
naren bilduman azaldu dira.

Eskuz idatzita daude. Inpren-
tatu eta zabaldu ote ziran ez da-
kigu.

Barón de Montevilla zanaren bilduman ere agertu dira bertso auek, aldaketarik gabe ordea, eta bertsoen ondoan oar jakingarri au irakurtzen dala:

“Alusión a los curas Santa Cruz, Iriarte León, Macazaga, Mendizabal, etc., el cura de Ispaster, P. Goyriena...”.



Soldadu berriak. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1873)

Bertso Berriak

1

Kant'abek aditzera
aitzalliak betoz,
arrazoi ote deran
konprenditu azoz;
probintzian galdu da
zenbait buru gaiztoz,
mubitu ezpaziran
obe zuten askoz.

2

Jakin izan bazuten
lengo gerra zer zan,
danak egongo ziran
beren etxietan;
oiek kontsejatzeko
gurasorik etzan,
baña zar abek ere
lengo griña bertan.

3

Etxian gariya ta
soruan artua,
Jainkuari graziyak,
bazuten naikua;
Santa Krutzek bigali
duela abisua,
saltoka ta brinkoka
mutilla an dijua.

4

“Jose Ignazio, guazen!”
“Fraisku, itxoron zak;
etziok presarikan,
trago bat eran zak”.
“Lenbailen juatia dek
mesere geontzat,
mutil, despedituta
gure neska motzak”.

5

Neskak despedituta
birian abiya.
“Gerr’au irabaziya
dadukagu iya;
Karlos il zala zioten,
ezta ori egiya,
Santiyagoetako
juango da Madrilla”.

6

An plantatu zioten
gizon tantai batez,
Karlos setimo dala
il zan arren partez;
danak konformatuta
berentzako kaltez,
aspertuko al dira
gezurrak txinistez.

7

Asi dira esaten
basarriko atsuak:
“Kulparikan geiena
degu gurasuak.
Ernialdeko apaiz ta
Portu-etxeakoak
engañatu ginduzten
comorriyoscuac”.(sic)

8

Akordatze bakoitzez
karlist'oien lanak,
beriala artzen naute
suak eta garrak;
famili askorentzat
pena ta negarrak,
Españi guztiyaren
ondatzalle txarrak.

9

Bi basarritar atsok
alkar Donostiyan:
"Semiak nun dituzu?
Nik beintzat mendiyán,
Santa Krutzi emanak
martxuaren biyan,
relijio santua
kontserba dediyán".

10

Irundik asi eta
Tolosa bitartez,
Lomak astintzen ditu
Lizarragen partez;
ezta asko izutzen
oietara juatez,
karlisten kontra sutan
or dabil korajez.

11

Tolosa artu dutela,
orain Donostiya,
erozein zokotatik
dator notiziya;
Oiartzun dakatela
nai ezik utziya,
au dek mingain luze dun
jende gezurtiya!

12

Lomak etxe batzuek
erre omen ditu,
ez ezpazuen andik
iñork ofenditu;
soldadu bat ill eta
bestia eritu,
oraindikan geiago
erre biar ditu.

13

Lizarragak apenas
duen bere etxerik,
zierto eztakit bañon
ala uste det nik;
etxia balu ez luke
egingo andik surik,
ezagun da eztaukala
zer galdu askorik.

14

Karlisten diputadu
dala probintziyan,
Dorronsoro kendu zan
fanfarroikeriyan;
Puentes iyeltserua
aben konpañiyan,
zezenak ikusiyaz
or daude Frantziyan.

15

Dorronsorok zazpi etxe
dituela egiya:
bat goitik bia jua,
bestia eroriya,
irugarrena ere
erori da iya,
beste lau etxietan
karlisten guardiya.

16

Lomaren korajiak
eta errespetuak,
mutill onak dakazki
bere soldaduak:
mikeletiak eta
mobilizatuak;
lan egiten bazekik
gizon artakuak.

17

Orra amazzpi bertso
jarri liberalak,
lautatikanen iru
borondatez juanak;
sekulan gauz onikan
eztik buru txarrak,
zer kontatu izango dik
eskapatzen danak.

* * *

Amazazpi bertso auek Jose Manterola zanaren bildumatik artuak ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper bat da; gerra-denborakoa seguru asko.

Paperaren goenean, eskuz idatzitako eraskin au irakurtzen da: *Noviembre 10, 1500 ejs.* Gure iritzirako, makiña bat aldiz esan degunez, zera esan naiko du: Manterolak papera zein egunetan eskuratu zuan, oraingo ontan urterik esaten ez badu ere; eta zenbat ale inprentatu ziran.

Bertso auek noiztsu jarriak diran somatzeko, bide batzuk badi-rala uste degu.

Santa Krutz apaiza artean gerran ari da. Ala adierazten dute 3, 7 eta 9-garren bertsoak.

Santa Krutz kapillau bezela asizan gerran, 1872-ko udaberrian. Maiatzaren 4-an Orokietakoa gertatutakoan, berak etzuan amor eman. San Juanetan, mutil-talde baten buru zan; eta gerran jarraitu zuan, 1873-ko uztaren 14-an Bera-Bidasoan Valdespina-ren aginduetara jarri eta Frantziara pasa zan arte. Urte bereko abenduan atzera etorri eta Asteasun iskanbilla ederra sortu zuan. Baiña bereala aldegin eta betiko izkutatu zan emendik.

Loma liberal jenerala, berriz, “Irundik asi eta Tolosa bitartez” ari dala esaten digu 10-garren bertsoak. Oiartzun eta Tolosara laguntza eramatearren zebillen. Ain zuzen, 11-garren bertsoak dionez, Tolosa ez dute oraindik karlistak artu. Gipuzkoako iriburu zaarra 1874-ko otsaillaren 28-an utziko zuten liberalak.

Santa Krutzen aitamenak, Lomarenak baiño geiago lagun-

tzen digu, beraz. Ala, bertso auek 1873 urtean jarriak izango dira, eta bearbada udara baiño leen.

14 eta 15-garren bertsoetan, Dorronsoro aitutzen da. Leen ere itzegin degu jaun orretzaz.

14-garren bertsoak, “Puentes iyeltserua” ere aitutzen du. Nor izan zan ez degu iñondik ikasi aal izan.

(1873)

“Abade txiki-txiki polit bat...”

Onako adierazpen eta bertso auek, *Barón de Montevilla* zana-ren bildumatik itzez itz artzen ditugu:

“Don Manuel Santa Cruz, el cura de Hernialde, personaje interesantísimo de la última guerra, posee también su cancionero; poco hemos podido reunir hasta la fecha. Sabida por todos es su rivalidad con D. Antonio Lizarraga, (a) el Santo, quien se propuso acabar con el cura y sus partidas, cosa que no alcanzó, por cuanto la Providencia reservaba este cometido al Marqués de Valde-espina.

Los Santacruzistas mofábanse de Lizarraga:

Ez dauka fedea,
ez, kristau nereak,
ez dauka bildurrik
Asteasu aldetik.

Asteasu era cuartel general de Lizarraga.

Los liberales, no pudiendo cogerle tampoco, cebábanse en su persona, atribuyéndole crímenes y otros excesos. No se puede negar que el cura se excedió un

tanto en sus atribuciones, pero en Dios y en nuestra creencia creemos que muchos de esos excesos deben ser juzgados serenamente, y no caprichosamente, como lo hacían los liberales, interesados en desprestigiar a un enemigo que tantas derrotas les infligía:

Santa Kruzek, bai, egin du
abilidadia:
gizon bi eta andre bat
afusilatzia.(1)

Aquí, como se ve, son cuatro los fusilados: los citados y el vascuence.

Sus partidarios, que le idolatraban, pues nunca jefe alguno se preocupó tanto como él de los suyos, al son de la tonada “Ortik ibilli, ortik ibilli, Mariya fandan-go...”, entonaban:

Abade txiki-txiki polit bat
or dabill mendiyán,
beltzak diyote arrapatuko
dutela erdiyan.

¿Quién compone mi caldera?(2)
Zeiñ atrebituko ote da
abade txikiyen aurrera?(3)

* * *

Zarautzko Juan Iruretagoiena
apaiz jaunak beste onela eman
zigun bertso ori, Aia-ko Altzolan,
Martina Etxaberen aotik jasota:

Abade txiki-txiki
or dabil mendiyán,
beltzak diyote arrapatuko
dutela erdiyan.

Ta gu gera, ta gu gera,
nor atrebituko ote da
abade txikiyen aurrera?

* * *

Bertso au onela agertu da Aita
Apalategiren paperetan:

Abade txiki txiki polit bat
or dabil mendiyán,
beltzak diote arrapatuko
dutela erdiyan.

¿Quién compone mi caldera?
Zeiñ atrebituko ote da
abade txikiyan aurrera?

(1) *Facilitado por el ilustre heraldista
Don Juan Carlos Guerra. (Barón de Mon-
tevilla-ren oarra.)*

(2) *A manera de pregón. (Id.)*

(3) *Facilitados por D. Félix Caperochipi,
secretario del cura Santa Cruz. (Id.)*

“Apaizak dute tallerra libre...”

1

Apaizak dute tallerra libre,
erremienta ere bai,
egiten duten biar guztiya
aurrez kobratu ere bai,
gure Jaungoiko egiazkuak
ez du orrelakorik nai.

2

Relijiyuak ez du agintzen
apaiz oien legiagan,
antziñetako eskrito batek
esaten du liburuan:
sazerdoterik etzala biar
armak arturik lepuan.

* * *

Bertso-pare au ere, beste ain-
bestetan bezela, sail luzeago ba-
ten kondarra izango da. Mendira
irten ziran apaizen aurka molda-
tua da.

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz
jauna zanaren bilduman arkitu

degu. Plazentziako *Urzelai*-k bial-
dua omen zuan berak; Irunen
jaio eta Plazentzian bizi izan zan
Andres Ezenarrok, alegia. Gizon
au bein baiño geiagotan aitatu
degu.



Zaldizkoak gerratean.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Aiako arazo ondorean

- 1
Apetituba gañeztutzen zan
ango arrantxuagatikan,
ogiya ere egunean beñ
amalau ontzaz betikan;
baba askotan egosi gabe,
koipia urrutitikan,
mantendu gera nolabait bañan
geren patrikaratikan.
- 2
Era orretan egondu gera
preso zortzi illabetean,
makiñatxo bat arrazoi txar ta
amenazoen artean;
oker aundiak egin giñuzen
nonbait beltzen esanean,
andik Kadiza bota gaituzte
barku zar aundi batean.
- 3
Gizon pikaro traidore aundi bat
erriyan genduben alkate,
izenari ere ongi erreparatu:
Tranpa esaten diyote;
inbusteriyan ibilli dira
seguratu gaituzten arte,
zintzo portatu bagiñan ere
ongi ordaintzen gaituzte.

4

Tranpa bakarrik ez det markatzen,
lagunak ere baditu,
oiek nor diran esango nuke
iñork nai badu aditu;
beren denboran izandu dute
zakurrak ainbat kreditu,
oiengana piyatu danak
kulpik aundienak ditu.

* * *

Tolosako Manuel Urreta zanak, beste paper askoren artean, *Tolosan: Mugerza'ren moldizte-gian* argitara emandako bertso-paper bat eman zidan.

Onen goenean bederatzi bertso ageri dira. Bertso oiek, karlisten bigarren gerrari buruzkoak izanik ere, ez dira gerra-denboran jarriak, askoz geroago baizik. Liburu ontako azken orrialdeetan arkituko ditu irakurleak.

Paperaren barrenean, berriz, lau bertso: onako auek alegia.

Zein doiñutan kantatu bear diran, itz auen bidez adierazten du paperak: *Andre Madalen eresian*.

Beste oar jakingarri au ere egi-ten du: *Xendoia* Usurbil'koak jarriak Aia'ko arazo ondorean.

Izenburutzat, berriz, onako au: *Gerratekoak*. Baiña orrek ez du guretzat balio, liburu ontako bertso guziak gerratekoak diran ezkerero. Berria billatu bearrez,

adierazpen ortatik artu degu: *Aiako arazo ondorean*.

* * *

Xendoia orri buruz argibide auek eman zizkidan Usurbilko Artzabaleta baserriko Manuel Urruzmendik:

Juan Jose Zeberio zituan izen-abizenak. Bera eta bere lagunak Kadiza eraman zituzten prisionero.

Usurbilko alkatea liberaletakoa zan. Izengoitiz *Tranpa* esaten zioten. Libre aterako zirala agindu omen zien prisionero eramandako mutil oiei. Agindu bai, baiña itza kunplitu ez.

Bertso auek Kadiztik bialdu omen zituan *Xendoia* orrek.

Etixerako lizentzia zutela entzun zutenean, pozarekin arrotuta, platerak eta basoak artu eta puskatu egin omen zituzten. Or-

duan, kastiguz, beste zortzi egu-
nean eduki zituzten, platerarik ez
eta eskuekin jaten zutela.

* * *

Tranpa orretzaz beste zerbait
ere bildu degu.

Gerra ondoan, gau batez,
Tranpa orrengana joan; makillaz
jo, batez ere anketan; asto baten
gaiñean jarri eta lotu; eta era
orretan erri inguru guzian erabili
omen zuten.

Ori egin zutenak zein ziran
iñork ez omen zuan jakin aal
izan. Baiña Kadizko prisionero
oietako batzuk izango ote ziran
pentsatu zuan jendeak.

Tranpa ori kontratista-edo
omen zan, eta Donostiako kaian
lan egiten zuana. Donostiako Uda-
lak bialduta, zaldi-gurdi bat etor-
tzen omen zitzaion etxera billa.

* * *

Aiako arazo ori, berriz, 1873-
ko ilbeltzaren 31-n gertatu zan.

Santa Krutz apaiza eta bere
mutillak Aian zeuden. Geroago
Aritxulegi bezela, orduan erri ori
aukeratua zuten beren gordele-
kutzat.

Liberalak etortzekoak zirala
jakiñik, Lizarraga karlisten jene-
rala Zarautzen zegoanez, lagun-
tza eskatu zion Santa Krutzek.
Batzuek diotenez, joango zala

agindu bai, egin omen zion; bai-
ña itza bete ez.

Liberalak Pagoeta menditik
barrena etorri omen ziran, Aiako
erria goitik beera ederki arrapa-
tzen zutela. Santa Kruzarrak,
aiei arpegi ematen aalegiñean
saiatu omen ziran; alperrik, or-
dea. Mutil askok armarik ere ez
omen zuten; eta zutenak ere,
munizioa eskas. Ala, iges egin
bear izan omen zuten; baiña aal
zutenak bakarrik. Asko eta asko
etsaien atzaparretan erori ziran.

Bertsoak diotenez, liberalak
Kadiza eramán zituzten prisione-
ro oiek. Oietako bat, Usurbilko
Xendoia ori, bertso auen gillea.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bertso-
bilduman ere azaldu dira bertso auk,
bi tokitan gaiñera.

Batean, aldaketa auk ditu: 1/1: Ja-
teko naia alperrik galtzen; 1/2: zan ango
janagatikan; 1/8: geronen sakelatikan;
2/6: nunbait egunen batian; 3/1: Gizon
gaizto ta zaiñ txarreko bat; 3/3: izenai
ere ongi beidatu; 3/4: *Tranpa* deitutzen
diote; 3/5: lizunkerian ibilli dira; 3/7:
leial portatu bagiñan ere; 3/8: ongi pa-
gutzen digute.

Eta bestean: 1/1: Apetituba sobra-
tutzen zan; 2/6: nonbait egunen batian;
3/1: Gizon zital ta traidore aundi bat;
3/7: leial portatu bagiñan ere.



Antonio Lizarraga jenerala. (Enciclopedia Auñamendi.)

Bertso Berriak

1

Españiyako penak
tristiak dirade,
famili asko lutuz
jantzirikan daude;
gerra kruela onekin
españolak gaude
munduban bizitzeko
gustorikan gabe.

2

Iñon ezta pasatzen
pasatzen dana emen:
aita semiaren kontra,
anaia anaiaren;
gerr'au akabatuta
pakez egon gauden,
milagro bat egizu,
Jaungoikua, arren.

3

Español baliente,
prestu ta nobliak,
jaiotzetik gerade
bildurrik gabiak;
lastima dan bezela
gure baloriak,
alkar iltzen gabiltza
gu miserabliak.

4

Estranjeruak daude
barreratik farrez,
konsueloz beterikan
gure suerte txarrez;
ikusirik onela
gabiltzala asarrez,
oiek farrez itotzen,
gu berriz negarrez.

5

Karlos zazpigarrena
buruban sartuta,
alkabuete jainkuen
izena artuta;
Jangoikorikan balitz
munduban aztuta,
kontentatzen dirade
al dutena ostuta.

6

Relijiyua galdu,
akabatu lanak,
erdi gosiak oraiñ
emen gabiltz danak;
ondo pentsatu eta
oien alde danak
sufritu biarko'itu
infernuko penak.

7

Ez iltzia bosgarren
mandamentuba da,
ala biar litzake
arrazoirik bada;
bañon gaurko egunian
relijiyua da
ostu ta ill ta gaitzik
ez egin, al bada.

8

Txapel luze dun oiek
jantzirikan kapak,
dirade relijiyu-
aren eltze-tapak;
orain azaldu dira
jaun oriyen tranpak,
relijiyoso ederrak
dauzka Karlos Txapak.

9

Santa Kruzko apaiza
ejenplo deguna,
infernuko agintari
guziyen laguna;
Jainkuen sazerdote
txapel luze duna,
relijio polita
ezta eman diguna?

10

Orra konfesiya
ta doktrina galdu,
orra dirubaen truke
nola duten saldu;
orra oien tranpak nola
diraden azaldu,
orrelako pertsonak
lotsarik bai al du?

* * *

Amar bertso auek *Donostiyan*:
Juan Osesen moldisteguiyan in-
prentatu eta bertso-paperetan za-
baldu ziran. Ale bat Donostiako

Jose Manterolaren bilduman agertu
da.

Egillea nor dan ez dakigu; eta so-
matzeko biderik ere ez degu ikusten.

Istoria aldetik ez du sail onek argibiderik bear. Esaten dituanak ulerterrezak dira edozeiñentzat ere.

Bigarren bertsoak jenitiboarekin egiten du bigarren puntua:

anaiaren. Gutxitan arkitzen da ori euskal bertsoetan. Bilintzek bi bider du ori. Baiña besterik gabe ezin artuko degu donostiar bertsolaria bertso auen egilletzat.

“Iru karlista triste...”

Iru karlista triste
zaldiya gañian,
sei tiro botarikan
Errosa gañian.

* * *


Ikus 27-garren doiñua, azken orrialdeetan.

Doiñu eta kopla auek *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik artuak ditugu. Berak nundik eskuratu zituan ez du esaten.

Beste iru kopla ere baditu ondotik. Baiña oiek leen ere liburu ontan agertu ditugu. Ortaz gairera, kopla onekin ez dute, gure iritzirako beintzat, zer ikusirik.

Montevilla-k *sei tiro botari (t)* ez dio irugarren lerroan. Oker dagoala esan bearrik ez dago. Baiña aldamenean erdal itzulpena du eta onela dio: *lanzando seis tiros*. Orregatik, nolabait ere zuzentzearren, *sei tiro botarikan* idatzi degu.

Errosa gañian esaten da laugarren lerroan; eta Montevilla-k onela argitzen du: “*Se refiere al alto de Rozas, cerca de Bermeo, Vizcaya*”.



Bermeo. (La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Canción de los Miqueletes

“AMA, BANUA MENDIA...”

“Ama, banua mendia
defenditzera fedia”.
“Zu, gazte, neure semia,
relijiuan ilten bazara
zuzen zerura bidia”.
Au apaizaren idia,
sartzen dizute ziria,
bostek isten du bizia.

* * *

Doiñu eta bertso auek iru tokitan arkitu ditugu: *Estampa Tradicionalista, Noviembre de 1932* agerkarian; *Album tradicionalista, 1833-1933, Centenario de la gloriosa tradición* liburuan; eta *Barón de Montevilla* zanaren bilduman.

Montevilla-k, berak nundik eskuratu dituan adierazteko, onela dio: “*Recogido en Lequeitio por D. Elías Burgos*”.

Montevilla-ren bilduman, izenburua or goien ezarri degun bezelaxe dago: leenengo erderaz eta ondoren euskeraz, bertsoaren asiera alegia.

Bertsoa irakurrita ere, orixe nabari da: mikelete edo liberalen kanta dala, karlistei iseka egitearren.

Ikus 28-garren doiñua, azken orrialdeetan.



Lizarrako bidean. (La Ilustración Española y Americana,
Jose María Tuduriren artxiboa.)

Bertso Berriak

1

Kantak jartzeko abiyen
nago oraingo aldiyan
gure euskera garbiyan;
gustorik gabe bizi gerade
danok gure Españiyan;
guziyak gaude premiyan,
bakoitza beren erriyan,
negarra degu begiyan.

2

Libertadeko legia
beste edozein baño obia,
izan ezkeru pakia;
kontrarioak eman digute
onelako naigabia,
esanaz Karlos guria
bear dutela erregia,
ark dakarrela fedia.

3

Desia zangun pakia,
lana nai degu izatia,
arren, Jaungoiko maitia;
lana egin da bizi biagun
jornaleruen tristia!
Orain daukagun kattia,
itxi digute atia,
ori da danon kaltia.

4

Nola bear degun bizi
orain biagu ikasi,
danak pensatutzen asi;
Españiatik estranjerora
zenbait joan dira igesi;
nai luteke irabazi,
Karlos jartzeko nagusi,
guk berriz eziñ ikusi.

5

Moderadu, progresista,
republika ta karlista,
lau opinioren lista;
Borbon guziaz aspertu gera
Karlos kuartotik asita;
egondu gera etsita,
beata arropak jantzita,
erremediatu ezinta.

6

Karlos setimoren alde
dabiltzan oiek enbalde
batere arrazoi gabe;
nola ez diran kargu egiten
danak arriturik gaude;
Karlos Españien jabe
egiteko asmuan daude,
kontu polita da au're.

7

Asi dirade lanian,
egunaz eta gabian,
gogotik egiñalian,
Inkisiziyo lege txar ori
onera ekarri nayian;
gure Españi noblian
libertadeko legian
dago arreglo obian.

8

Españolaren kondukta
daukagu oso galduta,
Jaunak ala naiko du ta;
estranjeroak gure salsakin
dabiltza danak poztuta;
uni gaitezen elduta,
guziyak alkar artuta,
nere esanak aituta.

9

Orañ aitzen dan orkesta,
karlistena ezer ez da,
au da burutako kezka;
republikano danak ojuka:
“Erregerik biar ezta!”
Gure Españi onesta,
pazientziya alkar presta,
bestela armatzen da fiesta.

10

Karlos ta beste erregiak
jardin bateko loriak,
ez dira batere obiak;
kontentu dira jarri ezker
beren gustoko legiak,
naiz gosiak ill pobriak;
oien probalidariak
ikusiy a du jendiak.

11

Ez odolikan ixuri
español españolari,
tonteri aundia da ori;
konformaturik egon gaitezen
gaitz egin gabe alkarri;
baldin badaude ain larri
errege nayian jarri,
aspertuko dira sarri.

12

Askok diote bear dala
republika federala,
datorrela bereala;
len esan degun bezela erregez
diote aspertu dirala;
oiek bezela gu ala,
eldu gauza berri dala,
egin zagun egiñala.

* * *

Bertso auek Errenteriako En-
rike Elizetxea zanaren bilduman
azaldu dira.

Inprentako kanta-papera da,
garai artakoa ain zuzen, baiña
moldiztegi-izenik ez du.

Egillea nor dan ere ez da ageri.

Eta noizkoak ote ditugu? Ama-
bigarren bertsoak onela dio:

Askok diote bear dala
republika federala,
datorrela bereala...

Beraz, republika eske asia zan
jendea, artean etorri gabea bazan
ere. Republika 1873-ko otsailla-
ren 11-n jarri zan. Ala, egun ori
baiño leenagokoak ditugu bertso
auek.

Karlistak, berriz, gerran asiak
ote ziran? Ez dago ori oso garbi;
baiña baietz dirudi, zenbait ber-

tsori begiratzen badiegu: 3, 4, 6,
9 eta 11-garrenari alegia.

Bederatzigarrenak onela dio:

Orañ aitzen dan orkesta,
karlistena ezer ez da,
au da burutako kezka;
republikano danak ojuka:
“Erregerik biar ezta!”...

Emen ikusten danez, alde ba-
tetik karlistak tiroka, eta bestetik
republikanoak oiuka, erregea
kendu bearrez. Orixe da Espa-
ñiako garai artako orkesta.

Baiña onek zera esan nai du,
guk uste: gerra asia zala —1872-
ko apirillean asi zan—, eta Ama-
deo erregea artean aldegin gabea
zala eta, dakigunez, 1873-ko
otsaillaren 11-n utzi zuan erre-
getza. Tarte ortakoak, beraz,
bertso auek: 1872-koak edo
1873-ko asierakoak.

(1873)

“Atso zar-zar batzuek...”

1 Atso zar-zar batzuek
panderua juaz,
gonak arrastaka ta
anka utsik dijuaz,
ezin sosegaturik,
oso txoratuak:
“Karlos etorri da ta
ikustera guaz”.

2 Alkar galdetzen dute:
“Nundikan zatozte?”
“Karlos etorri da ta
aguro zuazte;
guk mun egin diyogu
zapatetan fuerte,
anketako kalluak
minberatu arte”.

* * *

Bi bertso auek, Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Jerardo Ezenarro *Urzelai* zanaren papere-tan azaldu dira.

Liberalen batek jarriak dira, karlisten bizkar parra egitearren; eta Don Karlosen etorrera aita-tzen dute. Bi bider etorri zan ura. Leenengo, 1872-ko maiatzaren 2-

an, Askaindik Berara igaroz; bai-ña andik bi egunera, Orokietan larri ibili ondoren, nekez iges egin zuan mugaz arunzko aldera. Eta bigarren, Dantxarineatik barre-na, 1873-ko uztaillaren 16-an.

Bi etorrera oietan zein ote da bertso auek aitatzen dutena? Guk beintzat ezin erantzun.



Don Karlos Bera-Bidasoan sartzen. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1873)

“Pasaira eldu omen da...”

1

Pasaira eldu omen da
Don Karlos konboia:
lastozko barkuak ta
zurezko kañoiak.
Garbitu bearra ziok
kanaleko loa,
bestela nola pasa
olako armazoia?

2

Karlistak egin dute
lastozko zubiya,
andikan pasatzeko
bera ta nobiya.
Pasatzen asi eta
erori zubiya,
karlistak artu dute
sentimentu aundiya.

Bi bertso auek, eskuz idatzita-
ko orri batetik ditugu. Baiña ez
genduan apuntatu noren eskutik
jaso genituan.

Bigarren bertsoaren leenengo
eta zazpigarrengo lerroak onela

daude orri ortan: *Karlistak egin
(omen) dute eta karlistak artu
(omen) dute.*

* * *

Leenengo bertsoa Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman ere azaldu da, ontan ere eskuz idatzita. Aldaketak: 1/3: zurezko barkuak ta; 1/4: lastozko kañoiak.

* * *

Don Manuel Lekuona apaiz jauna zanak esan zidanez, bertso auek bertako Eperra bertsolariarenak dirala esan izan omen da beti Oiartzunen.

Baiña bigarren bertsoa beintzat konponketa bat omen da. Oiartzunen, eztaietan, elizatik ostaturako bidean, pilar-

monikaz lagunduta, onela kantatzen baitzan garai batean:

Jose txo Olaberriko,
zer dezu negarrez?
Amak ez kondutzeko
dirurik eman ez.

Jose txok egin zuen
lastozko zubia,
andikan pasatzeko
bera ta nobia.

Pasatzen asi eta
erori zubia,
Jose txok artu zuen
sentimentu aundia.

(1873-VIII-8)
“**Iñun ezta gertatu...**”

Iñun ezta gertatu
Mondragoen lakorik:
gure Jauna kentzea
bere elizatik.

Kontzejutik araño
egin da tunela,
naiz etorri ogei milla
seguru daudela.

Mondragoen liberalak
boluntarioak,
sostenitu ezinda
kontribuzioak.

Alfonsok ei daukobe
pezeta bikoak,
baita Karlosek ere
boluntarioak.

Bertso edo koplak auek *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik artuak ditugu. Berak, Mondragoiko Juan Karlos Gerra jaunaren eskutik jaso omen zituan.

Aurretik adierazpen jakingarri au egiten du Montevilla jaunak:

“En Mondragón, para defensa de la guarnición liberal, se fortificaron la Casa Consistorial y la Iglesia Parroquial, ha-

ciendo un túnel para la comunicación de ambos edificios, que, después de porfiada resistencia, se rindieron a Lizarraga, el 8 de Agosto de 1873. Se conservan de aquellos sucesos estas coplas”.

Azken bertsoari buruz onela dio Montevilla jaunak:

“Esta copla es notoriamente posterior, pues los sucesos de Mondragón ocurrieron durante la república. Por cierto que, al entrar D. Alfonso en Mondragón, una alfonsina, Concepción Resusta, le saludó gritando: ‘¡Viva nuestro rey absoluto!’. Rió Alfonsito la ocurrencia”.

Piralak, berriz, onela argitzen ditu Mondragoiko gertaerak:

“Defendía a Mondragón una compañía de Sevilla y unos 60 voluntarios, teniendo fortificadas la iglesia, ayuntamiento y la plaza, a donde se guarecieron cuando los carlistas incendiaron las casas que ocuparon. Al amanecer el día siguiente, 8, volvió a tronar el cañón carlista; apurábase éste porque no se rendían los liberales; se iba aproximando Loma y se acababan las municiones; se retiró la artillería y continuó con vigor el ataque, lo cual desorientó a la guarnición que esperaba pronto socorro; perdió la esperanza de obtenerlo, y al cabo de 18 horas de pelear se rindió. En aquel momento asomaba la vanguardia de Loma por el alto de Campanzar. Unos 200 fusiles y abundantes municiones quedaron en poder de los carlistas...”.

(1873-VIII-25)
“Biriak eginda daude...”

1 Biriak eginda daude
lurraren azpitik,
kañoia preparatzen
Karlosen aurretik;
Karlos etorriko da
birian erditik,
etzaio arrimauko
ari liberalik.

2 Lenengo atakia
zan Orokietan,
preso artu nai zuten
Karlos ori bertan;
Díez Rada bazuten
jeneral nonbratu,
ez dute jefe txarra
napar oiek artu.

3 Pazkua bigarrena
zan siñalamente,
Oñatin atakian
asi ziran fuerte;
gero probintzianuak
eman giñon frente,
ikusiagatikan
makiña bat jente.

4

Gero kaballeria
ziguten atera,
arma kalatuakin
gu aien aurrera;
tiro ta baioneta
guztiak batera,
banaka jausten ziran
zalditik lurrera.

5

Bizkaiko txapelgorri,
Bermeoko beltzak,
utzi pobriak eta
iges aberatsak;
andrian ondorako
aiek onak ziran,
armak entregatuta
etxera jua ziran.

* * *

Bost bertso auek *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik ditugu.

Leenengo bertsoari buruz onako oar au egiten du jaun orrek:

“Parece aludir al cerco de Estevilla en noviembre de 1873”.

Azken txeetasun ortan oker dagoala uste det. Ez azaroan, abuztuan baizik jabetu ziran karlistak Lizarraz, 25-ean.

Baiña lurpeko biderik ere izan zan. Ona nola dion Antonio Pirala kondairalariak:

“Continuó sin intervalos el fuego del cañón y fusilería en los días y noches del 22 y 23, en cuya mañana sintieron los sitiados trabajos de zapa, y dispusieron los opuestos, no impidiendo que en la madru-

gada del 24 se diese fuego a la mina, cuya tronadora explosión arrojó sobre los tejados y patios del fuerte innumerables piedras y troncos de árboles del paseo inmediato, produciéndose grandes desperfectos en las inmediatas casas de la calle Mayor. En los sitiados sólo hubo algunos contusos. En el momento de la explosión, la partida de Rosa Samaniego se precipitó al fuerte, al que llegó hasta tocar las paredes sin poder penetrar por brecha alguna, como se suponía, si hubiera producido efecto la mina. Los mismos carlistas quedaron asombrados del mal éxito y del imponente silencio de los sitiados. Dorregaray intimó a Argila que en 24 horas practicara otra mina o desescombrara la anterior y la preparase para cargarla de nuevo; lo que resolvió, considerando imposible abrir la nueva”.

Ikusten denez, liberalak erri barruan gaztelu edo *fuerte* bat antolatu zuten, eta andik eman zieten arpegi karlistei.

1873-ko abuztuaren 25-ean atera ziran liberalak Lizarratik; eta erri au orduan artu zuten karlistak.

* * *

Bigarren bertsoarengatik onela dio *Barón de Montevilla* zanak:

"Esta estrofa no liga con la anterior; debe ser una interpolación".

Gure iritzian, au ez-ezik, gaiñontzeko bertsoak ere ez dute


alkarrekin zer ikusirik. Norbait, zekizkianak zekizkian bezela esango zizkion Montevilla jaunari, naiz eta sail berekoak ez izan.

Bigarren bertso ortan Orokieta aitatzen da. An gertatuaren berri, leen eman degu.

Irugarren bertsoari buruz, argibide au egiten du Montevilla-k:

"Parece aludir a la carga del a las puertas de Oñate"

Liburuetan billa saiatuarren, ez degu Oñatiko atake orren aita-menik arkitu, naiz eta, bertsoak dion bezela, Pazko bigarreneko gertaera zala jakin.



Liberalak Lizarratik irteerakoan. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1873)

Gerrako erituen onekindorako

Gerrako erituen onekindorako edo benefiziorako jarriak, kantu ziranak Donostian, iru Erregearen egunaren bezpera arratsean, 1873-garren urtean.


1 Oroipendurik geren
anai min dutenaz,
gatoz poz baten billa
zeñak dauden penaz,
maite ditugulako
animatik benaz,
arras kupitzen gera
sufritzen dutenaz.

2 Portatzen diranakin
garboso ta prestu,
eskergabekeriya
eztana da justu;
bere anaien penaz
nai dubenak aztu,
arrizkua da edo
biyotzikan eztu.

3 Guk degunak biyotza
mugitzen zaiguna,
nola ezta izango
gai ontan biguna?
Pozez pasa ditzaten
gauba ta eguna,
lagunduko diyegu
al dezakeguna.

Iru bertso auek Jose Manterolaren bilduman arkitu genituan, eskuz idatzita, asierako oar orrekin, eta bukaeran itz auek ira-

kurtzen dirala: *Ramon Artola-k jarriak Donostian 1873-garren urtean.*



Jose Loma, jeneral liberala (1822-1893). (La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1873)

Bertso Berriak
Dn. Jose Lomari

1

Bertso berri batzuek
D. Jose Lomari
paratzia goguak
ematen dit neri;
gizon bapua dago,
altu eta lori,
nai dubena egiten
diye karlistari,
bañan aziyo txarrik
sekula ez ñori.

2

Badaukat esperantza
gizon orrentzako,
gerra bukatutzian
ondo bizitzeko;
probintziyan egin du
atakia franko,
danetan baliente
portatu dalako,
len koronel zan da oraiñ
mariscal de campo.

3

Koronel etorri zan
onuntz lendabizi,
bañan emen gradubak
laster zaizka azi;
bere baloriakin
ditu irabazi,
beti sutan aurrera
naiz il da naiz bizi;
orrek gutxiyagorik
etzuban merezi.

4

Askok ikusi nai du
gizon ori agitz,
gaizki esaka ai dira
beste batzuk berriz,
al balute botako
luteke ori begiz;
karlisten kontra sutan
orrenbeste aldiz
ez litzake asiko
kobardia balitz.

5

Memoria abilla du,
txit gizon kabala,
nork erantzun gezurra
esaten dedala?
Desonratu nai dutenak
nola edo ala
orrutira joan gabe
badakit dirala,
baña eziñ esango'ute
kobardia dala.

6

Altubeneko mallan
iya dago graduz,
gutziz artakua ta
giyatutzen buruz;
manejatzen badaki
egoki ta moduz,
gerrati ontan lana
egiten du erruz,
ezin paga liteke
gizon ori diruz.

7

Oraindaño atakian
danetan prestatu,
karlisten fuertiak
oi ditu puskatu;
apenas egiten dan
bizirotu estutu,
bein ikusi nuan da
bai neri gustatu,
zenbat talentu duan
nork ongi juzgatu?

8

Egon zitekiana
Jaunaren graziyan,
arriskuban or dabil
aspaldi guziyan;
oiek egiyak dira
nere iritziyan,
artuko ezipaginduzten
karlistak azpiyan,
orren biarra bazan
gure probintziyan.

9

Zenbait batalla egin du
Oiartzun aldian,
biberiakin ara
juaten zanian;
fuerte jardunagatik
karlistak lanian,
ezin kendu ziyoten
konboyik birian;
aldegin dute ortik
etsi dutenian.

10

Probintziyan ezta ori
ikusi duanikan
egin gabe lajatzzen
asi ta lanikan;
itzai-sailla kargakin
artuta aurretikan,
bire orretan dauden
karlistengatikan,
noiznai Tolosara igual
Donostiyatikan.

11

Aurretik abantzarán
berreun mikelete,
lenbizi emateko
karlistari frente;
kolumna sartzen zaie
gero derrepente,
batzubetan ez dira
ibiltzen aparte,
nundinai presua ta
bandera dakarte.

12

Ez dauka ñori lotsik
daukan koadrillakin,
noranaiko pronto da
iru-lau millakin;
bildur aundirik sartzen
etzaie balekin,
ez dira ikaratuko
lagun bat illakin,
biba D. Jose Loma
bere mutillakin!

* * *

Bertso auek Donostiako Jose Manterola zanaren bildumatik ditugu.

Bertso Berriak beste izenbururik ez dute berez. Baiña azpian, eskuz idatzita, onela dio: *Dn. Jose Lomari*. Gerok ere orixe erantsi diogu bigarren izenburutzat, bertsoen gaia orixe baita.

Paperak, beeko barrenean, moldiztegiaren izena du: *Donostian*: - *Juan Osesen, moldiztegiyan*.

Izenburuaren gaiñetik, ori ere eskuz, onela esaten da: *13 Mayo 1874, 500 ejs*. Orrek, ainbestetan esan degunez, bi gauza esan naiko ditu: Manterolak bertso auek noiz eskuratu zituan eta zenbat paper egin ziran.

Jose Loma ori arabarra zan, 1822-an Gatzaga-Añana errian jaioa. Amasei urterekin militar

sartu eta karlisten aurka gogotik jardun zan leenengo gerratean, Donostia inguruan-eta.

Afrikako gerratean (1859-1860), ara joan ziran euskal batalloi edo *terzioetan* zan. Wad-Ras-eko burrukan gradu ori irabazita, teniente koronel egin zuten.

Karlistak berriro mugitzen asi ziranean, 1870-an, aien aurka bereala atera zan Loma ori, eta koronel egin zuten.

Andik bi urtera, 1872-an, Lizarraga jenerala eta Santa Krutz apaiza izan zituan aurrean. Aien aurka jo zituan burrukaldiak ziralata, brigadier izendatu zuten.

Urrengo urtean, 1873-an, Lomak laguntza eraman zien bein eta berriro Oiartzun eta Tolosan ziran liberalei, karlistak erri oiek inguratu eta ia artuan baitzitez-

ten. Bidea indarrez idiki bear, ordea. Orduan egin zuten *mariscal de campo*. Graduak nola irabazi zituan, bigarren eta irugarren bertsoak adierazten dute.

Ala, 1873-ko abenduaren 11-n, berriz ere laguntza eraman nai Lomak Tolosara. Karlistak arpegi eman eta orduan izan zan Belabietako burruka. Lomak irabazi zuan, eta Tolosan sartu. Baiña ura andik atera orduko, karlistak atzera erri inguru guzia artu.

Andik bi illabetera, 1874-ko otsaillaren 23-an, berriz ere sartu zan Loma Tolosan, larogei gurdirekin. Baiña etzegoan orrela jarraitzerik. Otsaillaren 28-an

atera ziran Tolosatik liberalak. Milla bat tolosar ere bai aiekin batera. Alkateak, Jose Krespok, ibaira bota zituan erriaren giltzak. Tolosaz jabetzeko, zazpi illabeteko lana izan zuten karlistak. Don Karlos martxoaren 2-an sartu zan.

Bertso auek, gure iritzirako, liberalak Tolosa galdu aurretik jarriak izango dira, laguntza eramatearren Loma ara joaten zan garaian-edo: 1873-ko azaro-abenduaren aldean bearbada.

Geroztik ere gradu berriak irabazi zituan Lomak: teniente jeneral eta *Marqués de Oria* egin zuten. 1893-an il zan.

(1873-VII)

Baserritar batek Lomari jarriak

1

Orra Don Jose Loma
gizon aditua,
berez artarakua
ta konprenditua;
orain karlista oiekin
daduka pleitua,
zere denboran orla
etzaude oitua.

2

Gizon polita da ta
prestua izugarri,
amaiak badakigu
gizon orren berri;
iñoiz ibiltzen ditu
karlista oiek larri,
ikusiko ditugu
gazeluan sarri.

3

Loma portatua da
Oartzunen ere,
Donostiatik juanda
bildur aundi gabe;
gizonak aziyuan
probatzen dirade,
nai dutenian jarri
gauza badirade.

4

Errespetua badu
dabilen tokian,
ori ez da ibiltzen
zelebrekerian;
batzuetan oñez ta
bestetan zaldian,
gizon estimatua
dago probintzian.

5

Tiroka asten dira
leku segurutik,
bala pasatu arren
inoiz ingurutik;
orla oituak daude,
ez diote inportik,
batzueri aplikatzen
zaiote burutik.

6

Jendia juntatua
da Aritxulegira,
askok ikusten ditu
daudela begira;
andik ere egin biar
dute erretira
kalabazak jatera
oraindik Frantzira.

7

Saiatutzen dirade
lapurretan fuerte,
jende trabajantiak
duda gabe kalte;
ez dirade aspertzen
tripa bete arte,
Españiya guztiya
ondatu biaute.

8

Lapurretan egin ta
gero tripa bete,
gasturik egin gabe
bizi dira merke;
or dabilta España
zurrupatu arte,
oraindikan amaikak
pagatu biaute.

9

Don Gregorio Arzeluz
dabil baliente,
orren eskuetatik
pagatu biaute;
oiek segitu arren
pikardian fuerte,
ez da sosegatutzen
karlistak il arte.

10

Korajetsuak dira,
badaukate indarra,
jende balientia,
gerrero azkarra;
Donostiako semia,
au ez da naparra,
Lomak ez dauka ori
laguntzalle txarra.

11

Loma eta Arzeluz
ta mikeletiak
badakigu dirala
txit gizon fuertiak;
bakandutzen dituzte
nork bere partiak,
errespetua dauka
oien bibotiak.

12

Etxiak erre eta
gauzak arrapatzen,
orla bibererikan
ez da merkatutzen.
A zer relijiyua
erakusten duten!
Pobria modu ortan
ez da aberasten.

13

Ez dago gauza onik
karlisten artean,
gerra onek luzatzia
danontzat kaltean;
or dabilta baztarrak
ondata artean,
zikiñak jango ditu
zokoren batean.

14

Guk zuen bildurrikan
ez daukagu berdin,
tiroka asi eta
aguro itzuli egin;
oiekin aguantatzen
ez dago atsegin,
Karlos *hombre chaparro*
jarri Aritxulegin.

15

Gobiernuaren kontra
orrenbeste neke,
alperrik aspaldian
ibilli zerate;
baldin Karlos kortian
paratzen badute,
egindako gastua
pagatuko dute.

16

Au da txokagarriya
jaun orren salida,
konprenditzen dutenak
arritutzen dira;
erdiyak il da eritu
garbituak dira,
amasei bertsorekin
orra despedida.

* * *

Amasei bertso auek, or goien ezarri degun izenburuarekin, Tolosako Timoteo Adurriaga *Besamotza* zanaren eskuz idatzitako bildumatik ditugu.

Bertsoak, dudarik gabe, kanta-paperen batetik kopiatuko zितuan berak.

Loma jeneralaren berriak leen emanik dauzkagu.

Bertso auek noiztsu jarriak diran somatzeko, bi bide ikusten ditugu.

Irugarren bertsoak onela dio:

Loma portatua da
Oiartzunen ere,
Donostiatik juanda
bildur aundi gabe...

Lomaren soldaduak, izan ere, Oiartzungo elizan beren kuartela jarri zuten, 1873-ko uztaren leenengo egunetan; eta etzuten us-tu, 1874-ko martxoaren 6-garre-nera arte.

Ain zuzen, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, *Kanta*

errikoiak izenarekin Dorronsoro abizeneko batek 1935-ean bialdutako mordoan, onako bertso edo koplak au arkitu degu:

Oiartzungo elizan
Lomaren mutillak
zorrie dariela
kotxino zikiñak,
Lomaren mutillak,
kotxino zikiñak.

Bertsoaren azpian onako oar au: "Maria Josepak nere amari entzuna".

Seigarren bertsoak, berriz, onela esaten du: "Jendia junta-tua da Aritxulegira".

Aritxulegi, Aiako Arria eta Bianditz mendiaren tarteko lepo bat da, Naparroa eta Gipuzkoako mugan. Gaur egunean kamio bat andik pasatzen da, Oiartzundik Lesakara joateko, tunel batetik.

Aritxulegi mendi-lepo ori sona aundikoa izan zan karlisten bigarren gerrate ontan. Santa Krutz apaiza eta bere mutillen gordelekuak izan baitzan. Orretarako

1873-ko otsaillean-edo aukeratu zuten; eta ala jarraitu zuan, Santa Kruzarrak Frantzira alde egin arte, urte bereko uztailean.

Loma edo bere soldaduak Oiartzunen eta Santa Kruzarrak

Aritxulegin ziran denboran jarritako bertsoak ditugu, beraz, auek. Eta ori uztaren asieran-edo gertatu zan. Ordukoxeak, beraz, bertso auek, oker ez bagaude.

(1873)

Don Karlosen soldadu-martxa

Kantartea

Gerra, soldaduak!
Goazen aurrera,
España Amagatik
gaindu edo iltzera!

Kantaldiak

1

Armetara goazen,
armak bakarrik
libratuko gaitube
saldukeritik.
Beltz oker, gaiztoak,
orain dira asi
bildurrez dardaraz
gugandik igasi.

2

Tronpeta-otsa dabill
aize-egaletan,
kañoen orroia
mendi gañetan.
Ausardi, mutillak,
batallarako,
España maitea
salbatutzeko.

3

Senti bezate beltzak
zeñ dan zorrotza
gure armaren puntan
dan eriotza.
Aurrera, mutillak,
fedea, ausardiyaz!
Bizi bedi España
Karlos aundiyaz!

4

Jargoiria altxaturik
Karlos errege,
goituko da España,
bai, alafede!
Goituko da España
zuzentasunez,
Jainko-sinistez ta
maitetasunez.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita, eta egillearen izenik gabe.

Izenburuaren gaiñetik urte bat idatzita dago: 1873. Orduko bertsoak izango dira, dudarik gabe.

Bertso auek erderazko beste bertso batzuen itzulpena dira. Aita Aranaren bilduma ortan, erderazko bertsoak ezkerreko saietsean daude, goitik behera; eta euskerazkoak eskubi aldean.

Ona emen erderazko oiek:

Himno militar de D. Carlos

Coro

*Soldados, la patria
nos llama a la lid;
juremos por ella
vencer o morir.*

Estrofas

1/ Al arma ya tocan;
las armas tan sólo
el crimen y el dolo
podrán abatir.
Que tiemble, que tiemble,
que tiemble el malvado,
al ver del soldado
la lanza blandir.

2/ La trompa guerrera
sus ecos da al viento,
de horrores sediento
ya ruge el cañón;
ya Marte sañudo
la audacia provoca,
y el genio se invoca
de nuestra nación.

3/ A infames, traidores,
sin tregua la guerra,
y muerte que aterra
y eterno baldón.
Volad al combate
con fe, ardor y saña,
y ¡viva la España
con Carlos Borbón!

4/ Católico Carlos
en trono fulgure
que a España inaugure
grandeza y honor;
grandeza que brote
de fe sacrosanta;
de Dios, que levanta
al hombre a su amor.



Ezkerretik: Don Karlos VII eta Planas, Dorregaray, Valdespina eta Velasco jeneralak. (Album tradicionalista, 1833-1933.)

(1873-VII-31)

Zortzikoa

España gure maite amaren
errege galai jaunari
ongi etorri ematen dago
mundu guzia pestari.
Zeru ta lurrak, euzki ta izarrak,
kanpoko lorak ugari,
agur ederrak ai dira biltzen
alkarren leian berari.

Libre versión Octava real

*Por dar al rey de España bienvenida,
valles, montes, collados y praderas
se visten de primores, nueva vida
por las auras vertiendo lisonjeras.
Cielo y tierra a lo mismo nos convida,
el cielo con sus luces placenteras,
las flores con sus flores. Todo el mundo
viva dice a D. Carlos sin segundo.*

*Con celestes acentos quisiera
celebrar tu improvisa llegada.
¡Viva el rey, nuestra prenda anhelada,
noble orgullo del pueblo español!
De cien reyes católica estirpe,
vuela pronto del campo de Marte
a fijar salvador estandarte
de Madrid en la Puerta del Sol.*

*De impiedad execrable las huestes
a la patria querida desgarran,
y de Dios a ministros amarran
con tirano dogal, ¡oh baldón!
Ven, augusto monarca. A la secta
liberal, raza infiel del abismo,
rinde; y traiga tu bravo heroísmo
paz, justicia, la fe y religión.*

Orduña, 31 de Julio de 1873

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita eta egillearen ize-nik gabe.

Erderazko bertsoen aurretik, auetako leenengoa itzulpena dala esaten da. Baiña, gure iritzirako, alderantziz izango da.

Don Karlosek, leen esan beze-la, 1872-an igaro zuan leenengo

aldiz muga; baiña andik egun gutxira, Orokietakoa urte artako maiatzaren 4-an gertatu ondo-ren, muga berriro pasa; egoalde-tik iparraldera, ordea.

Bigarren aldiz, 1873-ko uztai-llaren 16-an igaro zuan muga, Dantxarineatik barrena; eta ber-tso auek norbaitek orduan jarri, ari ongi etorria ematearren.

(1873)

Bi karlista deserrituen kanta

1

Karlos gure erregeak
jargoia iritxita
laster diztia dezan
koroia jantzita,
guazen lagundutzera
su ta gar korrika,
ai, ai, ai, mutillak,
su ta gar korrika.

2

Españako karlistak
millaka armaturik,
Loma-ren kontra dabiltz
biotzak suturik,
etsai gaiztoen lanak
arras ondaturik,
ai, ai, ai, mutillak,
arras ondaturik.

3

Aiek an sutunpaka
ez daude soseguz,
alegiñ egiñ zagun
guk emen erreguz,
beti Karlosen alde
udan eta neguz,
ai, ai, ai, mutillak,
udan eta neguz.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman azaldu dira. Eskuz idatzita daude. Egilearen izenik ez da esaten. Urtea bai, ordea, izenburuaren gainean: 1873.

Bertso auen bi kopia daude Aranaren bilduman. Baiña alkarren artean aldaketarik ez dute,

izenburuan izan ezik. Bigarren kopia onelaxe baitu:

Azaroaren lauan edo S. Karlos egunian, Españatar erbestetu batzuek.

Erdal itzulpena alboan dute bertso auek, Aranaren bi kopia oietan; baiña aldaketarik gabe alkarren artean:

*1/ Volemos denodados,
valientes como el Cid;
por Carlos, rey de España,
corramos a la lid.
Y ciña su corona
el ínclito adalid,
ai, ai, ai, mutillak,
el ínclito adalid.*

*2/ ¿No veis nuestros hermanos
armando la nación?
Se baten los carlistas
con Loma y con Morión,
con fuerza irresistible,
con fe en el corazón,
ai, ai, ai, mutillak,
con fe en el corazón.*

*3/ Aquellos con las armas
en campo del honor,
nosotros incesantes
rogando con fervor,
volvamos con Don Carlos
a España su esplendor,
ai, ai, ai, mutillak,
a España su esplendor.*

(1874-I-5)

Zortziko

Ikusita desgrazi
erituarena,
penaz nori etzaio
urtzen biyotz dena?
Da oieri ematea
nork al dezakena,(1)
zerua irabazteko
obrarik onena.

Bertso au Bilintxena da. Jose Manterolaren bilduman arkitu genduan, eskuz idatzita.

Aurretik argibide auek ematen ditu: *Zortziko cantado "a beneficio de los heridos" por varios jóvenes del antiguo Orfeón la noche del 5 de Enero de 1874.*

Bilintx gizarajoak etzuan asko pentsatuko bera ere gerra artan zauritua izango zala, naiz eta mendira irten gabe Donostiaren barruan egon, eta zauri artatik ilko zala.

(1) Esku-idatzian: *nor. Baiña nork ber duala dudarik ez da.*



Zaurituak eramaten. (La ilustración Española y Americana,
Jose María Tuduriren artxiboa.)

(1874)

Guda kanta

Kantartea

Jaunaren ezpata
su ta gar, ara!
Guazen, gudariyak,
guazen gerrara!

Kantaldiyak

1

Pill-pill egin beza
biotzak orain;
eldurik armari
etsaiari erain.

2

Errege da buru
ta aurrean dabill;
atzeraka makal
zein diteke ibill?

3

Gerra dardara da
aize egaletan;
alkar alaiturik
korri benetan.

4

Desegin osoro
jende itxusiya,
Jaunaren kontrako
beltz arrotiya.

5

Aiterri maitea
libra dezagun,
zorion-egunak
izan ditzagun.

6

Lagun erregeri
jargoiratzeko,
Jaunak ori ta gu
koroitutzeko.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bildumatik artuak ditugu. Eskuz idatzita daude. Egi-llaren izenik gabekoak dira. Bai-

ña izenburuaren gainean urtea ematen digute: 1874.

Erderazko itzulpena ere badute alboan:

Himno marcial

Coro

*Desnuda fulmina
la espada de Dios;
volem valientes
al campo de honor.*

Estrofas

- 1/ *Palpiten los pechos
de heroico valor;
ciñamos las armas
al fiel corazón.*
- 2/ *Caudillo el monarca
tremola el pendón;
delante allí vedle,
sigámosle en pos.*

3/ *Resuena en los aires
guerrero fragor;
corramos unidos
del mando a la voz.*

4/ *Gavilla perversa
blasfema de Dios,
hollandando su nombre
soberbia y feroz.*

5/ *Libremos la patria
de indigno baldón;
relumbre de nuevo
su hermoso esplendor.*

6/ *Llevemos al trono
al rey, nuestro amor;
diadema de gloria
le pone el Señor.*

(1874-II-14)

Bertso Berriak

1

Bertso batzubek jarri beaitut
gerra gaiztuen kasuan,
ofensa gabe itzegin biet
satisfazio osuan;
españolak gu apenas gauden
estado kuriosoan,
pesalunbriak etxian eta
mokadu onak auzuan.

2

Españiako bizimodua
txit dago penagarriya,
jende guztiya edo geiena
beldurrak gaude jarriya;
saltsa gaiztoa beti badabil
desordenaz ekarriya,
kulparik gabe ikusitzen du(1)
zeinbaitek egun gorriya.

3

Agindu naia askok daukagu,
ortik da gerra guztiya,
buru gogorrek geran mediyoz
gisa gaiztoan asiya;
iñor mendian irukitzeak
beti du bere graziya,
zeinbait amaren seme onraduk
errez uzten du biziya.

4

Gerra ta saltsa sortu artian
batzuek larri or dira,
orain badabil bastante eta
deskantsatu ez al dira?
Kulpa gabeak iltzen dabilta,
dutenak berriz begira,
engañatuba ni egongo naiz
oiek gezurrak badira.

5

Famili asko arkitzen gera
estado penagarriyan,
errepertitu bearrez degu
alimentuba neurriyan;
pobreza baizik etxian ez ta
paga bearra erriyan,
laster geienak goseak gera,
akaso larru gorriyan.

6

Paisano jende askok daukagu(2)
bizitze farragarriya,
erriyeta ta disgustua maiz,
beti otordu urriya;
lenago tajuz bizi bagiñan
orain mudantza berriya:
ogiya falta, artua eskas,
sardiña begi gorriya.

7

Paisanua da errukarriya,
tropa txit ongi dijua:
egunik ere utsegin gabe
erraziyua fijua;
zekorra ilda aragiya jan,
zurruta berriz naikua,
ollo ondoren ugari dabil
azeri anka bikua.

8

Siñale txarrak ikusten ditut
nere begiyen aurrean,
egun bi pasa bear munduban,
oriyek gusto txarrean;
pagu bearra illero dator,
miñarik ez da urrean,
jende pobria sartu gaituzte
bizi-bizirik lurrean.

9

Zeinbait jakintsuk au egin dute(4)
inozentiari agindu,
ez espaziyoz gauza guziyak
konsideratu bagindu;
min artzen asi geran denboran
kasuak dira jakindu,
arriya tira, eskuba gorde
gizona frankok egin du.(3)

10

Gisa oietan ezin ibilli
juiziyua duanik,
elkarri amor eman zaiogun
lenago zerbait izanik;
buru gogorra bagera eta
ez aditu nai esanik,
ez bagerade arreglatutzen
emen ez dago gauz onik.

11

Istante batez esan bear det
nola deseo nukean:
konpondutzia kalte aundirik(5)
iñork apenas lukean;
gizonak iltzen ibilli gabe
gastuban eta nekean,
obe litzake arreglo on bat
egingo balitz kortean.

12

Kortian jarri agintari bat
despatxaturik pleituba,
gure reinuba ezta len ere
buruzai gabe oituba;
Españiako errespetua
ezpada oso aituba,
Jesus maiteak para dezala
geretzat eskojituba.

13

Desgrazi asko ikusten dira,
pesalunbrea etxian,
gelditzen danak zer kontatuba
izango baitu zartzian;
baztar guziyak jarri gaitezen
jakintsu baten itzian,
ezpagerade konformatutzen
gerentzat zori gaitzian.

14

Bertso oriyek jarriya ez da
iñorentzako kaltian,
gezurrez edo egiyaz diran
ondo entera gaitian;
benta piska bat izango dute
bolara aitu artian,(6)
Joakin itxubak saltzeko dauzka
paperak txanpon batian.

* * *

Amalau bertso auek Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean. Bertso auek ez dijoaz ez liberalen eta ez karlisten alde. Gerraren kalteak

azaldu nai dituzte, eta pakea eskatu.

Paperaren gainkaldean, eskuz idatzitako itz eta zenbaki auek irakurtzen dira: *14 Febrero 1874, 500 ejs.* Gure iritzirako, bein bai-

ño geiagotan esan degunez, zenbat ale inprentatu ziran eta Manderolak papera noiz eskuratu zuan adierazi naiko da orrekin. Papera noiz eskuratu zuan ez ezik, bertso-sailla noiztsu jarria dan ere bai, fetxa ori emen esaten diranekin oso egoki dator eta. Amabigarren bertsoak onela baitio:

Kortian jarri agintari bat
despatxaturik pleituba,
gure reinuba ezta len ere
buruzai gabe oituba.

España buruzagirik edo agintaririk gabe zegoala esan nai du. Noiz gertatu zan ori? Españaiko leendabiziko errepublika, amaika illabete iraun zituana, Pavia jeneralak bota zuan 1874-ko ilbeltzaren 3-an, Kongresoan sarturik eta diputaduak uxaturik. Alfonso XII erregea, berriz, Martínez Campos jeneralak ekarri zuan, andik ia urtebetera, urte bereko abenduaren 29-an, Sagunto-n aren alde altxaturik. Bitartean, Madrillen *gobierno provisional* bat izan zan; ez errepublikarik eta ez erregerik, alegia.

Ala, paperean aitatzen dan eguna, *14 Febrero 1874* ori alegia, bitarte ortan sartzan dana izanik, errepublika kendu berrian jarritako bertsoak izango dira.

Azken bertsoak onela dio:

Joakin itxubak saltzeko dauzka paperak txanpon batian.

Abizenik adierazten ez baita, orain esango ditugunak erabateko ziurtasunik ez dute izango; egi-itxura aundirik bai, ordea.

Garai artan, izan ere, Joakin izena zuan eta itxua zan bertso-saltzaille bat izan zan, eta bera izatea ez litzake arritzekoa. Joakin Luzuriaga Oria zeritzan, Seguran 1824-ko ilbeltzaren 15-ean jaioa, eta nun eta noiz il zan ez dakiguna. *Segurako itxua* esaten zioten. Bertso auek atera ziranean, berrogei ta amar urte zituana, beraz. Beraren berri, *Auspoa*-ren 106-garrenean eman genduan; baita berak saldu zituana bertso-sail batzuk eskeiñi ere. Habana-n soldadu zebilela itxutu omen zan, eta bere jaioterrira etorri eta bertso saltzeari ekin zion, bizimodua ateratzearen. Baiña bestek jarritako bertsoak saltzen zituana. Emen ere ez du bertso auek bereak diranik esaten, paperak saltzeko dauzka la baizik.

-
- (1) Bertso-paperak: *da*.
 - (2) Bertso-paperak: *asco*.
 - (3) Bertso-paperak: *da*.
 - (4) Bertso-paperak: *au equinte*.
 - (5) Bertso-paperak: *compoundutzit*.
 - (6) Bertso-paperak: *artean*.



Nikolas Ollo eta Teodoro Rada "Radica" jeneralak. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Bertso Berriak

- 1 Jauna, argi zadazu
entendimentuba,
graziya eskatzen dizut
eta talentuba;
gure España noblia
ezta onla oituba,
izan genezaguke
errukimentuba.(1)
- 2 Enpleo on batian
biar det metitu,
inozente dagonak
dezan konprenditu;
batzubek mendira juan,
gu emen gelditu,
gaur libre daguanak
meritubak ditu.
- 3 Batzubek boluntariyo,
asko fuertzakuak,
geienak probintziyan
dira altxatubak;
parte bat lana onek
gaude mantxatubak,(2)
eztu baliyo ideak
gaizki pensatubak.

4
Irugarren aldiyan
oso baliente,
karlista oiek salira
gogor egin dute;
gizon buru arin bat
dala meriante,
amaika inozentek
pagatu biaute.

5
Oraingo gerra onek
bentजारik al du?
Batzubek erosita
beste askok saldu;
gizonak modu ortan
mendiyari eldu,
oiek egin dutena:
fameliyak galdu.

6
Errenta pagatzeko
ori da segira:
semiak mendiyari ta
aita-amak begira;
berak bentaja gutxi,
etxian perdira;
ez kasorikan egin,
aspertuko dira.

7
Dauzkanari ezin kendu
bere opiniyuak,
egiñ biar nituzke
esplikaziyuak;
ikusitzen ditugu
oien aziyuak,
nork pagatuko ditu
kontribuziyuak?

8

Kristandaria galtzen
orremeste modu,
len ere bagenduben
ezpadegu galdu;
relijiyua bai ta
dirurik ezpadu,(3)
abua zabaldua
zeñek emango du?

9

Batzubek somatuta
beste askok esan,
iya jarri gerare
animali gisan;
maistro gutxi ikusten
ditut nik elizan,
orla kristandaderik
ez liteke izan.

10

Maisubak or dabilta
jira ta biraka,
inozentiak iltzen
tiruak tiraka;
ibilli biar zuten
librubak jiraka,
eztitut ikusitzen
mendiyen dira ta.

11

Kulpa geiago ez ta
abek lan biriak,
aurrera ez dauzkagu
esperantza obiak;
negarrez gaude asko
jende menoriak,
anparatu gaitzala
Jesus amabliak.

12

Kantatu naiagatik
nun dago gogua?
Jateko egin zagun
zerbaiten morua;(4)
itxubak izan dezan
betiko enpleua,
onek ere biar du
zerbait anparua.

* * *

Bertso-sail au ere Jose Mante-rola zanaren bilduman arkitu de-
gu, moldiztegi-izenik gabeko
kanta-paper batean.

Dakigunez, Manterolak, berak
eskuratutako paperik geienetan,
urtea, eguna eta zenbat ale ziran
idatzi egin oi zuan. Baiña oraingo
ontan olakorik ezer ere ez dago.

Bestetik, berriz, bertsoak ez
dute inongo burrukaldirik eta
gertaerarik aitatzen. Ez digute,
beraz, noiz jarriak diran soma-
tzeko biderik ematen. Gerra be-
roenean zala moldatuak dirala;
ori besterik ezin genezake esan.

Azken bertsoak onela dio:

itxubak izan dezan
betiko enpleua.

Bertso-paper onen saltzaillea
itxuren bat izan zan, beraz. Onen
aurreko saillean *Joakin itxuba*
azaldu da. Nor ote zan adierazten
ere aalegindu gera. Beste paper
ontako itxua ere bera izan diteke.
Orregatik, bi sail auek alkarren
segiran jarri nai izan ditugu.

-
- (1) Bertso-paperak: *errukimentua*.
 - (2) Bertso-paperak: *Ananchatubac*.
 - (3) Bertso-paperak: *diruri espadu*.
 - (4) Bertso-paperak: *moruba*.

(1874)

Bertso Berriak

1

Jauna, ekar zadazu
munduban argiya,
askatutzeko ondo
nere memoriya;
arruinatu dute
gure Españaia,
eta Karlos eztago
tronuan jarriya.

2

Asiera eman zigun
Ernioko apaizak,
jartzen ederki daki
probintzian gaitzak;
bartzanga eta bala,
gañera eriotzak,
arriya izan biar du
jaun orren biotzak.

3

Ori prinzipala ta
Portu etxekoa,
asmuan ez nago ni
aztuta uztekoa;(1)
oktaba konpañiako
boluntarioa,
norbaitek badaruka
goguan artuba.

4 Gizon desarmatu bat
inozente juana
egitera nagusiak
esan zion lana;
ikusi zubeneko
apaizak argana,(2)
lau tiro emateko
jauna orren ordena.

5 Iñoiz nere mendian
bazera allegatzen,
alferrik da astia
buruba bajatzen;
lenagotikan asi
kontuba ateratzen,(3)
ari ainbat kastigu
dizut ofrezitzen.

6 Mendira dute oiek
jendia atera,
baita ederki ere
armatubak para;
orain erregaluak
berriz fabrikara,
kañoiak egiteko
kanpanak atera.

7 Karlos defenditzeko
jaun oien afanak,
egiteko kañoiak
al diran onenak;
Elizako ministro
Jaungoikoarenak
jaisten ari dirade
torretik kanpanak.

8

Ikusirikan nola
danak degun bistan,
eztakit kalietan
nik nola dabiltzan;
bi edo iru besterik
eztegu elizan,
or dabilta mendian
trikubaren gisan.

9

Jauna, guk eztagigu
nola daguen kausa,
asko naiz esatian(4)
gauza auxen lotsa:
lenagotik kostata
zenbait eriotza,
sinplementian orain
utzi da Tolosa.

10

Probintzia jarritzen
orlako enreduak,
bistan daduzkagunak
txit gauza txoruak;
askotan jartzen gera
ustetik eruak,(5)
Karlos jartzen badute
ze egin biaute fueruak?(6)

11

Lenago zerbait egingo
genduben oiekin,
orain guztiz dabilta
indar aundiakin;
zenbait zapatero diran
Jaungoikoak jakin,
gauza onik eztago
ezten dunarekin.

12

Amabi bertsorekin
orra despedida,
kontu polita franko
azaldutzen dira;
iñoiz egondu gera
oieri begira,
orain zenbait kanika
ikusiko dira.

* * *

Bertso auek ere Jose Manterola zanaren bildumatik ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batetik.

Izenburuaren gaiñetik, eskuz idatzita, onela dio: *6 Abril 1874, 500 ejs.* Gure iritzirako, ainbeste alditan adierazi degunez, Manterolak papera zein egunetan eskuratu zuan eta zenbat ale inprentatu ziran esan naiko du.

Bigarren bertsoak Santa Krutz aitatzen du: "Asiera eman zigun Ernioko apaizak".

Irugarrengoak, berriz, beste apaiz bat: "Ori prinzipala ta Portu etxekoa". Onela esaten du Juan Olazabal jaunak bere *El cura Santa Cruz guerrillero* (Vitoria, 1928) liburuan: "*El cura de Portuetxe (Lasarte) vino con Lizarraga...*". Eta geroago: "*Salió a hablarnos de parte del Marqués el cura de Portuetxe*". Eta aitamen

geiago ere egingo dira liburu ortan.

Irugarren bertsoak aditzera ematen duanez, bertsolaria *boluntarioa* da. *Boluntarioak* errietako gizonak ziran. Bilintx ere oietakoa izan zan, laugarren konpañiakoa. Au, berriz, zortzigarrengo.

Bederatzigarren bertsoak: "sinplementean orain utzi da Tolosa" esaten digu. Zazpi illabetean antxe karlistekin muturka jardun ondoren, 1874-ko otsailaren 28-an atera ziran Tolosatik liberalak. Gertaera orren ondoren jarriak, beraz, bertso auek.

- (1) Bertso-paperak: *usteco*.
- (2) Bertso-paperak: *apaisan*.
- (3) Bertso-paperak: *atzeratzen*.
- (4) Bertso-paperak: *esatien*.
- (5) Bertso-paperak: *urtetic*.
- (6) Bertso-paperak: *biautu*.

Bertso Berriak

Karlos setimok familietan jarri dituan negargarriak

1 Bertsuak paratzeko
enkargatu naute,
Karlosen etorrera
dala mediante;
kortian laister dala
karlistak diote,
engañatuak daude
makiña bat jente.

2 Jentiak egin dute
alferrik itz asko,
Karlos setimo errege
jarriko dalako;
baietz esanagatik
ezta etorriko,
orrek ere aitonaren
modura biarko.

3 Lenago erregiña
zeguan artian,
saiatu izan balitz
obia zeukian;
denbora juan da gero
asi da lanian,
orain gogorraguak
jarri diranian.

4

Lenago egin zigun
Karlosek bisita,
sei urte osuetan
gerran ibilita;
Frantziara juana da
ziaro etsita,
kulparik eztuenak
lurpian utzita.

5

Mutillak soldadu ta
kontribuziuk,
ala egiñak ziran
ejerziziyuak;
gero egitekotan
utzi aziyuak,
orain daudenak dira
gizon aguduak.

6

Semiak tropatikan
bazaion martxatzen,
aita eta ama preso
zituzten sartutzen;
kulparik eztuenak
beti parezitzen,
Jaunaren legiak au(1)
ote du agintzen?

7

Basamortu batian,
Mauriako potzuan,
Karlosek neskatxa bat
engañatu zuan;
gero lasto-argitan
Azkoitira juan,
elizaz konplitzera
matrimoniyuan.

8

Etorrera ederrik
zuen onuntzian:
gizonen bizkarretan
oñez nekatzian;
zerbait asmatu biar
alako trantzian,
kaballoko ederrik
bazeukan etxian.

9

Errege batentzako
ori da konduta,
amaika orrelako
egin izan du ta;
Azkoititik kanpora
juan zan ezkonduta,
andregaiaren soñak
besteri kenduta.

10

Prueban talenturik
etzaio billatzen,
txapel txuriakin du(2)
jaun orrek tratatzen;
deskoiduan bada
onuntz abantatzen,
ezta zailla izango
atzera bialtzen.

11

Kortian nai duela
gizon orrek sartu,
ume guztiak ere
jakiñian ditu;
errege egiteko
pruebak biaitu,
sustantzia gaberik
ezin ametitu.

12

Karlistak esperantza
ederra daukate,
eguneko bi pezta
artzen omen dute;
orretan ai badira
setimo jarri arte,
apaizak malkarrote
laister ingo dute.

13

Enpligatuak asko
lanari uzteko,
bazuten esperantza
Karlos etortzeko;
orduan lege txarrik
ez ametitzeko,
orain bitartekoak
alkanzatutzeko.

14

Juramenturik esan
lenago onikan,
orain biarretan egin
jornalagaitikan;
alferrikan ai dira
geiegi platikan,
itza muratzen dute
diruagaitikan.

15

Gorrotorik bestela
ez diot iñori,(3)
okasiuen billa
asitzen danari;
ia derrigorrian
arma eman neri,
parian jartzen bada
Karlos setim'ori.

16

Amasei bertsorekin
orra desperida,
adbertentziarako
txit konbeni dira;
irakurtzen batere
saiatzen badira,
Karlos jartzera orduko
ikasiko dira.

* * *

Bertso auek, izenburu orrekin, Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Argibiderik ez dute bertso auek bear, 7, 8 eta 9-garrenak izan ezik. Or esaten danez, "Karlosek neskaxa bat engañatu zuan", Mauriako potzuan. Egia


ala gezurra dan, guk beintzat ezin erabaki. Mauriako potzu ori nun egon diteken ere ez dakigu.

Bertsoak noizkoak diran so-matzeko biderik ez degu ikusten.

(1) Bertso-paperak: *Jaunari*.

(2) Bertso-paperak: *chapel churiquendu*

(3) Bertso-paperak: *estiote iñori*.



Gerraren igesi. (La Ilustración Española y Americana,
Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

“Biba Karlos setimo...”

Ai, ai, ai, mutilla, karlisten bigarren gerratean asko kantatu zan kanta bat izan zan.

Etziran berez bertsoak, koplak baizik, eta bukaeran *Ai, ai, ai, mutilla* kantarte edo *estribilloa* errepikatzen zan. Bi puntukoa izanik, bat-batean letra asmatu ere sarritan egingo zan.

Inprentatu ez det uste garai artan egin ziranik. Ala ere, orain baiño leen eskeiñi ditugu, eta beste bost bat tokitan ere badaude. Gerra ondorengoak iturri oiek danak. Emen erakusten dizkiogu irakurleari, zaarretetik asita.

* * *

Onako bertso edo koplak auek, beren aurreko adierazpenarekin, *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik kopiatu ditugu. Baiña berak beste liburu ontatik artu zituan: *Santiago M. Palacio: El batallón de Guernica. Recuerdos*

e intimidaciones de la campaña del norte (1873-1876), Barcelona, 1917.

Onela dio:

“La luna brillaba por su ausencia y sólo algunas estrellas asomábanse curiosas entre las nubes para ver desfilar a los carlistas. Silenciosos ascendían éstos, salvando las pendientes que en múltiples curvas sortean el macizo de Oiz. De pronto algunos voluntarios comenzaron a entonar una canción vascongada. Otros intervinieron procurando armonizar; el estímulo cundió por las compactas filas y las voces se multiplicaron ya dulces ya sentidas, ya vigorosas y enérgicas; pero ajustándose instintivamente al dúo colectivo, cual si un maestro de coros las concertara y una batuta invisible las dirigiera. La composición tenía la sencillez de las canciones vascas, pero el efecto era grandioso. Los misterios de la noche prestaban mayor solemnidad a las imponentes masas corales. La canción debía ser muy popular; todos la sabían, como si respondiera a una idea por todos acariciada o expresase un sentimiento arraigado en todo los corazones:

Biba Karlos septimo
eta Margarita,
laister ikusiko de
tronuan jarrita.

*Y a ésta siguieron otras y otras, y a su
final todas las gargantas las remataban
con un penetrante y prolongado irrintzi.
Veamos algunas:*

Txapela zuri eta
borlia berdia,
zaldi gañian dator
Don Karlos guria.

Borondate guztiaz
artu nuben arma,
negarrez utzirikan
aita eta ama.

Karlosek biali du
Frantzitik ordena:(1)
txanponian saltzeko
beltzik aundiena”.

* * *

Amar kopla auek *Gure Herria*
aldizkarian agertu ziran, eta bai
doiñua ere, 1924-ko urriaren
zenbakian, *Nehor* eta *Dufau-k*
bialduta.

Ez da esaten noren aotik jaso-
ak diran. Baiña Bidasoaren ipa-
rraldekoen bati, seguru asko;
edo, bestela, egoaldean jaio eta
bizi izatera ara joandakoren ba-
ti. Darabilen euskera angoa
baita.

Emen sortutako koplak ango
euskeraz janztearren aldaketa
asko sartu diranez, guziak oso-
osorik eskeintzen ditugu.

Ikus 29-garren doiñua, azken
orrialdeetan.

Azpeitiko neskatxak
gona gorriekin,
ez dute dantzatu nai
txapel txuriekin,
ai, ai, ai, mutillak,
txapel txuriekin.

Biba txapel gorriak,
borlia ferdiak!
Zaldi batian dator
Don Karlos gurea,
Don Karlos maitea,
gure erregea!

Biba Don Karlos eta
Doña Margarita,
biba religionea ta
fuera republika!
Fuera republika!
Biba Margarita!

Gobernuak baditu
bi pezetakoak,
bai eta Don Karlosek
bolontarioak,
bolontarioak
ez jornaleroak.

Nere borondateaz
hartua det arma,
nigarretan utzirik
aita eta ama,
aita eta ama,
hartua det arma!

Gu lapurrak gerala
kalian diote;
infame triadoreak,
gezurra diote,
gezurra diote ta
pagaturen dute.

Ez gerare ohoinak,
ez pezeteroak,
fedearen aldeko
bolontarioak,
bolontarioak,
ez pezeteroak.

Ez gerare armetan
ohontzeendako,
bainan bai bakarrikan
Don Karlosendako,
haren koroazteko,
gortean sartzeko!

Don Karlosek eman du
Frantzitik ordena:
txanponian saltzeko
beltzetan onena,
beltzetan onena,
Frantzitik ordena.

Txanponian ezikan
arditian ere,
Estellako kanpotan
dozenaka daude,
dozenaka daude,
arditian ere.

Kopla auek beste zenbait toki-
tan ere agertu ziran. Adibidez,
Euzkadi egunkarian, 1932-ko
urriaren 6-an; eta *Kantu kanta*
kantore bilduman, 1967-an. Bai-

ña beti ere *Gure Herria*-ri kopia-
tuta.

Leenengo kopla ori oso ezagu-
na da: Azpeitiko neskatxak ez
omen dute txapel txuriekin dan-
tzatu nai. Baiña kopla auek kar-
listak paratuak dira; eta, txapel
txuriak berak baitziran, ori esa-
tea beren buruari arrikada ema-
tea zan. Baiña kopla ori bestela
ere agertu da. Adibidez, Tolosako
Manuel Urreta zanaren bildu-
man, eskuz idatzita, onela:

Azpeitiko neskatxak
arrazoiarekin
ez dute dantzatu nai
txapel gorriyakin.

Txapel gorriak liberaletakoak
ziran: mikeleteak. Eta orrela ko-
pla onek esan nai oso-osoa du,
karlista batek jarria izateko: Az-
peitiko neskatxak ez dutela libe-
ralekin dantzatu nai, alegia.

Bigarren koplari ere, *biba txapel*
gorriak dion ortan, *biba txapel*
txuriak esan bearko luke.

La Constancia egunkarian,
1934-ko maiatzaren 13-an, lee-
nengo kopla ori beste onela azal-
du zan:

Azpeitiko neskatxak
arrazoiarekin,
ez dute dantzatu nai
kristino beltzakin,
kristino beltzakin,
arrazoiarekin.

Manuel Urretaren orrian eta *La Constancia*-ren zenbaki ortan, bertso geiago ere bada noski. Geienak, ordea, leen ere azalduak ditugu, eta alperrikakoa litzake berriz emen ezartzea. Ala ere, ona emen *La Constancia*-n agertutako bi auek. Leenengoa aldatuta dago eta bigarrena berri-berria da:

Amadeok baditu
pezeta bikuak,
Don Karlosek ere bai
oien kanbiyuak,
oien kanbiyua,
boluntariyuak.

Abadiño mendian
giñuben ikusi,
beltzak igesi eta
karlistak nagusi,
karlistak nagusi
giñuben ikusi.

* * *

Iru koplak auek, eta doiñua ere berdin, toki beretik ditugu; *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik.

Aurreko koplekin konparatuta, bigarrena berria da, eta beste biak oso aldatuta daude. Orregatik, osorik agertzen ditugu emen.

Aurreko koplak kantatzen ziran doiñuarekin kantatzen omen ziran auek ere, Montevilla-k dienez: "*se cantaban con la misma tonada*".

Bai koplak eta bai doiñua berak nundik zituan adierazteko, onela idatzi zuan: *Recogidos en Ochandiano por D. Elías de Burgos, Abril, 1925*".

Ikus 30-garren doiñua, azken orrialdeetan. Eta ona emen koplak:

Biba Karlos septimo,
Doña Margarita,
laister ikusiko deu
tronuan jarrita.
Ai, ai, ai, mutilla,
txapela zuriya,
ai, ai, ai, mutilla,
txapela gorriya!

Karlosek esan ei dau
Begoña ganian:
Bilbon sartuko dala
zaldiyen ganian.
Ai, ai, ai, mutilla,
txapela zuriya,
ai, ai, ai, mutilla,
txapela gorriya!

Txapel zuria eta
borlia berdia,
zaldi ganian dator
Don Karlos geuria.
Ai, ai, ai, mutilla,
txapela zuriya,
ai, ai, ai, mutilla,
Don Karlos geuria!

* * *

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, *Miscelánea* izeneko kuadernoan, onako bost koplak auek azaldu dira:

Biba Karlos setimo
eta Margarita,
laster ikusiko da
tronuan jarrita,
tronuan jarrita,
tronuan jarrita.

Eibarko txapelgorri
madarikatua,
bost errialgatikan
odola saldua,
odola saldua,
odola saldua.

Karlosek bai omen du
ezpata urrezkua,
baita Amadeok ere
ojalatazkua,
ojalatazkua,
Karlosek urrezkua.

Biba txapel zuriyak
beren borlarekin,
fuera txapel gorriyak
beren txaparekin,
beren txaparekin,
beren txaparekin.

Biba Karlos setimo
eta konpañiya,
orain zuzendu bear
degu Españiya,
degu Españiya,
degu Españiya.

* * *

Iruñeko Dolores Baleztenak,
bere *Cancionero popular carlista*,
Temas españoles liburuxkan, lau
kopla auek:

Gora Don Karlos eta
Doña Margarita,
laister ikusiko da
tronuan jarrita.

Txapel zuria eta
borlia berdia,
zaldi gañean dator
Don Karlos guria.

Mendira irten ziran
gure gurasuak,
gordetzera fede ta
lege jakintsuak.

Gora, gora, Don Karlos,
gora Margarita,
gora relijioa,
bera republika.

* * *

Beste bi kopla auek, karlistak
bigarren errepublika denboran-
edo argitara emandako orri ba-
tetik ditugu. Moldiztegi-izenik
gabeko bertso-paper bat da. To-
losako Manuel Urreta zanaren
eskutik jaso genduan.

Bigarren koplak Amorebieta
aitatzen du. Leen ere esan degu-
nez, *Convenio de Amorebieta* ize-
nekoa aitatu naiko du: 1872-ko
maiatzaren 24-an firmatu zan
tratua, alegia.

Egiya agertuko da
goiz edo berandu,
ez itxaropenikan
egundaño galdu.
Ai, ai, ai, mutillak,
egundaño galdu.

Amorebietarekin
geunden oso illik;
etzala geiago altxako
uste zan karlistik.
*Ai, ai, ai, mutillak,
uste zan karlistik.*

* * *

Gernikako Sebero Altube zanak eskuz idatzitako orri bat eman zigun. Bearbada, berak bere eskuz idatzia. Orri ortan urrengo doiñua eta bertsoak datoz.

Doiñua, ala ere, ez da bi puntuko koplak kantatzeko oso egokia. Lau puntuko zortziko txikiak kantatzeko bai, ordea.

Bertsoak zer ikusirik badute aurreko koplekin. Baiña emen iru zortziko oso-osorik ikusten ditugu; eta gaiñontzekoak ere zortziko-puskak izango dira.

Naaspilla puska bat bada, beraz. Baiña, ori ezin argiturik edo konpondurik, danak ere dauden bezela agertzen ditugu emen.

Ikus 31-garren doiñua, azken orrialdeetan. Ona bertsoak:

Borla berdiarekin
txapela zuria,
zaldi gaiñian dator
Don Karlos guria,
ezin arrastaturik
gugana bidia,
tronutikan kentzeko
beste aguria.(3)

Agure beltz orrekin
ez gera kontentu,(4)
Karlos gura genduke
goiz edo berandu.

Biba Karlos setimo,
Doña Margarita,
laister ikusiko da
tronuan jarrita,
Aita Santuak ere
koroia ezarrita,
Frantziako arraian
dago etorrita.

Goguan eukitzeko
agoztuan zazpia,
arratsaldeko lauretan
zan sutan asia;
karlistak ekarri zuten
Lizarraga nausia,
boluntariorik geiago
eztago ikusia.

Atiak ormaz itxi
kaiol bat bezela;
lotsa gutxi, bildur asko
oiek daukatela.

Gure Jauna kendu dute
bere lekutikan.(5)

* * *

Aita Apalategiren paperetan
lau bertso edo koplak auek agertu
dira, eta bi doiñu:

Biba Karlos setimo ta
Doña Margarita,
laxter ikusiko degu
tronoan jarrita.

Borla berdearekin
txapela zuriya,
zaldi gañean dator
D. Karlos gurea.

Sarasolak esan du
Begoña gañean
Bilbon sartuko dala
kaballo gañean.

Frantziyan egin dute
urrezko zubiya,
andikan pasa dedin
gure erregea,
D. Karlos gurea.

Ikus 32-garren doiñua, azken
orrialdeetan.

Ikus 33-garren doiñua, azken
orrialdeetan.

(1) Montevilla-ren bilduman: *Frantzi-
tik agindua. El batallón de Guernica* libu-
ruan ez dakigu nola egongo dan. Baiña
dudarik ez da *Frantzitik ordena* bear
duala.

(2) *Acción de Mañaria, el 14 de Mayo
de 1872, contra Letona con 3.000 hom-
bres. Murieron los jefes Ayastuy y Altube
y nueve soldados. De los carlistas lucha-
ron con heroísmo D. León Iriarte y Valdes-
pina.* (Montevilla-ren oarra)

(3) Agure ori, dudarik gabe, Saboyako
Amadeo erregea izango da.

(4) Aurrena idatzi eta gero tatxatuta
dagoana: *konpondu*. Bearbada orrela
obeto zegoan.

(5) Alegia, Jauna aldaretik kendu eta
elizaren bat soldaduen ostatutzat artua.
Oker ez bagaude beintzat, Oiartzungoan
ala egon ziran liberalak, eta Mondragoi-
koan ere bai.



Don Karlos bere armadunen erdian. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

“Karlosek esan ei dau Begoña gañean...”

1

Karlosek esan ei dau
Begoña gañean
laister sartuko dala
Madrilgo kalean;
ikusi gura neuke
beraren sarrera,
Madrilgo txankasueien (*sic*)
arin-ainketea.

2

Borondate guztiaz
artu geben arma,
negarrez utzirikan
aita eta ama;
ikusi gebenian
fedearen berri,
orain gabiltz ikusten
makiña bat bizi.

3

Ez gera gu lapurrak,
ez faziosuak,
fedearen aldeko
boluntariuak;
reljio santuen,
bai ere fueroen,
gera gu jarraitzale
oso egizkoek.

4 Txapel txuria eta
berdaizka borlia,
zaldi gañean dator
gure erregia.
Ezpañan agintzeko
nor izango obia?
Biba Karlos septimo,
biba Margarita,
Españan agintzeko
zer pare polita!

5 San Isidro bezperan
señaladamente,
karlistak eman zuten
Mañarian frente;
danbada jaustien da
gogorrena alkate,
Durangoko Eskabi
il zan derrepente.

6 Aurtengo okaranak
nekez eltzen dira,
zazpi Eskabirentzat
ondo gorde dira;
agure beltz orrekin
ez gera kontentu,
Karlos gura genduke
goiz edo berandu.

* * *

Bertso auek badute aurrekoe-
kin zer ikusirik: Don Karlosek
Begoña gañean zer esan duan;
Don Karlosek eta Doña Margari-
tak bikote polita osatzen dutela;
Mañariko atakearen aitamena;
agure beltzarekin —Amadeo erre-
gearekin bearbada— kontentu ez
daudela...

Iruñen arkitu genituan, *Barón
de Montevilla* zanaren bilduman.
Noren aotik jasoak diran, onela
adierazten du: "*Recitado a Gue-
rra por Antonio Pagoaga y D^a Ma-
ría Iturriagagoitia de Mondragón*".

* * *

Baiña *Montevilla* jaunak ez du sei bertso oiekin bukatzen. Ondotik adierazpen eta bertso auek ditu:

"A D. José Miguel Barandiarán, Pbro., se los cantó un casero de Cortézubi, Vizcaya, en esta forma:

Don Leon Busturiko
gure kefe fiña,
egiñ dau mendijan
mutillakiñ alegiña.

Don Leonek esan ei dau
Begoña ganian,
Bilbaon sartungo dala
zaldija ganian.

Aluden a D. León Uriarte, cura de Busturia.

Del mismo Barandiarán y recogido en Cortézubi:

Bizkaiko Arratzuko
jesuita fiña,
fediaren fabore
eiñ dau alegiña.

Aluden al Padre Goyriena, jesuita, que capitaneó una partida de muchachos en la última guerra. Arratzua es un pueblo de Vizcaya".

Aita Goiriena au Arratzuan omen zan, bere osasunari kontu egiñez, jesuitak kanpora bialduak ziran bitartean. Durangoko beren etxean omen zan gero, 1871-n. Karlisten talde armatuak asi ziranean, bera ere aiekin joan zan, eta mutil-talde baten kapitan jarri. Beraren nagusiak, ori jakin zutenean, Lagunditik kanpora jarri zuten.(1)

(1) Vicente Zavala: Retazos de historia duranguesa, 1989.



Gerra-denboran, karlisten *El Cuartel Real* aldizkaria irakurtzen.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

**“Biba, biba, biba,
gure Jaungoikoa!...”**

1

Biba, biba, biba,
gure Jaungoikoa!
Biba, biba, biba,
Aita Erromakoa!
*Eta tira eta tunba
eta tira berari,
eta tira eta tunba
eta tira berari. (Lomari)*

2

Biba gure fedia
Españiyakua!
Biba Don Karlos eta
jende bertakua!
Eta tira...

3

*Viva libertad eta
gero republika,
atera bearra zio!
Españiyatika,
Karlos datorrenian
Parrantziyatika.
Eta tira...*

4 Biba, biba Don Karlos
 eta Margarita,
 biba relijiyua,
 fuera republika!
 Eta tira...

5 Biba, biba Don Karlos,
 ura da gizona,
 Españiko errege
 tokatzen zaiona.
 Eta tira...

6 Amadeok baditu
 bi pezetakuak,
 baita Karlosek ere
 bolontariyuak.
 Eta tira...

7 Eibarko txapelgorri
 madarikatuak,
 bi pezetarengatik
 odola salduak.
 Eta tira...

8 Gu lapurrak gerala
 kalian diyote;
 pikaro infamiak
 gezurra diyote.
 Eta tira...

9 Ez gerade lapurrak,
 ez paziosuak,
 fediaaren aldeko
 bolontariyuak.
 Eta tira...

10 Don Karlosek emon dau
 errege-berbia:
 gura dabela gorde
 Jaunaren legia.
 Eta tira...

11 Izaten bada errege
Bere Mesedia,
sendatuko da Españan
Kristoren fedia.
Eta tira...

12 Esan bada gogotik
bildurra itxita:
Bizi bedi Don Karlos
ta andre Margarita!
Eta tira...

13 Biba Karlos setimo,
Doña Margarita,
laster ikusiko dira
tronuan jarrita.
Eta tira...

14 Aita Santuak berak
koroia ezarrita,
Frantziako arraian
araño etorrita.
Eta tira...

15 Karlosek bialdu dau
Frantziatik ordena:
txanponean saltzeko
beltzik aundiena.
Eta tira...

16 Karlosek esan ei dau
Begoña gañean;
laster sartuko dala
Madrilgo kalean.

17 Ikusi gura neuke
bere entradaea,
Madrilgo txanka meien
ariñeiketea.
Eta tira...

- 18 Boluntariamente
artu nuen arma,
negarrez utzirikan
aita eta ama.
Eta tira...
- 19 Ikusi gebenian
fedearen berri,
orain gabiltz ikusten
makiña bat bizi.
Eta tira...
- 20 Jaurespide guren
bai edo fueroen
gera gu jarraitzalle
oso egizkoen.
Eta tira...
- 21 Txapel txuria eta
berdaizka borlia,
zaldi gañean dator
gure erregia,
Españan agintzeko
nor izango obia?
Eta tira...
- 22 Biba Karlos septimo
eta Margarita,
Españan agintzeko
zer pare polita!
Eta tira...

* * *

Kopla-sail au ere *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik degu.

Kopla batzuk berri-berriak dira. Beste batzuk, berriz, aurreko saillean ere badaude. Baiña ez

ditugu baztertu, aldaketarik ere badute eta.

Aiek, izan ere, *Ai, ai, ai, mutilla* kantartearekin kantatzen baziran, auetan *Eta tira eta tunba* beste kantarte ori errepikatzen

da. Baiña esan bearrik ez dago koplak doiñu batetik bestera aldatu ditezkelak.

Kantarte ori ezaguna da gure egunotan ere. Baiña gaur egunean beste onela entzuten da:

*Eta tiro eta tiro
eta tiro beltzari,
eta tiro eta tiro
belarrimotzari.*

Aurreko saillarengatik esan zitekean bezela, auek ez dira ekiñaldi batean jarritako koplak. Auek, gaur bat eta biar bestea asmatuak dira; giroak eta gertakizunak eskatzen zuten bezela, alegia.

Orregatik, noizkoak diran esaten ez da oso erreza. Baiña gerraren asieran ere olako kopla batzuk kantatuko ziran.

Sail ontako ogeigarren kopla ez da erriaren buruan jaioa, andik urteetara bertsozale eskolaturen batek asmatu eta erantsia baizik.

* * *

Montevilla-ren bilduma ortan, beste toki batean eta aldaketarik gabe, sail ontako sei kopla agertu dira: 4, 5, 6, 7, 8 eta 9-garrena.

Berak nundik jasoak zituan adierazteko, onela idatzi zuan: "...*facilitadas por D. Manuel Lecona, de Oyarzun. Fueron éstas las más populares. Se cantaban con la misma música...*".

* * *

Urrengo doiñu eta kopla auek ere, *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik ditugu.

Berak nundik eskuratu zituan adierazteko, onako oar au idatzi zuan: "*Recogidos en Ochandiano, Vizcaya, por Don Elías de Burgos, Abril, 1925*".

Ikus 34-garren doiñua, azken orrialdeetan.

Boluntariamente artu gendun arma, negarrez itxi eta aita eta ama.
*Eta tiro eta tiro
eta tiro beltzari,
eta tiro eta tiro
Markiñako Pellori.*

Basa-mutillak gera(1) gure soldaduak, Mañariko atakian ondo portaduak.
Eta tiro...

Bularrian kurutza, eskuan bandera, esan ardura barik: karlistak gera.
Eta tiro...

Armarik asko geunkan guk geure eskuan, an lagundu baloskue artezak orduan.
Eta tiro...

* * *

Beste kopla au nundik degun ezin esan genezake, apuntatu ez genduan egin eta:

Kristoren legiakin
Karlos maite ez dute,
naiago desordenean
berak diruz bete.

* * *

Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, zortzigarren orrialdean, onela dio:

“Durante la primera guerra carlista se cantaba a voz en cuello una melodía popular alemana con esta letra:

Don Karlosek emon dau
errege-berbea,
errege-berbea,
gura dabela gorde
euskaldun legea.

Bai. Leenengo gerratekoa ere izan diteke kopla au. Orregatik, ordea, bigarren goan ere berdin kanta zitekean.

Ikus 35-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Azkenik, Jaime del Burgo-ren *Veteranos de la causa* liburuan, lau bertso edo kopla auek arkitu ditugu:

Biba karlistak eta
fuera liberalak,
fedean firme dagoz
gure jeneralak.

Baso-mutillak dire
gure soldaduek,
Lamindano-ko ataken
ondo portaduek.

Biba Karlos septimo
eta Margarita,
laister ikusiko'guz
tronuan jarrita.

Agure beltz orrekin
ez gara konpondu,
Don Karlos bear dogu
goiz edo berandu.

(1) Gure iritzirako, *Baso-mutillak dira* bearko luke lerro ontan.

(1874)

“Don Kastor jenerala...”

- 1 Don Kastor jenerala
karlistetan nausi,
bala batek jo eta
bertan bera jausi.
- 2 Bigarren jenerala
deritxo Velasco,
atake gutxi baña
okela jan asko.
- 3 Amazortzi urte ta
oge ta lau etxe,
Don Juan de Sarasola
ezkondu letteke.
- 4 Don Juan de Sarasola
Markiñako semie,
oge ta lau urteko
komandante gaztie.
- 5 Negar egin eban
Ermuko markesak,
biba karlistak eta
biba gernikesak.

6 Ama, zetarako da
negar egitie,
Jaungoikuak gura badeu
ni balaz iltie?

7 Ez egin negarrikan,
amatxu maitie;
laister etorriko naiz,
konsola zaitie.

8 Boluntariamente
artu nitun armak,
negarrez itxi ditut
aita eta amak.

9 Biba Don Karlos eta
Doña Margarita,
laster ikusiko'gu
tronuan jarrita.

10 Agure baltz orrekin
ezkara konpondu,
Karlos biar genduke
goiz edo berandu.

11 Zaldi zurijen dator
Don Karlos gurie,
tronutik kendu bier
beste agurie.

12 Asi Abadiñon da
Mañariregiño,
etzan lurrik agiri
gixon illik baño.

13 Ogei mille inguru baltz
Mañarin ostian,
sei mille karliste
prente juan zirian.

- 14 Ikusi zituenien
liberalen buruek,
ensegida preparatu
baioneta kaladuek.
- 15 Eibartar txapelgorri
madarikatue,
bi pezetagaitikan
odola saldue.
- 16 Karlos da Margarita
geu bisitetara,
lau mulakin landoia
prente agiri da.
- 17 Txapel zuriye eta
borlie berdie,
zaldi gañien dator
Don Karlos gurie.
- 18 Bilbaoko txapelgorri,
Bermioko baltzak,
itxi pobriak eta
fuera aberatsak.
- 19 Ikusi bazenduen
ango entradie,
Bilboko txanka luzen
arin-aringie.

* * *

Emeretzi kopla ditugu oraingo ontan. Kopla ezagun batzuk bada dira auetan ere; aurreko sailletan edo jaso-aldietan ageri diranak, alegia. Baiña ezezagunak ere bai.

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bildumatik artuak ditugu. *Poesías populares, 1936, Abele-*

txe'ren kanta-sorta izeneko mordoan agertu dira. Abeletxe ori, Imanol Ziarsolo zanaren izenordea zan. Jaun onek itz auekin adierazten du kopla auek nundik dituan:

“Olerki oneik Markinako aguretzu bateri entzunak dira. Ba-

letteke bata bestiaren atzian esanak ez ixatia, baña nik berak esan-ala jarri nebazan”.

Kopla auek aitamenez beteak daude; eta, ondo ulertuko badira, argibideren batzuk eman bearra dago.

Leenengo koplak Kastor An-detxaga jenerala aitatzen du. Gordexuela-n jaio zan, 1803-ko martxoaren 21-ean. Bera bizkaitarra izanik, Bizkaiko karlisten buruzagi izan zan, bai leendabiziko gerratean eta bai bigarren-goan ere. Las Muñecas gainean il zan, Talledo errian, 1874-ko apirillaren 26-an, bere mutillekin liberalen aurka gogotik ari zala.

Bigarren koplak izendatzen digun Velasco ori, *Gerardo Martínez de Velasco* zeritzan. Bizkaiko karlisten buruzagi izan zan beraru ere bigarren gerratean. Baiña 1874-ko iraillean, Aragoi eta Valentzia aldera pasa zuten. Gerra bukatutakoan, Frantziara joan zan.

Irugarren eta laugarren kopletan ageri dan Juan Sarasola orretzaz, bereala mintzatuko gera.

Bostgarrenak aitatzen duan Ermuko markesa, Valdespinako markesa zan, Astigarragako eliz ondoko jauregiko nagusia. Juan Nepomuzeno Orbe zeritzan.

Amargarren eta amaikagarren bertsoetako agurea, leen ere esan bezela, Amadeo erregea dala dirudi.

Urrengo iru koplak, 12, 13 eta 14-garrenak, Mañariako burru-kaldia gogora arazten digute. Amaseigarrenak aitatzen duan bisita, Doña Margarita Naparroa. Gipuzkoa eta Bizkaian barrena, 1874-ko garagarrillean, ibili zanekoa izango da.

Gaiñontzeko koplak ez dute argibiderik bear.

* * *

Sail ontako kopla batzuek eta kantatzeko doiñua Iruñeko *Barón de Montevilla* zanaren bilduman agertu dira:

Don Juan de Sarasola
Markinako semia.
ogei ta bost urteko
koronel gaztia.

Ogei ta bost urte ta
ogei ta bost etxe,
Don Juan de Sarasola
ezkondu leiteke.

Biba, biba, biba
gure batalloe ederra;
mutilik ederrenak
Don Juanenak dira.

Orrek ekarriko dau
gure erregia,
biba, biba
Don Karlos maitia.

Ikus 36-garren doiñua, azken orrialdeetan.

(1874-V-24)

Bilbaoko semeari

1

Zergatik ikusten da
gure Donostian:
begietan malkoak,
poza biotzian?
Zergatik seme onak,
ama salbatzian,
anaiaz galdetu du,
anaia du aurrian.

2

Bi aldiz salbatzeko
Españi gurea,
seme bakar bat degu:
Bilbaoko semea.
Zuk jaso dezu onra,
zuk libertadea,
Bilbao, zor dizugu
odol ta asnasea.

A los hijos de Bilbao

*¿Por qué, San Sebastián,
lágrimas viertes,
si el corazón de gozo
se te estremece?
Porque al salvar a Madre
el hijo amado,
al hermano reclama,
y está en sus brazos.*

*Para salvar dos veces
al pueblo hispano,
un hijo se adelanta:
el de Bilbao.
La libertad, la honra
te la debemos,
recibe en cambio nuestra
sangre y aliento.*

* * *

Onako bi bertso auek, beren izenburu eta itzulpenarekin, Jose Manterola zanaren bilduman azaldu dira. Eskuz idatzita daude.

Egillearen izena bertsoen azpian ematen zaigu: S. Baroja. Serafin Baroja, alegia, Pio Baroja nobelagille ospetsuaren aita. Donostian jaio zan 1840 urtean, eta Bera-Bidasoan il, 1912-an. Bertso-mordoska badu euskeraz idatzirik. Baita *Pudente* izeneko opera ere.

Gerra ontan, Madrilleko *El Tiempo* egunkariaren berri-emale edo *corresponsal* izan zan.

1874-ko otsaillean, karlistak Bilbo artu nairik asi ziran, eta erriaren inguru guziaz jabetu ziran. Liberalak beren soldadu-talderik onenak bialdu zituzten, karlistak andik uxatu nairik. Bi illabete iraun zuan leiaketa orrek. Oso burrukaldi latzak gertatu ziran Somorrostro aldean, eta bi aldeetatik mutil asko erori ere bai.

Dударик gabe, antxe erabaki zan gerra ura. Olo eta Rada, karlisten jeneralak biak, napparak, bonba batek il zituan. Kastor Andetxaga, berriz, karlisten jenerala au ere, baiña bizkaitarra, bala batek il zuan Las Muñecas gaiñean, leen ere esan degunez.

Orduan alde egin bear izan zuten karlistak Bilbo ingurutik; eta Concha jenerala maiatzaren 2-an sartu zan Bilboko errian.

Adierazpen ori aurrean dala, irakurleak obeto ulertuko du, bertsoen azpian Manterolak eskeintzen digun argibidea:

“Esta composición, improvisada por su autor, fue cantada por el Orfeón con grande aplauso la noche del 24 de Mayo de 1874, en el Hotel de Londres, San Sebastián, en honor a los Auxiliares expedicionarios de Bilbao, y repetida la noche siguiente con extraordinario éxito en las veladas, en obsequio a los mismos, dispuestas por el Círculo mercantil e industrial y por el Casino de emigrados”.

Emen ikusten danez, donostiar talderen bat izana zan Bilbon, ango liberalei laguntza egitearren.

Bertsoak diotenez, Bilbok bi aldiz salbatu du España. Aurre-

na, leenengo gerratean noski. Orduan iru bider inguratu zuten karlistak Bilboko iria, eta irurretan uts egin. Eta bigarrenengo aldia, 1874 urtearen maiatzeko ori.



Liberalen kañoiak. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1874)

Bertso Berriak

- 1 Gure gerra tristean
anaien artian,
obe genduke baldiñ
bageunde pakian;
menditikan tiroka
asten diranian,
umiak eritutzen
dituzte kalia.

- 2 Gusto artzen diote
bada mendiari,
baioneta ta arma
ta kartutxuari;
iñola eziñ adiazi
buru gogorrari,
obe luteke tira
enemiguari.

- 3 Mingañ ona daduka
emengo jendiak.
lastimamente galtzen
erriko umiak;
orra egiten dituzte
abillidadiak,
San Blas da ola dituzte
zer ziodadiak!

4

Lenotik gorakua
etzait ongi bete,
aspaldian galdu da
zenbait inozente;
kaminuan zakurrik
ikusten badute,
kristauari bezela
tiratzen diote.

5

Gauza franko eman du
aurten Jaungoikuak,
estimatu lezake
gu bezelakuak;
eztiote biltzen utzi
soroko artuak,(1)
ia illian dauzkate
beren gurasuak.

6

Kanpuan or dabilza
reljio onakiñ,
atzaparrak garbitzen
ezer e eztan tokiñ;
oiek gaizki egiña
nik artutzen det miñ,
petxuba maiz jo eta
lapurretan egiñ.

7

Gizon onak dauzkagu
gure menditarrak,
egiñ ezkeroztikan
nork beren biarrak;
tragatuko lituzteke
emengo urre-barrak,
reljioakin oiek
egite'ituzten farrak!

8

Karlosek badaduzka
nere ustez mutillak,
eztira bullosuak,
dirade isillak;
flakuan sendo daude
eta biribillak,
danak irin batekiñ
egindako opillak.

9

Naiz dala egunsentian,
igual arratsian,
lotsagabe sartzen dira
iñoren etxian;
armariyo edo kofre
arrobatutzian,
laister igas egingo dute
boltsak berotzian.

10

Kulpa gabiak ilda
bestiak eritu,
oien relijiyuak
meritubak ditu;
orra amar bertsokekiñ,
jaunak, despeditu,
baldin gezurrak badira
neri eskribitu.

* * *

Bertso-sail au Jose Manterola
zanaren bilduman arkitu degu.
Moldiztegi-izenik gabeko kanta-
paper bat da.

Paperaren goiko aldean itz eta
zenbaki auek daude eskuz eran-
tsita: 30 Mayo 1874, 500 ejs. Be-

ti bezela, Manterolak papera zein
egunetan eskuratu zuan eta zen-
bat ale inprentatu ziran esan
naiko du.

Bertsoak ez dute iñongo gerta-
erarik aitatzen. Orregatik, noiz-
koak diran somatzeko biderik ez

degu ikusten. Goiko eranskin orrek adierazten duan egunarekin konformatu bearko degu: bertsoak egun ori baiño leentxeago jarriak izango dirala, alegia.

Liberalak moldatutako bertsoak ditugu; baiña nungoak? Galdera orri erantzuteko, bide bakarra ikusten degu, oso dudazkoa izango bada ere.

Irugarren bertsoak onela baitio:

San Blas da ola dituzte
zer ziodadiak!

Tolosa ondoko gain batean, San Blas deritzaion ermita dago. Tolosan 1874-ko otsaillaren 28-an sartu ziran karlistak, baiña

zenbait illabetetan erriko inguru guzia artuta eduki ondoren. San Blasko gain ori ere alaxe izango zuten bearbada. Garai artan, ermita eta baserri bat edo beste izango zan; besterik ez. Eta orregatik liberalak iseka edo burla ori egin: zer ziodakiak!

Liberalak Tolosa galdu baiño leenagoko bertsoak ote dira, beraz? Baiña iru illabete denbora geiegi ez al da inprentak bere lana egiteko? San Blas ori Tolosakoa ote dan ere ez dakigu. Orregatik, gure iritzi auek oso dudazkoak dirala aitortu bearrean gaudede.

(1) Bertso-paperak: *loroco*.

(1874)

Doña Margaritaren etorrera

Doña Margarita de Borbon Parma, Karlos zazpigarrenaren emaztea izan zan. Parma-n jaio zan, bertako dukearen alaba, 1847-an; eta Viareggio-n il, 1893-an. 1867-ko otsaillaren 4-an ezkondu zan Don Karlosekin.

Gerra asitakoan, karlistak mugaz beste aldera eramaten zituzten zaurituak zaintzeari ekin zion.

1874-ko garagarrillaren 9-an, Paben zalarik, Don Karlosen deia artu zuan, mugaz ego aldera etortzeko.

Biamamonean trena artu eta Donibane-Lohitzunera aldatu zan.

Emen euskal baserritar jantzia artu zuan; sedazko gona beltza, rasoizko mantala eta, ezkondua baitzan, burukoa.

Dantxarineara iritxita, jendar-meak etzioten nor zan igarri, eta pasatzen utzi zuten. Andik, Urdazubitik barrena, Elizondora

eta Doneztebera. Don Karlosekin emen alkartu zan. Doneztebetik Sunbillara, eta ostera Doneztebera.

Urrena, illaren 12-an, Doneztebetik atera eta, Sunbillatik barrena, Lesakara. Emen ospitala bisitatu zuan. Andik Andoaiña eta gaberako Tolosara.

Toki guzietan erruzko jendetza ateratzen zitzaion bidera, goraka eta txaloka, ongi etorria egitera. Baita Tolosan ere.

Baiña jendearen izkuntza ezin ulertu eta onela esaten omen zuan:

—*Es tan difícil vuestra lengua que temo no poder aprenderla, aunque lo intentaré. Lo que sí os prometo es que trataré de que la sepan mis hijos.*

Tolosan ere, zaurituei bisita egin zien.

Bertan ziralarik, 14-an, *desfilea* egin zuten Gipuzkoako bata-

lloiak errege-erregiñaran aurrean. Jendea, soldaduak pasa birtartean, bibaka ta txaloka ixildu gabe aritu zan. Onako bertso au ere kantatzen omen zuan:

Biba Don Karlos eta

Doña Margarita,
laster ikusikoguz
tronuan jarrita.

Ai, ai, ai, mutillak,
Doña Margarita!

Bertso au leen ere jarria degu liburu ontan. Dudarik ez duana, Tolosako jendeak etzuala *ikusikoguz* esango.

Andik, Bidaniatik eta Errezildik barrena Azpeitira. Emen Enparan etxera erretiratu gauerako.

Loiolako jesuiten etxea ospital biurturik zegoan. Ara ere joan zan zaurituak ikustera. Artan zebillela, Urrestillako boluntario batek onako bertso au kantatu omen zion:

Askok esaten dute
daudela gaixorik,
karlistak il dirala
ezin biziturik;
gaitz abek sendatzeko
erremediyorik
nik ez det billatutzen
Don Karlos besterik.

Arratsaldean, Loiolan bertan, elizkizuna. Ondoren, errege-erregiñak San Inazioren etxea ikusi zuten.

17-an Azkoitira, eta emengo Etxe Beltzean gaua pasa.

Andik bi egunera Zumarraga eta Bergarara; eta 20-an Oñatira.

Ondoren, Mondragoi, Kantantzar eta Elorrio. Emengo plazan, bertako mutil batzuek aureskua dantzatu zuten Doña Margaritaren aurrean. Andik Durangora, eta emengo zortzi dantzarik euskal dantza bat dantzatu. Urrena, Santa Mariko elizara. Andik ospitalera; eta an, zaurituak ez-ezik, gaitz kutsakorrez zeudenak ere bisitatu.

23-an, Zornotzara. Emen ere ospitala bisitatu. Andik Gernikara. Emen ere, erri guzietan bezela, erruzko jendetza. Eskolako umeak *Ai, ai, ai, mutillak* kantatzen omen zuten.

San Juan bezpera zan. Apalondoan, Doña Margarita balkoira irten eta mendietan nunai ageri ziran suak ikusten egon zan. Baita an eta emen kantatzen ziran euskal kantak entzuten ere.

Biaramonetan, Gernikako arbolaren ondoan meza; *misa de campaña* alegia. Durangoko batallioiaren banderaren bedeinkazioa ere bai.

Bazkalondoan ospitalera. Urrena, Salbea. Ondoren, Junta-etxera. Emen, Doña Margaritak arbolaren adaxka batzuk artu eta gorde egin zituan. Andik Arteagara.

An zirala, Dorregaray jeneralaren abisu bat etorri zan: liberalak soldadu-mugimentu aundia ze-

rabilkitela Naparroan, eta Lizarrari erasotzeko asmoak izango zituztela.

25-ean, Gernikatik eta Zornotzatik barrena Durangora. Arratsaldean, Berriz, Ermua eta Eibarrera; eta atzera Durangora.

26-an, emendik Elorrio eta Elgetara.

Bitartean, 25-ean, Dorregaray-k esan bezela, liberalak eraso jo zuten, Lizarra artu nairik. Iru egun iraun zuan burrukaldi latz orrek. *Batalla de Abarzuza* esaten zaio liburuetan. Ontaz aurki mintzatuko gera, bertsoak ere badira eta.

Karlistak atera ziran garaille. 27-an, liberalen buru zana, Concha jenerala alegia, bala batek zauritu zuan, eta gau artan il zan. Orduan liberalak alde egin zuten.

Bitartean, Don Karlos eta Doña Margarita Altsatsutik Urbasara igo eta Muez errira jetxiak ziran. Emen, Don Karlos gaixorik zegoala-ta, lau egun igaro zituzten.

Uztaren 1-ean, arratsaldean, Lizarran sartu ziran. Plazaren alde batetik bestera pasatzen, ordubete bear izan omen zuten, jendearen tartetik bide ezin egini. Gauerako, Iratxera. Emengo komentu zaarra ere ospital biurturik zegoan.

Abartzuzako erasoan mutil asko galdu zituzten liberalak. Aietako asko, zaurituta erori eta

karlisten mende geldituak ziran. Doña Margaritak, aiek karlistak bezin ondo zaintzeko agindu zuan.

Biaramonean, uztaren 2-an, Iratxeko aurrekaldeko zabalean *desfilea*. Don Karlos eta Doña Margaritaren aurretik ogei ta iru batalloi igaro ziran, guziak armaz ongi ornituta. Baita zaldizko zenbait talde ere, kañoiak eta abar.

Baiña, kondairalariak diotenez, *desfile* oietan eta abarretan denbora alperrik galtzen ari ziran karlistak; obeko zutela, alegia, Abartzazuko garaipenaren ondoren, liberaleri atzetik segi eta eraso jo izan balute.

Doña Margarita Iratxan gelditu zan, zaurituak zainduz. Ango edozeinek ainbat lan egiten omen zuan. Baita ere antxe jarraitu, ostera Frantziara joateko Don Karlosek agindu zion artean. Uztaren 8-an joan omen zan, eta penaz joan ere. Iratxan, berak lo egiten zuan gelari, *el cuarto de Doña Margarita* deitzen zioten oraintsu arte beintzat.

Frantziara iritxi eta berriro ere ara eramandako zaurituei kontu egiteari ekin zion.

Ala jarraitu zuan gerra-denbora guzian. Orregatik, onako izen onekin deitzen omen zioten zauritutako mutillak: *el ángel de la caridad* edo *el ángel de los hospitales*.

Doña Margaritaren etorrerari buruz iru bertso-sail arkitu ditu-

gu; irurak, Aita Jose Inazio Aranaren bilduman.

Inprentaz argitaratutako bertso-paperak dira; baiña moldiztegi-izenik ez dute.

Ez dira erriko bertsolari jator baten lana; baiña egun aietako giroa ederki adierazten dutenak.

Leenengo sailla, gipuzkoeraz dago. Laugarren bertsoak dionez, Doña Margarita Loiolara iritxi zanekeo artan jarria da.

Beste biak bizkaieraz daude. Leendabizikoa, Bizkaiko sarreran moldatua; eta bestea, Durangora joan zanekean.

Iru bertso-sail auek ulertuko badira, Doña Margaritaren etorrerari buruzko argibide auek eman bearra zegoan.

Liburu ontatik artuak ditugu: *Ana de Sagrera: La Duquesa de Madrid. Última reina de los carlistas. Palma de Mallorca, 1969.*

(1874)

**Doña Margaritaren ongi-etorriak
jarritako bertsoak alegiñ guzian:
Gernikako arbolan kantu txit onian
edo beste edozeiñ zortzikon bozian.**

1

Negarrezko lekuan
iñor Eban ume
zorionekua txit
eziñ izan leike!
Izanagatikan bat
erreñuan jabe,
izango du ere noski
naikua naigabe.

2

Ala zebillen, bada,
Don Karlos errege,
danon onagatikan
Margarita bage!
Zaio bere egunian,
bera beziñ gazte,
andre eder-ederra
etorri alegre.

3

Aspaldian galdezka
“Nun da gure aita?”
zegozkion aur eta
titiko polita;
musu banakin kontuz
Frantzian utzita,
Don Karlosegana zan
Doña Margarita.

4 Jaungoikoak nai badu,
tronuan jarrita
ipiñiko dituan
Loiolako Aita
San Inaziori gaur
eitera bixita,
dator zorionean
Doña Margarita.

5 Arren, ekar ditzala
laster jesuitak!
Ez ote diozka aituko,
o, Zeruko Aitak,
erregu oi dizkionak
egiñ Margaritak
ta bere añgerutxo
printzipe politak?

6 Blanka sei urtekoa,
Jaime bostekoa,
bi Elbirak, Beatriz lau
illabetekoa;
danok maita zaitzagun,
arren, Jaungoikoa,
emango al diguzu
pake betikoa!

7 Aitak esku banatik,
ondoren guztiak,
bularreko aurtxoak
bere ama maitiak,
eingo liguke atsegiñ
tronuan ekustiak
oge ta sei urteko
errege gaztiak.

8

Arbola onak eman
frutu ugariyak
aurrera ere ditzan,
Jaunari eskariyak
eiñgo dizkio ere
bai bertsolariyak.
Zenbat geiago ordea
gure Euskal-Erriyak!

9

Tronoratzeko, dio,
jausiko bagiña,
orañdaño bezela
egin alegiña
eritu gaixoentzat
aingeru egiña
Jainko errukiorkak
gure erregiña!

10

Ao guziak baño
bere biotz fiña
zabalagoa bada,
gizonaren mihiña
nola izan lezake
neurtzeko adiña?
Ez-da bageunzka ere
danok mingañ biña.

11

Ospitalik ospital
o dabiltzen oñak!
Balsamo jariyo txit
bere esku-miñgañak,
kentzen gozo-gozoro
oñaze samiñak!
Zenbait baliyo duan
gure erregiñak!

12

Urre baño geiago
erreñuko minak,
karidadean dauzka
danak eragiñak.
Ixilduko ote dira
Eleizan zotiñak?
Uste onetan daude
bere lau eskiñak.

13

Dana Ama maite onen
erruki baziña,
doatsua ziñake
gaurtikan, España,
errege-erregiñokin;
etzaitzala baña,
ai, fedea galtzeko
Beltzebuk engaña!

14

Ekusteko erregekin
danon pozgarriya,
aspaldiyan gendukan
gure egarriya
bete degu ederki;
ta ongi etorriya,
o gure erregiña
txit maitagarriya!

* * *

Aurreko atalaren bukaeran esan bezela, bertso-sail au Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu degu, moldiztegi izenik gabeko kanta-paper batean.

Atal ortan esan ditugunak nai-koak dira sail ontako bertsoak kondaira aldetik ulertzeko. Zail-

tasuna, izan ere, joskeraren alde-tik izan dezakete, bertsogintzan gutxi saiaturako batek moldatuak dirala ematen baitu.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auek, Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman. Baiña aldaketarik ez dute.

(1874)

Españako erregiña andra Margaritari Bizkaiko sarreran

1 Bizkaitarren biotzak,
gaur zu ikusirik,
geratu dira, andria,
oso gozaturik.
Ez dago gure artian
andi ez txikirik
zure Majestadia
maite ez dabenik.

2 Bedeinkatu da beti
emen zure izena,
dakusgulako zugaran
amarik onena.
Zuk legez geixuari
laguntzen deutsena,
benetan da "Aingeruba
karidadiarena".

3 Ez dogu bada damu,
erregiña andija,
geure itxaropena
zugaran iminija.
Pozez beterik dago
Bizkaija guztija,
opa deutzula zuri
ondo etorrija.

* * *

Iru bertso auek ere, leen esan
degunez, Aita Jose Inazio zana-
ren bilduman arkitu ditugu, mol-
diztegi-izenik gabeko kanta-pa-

per batean. Kondaira aldetik ongi
ulertzeko bear diran argibideak,
leendik emanda dauzkagu.



Dona Margarita, don Karlosen leenengo emaztea.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1874)

**Bizkaiko ekautuben berba
neurtubak andra Doña Margaritari**

Txit asko pozkidatu da Bizkaija,
entzunik geure erregien emaztia,
Doña Margarita guztiz maitia,
Españara izan dogula etorrija;
onetan daukagu atsegin andija,
eta Bizkaiko ekautuko biguma,
beraturik zure aurrian belauna,
baita bere buruba makurtuta,
dago gaur eskintzen bere beakurta,
umiltasun eta laguntasuna.

* * *

**Españako erregiña
eta Bizkaiko andra Doña Margaritari**

I Erdu gaur Durangora,
Doña Margarita,
erdu bada betiko
prantzesak itxita;
orain arte egon zara
Prantzijan ezkutu,
eta guk gaur artian
ez zaitugu ezautu.

2 Egun txito dontsuba
gaur Durangoarrentzat,
zuzentzen doguzala
zeuganontz biotzak;
bada guztiz andija
da gure atsegina,
ikusita ain ederra
daukula erregiña.

3 Izan ez arren duiña
kanpoko abegija,
sinistu egiguzu
dana dala egija;
bada guzurrezkorik
ez dakigu egiten,
eta bai gure berbak
egikariteten.

4 Durangoko batzarra
dator zure aurrera,
pozagaz ospatuten
ain dontsu etorrera;
emen bada gaukazuz
guztiok aurrian,
belaunak makurturik
zure mende pian.

* * *

Esan bezela, bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean; eta kon-daira aldetik ulertzeko naikoak dira leen emandako argibideak.

Paperaren azpiko aldean, eskuz idatzitako itz auek irakurtzen dira: *D. Ramon Echezarretarenac (Durango)*. Bertsoen egillea, ziur asko. Baiña jaun orretzaz ez dakigu ezer ere.

(1874-VI)

“Noa zorionean...”

1

Noa zorionean
gaur ni, o Estella,
zure pezetarekin
usturik botella,
kantatzera gogotik
ditzazko batalla,
eta lotsagarrizko
beltzen ixkanbilla.

2

Galdu izandu zuten
Estellaren billa,
inguruan berrogei
eta amar milla!
Artu zuten laixterka
igesi Kastilla,
Concha zeramatela
Abarzuzan illa.

3

Lau milla beltz inguru
eritu ta illotzak,
gorriturik kanpuak
zerizten odoltzak!
Nituen busti negarrez,
barkaturik gaitzak,
obiratu nituen
etsaien korputzak!

4 Bada, txit errukarri,
lagunen gorputzak
lurra eman gabe utzi
an zituzten beltzak;
lapurretara ziran
arrizko biotzak,
ai, lau errierrerik,
baita eiñ eriotzak!

5 Judas askok zituzten
zerbait bete poltsak,
geiago esan gabe
ixiltzen nau lotsak;
an zituan karlisten
su-tunparen otsak
sakabana otsuak,
utzirik bildotsak.

6 Lotsagarritzko eran
soldadu ta nausi
kornetarik jo bage
gauez txit igesi.
Lotan gera ziranak
nun ziran ekusi?
Karlisten eskuetan
esnatzeaz naasi!

7 Eragiñ giñiezen
gau ta egunez dantzak,
sentitu bage noski
orpoko arantzak;
bultza-bultzaka eta
tripatikan otzak,
ausitzen zijuazen
sudur ta okotzak.

8

Biraua zeriye
ajo eta moño,
pozik ekusi zuten
nun zeguen Logroño;
kalte geiago eginda
nik esan al baño,
etxe eta etxeko batzuk
ai erretzeraño!

9

Zer gogoangarriyak
orduko lapurtzak,
ta inguruak geroko
beltz illen ezurtzak!
Zurukuain, Villatuerta,
Zabal, Abarzuzak,
beltzak errerik baña
gaur ez umezurtzak.

10

Malkoak legorturik
artu degun poza,
guk zuen gurasoen
aditurik boza!
Etxe erriak eiteko
bilduko dirutza
dala, naiz-da gorritu
beltzai gorputza.

11

Zuek erretzeko sua
zerion deabrua
dezue iltzen ekusi,
Jaunan kastigua!
Zuen sugarretatik
betiko infernua
joko ez al zuan, baizik
purgatoriyua!

12 O eternidadera
bi balakin bultza
Concha-ri egin dion
Jainkoan beatza!
Eman zaion bezela
lurrean eriotza,
diot opa zeruan
betiko bizitza.

13 Zertako degu oraiñ,
gaur etzeran Concha,
gordetzeko eiñ dizuten
zillarrezko kutxa?
Ar bezate betiko
dagokien lotsa,
zerbait ustu dutenak
Kristinaren poltsa.

14 Zorigaiztoko ama
ta alaba Isabela!
Alfonsokin aindu nai
lenago bezela!
Ein zuan zuen tronuak,
da gorputz ustela,
begira zaiozute
Concha-ri bestela.

15 Mundu gaizto onetan
bere amorioa
jartzen duan tritea
da guztiz eroa.
Damu gabe bazaio
eltzen erioa,
dio Jaunak esango:
"Surtara i oa!"

16

Len eñ badu ere urreak
aspaldiko urteetan,
Bergaran asi eta
Amorebietan,
zenbait Judas diraden
irten leialetan,
Jainkoak maite gaitu
karlistok benetan.

17

Traizioz baginduzten
beltzak menderatu,
Jaungoikoarentzako
beñer'ez berandu!
Judas guziyak noski
infernura ditu,
bere esku santuaz
giyatutzen gaitu.

18

Don Karlos erregeren
ainduak egiten,
Jainko ta erriyakgatik
odola ixurtzen,
o, martiri santuak
badirudizuten
soldau ta agintariyak,
gaituzue arritzen!

19

Eleizaren kanpuan
deabruzko aziyak
eman izan dituan
arantza lodiyak!
Gaur ekusten ditugu
zerbait ebakiyak
berrogei ta geiago
urteko sasiyak!

20

Ateratzen gañera
ondotik sustraiak
dabiltz, o gurasoak,
gaur zuen semiak;
sugetzarrai ere bai
beren puzuniak,
zorioneko leial
oien su-burniak.

21

Ez da gure errian
etsairik agiri;
oraindikan beldurrez
asko milla giri
dauzkala lagunakin
badeizkiot niri,
biba Abarzuzako
konde jaun Mendiri!

22

Bere izen onaren
diña Dorregaray
beti ekusi degu,
orain ez nolana;
aiñgeru baten lanak
azkar eta ernai
egiñikan, etsaia
ederki du garai.

23

Lurrean ere Jaunak
sariya onai
eman oi die askotan,
kastigua gaiztoi;
Concha-ri izan ez dio
bizitzen utzi nai,
San Fernandon gurutzaz
biba Dorregaray!

24

Itzal aundiko oni
aditu diogu:
"Nai ez badu onean
etsaiak bigundu,
ta iltzen eta erretzen
jarraitutzen badu,
fusilatzea baizik
zer eñ bear degu?"

25

Ume eta zarrai
ai barkatu ere ez,
ta apaizikan onenak
josirik puñalez,
konbentu ta eleizak
gorririk ta odolez,
ekusten ez ditugu
erriyak negarrez?

26

Kristau erreñu onek
zor izango digu
fedea ta odola!
Zertako gera gu?
Erljio şantua
kendu nai bazaigu,
martiri ill da ere
gorde bear degu.

27

Juizioko egunian
aiñgeru tronpeta
degu aituko pozik
martiri erreta,
ez madarikaziozko
juezan errierta!
Zurukuain, Abarzuza,
Zabal, Villatuerta.

28

Biotz eta mingañez,
Jaunari graziyak,
añ buruz bera daude
beltz guzi-guziyak,
non-da ernegatzen dauzkan
galdu duen auziyak,
eragiten ditzela
ai samiñ gaziyak!

29

Lagun dollorren kontra
zotin txit garratzak,
erregiñari ematen
daude alabantzak,
karlistak jaso eta
sendatuta beltzak,
bedeinkaturik beren
alegin laguntzak.

30

Diote: "Etsaiak izan
beiñere ez bagiña,
eritu gaixuontzat
añgeru egiña,
Jainko errukiorrak
gure erregiña;
tronoratzeko degu
eiñgo alegiña!"

31

Ao guziyak baño
bere biotz fiña
zabalagoa bada,
gizonaren miiña
nola izan lezake
neurtzeko adiña?
Ez-da bageunzka ere
danok mingaiñ biña.

32

Ospitalik ospital
o dabiltzan oñak!
Balsamo jariyo txit
bere esku mingañoak,
kentzen gozo-gozoro
oñaze samiñoak!
Zenbait baliyo duan
gure erregiñoak!

33

Urre baiño geiago
erreñuko minak,
karidadean dauzka
danak eragiñoak.
Ixilduko ote dira
Eleizan zotiñoak?
Uste onetan daude
bere lau eskiñoak.

34

Dana Ama maite onen
erruki baziña,
errege-erregiñoekin
gaurtikan, España,
doatsua ziñake;
etzaitzala baña,
ai fedea galtzeko,
Beltzebuk engaña!

35

"Zeruan da lurrean
koroia karlistak!
Jaungoikoagatikan
fusil da ezpatak,
ta erreñuko añgeruak,
egitera festak,
gaitue Madriderako"
dio Margaritak.

36

Jainkozkoak gerala,
tronoan jarrita
ipiñiko dituan
Loiolako Aita
San Inaziori ere
lenengo bisita
egin dio, ta biba
Doña Margarita!

37

Zapal-zapal dezagun
Beltzebu karlistak,
adituko ditu, bai,
o Zeruko Aitak,
erregu oi dizkionak
egin Margaritak,
ta bere aingerutxo
printzipe politak.

38

Blanka sei urtekoa,
Jaime bostekoa,
Elbirak bi, Beatriz bost
illabetekoa;
Ama erregiñaren
Frantziarakoa,
ezin geiagoraño
da arrazoizkoa.

39

Aspaldiyan galdezka
“Nun da gure aita?”,
zegozkion aur eta
titiko polita;
poztutzen dago orain
doña Margarita,
bere senar maitea
gurekin utzita.

40

Negarrezko lekuan
iñor Eban ume
zorionekoa txit
ezin izan leike;
izanagatikan bat
erreñuan jabe,
izango du ere noski
naikoa naigabe.

41

Beraz geraturikan
gu ere aiñ triste,
izanik zuan bezin
biotzetik maite,
nola geratuko zan
Margarita bage
ogei ta sei urteko
Don Karlos errege?

42

Betor pakea eta
famili guziya,
ekusteko erregekin
danon pozgarriya,
berriz ere emateko
ongi etorriya,
o gure erregiña
txit maitagarriya.

43

Frantziarako bere
agur egunian,
jarri ditut bertsuok
alegiñ guzian,
Gernikako arbolan
kantu txit onian,
edo beste edozeiñ
zortzikon bozian.

* * *

Bertso-sail luze au Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu degu. Kanta-paper zaar bat da, gerra denborakoa dudarik gabe. Moldiztegi izenik ez du; eta bertsoen atzetik onako au dakar:

“*Se prohíbe la reimpresión sin consentimiento de Víctor Aramburu de Villafranca*”.

Biktore Aranburu ori bertsoen jartzaillea izango da, bearbada. Baiña aretzaz ez degu au beste berririk inondik ikasi. Zera esan genezake, ordea: ez dala bertsolari jatorra. Bertsoak garbi asko salatzen dute ori.

Irakurlea oartuko danez, sailaren azken bertsoa eta aurreko sail baten izenburu luzea, berdintsuak dira.

Bertso auek, Abartzazuko burrukaldiaren ondoren jarriak dira. Gai ori darabilkite leendabiziko amalau bertsoak. Karlistak gerra artan irabazi zuten garai penik aundienetako bat izan zuen ura. Iru egun iraun zuen: 1874ko garagarrillaren 25, 26 eta 27-an.

Karlistak ogei ta bost batalloi bildu omen zituzten, oietako lau gipuzkoarrak ziralak. Liberalak, berriz, berrogei ta amar milla gizon ziran.

Liberalen buruzagia Concha jenerala zuen: Manuel Gutiérrez de la Concha, Dueroko markesa, Arjentinako Córdoba-n jaioa. Militar sarturik, karlisten leenengo gerratean liberaletan ibili zuen,

eta pakea egiterakoan *mariscal de campo* zuen.

Bigarren gerratean, karlistak Bilbo estuasun aundienean zutela, berak alde egin arazi zuten andik, eta erria libratu. Beraren izena kale bati eman zioten bilbotarrak.

Donostiara ere etorria izango zuen noizbait ere. Jose Manterola zuenaren bilduman onako bertso au azaldu da beintzat:

Concha-ri

Gure jaun ta jeneral
estimagarriya,
bedorren etorreraz
poztu da erriya;
gatoz ofrezitubaz
ongi etorriya,
kantatzen dizugula
zortziko berriya.

Abartzazuko ortan, ordea, suerte txarra izan zuen; irugarren egunean, arratsaldean, bala batek zauritu zuen. Abartzazura eraman zuten, eta an berealaxe il zuen.

Bearbada, ura il zuen bala, gipuzkoarrak tirako zuten. Ara nola dioten, izan ere, Andoaingo Mariano Erauskin zuenaren aotik jaso nituan bi bertso auek:

Jeneral Concha abiatu zuen
Abartzuzatik mendira,
Gipuzkoako *tercera y cuarta*
puntuz zeuden alderdira;

muniziyua bagenduben da
suelto kargatu ta tira,
ateriak nunbait sartu biar ta
berari eman erida.

Berialaxen juntatu ziran
inguruko nausi pilla,
kuadrilla arretan izan bear zun
medikuren bat abilla:
balsamatu ondo, gobernatu ondo,
piztuko zalako illa,
asmo orretan eraman zuten
Abartzuzatik Madrilla.

Bertso geiago ere izango zan
noski. Beste baten erdia *Barón
de Montevilla* zanaren bilduman
arkitu genduan. Baiña au, bear-
bada, Lakarko burrukaldiarena
izango da. Onela dio:

Gipuzkoako *tercera y cuarta*
danen erditik aurrera,
armak kalauta joan giñaden
Alloztikan Lakarrera.

Balak Concha jo zuan tokian,
Abartzuzatik Estella aldera goa-
zela kilometro batera, antxe dago
gaur ere, kamio bazterrean, oroi-
tarri bat.

Liberalak, beren buruzagia
galduta, gaez eta ixil-ixilik alde
egin zuten. "Kornetarik jo gabe
gaez txit igesi" dio seigarren
bertsoak.

Baiña karlistak berandu oartu
ziran, eta etzuten etekiñik atera-
tzen jakin. Iges zijoazenei atzetik
eraso izan baliete, triskantza
aundia egingo luketela diote kon-
dairalariak.

Mendiri jenerala aitatzen digu
21-garren bertsoak. Torkuato
aren izena. Allon jaio zan, 1813-
ko maiatzaren 22-an; eta Tude-
lan il, 1884-ko azaroaren 23-an.

Urrengo iru bertsoak Dorrega-
ray jeneralaz mintzatzen dira.
Jaun onetzaz leen ere zerbait
esanda gaude.

29-garren bertsoetik bukaera
arte, karlisten erregiñaren goral-
penak egiten dira. Doña Margari-
ta onetzaz itzegin berriak gaude.
Bertso auek aren agur egunean
jarri zituala esaten digu bukae-
ran bertsolariak. Uztaren 8-an,
beraz, leen esan degunez.

Baiña sail ontako bertso ba-
tzuk errepikatuta daude. Leen
ere azalduak, alegia, *Doña Mar-
garitaren ongi-etorrian* izeneko
saillean. Emengo 20, 31, 32, 33,
34, 36, 37, 38, 39, 40 eta 42-ga-
rren bertsoak, ango 9, 10, 11, 12,
13, 4, 5, 6, 3, 1 eta 14-garren
bertsoak dira, batzuk zerbait al-
datuta badaude ere.

Bi sail oiek aita baten umeak
izango dirala esan naiko du.



Concha jeneral liberala, Abarzuzan illa. (La Ilustración Española y Americana.)
(Jose Mari Tuduriren artxiboa.)

(1874-VI)

“Atakien pasatu geitun...”

1 Atakien pasatu geitun
bi eo iru egun,
gabaz ere igual
egon arren illun;
gu atzeratzekorik
apenas da iñun,
orruntza bialdu dogu
Luziferren lagun.

2 Arro ta panparroso
baebillen galaz,
ezkenduela botako
euskaldunen balaz;
ikusi gendunian
tiratzeko eraz,
laixter ipiñi gendun
eramateko andaz.

3 Nunbait lenagotikan
euken delitua,
Abartzuzako atakien
or da gelditua;
Concha-k izan bieban
baten delitua,
.....
.....

* * *

Bertso auek Juan San Martin adiskideak, 1885 urtean Markina-Etxebarrian jaiotako Joakin Olañetari jaso zizkion magnetofonoz. *Ertzil* zan, oker ez bagaude, Olañeta jaun orren izengoitia.

Bertso auen gaia ere Abartzuzako burrukaldia da, eta ari buruzko argibideak emanik dauzkagu.

San Martinek, Olañeta edo *Ertzil* orrek bertsoak nundik zituan jakin nairik, galdera batzuk egin zizkion, eta bai besteak erantzun ere:

“S. M.: Bertso oiek geienak zeñi ikasiak dituzu?”

Olañ.: Aititai.

S. M.: Zure aitita zan Tomas Ibarzabal?

Olañ.: Bai.

S. M.: Nungoa?

Olañ.: Jaiotzez Arretxinagako, Jemeingoa. Bariñagan dago baserria arena”.

Eta beste argibide jakingarri batzuk ere eman zituan jaun orrek, dudarik gabe bere aurrekoei ikasiak:

“Oge ta bost milla euskaldunak; eurak berroge ta amar milla ziran... *Marqués del Duero* eukan orrek titulua, Concha-k... Odolez gorritua omen ziran errekatxoak-eta...”.

(1874-VIII)
Txapari
(Zaldi zurien kanten soñuan)

1 Orra sei bertso Karlos
zazpigarrenari,
erderaz *Niño Terso*
deitzen danari;
onlako tituluak
baditugu ugari,
nai badiyozka josi
bere dinbreari;
ez dek gaizki ari
denen lotsagarri,(1)
eskiñtzen farrari,
pailazo ergel ori;
ez zaigu kirten txarra
guri erori!

2 Joan dan gerrako Karlos
kintuen illoba,
(izoki ura baño
aundiagoa);
Frantzian fundatuaz
bere deretxoa,
Pillipek traizioz
eralditakoa,
bear du koroa,
bear du zetroa,
bear du tronoa
Españiakoa,
bear du izan gañera
gutziz kaikoa.

3

Zazpigarren Pernando
sudur luze ura
bein batian zijuan
beste mundura,
baña jatxi bañon len
zuzen infernura,
ausi du Pilliperen
lege frantzes ura;
onela korua
alaben burura
berriz biurtu da
lenengo modura,
zerraldo botatuaz
Karlos putzura.

4

Ordu ezkeroz dator
oien iraitzia,
nolanai dala emen
aurren jartzia;
ez zaiote ajolik
odola ixurtzia,
español guziari
digute tirria;
basta da ikustia
karlisten jendia,
frantzes artaldia,
zuavoz josia,
estranjeri guztiko
sisaz betia.

5

Presidiyuan ordaiñ
armaren karrera,
zeiñ pikarok uzten du
orlako aukera?
Galdu guziak dute
oiekin sarrera,
gaizkeri guzientzat

ori da barrera.
Zenbait egabera
joan dek oietara,
joan biarrian bizi
guztiko katera,
esanaz *Viva Carlos*
eta *Gu gera!*

6

Karlos, erregetzako
ez zerade oiala,
ez diyozu botako
zuk azkazala;
karlistak badakite
lastai bat zerala,
ta zure izenian
gizentzen dirala;
berak diyote ala,
ta iñolaz ala da;
ea, Karlos, bada,
juaz atabala,
zuaz Españiatik
enoramala.

* * *

Bederatzi puntuko sei bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: Bera-Bidasoako Itzea etxean, Julio Caro Baroja zanaren eskutik; eta Jose Manterola zanaren bilduman.

Moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper bat da.

Julio Caro Baroja jaunak bere aitonarenak zirala uste zuala esan zigun; Serafin Barojarenak alegia. Eta Jose Manterolaren bildumako paperean, beeko ba-

rrenean, eskuz idatzitako itz auek irakurtzen dira: *Serafin Baroja-c ipiñiac Donostiyan.*

Manterolarenean beste argibide jakingarri bat ere badu bertso-paperak. Onela dio: *Agosto de 1874.* Bertsoak noiztsu argitaratu ziran esan naiko du. Jose Manterola eta Serafin Baroja, izan ere, alkarren adiskideak ziran. Orregatik, onek, bertsoak argitara atera orduko, aren eskuetan jarriko zituan. Argibide

ori ontzat ar dezakegula esan nai nuke.

Liberalak *Carlos Chapa* esaten zioten Don Karlosi. Ortik bertso auen izenburua.

Bigarren eta irugarren bertsoak *ley sállica* izenekoaz mintzatzzen dira.

Lege orrek zionez, emakumezkoak etzeukaten koroia janzterik. Errege bat semerik gabe iltzen bazan, alabarik baldin bazuan, koroia etzitziaion oni tokatzen, aitarren anaiari baizik; osabari alegia.

Lege ori Frantzian sortu omen zan. Eta Españiara ekarri zuana Felipe V erregea izan omen zan, Frantzian jaioa bera. Orregatik dio bigarren bertsoak:

Frantzian fundatuaz
bere deretxoa,
Pillipek traiziyoz
eralditakoa...

Baiña, irugarren bertsoak dienez, Fernando VII erregeak kendu egin omen zuan lege ori. Ala zioten liberalak. Karlistak, berriz, ezetz; eta koroa Fernando VII-aren anai Karlosi egokitzen zitzaiola. Ortik izan zuten asiera karlisten gerrateak.

Laugarren bertsoak *zuavo* izeneko soldaduak aitatzen ditu. Leen esan bezela, Aita Santuak lurralde batzuk bereak zituan garraiko soldaduak izan ziran oiek; lurralde oiek zaintzera nazio guzietatik etortzen ziranak. Karlos zazpigarrenaren anaia ere, Alfonso Karlos, oietakoa izana zan.

(1) Jose Manterolaren paperean, leenengo bertsoan, *farragarri* tatxatu eta gaiñetik *lotsagarri* idatzita dago, egokiatzera dalakoan noski, urrengo lerroan *farrari* baidator.

(1874-VIII)

Karlistaren panparroikeria
(*Nere andrea andre ederra zan-en soñuan*)

- 1 Mendian gora, basoan jira,
eziñ kalera jetxirik,
emendik itzul andik igesi,
basauntzen gisa bizirik,
orra karlistak nun nola diran
badiyozute inbiririk.
- 2 Karlistak ditek gauza bat txarra:
kausa izatia zarra;
beren kañoiak, jende naparra,
orain daukaten afarra,
ume legunen bekokientzat
biurtuko dek adarra.
- 3 Arbol zarraren sustrai galduak
ez dik emango zumoa,
tximinirako naiz izan ona
ukatuko dik frutoa;
Karlos bezela lizundutua
zeok bere partidoa.
- 4 Zazpi sakristau, amabi alper,
ogei basarritar babo,
Jauregi buru, Santa Kruz gero,
azkenik berriz Otxabo,
erlijiyua aitatu ezker
basarritarrak akabo!

5

Abek ditugu erlijioko
orma berriko santuak,
Euskal Erriak eldutzen ditu
orlako apostoluak,
orra por nobis esan ezker
lerdekan mandamentuak.

6

Auzokoakin panpantxo dira,
andik dakarte guzia,
aiek txinguka, karlistak berriz
zintzilika miseria;
beti onela juntatu ziran
gosea eta egarria.

7

Karlistak orain dira panparroi,
ustez badira gañian;
segi, mutillak, moteldu gabe,
ea datorren urtian
zuen errege sartzen ote dan
Madriko ukullu batian.

8

Zeñek pensatu, zeñek sinistu
gure baserri jendeak
denbora gutxi barrun dirala
markesak eta kondeak!
Liberal gaizto mordo batzuek
izango gera pobreak.

9

Napar karlistak esanagatik
usteltxuak zeratela,
guk badakigu berdin zer fiñak
zankuak dituzutela;
berritsu oiek despreziatuta
bete zazute sakela.

10

Gure egunetan, beti bezela,
libertadien doaiak
garaituko'itu, desegingo'itu
illuntasunen odoiak,
lurperatuaz euskaldun txarren
biotz faltsoen pozoiak.

* * *

Bertso auek Jose Manterola zanaren bildumatik artuak ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper bat da.

Paperaren azpiko aldean, eskuz erantsita, onako oar auek irakurtzen dira: *Serafin Baroja-c ipiñiac, Donostiyan, Agosto de 1874*. Badakigu, beraz, nork eta noiztsu jarriak diran.

Karlisten bizkarretik parra egiten du emen Serafin Baroja zanak: beti mendian dirala, balsauntzen bizimodua dutela eta abar.

Karlistak, berriz, bazuten ziri oientzako erantzuna: beltzak bildur-ikaraz zirala errietatik kanpora ateratzeko, eta abar.



Zaurituak eta zamak eramanez, Naparroako mendietan barrena.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1874-X)

Bertso Berriak
Oiartzundik Ameriketara
gerraren igasi dijoan batek jarriak

1 Lertzen naukaten penak
nai nituzke esan,
zerbait deskantsu nere
barrenak ar dezan;
ni bezin ongi zanik
iya bat len etzan,
eta gaur arkitzen naiz
lur jua pobrezan.

2 Kañonazoz dirate
etxia amildu,
arri pillak an dauzkat
nai baditut bildu;
granada bat golpeak
ikulluban il du,
eta bestea ere
estu da ibildu.

3 Bost etxe dizkirate
erre eta ausi,
aien barrenen iñor
ez liteke bizi;
maizter nago len danaz
nintzana nagusi,
Amerikara nua
gerraren igasi.

4 Aundiyak dira gaitzak
emen dauzkagunak,
zori gaiztozez gerrak(1)
sortu dizkigunak;
galtzen guaz gizonak
nola ondasunak,
eta oekin zenbait
geren osasunak.

5 Aiuntamentu eta
Diputazioak
maiz jartzen dizkigute
kontribuzioak;
zuzen ezin pagatuz
daude sesioak,
guretzat sortu ziran
ernegazioak.

6 Euskal erri maitatu
ongi ziradenak,
gerrarekin ondatzen
ari dira denak;
igaro zanak laja
bazituben penak,
oraingo onek ditu
aztu bear lenak.

7 Emengo bizimoduz
nago aspertuba,
eta udez joateko
egin det tratuba;
pasajerako daukat
txartela artuba,
ojala banengoke
ontziyan sartuba.

8

Gerra, gaitzak azaldu
zitubena milla,
konbeni bada sarri
bukatu dedilla;
nere biotza penaz
daramakit illa,
mundu berrira noa
konsubelo billa.

9

Malkotan daramaizkit
begiyak bustiyak,
adios, aita onak,
maitetxo eztiyak;
adios, anai Pedro
eta Andres biyak,
adios, lagun onak,
adios, guztiyak.

* * *

Bertso sail au ere Jose Mante-rola zanaren bildumatik artua degu. Inprentatutako kanta-pa-per bat da. Moldiztegiaren izena onela aitatzten du: *Donostiyan*: -*Juan Osesen, moldisteguiyan.*

Paperaren goenean, eskuz idatzita, onela esaten da: *21 Octubre 1874, 500 ejs.* Leen ere bein eta berriro esan izan degunez, Manterolak bi gauza adierazi nai zituan itz oiekin, gure iritzirako beintzat: papera zein egunetan eskuratu zuan eta zenbat ale argitaratu ziran.

1874 urteko urrian, gerra be-roenean zan.

Izenburuak ederki adierazten du bertsoen gaia: gerraz nazka-nazka eginda dagoan oiartzuar bat, Ameriketara igesi dijoa; eta, azken agurra egitearren, bertso auek jartzen ditu.

Bazuan nazkatzeko motiborik aski. Bigarren bertsoak onela baitio:

Kañonazoz dirate
etxia amildu...

Eta irugarrenak:

Bost etxe dizkirate
erre eta ausi...

Gerra bukatu berrian, Juan Mañé y Flaquer katalan idazleak, Euskal Errira etorri, emengo lau probintzietan ara-onera ibili eta iru liburu mardul idatzi zituan, *El Oasis. Viaje al país de los fue-ros* izenburuarekin, 1878 urtean argitaratu ziranak.

Batean onela dio jaun onek:

“...de Endarlaza a Irun y de Irun a San Sebastián he encontrado más de 200 caseríos destruidos por las llamas”.

Eta aurreraxeago:

“Ya he indicado a V. que durante la última guerra se destruyeron a centenares las caserías de esta comarca(2), y esto nos lo están diciendo con su triste aspecto las muchas ruinas ennegrecidas por el fuego destructor en el trecho que hemos recorrido”.

Bigarren bertsoa ez degu guk ondo ulertzen. Ea irakurlea abillagoa dan. Edo, bestela, gaizki idatzita dagoala esan bearoko genduke.

Azken bertsoan, Ameriketara dijoan orrek, bere aitaren eta bi anairen izenak aitatzen ditu. Baiña bererik ez. Ez du, beraz, nor zan somatzeko biderik ematen. Eta itxasoz beste alde ortan suer-te onik izan zuan eta atzera onera etorri ote zan ere ez dakigu.

(1) Bertso-paperak: *sori gaistoz ez guerra.*

(2) Irun, Errenteri eta Oiartzun aldea, alegia.

(1875)

Puigcerdá-ri

Puigcerdá! Puigcerdá! Berriz gañean.
Ifiñi dezu, erri famatua,
oñ azpian karlista apurtua,
markatuaz orpoa kopetean.
Zeñ andiya begiaren aurrean
zauden zutik, gloriáz burua
lagunaren aldera bildua,
altzairu gerrakoa eskuiean.
Inguruko murrak eroriak
egon arren, Puigcerdá, zer zaizu?
Bonbaz arrasatuak naiz etxeak,
gorrotoak naiz danak ondatu,
basta da zure izena; zure argiak
karlist danak belauntuko ditu.

* * *

Erderaz *soneto* deitzen zaion bertso-mota degu oraingo ontan. Amalau lerro baititu, *amalauduna* esaten zioten garai bateko euskaltzaleak.


Guk *Euskal-Erria* aldizkaritik (1888) artu degu, eta bertan argibide jakingarri auek ematen zaizkigu:

“...*el amalauduna escrito por nuestro querido amigo y paisano D. Serafin Baroja, allá en 1875, y que forma parte de su librito Gaci-guezac*”.

Puigcerdá, Gerona probintziako erri bat da, Frantziako mugan dagoana.

1874-ko abuztuaren 16-an, Kataluña-ko karlistak Seo de Urgel iriaz jabetu ziran. Andik bost egunera, 21-ean, Puigcerdá orri eraso zioten. Iraillaren 2-garrenera arte, 747 granada bota ere bai. Baiña ezin izan zuten erria artu.

Ori zala-ta, Serafin Barojak *amalaudun* au moldatu zuan.



Prisioneroak. (La Ilustración Española y Americana.
Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Onoriaren kanpuan

—Esprika nazu, Txanton, gauza bat
beñ entenditziagatik:
irugarrengo konpañiaren
ofiziala zu izanik,
sartzen danian zure jendea
aurrera sutan, zergatik
egundañoko aziyuetan
ikusi zaitut atzetik?

—Konsistitzen du nere jendeen
obediyentzi aundian:
aurrera oju egiñ orduko
nik mutillari mendian,
tximista bezin pizkor dijuaz
denak lenbizi nayian,
ta, nai ta nai ez, ni gelditzen naiz
mutill guztien atzian.

* * *

Bi bertso auk Jose Manterola
zanaren bilduman arkitu ditugu.
Eskuz idatzita daude.

Bertsoen azpian onela esaten
da: *S. Baroja. (Gaci-guezac.)*

Badakigu, beraz, nork jarriak
diran; eta ziur aski leenengoz
nun argitaratu ziran ere bai.

Epigrama bat osatzen dute
bertso auk. Gerraren kondaira-
rekin ez dute zer ikusirik. Orre-
gatik, alperrikako lana litzake
noizkoak diran somatu naia.

Orduko giroa ikusita-edo, ze-
lebrekeri edo jostagarri bat ber-
tsotan paratzeko gogoia egingo
zitzaien Barojari.



Iratxeko komentua, karlisten ospitala gerra-denboran.
(Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1874-XI)

Aresoarren banderaren bertsoaren donuan

1

Egun gogoangarriak
ditu Irungo erriak,
frantzestetikan gaurdaño zeinbait
gerrak ekarriak;
len txit matxura larriak
penaz biotz ilgarriak
izan baditu, orain gertatu
zaiozka berriak.

2

Urriaren amabian,
gurdi burnizko aundian,
karlistak sartu nairik ibilli
ziran Beobian;
bañan ziranean iyan,
oso estura larrian
arkitu ziran, mikeleteak
arturik erdian.

3

Suba zutenean ausi,
mikeletiak nagusi;
alako festik ez du oraindik
iñork bein ikusi;
zituzten txisme ta guzi
gurdia bidean utzi,
eta karlistak basauntzen gisa
joan ziran igasi.

4
Kañoia sutu zanean,
San Martzialko gañean,
ziran goizeko zazpi ordubak
asteazkenean,
azaroaren laubean,
Don Karlosen egunean;
geroztik gogor segitu zuten
kañoiak lanean.

5
Makiña bat kintal burni
bota diote Iruni,
kalte franko gertatu zaio
erri polit oni;
aitzindu bage iñori,
zenbait bonba da erori;
karlistak beti erlijioa
merke ta ugari.

6
Liberal da karlistari,
begiratu gabe nori,
ausi ta erre abiatu da
printzipe on ori;
pobrearen altxagarri
etzaigu txarra etorri;
basarritarrak obe diote
segitu jaun orri.

7
Biba Irungo erriya,
txit galdu ziñana iya;
zuri begira egonduba da
Europa guziya;
dezu meritu aundiya,
sonatzen zera asiya,
ematen zaizun fama guziya
dezu mereziya.

8

Illaren ogei ta bosta
zana odolezko festa;
nola igaro zan esatea
neretzako gaitz da;
gezurrikan bear ezta,
daukat gogoan nai ez da,
alde biari zenbat zitzaien
funtzioa kosta.

9

Karka fedearen alde,
iltzen koartelikan gabe
asi ziraden, ustez zirala
guztiaren jabe;
mikeleteari galde
ote dan bakar bat ere,
bueltan ekarri etzubenikan
fusillik debalde.

10

Gure Irungo erriak
ditu titulo aundiak,
antziñatikan bere semeak
irabaziak;
orain gañera berriak
ditu bidean jarriak,
onratutzeko erri leala
ondo mereziak,

11

Galduetako guziak
dirade gure anaiak,
motiborikan txikien gabe
armetan jarriak;
oek dirade egiak,
eta ez enbusteriak;
balio luke ezagutzea
bein nekazariak.

12

Orokietako jauna
or da igasi juana,
Irun aldean utzirik bere
onra eta fama;
ez baita zintzoarena
orrek asi duen lana,
ezin lurpean sarturik dabil
Euskal Erri dana.

* * *

Bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: bata, Jose Manterola zaren bilduman. Kanta-paper zar bat da; gerra-denborakoa, du darik gabe. Nun argitaratua dan ere adierazten du: *Donostiyan: - Juan Oses-en moldisteguiyan.*

Bestea, Chicagoko *New Library*-n. Onek moldiztegi izenik ez du.

Bi argitalpen ezberdiñak dira, beraz. Baiña bertsoetan alkarren artean aldaketarik ez dutenak, inprentaren utsegite bat edo beste izan ezik.

Biak izenburutzat or goien ezarri deguna dute: *Aresoarren banderaren bertsoaren donuan.* Baiña ori ez da berez izenburua, bertsoak zein doiñutan kantatu bear diran esatea baizik. Doiñu orrekin kantatzen dira, baita ere, Xenpelarren *Aizak, i, Manuel Mañontzi* bertsoak. Ori esanda, obeto ulertuko du, guk uste beintzat, gaurko bertsozaleak.

Kondaira-liburuetatik artu eta orain emango ditugun argibide-

ak, bertso-sail onentzako ez-ezik, urrengo beste bientzat ere balio dute.

Bertso auetan aitatzen dan azken burrukaldia, 1874-ko azaroaren 25-ekoa da. Manterolaren bildumako paper ortan, berriz, onela dago eskuz idatzita: *13 Enero 1875, 500 ejs.* Illabete ta erdiko tartea, beraz.

Gure iritzirako, auxe izango da: gauzak gertatu ondoren, bertsoak moldatzeak, inprentatzeak eta zabaltzeak bere denbora bearko zuala. Eta Manterolak papera eskuratzeko ere bai.

* * *

Bertso-sail au, eta bai urrengo beste biak ere, karlistak Irun artu nai izan zutenekoak dira. Au, liberalak jarria; urrena, karlistak; eta irugarrena, liberalak ostera ere.

Sail ontako bigarren eta irugarren bertsoak Beobian 1874-ko

urriaren 12-an gertatutako burrukaldia aitatzen dute.

Liberalak, Beobiako zubian, *fortín* bat zeukaten; gaztelu bat, alegia. Eta, bera zaintzeko, gizon-talde bat, mikelete eta karabine-roak.

Karlistak *carro blindado* bat prestatu zuten. *Gurdi burnizko aundia* esaten diote bertsoak. Baita esku-bonba, petroleo eta beste zenbait gauzaz ornitu ere.

Bigarren bertsoak dionez, urriaren 12-an jo zuten eraso. Gazteluaren inguruko etxeak artu zituzten. Burnizko gurdia gaztelutik ogei ta amar metroraño eraman ere bai; eta andik esku-bonbak, petroleoa eta abar botatzen zituzten gaztelura.

Barrukoak, ordea, zera batez oartu ziran: burnizko gurdiaren azpitik eramaleen oiñak agerian zirala. Orduan oiñetara tiraka asi ziran; eta karlistak gurdia bertan utzi eta iges egin bear izan zuten, zenbait mutil galdurik.

Orduan, inguruko etxeetatik petroleoa eta abar boteaz, gaztelua sutu nai izan zuten karlistak; eta barruko liberalak larri zebiltzan.

Baiña Irungo liberalen buru egiten zuanak, Juan Aranak, bere mendeko soldaduak atera eta karlistei eraso zien, erriko artilleriaren laguntzarekin. Karlisten leendabiko trintxera artu zuan; bigarren goa ezin, ordea.

Mikeleteak, berriz, fusil-muturretan baionetak zituztela eta

etsaien tiroei erantzun gabe, Irundik korrika abiatu eta kamioz Beobiraiño iritxi ziran.

Orduan ango karlistak

oso estura larrian
arkitu ziran, mikeleteak
arturik erdian.

Karlistak igesari eman zioten, burnizko gurdia eta abar mikele-teentzat utzita:

zituzten txisme ta guzi,
gurdia bidean utzi...

Orduan mikeleteak, karlistak ekarritako petroleo eta beste sugaiekin, gazteluaren inguruko etxeak erre zituzten.

Baiña karlistak etzuten etsi. Laster azaldu ziran berriz ere Irun aldean, eta burruka latzak gertatu ziran inguru aietan, azaroaren 4-tik 12-ra arte. Burruka oietzaz mintzatzen dira 4, 5, 6 eta 7-garren bertsoak

Illaren 4-an, San Karlos eguna ain zuzen, San Martzial menditik eta beste zenbait tokitatik, Irun kañoiez bonbardeatzen asi ziran karlistak.

Leenengo egunean, 1.340 granada bota omen zituzten. Illaren 10-ra arte, tira eta tira segi. Danetara, 4.500 granada. Irungo liberalak, ordaiñetan, 600. Orre-gatik dio bostgarren bertsoak:

Makiña bat kintal burni
bota diote Iruni...

Illaren 6-an, karlisten buruzagiak Don Karlosekin billera egin zuten, eta Irun *al asalto* artu be-

ar zala erabaki. Baita batalloien artean zotz egin ere, aurrena nork erasoko zion.

Baiña Irun barrukoak artean indartsu zeudela-ta, zenbait egunetan bonbardeoari jarraitu zioten.

Bitartean, La Serna liberal jenerala Errioxan zan, Cenicero-n, *la línea del Ebro* zeritzana zaintzen, karlistak Ebrotik aruntz pasa etzitezen.

Irungo bonbardeoaren berri, asi zan egun berean ikasi zuan; illaren 4-an, alegia. Ondoren eraso etorriko zala igerririk, Logroño, Miranda, Cenicero, Briviesca ta abarretatik aal zituan tropa guziak bildu, trenetan sartu eta Santanderra eraman zituan. Andik itxasoz Donostiara ekarri. Onera illaren 9-an iritxi ziran.

Karlistak beren frontea onela zeukaten: Buruntzako ermita, Urnietako gaiña, Goiburu, Fagollaga, Santiagomendi, Txoritokieta, San Markos, Oiartzun eta Lastaola. Eta bai Zamalbidetik Jaizkibeleraiño ere, liberalai Donostiatik Irunera gabe eusteko.

Liberalak, Donostiara iritxi ziran egun berean, 9-an alegia, Ernani, Pasaia, Lezo, Erretereri eta Astigarragan banatu ziran, eta karlistak nun eta nola zeuden ikuska ibili ere bai. Gauean, Erretererian bildu ziran.

Biaramonean, 10-ean, Cevallos jeneralak, karlisten buru egiten zuanak alegia, bere mendeko sol-

dadu guziei erne egoteko abisua pasa zien, eta bakoitzak bere tokiara ondo zaintzeko agindu ere bai.

Goizeko zortzietan, liberalak San Markos eta Txoritokietari eraso zieten. Saisetetik Zamalbidetartu zuten. Orduan, andik eta Txoritokieta azpitik, karlistak atzetik artu nai izan zituzten; baiña etzuten lortu.

San Markos eta Txoritokietako karlistak, bakoitzak zortzina etsai aurrean izan arren, iru ordu ta erdian zaindu zituzten beren lekuak. Baiña kartutxorik gabe gelditu eta alde egin bear izan zuten. Mikeleteak izan ziran gain oiek artu zituztenak, Felipe Dugiols buru zutela.

Urrengo egunean, 11-n, onela eraso zieten liberalak karlistei: Portilla jeneralak ezkerretik, Jaizkibel aldera; Loma jeneralak eskubitik, Oiartzunera; La Serna eta Blanco jeneralak erditik, Gaintxurizketara.

Karlista jeneralak, zabarkeriz-edo, gaztelurik eta trintxera itxurazkorik gabe utzia omen zuten Jaizkibel mendia. Ortaz gaiñera, egun artan laiñoa egokitu. Ala, karlistak oartu gabe, liberalak goraiño igo omen ziran.

Portilla jeneralak, Jaizkibel artuta, andik ego aldera jetxi zan, Gaintxurizketako karlistak atzetik arrapatuz. Orduan, auek alde egin bear izan zuten.

12-an, liberalak San Martzial mendia artu zuten, tirorik egin

gabe gaiñera, fusilla bizkarrean zutela.

Ibillaldi artan, La Serna-ren soldaduak eun bat baserri erre omen zituzten, Errenteriatik Bidasoa bitartean.

Denbora berean, liberalak eta karlistak alkar txikitzen ari zira-la, Endaiatik-eta frantzesak begira. Baita urruti samarretik etorrita ere. Gauza bera gertatu zan 1936-ko gerran. Zezenak barre-ratik ikustea askoren gustokoa izan da beti.

Karlistak gizon askorik ez omen zuten galdu. Baiña uste aundiak omen zituzten Irun artzera abiatu ziranean, eta utsegitte arek asko oztu zituan mutillak.

Ala ere, liberalak etziran garai-pen arretzaz geiegi baliatu. Etzuten aurrera jarraitu beintzat, Bera-Bidasoa artzera. Karlistak beren munizio-fabrika an baitzuten.

Egun ortan, izan ere, 12-an, oso eguraldi txarra egin omen zuan: Aiako Arrian elurra eta bee aldeetan euria. Biaramonean ere berdin.

Bitartean, gurdi guziak zaurituak ospitaletara eramateko artuak izan, eta liberal soldaduak jatekorik eta bear zutenik gabe gelditu.

Orduan, berriz ere Donostiara biltzeko agindua eman zuan La Serna jeneralak. Urrena Santanderra itxasoz; eta an trenetan sartu eta ostera leengo tokietara, *línea del Ebro* izenekoa zaintzera.

Baiña Irungo festa etzan orre-kin bukatu. Andik egun gutxira, illaren 25-ean, beste burrukaldi bat izan zan. Orretzaz mintzatzen dira zortzi eta bederatzigarren bertsoak.

Karlistak San Martzial berriro artu nai izan zuten. Orretarako, 24-ko gauean, ixilka etorri eta Lastaolan jarri ziran.

Biaramon goizean jo zuten eraso. Iru etxe eta liberalak egiten ari ziran gaztelu berri bat artu zituzten. San Martzialko ermitatik ogei ta amar metroraiño iritxi ere bai.

Baiña Irungo liberalen buru zanak, Juan Aranak, mikeleteak bialdu zituan, bi konpañia, Arnao buru zutela; eta, aiek etorritakoan, karlistak alde egin.

Baiña nork jakin, zortzigarren bertsoak dionez:

alde biari zenbat zitzaien
funtzioa kostat?

* * *

Irunen jaio eta Soraluze bizi izan zan Jerardo Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman, eskuz idatzita, sail ontako bi bertso arkitu genituan, 2 eta 5-garrena, baiña beste onela:

Agorren amabian,
burnizko karro batian,
karlistak sartu naian ibilli
ziran Beobian;
iya sartu ziranian,
estuasu gogorrian
arkitu ziran, mikeletiak
arturik erdian.

Makiña bat kintal burni
tira diote Iruni;
kaltia franko egin diote
erri polit oni;
zenbat bonba dan erori,
gure Jaungoikoa daki;
karlistak beti erlijiyua
merke ta ugari.

* * *

Getariako Julian Balentziagaren aotik beste bi bertso auek jaso genituan:

Makiña bat kintal burni
bota dizkate Iruni,
kaltia franko egin diote
erri txiki polit oni;
zenbat bonba dan erori
gaitzik ein gabe iñori;
karlista oriyen erlijiyua
merke ta ugari.

San Martzialko mendiyari
dira goguagarriyak,

karlista oriyek uste al zuten
giñala animaliyak,
gizon batzuek arrapatu ta
orla kentzeko biziya?
Oiek al dira erlijiosuak
dauzkaten kontzientziyak?

* * *

Aita Apalategiren paper batean bada zerbait bertso auetaz.

Leenengo, argibide au: "S. Martzial Irungo gañean dago. Beltzak zekaten ta karlostarrak artu nai izan zieten. Alperrik, ordea".

Ondoren, bertso-puska au:

Karlistak etorri dira
S. Martzial, bai, artzera;
kaka galtzetan egiñ eta
jun dira berriz etxera.

Azkenik, bertso auek kantatzeko doinuaren asiera. Ikus 37-garrena azken orrialdetan.

(1874-XI)

**Karlista batek jarriak
Irungo erretiraren gañean**

*Beltzak dabilta igasi,
orain karlistak nagusi,
gure mendean bearako dute
onezkeroz bizi.*

1

Bertsuak datoz Irundik
arrazoi gabe iñundik,
ateratzeko bildurrez daude
erronkaz barrendik;
Cevallos jua zan emendik,
beste bat bada oraindik,
jipoi ederrak artu biarko
Egañarengandik.

Beltzak dabilta...

2

Irunen sartzen asita
jua gñalako utzita,
burlaz bertsuak para dituzte
ori ikusita;
ez gaude gero etsita,
sarri da berriz bisita,
obe dezute obeditzia
txapela erantzita.

Beltzak dabilta...

3

Erronkaz daude itxian,
bañan denbora gutxian;
gaizki atera bearrak dira
karlisten artian;
badabiltza malizian,
enpeñoz al dan guzian,
alare gure mende bearko
beren bizian.

Beltzak dabiltza...

4

Erri itxiyak libratu,
orra nik egin mandatu,
ezpazaie nai barrenen ezer
deskalabratu;
beltzak nai dute guardatu
eta karlistak ondatu;
daukagun gaitza orrela ezin
diteke sendatu.

Beltzak dabiltza...

5

Karlos dabilela gaizki,
badute zenbait aitzeki,
beltzai gustua ondo egiten
ez die noski;
berak ez dabiltz obeki,
esango ditut poliki,
jakin nai duanak atentzioa
oraintxen eduki.

Beltzak dabiltz...

6

Erregiña zuten kendu
ta berak ezin konpondu,
urte batian batek agintzen
ezin iraun du;
relijio dana galdu,
al diran diruak bildu,
orrelakuak estututzian
iges egiten du.

Beltzak dabiltza...

7

“¡Viva libertad!” otsegin,
guk gutxirekin utsegin,
oien artean beti egoten
ezta atsegin;
mendekoari gaitz egin,
kulpa gabe preso egin,
nozitu eta orain bada nork
buruan atsegin.

Beltzak dabiltza...

8

Prim egon zan presidente,
Serrano're korriente,
ta Amadeo errege berriz
ura baliente;
republikakin bi urte,
noiznai mudatzen digute,
ta orain berriz Alfonso ori
biar omen dute.

Beltzak dabiltza...

9

Len biraldua ekarri,
zer dabiltzan nork igarri?
Ura kenduta ijitoren bat
naiko dute jarri;
nazioaren galgarri,
oso dabiltza elbarri,
modu onetan lan onik ezin
sekulan etorri.

Beltzak dabiltza...

10

Beltzetatik datorrena;,
fedearen atzepena,
ta relijio santua galtzen
katolikuena,
galera espagnolena,
interesen ondamera,
ostu eta il ta erretzia
gauzarik onena.

Beltzak dabiltza...

11

Karlos errege tokatzen
ez banaiz ekibokatzen,
ta berez ere orrelakorik
lan dute topatzen;
justoak ez du ukatzen,
beltz oiek dira nekatzen,
berak jarria ere oriek
dakite botatzen.

Beltzak dabiltza...

12

Beltz eta karlistak emen
kontrarioak alkarren,
ikusten degu españoletan
zeñen gaizki gauden;
gaiztoak kendu lenbailen,
Karlos errege Madriden,
santidadean eta pakean
bizitzeko, amen.

Beltzak dabiltza...

* * *

Aurreko saillaren ondoren,
karlistak beste sail au atera zu-
ten ordaiñetan: amabi bertso, li-
beralak ainbeste alegia, eta doi-
ñu berean.

Inprentatu ote ziran ez dakigu.
Tolosako Timoteo Adurriagaren
bilduman azaldu dira, eskuz
idatzita. Gero adieraziko degu-
nez, beste zenbait tokitan ere ar-
kitu ditugu, baiña inprentako
paperik inun ere ez.

Erarik osoena eta jatorrena
Adurriagarena da. Orregatik, be-
rari kopiatu diogu.

Kondaira-argibideak aurreko
saillaren ondoren eman baititu-
gu, orain ezer gutxi degu adierazi
bearra.

Leendabiziko bertsoan onela
esaten da:

Cevallos juan zan emendik,
beste bat bada oraindik...

Irunen utsegitea aundi sama-
rra izan zan karlistentzat. Beren
buru egiten zuana, Cevallos jene-
rala alegia, errudun egin nai izan

zuten batzuek. Berak orduan dimittitu egin zuan. Auzia ere egin zioten, baiña errugabetzat atera zan.

Bitartean, aren lekuan, *co-mandancia general de Guipúzcoa* izeneko karguan, beste jeneral bat jarri zuten: Domingo Egaña.

Leendabiziko bertso orrek berak onela bukatzen du:

jipoi ederrak artu biarko
Egañarengandik.

Arronka jotzea da ori noski; besterik ez. Baiña egun asko baiño leen egi-egia aterako zan. Abenduaren 7 eta 8-an, Urnietan burruka gogorra gertatu baitzan, eta karlistak nagusi gelditu. Gertaera onetzaz gero mintzatuko gera, bertsoak ere badira eta.

Zortzigarren bertsoak liberal gobernuen iraupen laburra salatzen du: Prim, Serrano, Amadeo erregea, errepublika... Eta onela bukatzen du:

ta orain berriz Alfonso ori
biar omen dute.

Alfonso XII erregea da ori. Alfonso Martinez Campos jeneralak ekarri zuan, bere soldaduekin Sagunton aren alde 1874-ko urteaz ar egunean altxa zanean.

Bertso aukeratuak Irunen azaroan gertatu ziran burrukaldiei buruz jarriak baitira, bertsolariak au-

rretik igerri zion liberalak errege berria ekartzeko asmotan zirala.

* * *

Bertso aukeratuak amaika, amabigarren ez beste danak, Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bilduman ere agertu dira, makinaz idatzitako orri batean.

Baita ere Oiartzungo Soraburu base-rrian eta Errenteriako Joakin Ganborena Zabalaren bilduman. Auek biak ere makinaz idatzita daude; eta, uste degunez, Elizetxearen orriaren kopiak dira. Alkarren artean ez baitute aldaketarik iru paper aukeratu. Baiña Tolosako Adurriagarekin bai makiña bat.

Leenengo, bertsoen ordena: 1, 2, 4, 10, 3, 7, 5, 8, 11, 9 eta 6-garrena. Eta, leen esan bezela, 12-garrena falta. Baita *estribillo* edo kantartea ere.

Ortaz gaiñera: 1/7: jipoi ederrak artzeko daude; 2/2: juan ziralako etsita; 2/3: burlaz bertsuak jarri dituzte; 3/1: Erronkaz daude etxian; 3/4: karlisten antzian; 3/8: dute beren bizian; 4/1: Erri etxia libratu; 4/3: baldin barrenan ez badezute; 4/4: nai deskalabratu; 4/8: liteke sendatu; 5/2: badauka zenbait aitzaiki; 5/3: beltzai gustua ongi egiten; 5/4: ez dakila noski; 5/6: aitu esan ditut noski; 5/7: atentziyua bear bezela; 6/3: urte batian agintzen batek; 7/3: oien artian egoten beti; 7/4: etziok atsegiñ; 7/5: kulpa gabe preso egiñ; 7/6: kulpa gabiak baitu miñ; 7/7: libratutzian zer egiñgo du; 9/1: Len bialiya ekarri; 9/6: oso gabiltza elbarri; 9/7: modu orretan lan onik eziñ; 9/8: liteke etorri; 10/2: fedian atzerapena; 11/3: ta beraz ere orrelakua.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, sail ontako bederatzia bertso azaldu dira: 1, 2, 3, 4, 6, 7, 8, 11 eta 12-garrena. Beraz, 5, 9 eta 10-garrena falta; eta kantartea ere bai.

Aldaketak: 1/4: erronka barrundik; 1/7: jipue ederra artu bearko due; 2/2: jua zeralako utzita; 3/1: Erronkaz dau de etxean; 3/2: baño denpora gutxian; 3/3: gaizki atera bear du; 3/4: karlisten ansian; 3/5: badabiltza in-alian; 3/7: ala ere gure mendian; 3/8: bearko due bizian; 4/3: ez bazaie barruan ezer; 4/7: orrela daukagun gaitza ezin; 4/8: liteke sendatu; 6/6: al diran diruak kendu; 6/7: olakuak estututzian; 7/3 eta 7/4 falta; 7/7: nazkatu eta orain bada; 7/8: buruari nork atzezin; 8/3: Amadeo errege berriz; 8/7: orain Alfonso ori; 11/3: eta berez orlakorik; 11/4: lan luke topa-

tzen; 12/3: ekusten degu españolak; 12/4: zein gaizki gauden; 12/6: Karlos errege Madrillen.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduma ortan, beste toki batean, sail ontako iru bertso agertu dira: 8, 9 eta 2-garrena.

Aldaketak: 2/3: irriz bertsuak jarri digute; 2/6: sarri dezue bisita; 8/1: Prim egon zan maipuruko; 8/2: Serrano ere regente; 8/6: noiznai mudantza digute; 8/7: eta orain berriz Alfontxo ori; 9/2: zer dabillen nork igarri?; 9/6: oso gabiltza egarri; 9/7: moduz onetan lan onik ezin; 9/8: ez dek izango atsegingarri.

Eta bertsoen ondoren onako oar au:
Recitado a Guerra por Cipriano Resusta.

(1874-XI)

Bertso Berriak

1

Orain bertso berriak
nua kantatzera,
ematiagatikan
nere aditzera;
karlistak jua ziran
Irunen sartzera,
aurrera biarrian
dijuaz atzera.

2

San Karlos eguna zan
siñalementian
karlistak asirikan
Irungo atakian,
sartuko ziralako
an derrepentian,
bañan oraindiokan
daude apartian.

3

Karlist oiek badatoz
txit konformatuta
Irunen bazkaltzeko
D. Karlos artuta;
kuziñari gaizoa
oso ernegatuta,
dadukan gisaruba
ezin moldatuta.

4

Ziudadeko partez
karlistak larrian,
ez dabilta oriyek
leku ederrian;
Karlos sartu nai dute
Madrilko lurrian,
eztaukate jarririk
biar dan legian.

5

Bost milla ta seireun
amasei dispare,
oiek artuta ere
Irun firme dago;
Arana nonbratzen da
ta koronel dago,
ez dator karlistarik
argana geiago.

6

Balientiak dira
duda gabekoak,
asaltuan sartzeko
txit dira pijuak;
zergatikan diraden
odol berokuak,
biba mikeletiak
probintziyakuak!

7

Zuek bazabiltzate
gau ta egun mendiyen,
sartutzeko asmuan
Irungo erriyan;
zerbaiten esperantzan
oraingo aldiyan
obe dezute egon
Aiako Arriyan.



8

Gustorik eztakate
nork beren erriyan,
eztago bentajarik
oien alderdiyan;
alkandorak zintzilik
galtzen ipurdiyan,
argatikan dabilta
beti pikardiyan.

9

Karlistak asi ziran
arrazoirik gabe,
egiteagatikan
Españiko jabe,
esperantza osuan
dudarikan gabe;
nork biraldu dituben
apaizari galde.

10

Zuek joan ziñaten
panparroiz mendira,
gingo zutelako
beltzak erretira;
gu presentatutzian
zuek urrutira,
etzait neri gustatzen
orlako partida.

11

Frantzesak dauzkate
parrez eta irriz,
buelatu ziralako
juan bezin zoriz;
San Martzial guztiya
bete zuten zorriz,
ez daukate utzirik
len ainbeste berriz.

12

Mendietan ematen
dezute itxusi,
zuek bezelakorik
ez degu ikusi;
segitu ezkeroztik
zuazte igesi,
askok alparjeta bat,
bestiak ankutsik.

13

Zer ote zan sartuba,
ai, zuen buruban,
orla mendira juaten
astuen moduban?
Orrenbeste tonto zanik
nik uste ez nuban,
amaika astok ogiya
jaten du munduban.

14

Orain askok diyote:
“Eraman ninduten!”
Ori esanaz dira
onera etortzen;
asko diradelako
atakian iltzen,
argatik ari dira
guregana biltzen.

15

Relijiyuan billa
juan ziradenak,
oiek eman dizkate
amaikari penak;
kunplitzeagatikan
oriyen ordenak,
txapel luze oriyek
ez dira onenak.

16

Galdez daude oraindik
dirurik dan iñon,
preparatziagatik
fusil edo kañon;
engañatu dituzte
makiña bat gizon,
baliatu badira
amen, kirieleison.

* * *

Amasei bertso aukeratuak Bonaparten bilduman azaldu dira, Chicagoko *New Library*-n, moldiztegi izena onela duan kanta-paper batean: *Donostiyan: - Juan Osesen moldisteguiyan.*

Egillearen izenik ez da iñun esaten.

Irungo burrukaldiari moldatutako bertsoak dira. Leen emandako argibideekin bertso aukeratuak ere errez ulertu ditezke.



Irungo burrukaldian, don Karlos San Martzial menditik begira.
(Enciclopedia Auñamendi.)

(1874-XI)

“Somorrostro gañian...”

1

Somorrostro gañian
gerra dute asi,
Don Karlos jenerala
batallako nausi;
beltzak aurrera eta(1)
txuriyak igesi,
balazo bat artuta
lurrera zan jausi.

2

Oien jeneral baten
abertientzia:
Urkiola gañian
trintxerangintzia;
ez daukanari ez eman,
daukanari kentzia,
orixe da paisanua
mendian artzia.

3

Bizkaian jarri dute
gubernadoria,
bateko denboran jartzeko
bandurria jotzallia;
bigarren diputadua
kinkalla saltzallia,
barkillerua probintziko
mutil batzallia.

4 Karlos buru aundiya
arturik aurrian,
markes zarra ardiyekin
aren ondorian;
sekula sartu ez balitz
ankaz Españian,
milloi batzuk ontzako baño
obe gendukian.

5 Karlos Madrilla sartzeko
biar ziran aztu,
jan da edan eginda
bizarrak orraztu;
karga fusillak eta
ezpata zorroztu,
biziyak aurrera ta
ildakuak aztu.

6 Probintzi baztar baten
erri bat da Irun,
orregatik ere zerbait
orain esan deigun;
atakatuagaitik
gauarekin egun,
an sartzeko karlistarik
ez dagola iñun.

7 Markesa ta Dorregaray,
irugarren Elio,
gerra au sostenitzeko
ez dezute balio;
guk naikua egin degu,
agur eta adio,
zuendako lana franko
badago oraindio.

Zazpi bertso auek Irunen jai
eta Plasentzian bizi eta il zan Je-
rardo Ezenarro *Urzelai* zanaren
bildumatik jasoak ditugu. Eskuz
idatzita daude.

Leenengo bertsoan Somorro-
stro aitutzen da. Leen ere esanik
daukagunez, Somorrostro ingu-
ruan burruka latzak jo ziran
1874-ko martxo eta apirillean;

dударик gabe, gerra artan izan ziran gogorrenak.

Leen ere esan degunez, burruka oietako batean, apirillaren 28-an, Karlos Andetxaga karlista jenerala il zan. Gordexolan jaioa zan 1803-ko martxoaren 21-ean. Leendabiziko gerratean ere karlistetan ibilia, eta bigarren goan Bizkaiko karlista guzien buru egin zuana. Il zanean, aren soldaduak negarra zerioten. Beraren aitamena ere leenengo bertso ortan egiten da.

Gerra artan, karlistak diputaduak eta agintariak izendatu zituzten beren mendeko probintzietan. Kargudun oiei parra egiten die irugarren bertsoak.

Laugarrenean, *markes zarra* aitatzten da. *Marqués de Valdespina* zan ori. Leen ere esan degunez, *Juan Nepomuceno de Orbe* zeritzan. Ermuan jaioa zan, 1819 urtean. Leenengo gerratean, amalau urterekin joan zan karlistetara. Bigarren goan kargu aundiak izan zituan. *Comandante general de Vizcaya* ere izan zan. Bost aldiz zauritu zuten. Gerra ondorenean, Ermuko bere jauregian bizi izan zan, eta bertan il, 1891-ko apirillaren 12-an.

Seigarren bertsoan, Irungo erria aitatzten da. Aalegiña saiatu arren, karlistak an sartzeko gauza izan ez dirala esaten da. Dakigunez, Irungo eraso 1874-ko azaroaren 4-an asi zan, eta andik zortzi egunera, 12-an, bukatu.


Somorrostrokoa eta Irungo au beste gertaerarik ez da bertso auetan aitatzten. Oiek biak 1874 urtekoak dira. Urte beraren bukaerakoak-edo izango dira, beraz, gure iritzirako beintzat, bertso auek.

Zazpigarren bertsoak, karlisten beste bi jeneral aitatzten ditu beste zenbait bertsoan ere azaldu diranak: Dorregaray eta Elio.

Antonio Dorregaray Dominguera jaunaren aitamenak leen ere egin ditugula uste det: Ceutan jaio zan, 1823-ko uztaillaren 11-n. Leenengo gerratean ere ibili zan, amairu urterekin karlistetara joanda. Bigarren goan, *capitán general de las provincias vasconavaras* izan zan. Gero, 1874-ko bukaeran, *general jefe del ejército del centro* izendatu zuten; Aragoi eta Balentzia aldekoa alegia. An go gerra bukatuta, Frantziara alde egin zuan, eta bertan il.

Joakin Elio Ezpeleta, berriz, Iruñen jaio zan, 1806-ko abuztuaren 17-an. Leenengo karlista gerratean *brigadier* izateraiño iritxi zan. Bigarren goan, berriz, goieneko karguak izan zituan. Baiña, gerra bukatu baiño leen, danak utzi eta erretiratu egin zan. Frantzian il zan, Paben, 1876-ko ilbeltzaren 26-an.

(1) Esku-idatziak: *beltzak arran eta*.



Kastor Andetxaga jeneral karlista, (1803-1874). (Enciclopedia Auñamendi.)

(1874-XII)

**“Euskal Errian galdu da
makiña bat jente...”**

1

.....
dala mediante,
Euskal Errian galdu da
makiña bat jente:
gerra atera eban baño
eziñ emon frente,
sikira bota balebe
ola derrepente.

2

Karlista arrok dirade
gizonak bastuak,
orren alde jaiki dira
euskaldun astuak;
gerrâ eruan mutillok,
etxian gastuak,
etorrita emen daukautz
egunak estuak.

3

Gipuzkuan baztartxu baten
erritxu bat Irun,
ia orren gaiñian
zerbait esan deigun;
alperrikan atakau
Irun gau ta egun,
an sartzeko karlistarik
ezta jaio iñun.

4
Deskuidu baten karlistak
artu balebe Irun,
kanpairikan osorik
etzan geatuko inun;
lan argi aldi bat izan degu,
oraiñ gagoz illun,
indar geiagon kontra
asko oi.....

5
Markes zarra ta Dorregaray,
irugarren Elio,
gerra au irabazteko
ez dabe balio;
guk naikua egin dogu,
agur edo adio,
biarrak jende orrentzat
badagoz oindio.

6
Madrillera juateko
ein biou garraztu,
ez jan d'edan eginda
bizarrok orraztu;
karga fusillok eta
ezpatak zorroztu,
biziak aurrera ta
ildakuak aztu.

7
Mozkorrak eta lapurrak
danak alkarrekin,
lapurretan eiñ deuskue
Euskal Erriakin,
.....
.....
.....
.....

8

Berrizko seme bat dogu
Frantzisko Zengotita,
governadore militar
Markiñen jarrita;
jan d'edan sendo egin
iñok ekarrita,
adiskide izan bear da
Doña Margarita.

9

Berrizko jeneral orren
abertientzia:
Urkiolako mendian
trintxeragintzia;
eztaukanari emon ez,
daukanai kentzia,
auxen da euskaldun jendea
azpian artzia.

10

Markiñeko Zabalak
irten dau mendira,
pauso ori narrastuta
jatxi da errira;
lengo jai goiz batian
jarri naiz begira,
gizonak errenditzeko
andrak onak dira.

11

Agure begi txiki
Markiñeko Txirten,
etxian zer janik ez ta
komandante urten;
amaika andrari negar
erain diok aurten,
.....
.....

12

Iturri ta Monioz
gure nagusiak,
arto pixkat jan ezinda
askok ikusiak;
komandante izateko
gizon itxusiak,
orrei be justizi eingo'utsek
goiko nagusiak.

13

Gerra baten gaiñian
nai neuke itzegin,
zuzen goiazen.....
igual utsegin;

.....
.....
.....
.....

14

Somorrostroko gaiñian
gerra jakun asi,
Don Kastor Andetxaga
karlisten nagusi;
balazo bat artu eta
lurrera zan jausi,
baltzak jarraian eta
karlistak igasi,
onela gerrarikan
ezin irabazi.

* * *

Sail onek zer ikusirik badu au-
rrekoarekin: bertso asko errepika-
tuak, aldaketa askorekin bada ere.

Juan San Martin adiskideak,
1885 urtean Markina-Etxebarrian
jaio eta Eibarren bizi zan Joakin

Olañetari magnetofonoz jasotako
bertsoak dira. Jaun orri *Ertzil* esa-
ten omen zioten izengoitiz.

Itz batzuk magnetofonoz en-
tzun eta ez ditugu ulertzen. Ola-
koak puntuz idatzita daude.

Bertso auek ez dira danak, gu-re iritzirako, sail berekoak; sail askotakoak baizik.

Gertaera berririk ez da sail on-tan azaltzen. Orregatik, aurretik eman ditugun argibideak naiko-ak dira bertso auek ere ondo ulertzeko.

Izen berri batzuk, bai, aitatzen dira: Berrizko Frantzisko Zengo-tita, Markiñeko Zabala eta Txir-ten, Iturri eta Munioz. Beren errietan bai, bearbada; baiña an-dik kanpora ez det uste ots aun-dikorik izan ziranik gizon oiek. Orregatik, ez gera liburuetan ba-tere saiatu ere egin, aien berririk ikastearren.

* * *

Beste bertso bat ere eman zion Joakin Olañeta *Ertzil* orrek San Martin adiskideari, baiña aurre-tik adierazpen txiki bat egiñez:

—Bitorio emen egoan fraile txikitxu bat. Amarrenak kobra-tzen zortzitik geiago... *al sosteni-miento de la Iglesia*. Mutikoak-eta arriak-eta botatzen eutsa-zan.

—Eibartarra?

—Emen bizi zana beintzat bai.

—Karlisten garaian?

—Bai. Ta Murgitondoko abade egoan, Barrenkalian bizi zan bes-te bat, Plazentzian jaioa: Murgi-tondo Motza.

—Murgitondo Motza, txikia za-lako ala zatarra zalako?

—Zatarra; lodia ta zatarra.

Bitorio fraile txikia ta Murgitondo Motza, zortzitik bat eskatzen eztirala lotsa; eurentzat edari onak, geuretzat ur otza, arria baño gogorraua da karlisten biotza.



Somorrostroko burrukan, ildakoak lurperatzeko alkarrizketan.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduri-ren artxiboa.)

(1874-XII-8)

Bertso Berriak

1

Milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtean,
Ama Birjiña Konzepzioko
zan señaladamentean;(1)
zer pasatu dan esango ditut
beltz ta karlisten artean,
Donostiatik abiatuta
Anduaña bitartean.

2

Ernani ortan egin dituzte
beltz oiek juntamentuak,
karlistak sarri menderatzeko
zituzten tratamentuak;
aurrera samar paseak naski
buruzko pensamentuak,
bañan atzean gelditu zaizte
obrazko pulamentuak.

3

Leku danetan gelditu ziran
beltz jende oien ondarrak,
txit penatuak zeuzkan lenago
isillik egon bearrak;
egun oietan azi zitzaizten
mingañetako indarrak,
sustrai gaiztoak edozein garaiz
ematen ditu adarrak.

4

Beltz kasta oiek guziak zeuden
arrotu eta jarriak,
itzez aietan nonbraturikan
aiuntamentu berriak,
oien mendean gobernatzeko
beren gustora erriak;
buruz aurrera, ankak atzera
dabiltza parragarriak.

5

Tropak zabaldu azi nai beltzak
diru asko aginduta,
ordaindutzeko geiagorekiñ
gero karlistai kenduta;
gisadu ori etzedukaten
ustez gaizki konponduta,
tripako miñak aundiak oraiñ
ori eziñ logratuta.

6

Donostiatik asi ziraden
artan umore onean,
kanpanak joaz Anduaindaño
lenbiziko egunean;
an lo eginda Tolosaraño
gero biaramonean,
probintzi dana konkistatzeko
gerozti nai duenean.

7

Asmo oietan asi zitezten
beltzan tropa al zan danak,
ta Urnietan karlistak topo,
an izandu ziran lanak;
asko ill eta franko eritu,
iges egiñ al zuanak,(2)
zer kontatua badadukea
bizirik jua ziranak.

8

Biba Egaña, jeneral ona
euskaldunen arterako,
jendea ondo ideatzen du
atakean asterako;
jefe onari mutil flojoa
nekez zaio aterako,
are animo geiago dauka
orain beste baterako.

9

Premia ere bazegoan da
orra jenerala ona,
merezi du ta eman daiogun
onra, fama eta sona;
azioetan ezagutzen da
nolakoa dan gizona,
bildurrez eta ikaran dago
kontra jua bear zaiona.

10

Biba Mogrovejo Egañarekiñ,
biba Karlos da mutillak,
a cuchillo jua aurrera eta
an izan ziran naspillak;
atake ortan ikusi dira
karlistak batek bost illak,
kinto txarrai konpondu zaizte
baionetakiñ kostillak.

11

Beltz jende oiek ugari ziran
mendi guziak betean,
goizetik arro noranai juango
ziradelako ustean;
gero igasi ibilli bear,
asko izana kaltean,
kinto jendeak eztu balio
euskaldunaren artean.

12 Loma jaun ori agintzen zuten,
ura txit grabe eritu,
aiudantea eta soldadu
asko illda ta gelditu;
ikaratu ta igasi asi,
karlistak berriz segitu,
modu artako gizon illtzerik
ezta iñun suzeditu.

13 Alegiñean gizonak illtzen
moduak dira ikusi,
tiroaz franko botatzen ziran,
asko baionetaz josi;
ezpalirade arropak eta
koartoak kentzen asi,
Donostiraño grano bat ere
etzan juango igasi.

14 Modu batera penagarriak
onelako desgraziak,
lur estalia mutill illakiñ,
amak neketan aziak;
gaizto batzuen pikardiatik
etorri dira guziak,
ill al balitez lau aldiz ere
or badira mereziak.

15 Donostiako beltzak kapoiak
jan nai Eguarrietan,
ez ona gutxi, irureun pare,
etzan txokarreririkan;
bañan etzaie aien ezurrik
jarriko eztarrietan,
gero jakin da karlistak kendu
an dabilzela dietan.

- 16 Ostentazio orra beltzena:
kapoia jan nai lukea;
bestetatikan eraman bear,
lanik asko dadukea;
kinto oriek arbia ere
pozikan al balukea,
bai ortzetako miñagatikan
nai aña baledukea.
- 17 Biba Egaña, txit fiña dala
jendea da oartua,
karlista oraiñ argati dago
bere grandeza artua;
ikara berriz beltz guzietan
ezurretara sartua,
modu askotan degu bentaja
gizon ori agertua.
- 18 Ea, Egaña, onelaxe fiñ
guziok saia gaitean,
Jaungoiko ona fabore degu
eta arekiñ batean;
Karlos septimo jarri dezagun
al dan lenena Kortean,
deskansurikan ezta izango
ori logratu artean.
- 19 Sujetatzea ezta komeni
beltz oien Gobiernoan,
ez dute beti ibilli bear
drogan eta trastornuan;
Karlos errege jarriko degu
Españiako reinuan,
an egongo da danoi agintzen
tokatzen zaion tronoan.

Istribillo

Era, era, Tolosa aldera,
Loma, bizirik
sartuko etzera.

* * *

Bertso auek, 1874-eko abenduaren 7 eta 8-an karlistak Urnietan lortu zuten garaipena kontatzen digute.

Bertso-papera, garai artakoa, Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman arkitu genduan.

Aita Jose Inazio Aranaren bilduman ere agertu dira. Bertso-paper berdiña da.

Ez da egillearen izenik esaten; ezta moldiztegiarenik ere.

Burrukaldi orren txeeetasunak ikasteko, bi kondaira liburu irakurri ditugu: bata, liberal batena, Antonio Pirala: *Anales de la guerra civil (Madrid, 1906)*; eta bestea, karlista batena, Román Oyarzun: *La historia del carlismo*. Bada aldea batetik bestera.

Ona Pirala-k diona:

“...se desocuparon muchos caseríos inmediatos a San Sebastián, aprestándose sus habitantes a marchar al monte, sin esperar algunos a las fuerzas liberales que salieron de aquella ciudad en la mañana del 7 de Diciembre guiadas por los generales Loma y Blanco, marchando hacia Hernani. Envió Egaña a Aizpúrua para que les hiciera frente; peleóse con bravura; se hizo uso del arma blanca; re-

*basaron a Urnieta los liberales, pero re-
forzados sus enemigos, tuvieron que re-
troceder hasta Hernani con algunas pér-
didas, dejando en poder de los carlistas
38 prisioneros.*

Bien supuso Egaña que ni Loma ni Blanco podían dejar impune la anterior retirada de sus fuerzas avanzadas después del combate que sostuvieron en los campos de Urnieta, y allegó más carlistas, teniendo sobrado tiempo, pues hasta el medio día del 8 no salieron los liberales de Hernani, en tres columnas, la de la izquierda sobre Goiburu y Pagollaga, la de la derecha hacia el monte Burunza, y la del centro por la carretera a Urnieta. A todas hizo frente el carlista; acudió desde Villabona a tomar parte en el bregar don Antonio Díez de Mogrovejo, y se peleó hasta con encarnizamiento, sucediéndose las cargas a la bayoneta, batiéndose la mayor parte de los carlistas a pecho descubierto y bajo los fuegos de Santa Bárbara.

El mismo ardimiento al empezar el combate demostró que se necesitaba armonizarlo con la prudencia. Sin dar tiempo a que las alas efectuaran su movimiento de avance envolvente, se adelantó el centro trabando combate los soldados de Huesca y Luchana; observa el enemigo que el fuego de los costados aún no podía ofenderle; sale de sus trincheras, car-

ga sobre el centro, retroceden algo los soldados bisoños, se arremolinan, se esfuerzan los jefes por impedir la confusión, son heridos, lo es Loma, le reemplaza Blanco; Murcia y Puerto Rico restablecen en buenas condiciones el combate, experimentan los carlistas sensibles bajas, es también herido su general Mogrovejo y el resultado de aquellas acciones fue ensangrentar dos días los campos de Urnieta, quedándose al frente de ellos contemplándose ambos combatientes, y obligando el recio temporal que reinaba a regresar los liberales a San Sebastián.

Las bajas de éstos y de los carlistas excedieron de 600 entre muertos y heridos...

Eta ona Román Oyarzun-ek zer dion:

“El día 7 ordenó Loma al general Blanco que atacase al centro de la línea carlista con 3.000 hombres, pero Aizpúrua le hizo frente con el 4º y el 7º de Guipúzcoa, y al recibir el refuerzo del 1º, que condujo a la línea de fuego el mismo Egaña en persona, los tres batallones dieron una furiosa carga a la bayoneta, haciendo al enemigo más de cien muertos y cogiéndole prisioneros. A pesar de que este tanteo fue desgraciado, el día 8 emprendió Loma la ofensiva con 12.000 hombres, divididos en tres columnas, una contra Fagollaga, otra contra Burunza y la tercera contra Urnieta. Los batallones guipuzcoanos, a los que se sumó el de Guías del Rey, se batieron heroicamente en esta acción y derrotaron completamente a las divisiones de Loma; éste fue herido de un balazo, así como también el general carlista don Antonio Díez Mogrovejo, que condujo a la acción al batallón de Guías. Las tro-

pas de Loma tuvieron gran número de bajas y se retiraron al abrigo de los fuertes”.

La Fita izeneko aldizkari batean —egunik ez dakigu— idazlan bat agertu zan izenburu onekin: *El General Domingo Egaña y la acción de Urnieta*, eta firma onekin: *El Barón de Montevilla*.

Leenengo, sail ontako zazpi bertso eskeintzen ditu. Bertso oiek zein diran eta zer aldaketa dituzten gero esango degu. Baiña urrena burrukaldi oni buruzko argibide jakingarri auek ematen ditu:

“Nombrado Comandante General de Guipúzcoa el septuagenario y desgraciado Brigadier D. Domingo de Egaña, veterano de la primera guerra civil, y teniendo como contrincante en el mismo territorio al general Loma, de quien se dijo que tenía el instinto de la acometividad, era de esperar vinieran pronto a las manos carlistas y liberales.

El Marqués de Valde-Espina, testigo y actor de estos sucesos, los ha descrito con lujoso derroche de pormenores en la ilustración carlista El Estandarte Real. Como lo que relata no desmiente los hechos generales, antes bien los realza con detalles poco conocidos, le seguiremos paso a paso resumiendo cuanto dice:

‘Los liberales de San Sebastián que soñaban en rescatar la provincia de la dominación carlista, ya valiéndose de las exhortaciones y consejos, ya por el imperio de las bayonetas, recibieron con plácemes el nombramiento (por cuarta vez) de Loma para dirigir las operaciones en la provincia. Puso este general, sin pérdida de tiempo, manos a la obra, emprendien-

do, el 7 de Diciembre, un movimiento para reconocer las posiciones ocupadas por los carlistas. Esperáronle estos bien parapetados y prevenidos en las trincheras de Goiburu y Fagollaga, Monte Espino y Urnieta. Los liberales atacaron con decisión el centro (Urnieta) llamando la atención de sus enemigos a la vez, por sus alas. El avance fue rápido, debido a que los carlistas les dejaron llegar hasta la misma población para ofenderles mejor, y cuando los soldados de Huesca y Luchana intentaron rebasar las casas, cargaron vigorosamente a la bayoneta, rechazándolos en desorden'.

Dice a este propósito Valde-Espina, haciendo justicia a la bravura de Loma y sus huestes, que los carlistas salieron victoriosos en la primera fase de la batalla, porque Loma no empleó todas las fuerzas que tenía, creyendo sin duda no encontrar tan seria resistencia, pues de emplearlas todas en la acometida, no hubieran podido vencer los carlistas a tantos enemigos.

Repitió el ataque con más furia por el mismo punto al día siguiente, convirtiéndose el combate en una carnicería, pues, si enérgico fue el ataque, no lo fue menos la defensa y las cargas carlistas; acudió Loma a detener a los suyos que huían a la desbandada y colocándose en las primeras filas, arengó a los amedrentados soldados: 'Todos los carlistas que ahí están -les dijo- no llegan a tres mil hombres; lo sé muy bien. Es una vergüenza que con doce mil hombres no podamos contra ellos'. Cuando los voluntarios guipuzcoanos vieron al jefe liberal a caballo, se excitaban mutuamente a afinar la puntería diciendo en su lengua: 'Zaldizkoari! Zaldizkoari!' -al del caballo, al del caballo- y

hacia él dirigieron con preferencia sus disparos, hasta que al poco le vieron caer, retirándose apresuradamente a Hernani, sucediéndole en el mando el brigadier Blanco, que reanudó el ataque sin éxito, pues arrollado por los carlistas, se retiró también al anochecer a Hernani y poco después a San Sebastián.

Las bajas fueron sangrientas por ambas partes, siendo heridos Loma y Díaz Morgrovejo.

Por la victoria de Urnieta, se enardecieron los ánimos de los voluntarios, deprimidos por los fracasos recientes de Irún y San Marcial, y la posesión de Tolsa quedó para ellos, por mucho tiempo asegurada".

* * *

Leen aitatutako Manuel Urreta jaun orrek berak bialdu zigun beste paper batean, sail ontako sei bertso azaldu dira, makinaz idatzita: 8, 1, 15, 10, 14 eta 17-garrena.

Aldaketak: 1/3: Ama Birjiña Konzeziño; 1/5: zer gertatu zan esan bear det; 8/3: jendia ondo preparatzen du; 8/5: jefe onari mutilla alper; 8/7: arek animo geiago dauko; 10/1 eta 2: falta; 10/4: au ziran naspillak; 10/7: kinto oieri konpondu zaie; 14/1: Modu batera penagarria; 14/2: onelako desgrazia; 14/3: lur estalian mutill illakin; 14/7: ill al balitza lau aldiz ere; 17/2: jendia dago aditua; 17/3: karlista oraiñ argatik dago; 17/4: bere anditasun artua; 17/7: modu askotan degu obari.

* * *

Domenjón G. de Andía izenordeaz firmatzen duan batek, sail ontako iru bertso, 2, 11 eta 8-garrena, argitaratu zituan egunkari batean, 1952-XII-7-an. Urreta jaunak bialdu zizkigun egunkari-punta batean. Zein egunkari dan ez da esaten, baiña *El pensamiento navarro* dala uste degu.

Gure iritzirako, izenorde orren atzean izkutatzen dana, Manuel Urreta bera da.

Iru bertso oiek oso aldatuta daude, euskera *garbitzearren* noski, beti bezela. Orregatik, ez du merezi aldaketa oiek aitatzen jardutea.

Baiña bertso-paperak ez dituan beste bi bertso ere baditu:

Ara nolako buru-austiak
artuak beltzak Ernaniñ,
txirtxillatzeko karlista denak
bazekitela zer egin...
Orrela ziran Donostitikan
atera soñuarekin,
goizetik arro, estu ta larri
gero mingaiñ ixillakin.

Republikakin ez gera ezkontzen
antziñ-euskaldun zaliak,
errege-zaletasuna galduz
etortzen dira kaltiak...
Bidezko degu Karlos guretzat,
jargoira iriki atiak,
dizkigulako zintzo gordeko
maite ditugun legiak.

Bi bertso oiek ez du ematen bertsolari jator baten lana diranik. Bearbada, Urretak berak moldatuak dira, bertso-gintzan gustatzen zitzaiona baitzan.

Istribilloa ere badakar, baiña beste onela:

Ua, Loma,
Tolosa artzera,
gaizki irtenik
beste aldera.

Bertsoen atzetik, berriz, argibide jaingarri au ematen zaigu:

“De la veintena de estrofas del gran versolari guipuzcoano Imaz de Alzo, que fue uno de los famosos cronistas de nuestras cruzadas carlistas...”.

Ditekenà da ori. Are geiago, baietz esango genduke guk ere, bertso auen egiturari eta izkerari begiratuta. Baiña, zoritxarrez, ez du Urretak esaten berri ori nundik atera duan.

Eta doiñua ere badakar, gaur egunean *Basatxoritxu*-arena esanda ezagutzen dana. Ez dakigu bertso auek doiñu orrekin kantatzen ziran, ala Urretak erantsitakoa dan.

Dana dala, ikus 38-garren doiñua, azken orrialdeetan.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, sail ontako zazpi bertso azaldu dira; baiña Urretarenean makinaz idatzitako orri ortan daudenak dira, eta aita-terik merezi duan aldaketarik gabe.

Bertsoen atzetik onela esaten da: *A Don Juan Carlos Guerra, de Mondragón, se lo recitó Ceferino Múgica, (a) Abeletxe, sacristán de San Prudencio.*

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduma ortan bertan, sail ontako bi bertso arkitu

ditugu, 1 eta 10-garrena; baiña auek ere aitatzetik merezi duan aldaketarik gabe.

Ondoren onela esaten da: *A los pocos días de la acción se oía cantar estos bertos en casi todas las avanzadas sobre Hernani y San Sebastián y en la sidrerías de Andoain y demás pueblos cercanos a los ocupados por los liberales.*

Solamente recuerdo de los dos que de-jo copiados; pero me parece que eran diez.

Eta *Segundo Pikabea* deritzan batek firmatzen du.

* * *

Leen aitaturako *La Fita* aldizkarian, *Barón de Montevilla*-ren *El general Domingo Egaña y la acción de Urnieta* idazlanean, sail ortako sei bertso agertu dira: 8, 1, 15, 10, 14 eta 17-garrena, Tolosako Manuel Urretak bialdutako paperean daudenak alegia, aldaketa berdiñekin.

* * *

Martuteneko Goiatz-erribera baserriko Pedro Almandoz jaunaren aotik, sail ortako amaika bertso jaso genituan: 1, 15, 4, 6, 7, 10, 13, 14, 8, 17 eta 19-garrena.

Aldaketak: 1/5: zer pasatu dan esan biar det; 1/7: Donostiatik atera eta; 4/1: Beltz jende oiek guztiak zeuden; 4/3: beren ustetan nonbraturikan; 4/5: gero aiekin gobernatzeko; 4/7: buruz aurrera anka sartzera; 4/8: dabiltzan parragarriak; 6/1: Donostiatik atera zi-

ran; 6/2: guztiz umore onian; 6/8: andikan nai zutenian; 7/1: Modu orretan atera ziran; 7/2: beltzen tropak al zan danak; 7/7: zer kontatua izango dute; 7/8: biziarekin diranak; 10/7: kinto txarrari konpondu dizte; 13/3: tiruaz franko botatzen zuten; 13/5: ez balirade kuartuak eta; 13/6: arropak kendutzen asi; 13/7: grano bat ere Donostiraño; 14/1: Alde batera penagarriak; 14/3: lurra ezarri mutil illakin; 15/4: ez da txorakerietan; 15/8: ortxen dabilta dietan; 17/5: ikara berriz beltz orietan; 17/7: modu askotara degu bentaja; 19/1-4: falta; 19/5: Karlos errege jarri dezagun.

* * *

Aita Apalategiren paperetan beste iru bertso agertu dira, ziur aski Urnieta burrukaldi onekin uztartuta daudenak:

Azkonabitako balkoiean
mez(a) eman zigun apaizak,
eta guk txapelak erantzita
entzun genduen mutillak.
Meza entzuketan ari giñala
formaturik batalloiak,
Santa Barbarak bota zizkigun
lendabiziko granadak.

Iya bi urte laxter ditugu
etxetik irten giñala,
geroztikan ona entzunak ditugu
txistuka amaika bala.
Gure etsaiak ortxe zioztik
Donosti ortan sartuta,
probintzi dana ezker-eskui
gure mendean degula.

Tolosa ta Goiarriko beltzak
Lomarekin or zetoztik,
Egoarriak beren etxeetan
ongi izateko usterik.
Beren maizterrai ez dezatela
errenta artzeko larririk,
negu ontako kapoi guziyak
D. Karlosek jango dizkik.

Ortaz gaiñera, *estribillo* edo kantartea
ere bai:

Era, era,
Tolosa aldera;
Loma, bizirik
sartuko etzera.

Beste onela ere bai:

Era, era,
Tolosa aldera,
maizterrari
kapoiak artzera.

Eta kantarte au kantatzeko, ikus 39-
garren doiñua, azken orrialdeetan.

-
- (1) Bertso-paperak: *señalamentean*.
(2) Bertso-paperak: *zuenak*.



Urnietako burrukaldia, 1874-XII-7 eta 8-an. (Enciclopedia Auñamendi.)

El rey grande y el niño
(Soneto de un éuskaro frente a Lácar)

*El uno es liberal, ciego instrumento
de sectas y partidos moderados,
hipócritas, masones, resellados,
príncipe incauto, joven macilento.*

*Rey de un usurpador pronunciamiento,
pantalla de ambiciones y malvados;
el otro, de españoles muy honrados
rey legítimo y padre; en fe un portento.*

*Contra huestes impías del abismo,
cual Fernando o cual ínclito Pelayo,
terror del infernal liberalismo;*

*en valor, sin igual; de guerra el rayo.
¡Abajo pues el niño, y sólo mande
en la España católica el rey grande!*

Febr. 1875.

* * *

Errege aundiya ta txikiya (Euskaldun baten amalaukoa Lakar aurrean)

Oraindik ere bazatozkigu,
liberal txarren aldera?
Beltz amorratu guzien poza
ta itxoromena zu zera.
Andizki gaxo, mutill gaztea,
zoaz amaren maalera...
Errege aundi egiyazkua
dabill gurekin batera.
Errelijio egiyazkua
bakarra da nai deguna;
onen aldeko errege andi
gure betiko laguna.
Bizi dedilla errege aundiya,
Españako Aita kutuna!

Otsaillan, 1875.

* * *

Bi *soneto* edo amalauko auek Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude, eta egillearen izenik ez dute.

Bata bestearen itzulpena dira, baiña askatasun aundiarekin egindakoa. Erderazkoaren izenburuan onela esaten da: *Traducción libre*. Baiña ez det uste itzulpena erderazko ori danik, euskerazkoa baizik.

Errege aundia eta txikia alkarren parean jartzen dira emen.

Esan bearrik ez dago, aundia Don Karlos dala, 1848 urtean jaioa, gizon altu eta bikaiña,

amalauko au egin zanean ogei ta zazpi urte zituana.

Txikia, berriz, Alfonso XII zan, leen esan bezela, Martínez Campos jeneralak errege-aulkira altxa zuana, Sagunto-n, 1874-eko abenduaren 28-an, bere soldaduekin armetan altxatuta.

Don Karlos baiño bederatzi urtez gazteagoa zan, 1857-ko azaroaren 28-an jaioa zanez.

Bertsoen ondoren 1875-eko otsailla eta Lakar aitutzen dira.

Lizarra inguruko Lakar errian, izan ere, 1875-eko otsaillaren 3-an, burrukaldi gogor bat izan zuten liberalak eta karlistak, eta

auék garaipen aundia lortu. An
omen ziran Don Karlos eta Don
Alfonso, errege aundia eta txikia
alegia. Are geiago: onek ozta-ozta
iges egin omen zuan. Ortik erde-
razko kanta au:

*En Lácar, chiquillo,
te viste en un tris;
si don Carlos
te da con la bota,
como una pelota
te planta en Paris.*



Alfonso XII. (Marqués de Lozoya: Historia de España, Tomo VI, Salvat, Barcelona, 1970.)

(1875-III-11)

Bertso Berriak

1

Enkargu asko dirade oraiñ
ipiñitzeko bertsoak,
engañatutzen nola dabiltzan
piñ idurian palsoak;
igarri arte oiek zeñ diran
dirade peligrosoak,
Cabrera-rekin gertatu dira
oraiñ alako kasoak.

2

Cabrera jauna karlista dala
sartu naiean gugana,
zelebratzeko asmoarekiñ
Maroto-k egiñ zuana;
bañan ikasi diotenean
biotz palsoa duana,
logratu bage gelditu zaio
egitera zijoana.

3

Bapo, Cabrera, bazijoazen
gure D. Karlos saltzera,
bai beste gauza geiagorekiñ
beltzai entregatutzera;
modu onetan onezkerozti
baliatuko etzera,
Judas bezela ibilli bage
egon zaitea atzera.

4

Estudiatzen dabilta asko
Judasen jakiñdurian,
beti palsian ibillitzeko
piñezaren idurian;
sekreto oiek deskubrituak
jarri dira agirian,
eta gaiztoak beti dabilta
kristau onan inbirian.

5

Cabrera ori gerreroa zan,
gaztetan ondo azia,
etsaiak lotu buruan eta
oraiñ egiñ nai falsia;
andrea norbait artu zuan da
dauka ark erakutsia,
katolikoek kontra biurtu,
au da kontu itxusia.

6

Cabrera orrek txit diruduna
artu zuan emaztea,
bañan ereje alde bateti,
besteti protestantea;
jarri dirala badirurie
bata bezela bestea,
Españoi dana berak bezela
nai lukea ikustea.

7

Emaztea nai txit aberatsa
ezkondu bear zan orduan,
ta oraiñ dago ill ezkerozti
anima ia galduan;
diruakgati orra zer lanak
egiten diran munduan,
Españoi dana para nai luke
berak dabiltzan moduan.

8

Beltza orietan ere badago
 oraintxe naiko nekea,
 atenditutzen baldiñ bazaie
 itxura ala daukea;
 oien barrunen ezta arkitzen
 sosegua ta pakea,
 bestela ezer eziñ eginda
 maleziaz nai lukea.

9

Libertad culto nai omen dute,
 infielak ametitu;
 bera alakoa dagoan orrek
 lagunak ala nai ditu;
 baña Kristoren legea eziñ
 modu orretan serbitu,
 gusto zikiñak bai nai konpritu
 naiz zero bage gelditu.

10

Ea, D. Karlos, ibillera ok
 zer diran artu gogoan,
 ikusitzen du oraiñ jendea
 zeñen falsoa dagoan;
 nor mugitzen dan atentzioa
 beti artu urrengoan,
 billatzen dana bere biziko
 kastiga beza beingoan.

11

Ereje eta protestanteak,
 etsaiarekiñ nastuak,
 ez ikusi nai urrutira're
 katoliko ta justuak;
 berak bezela danak para nai
 -oiek gizonen gustuak!-,
 bañan fedeak eramango du,
 alperrik dabiltz gaiztuak.

12

Pake santua oronena degu,
au da nere iduria,
batak bestea estimatzea
guziontzat mejoria;
saia gaitezen alkantzatutzen
fedearen bitoria,
bizitza ona munduan eta
gero betiko gloria.

* * *

Bertso auek Parisko Liburutegi Nazionaletik ditugu. Moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper bat da. Egillearen izenik ere ez da esaten. Baiña ez al da au ere Altzoko Manuel Antonio Imaz bertsolariarena izango?

Eskuz erantsita, zenbaki eta itz auek ditu paper onek: 1874, *Cabreraren palsiya*.

Ramon Cabrera jenerala, leen esan bezela, Tortosan jaio zan, 1806-ko abenduaren 27-an. Leenengo gerratean, Aragoi eta Balcenia aldeko karlisten buru izan zan. Bergarako besarkada ondoren Euskal-Erriari gerra bukatuta ere, arek beste urtebetean jarraitu zuan.

Ondoren, Inghaterrara joan zan, eta bertako andre aberats protestante batekin ezkondu. Orretzaz mintzatzen dira 5, 6 eta 7-garren bertsoak.

Don Karlos bigarren gerra prestatzen asi zanean, 1869-an, Cabrera ekar arazi eta karlista

guzien buru jarri nai izan zuan. Baiña onek ezezkoa eman zion.

Are geiago: Alfonso XII Españaiko errege egin zutenean, Cabrera aren alde azaldu zan. Liberralekin agiri bat firmatu zuan Parisen, 1875-eko martxoaren 11-n: Euskal Erriko fueroak errespetatuko zirala, baiña karlistak illabetea baiña leen armak uzten bazituzten.

Karlistak gogor eraso zioten Cabrera-ri: Maroto-k leenengo gerran egin zuan saldukeria, berak oraingoan egin nai zuala; beste asmorik etzuala... Oietzek dira bertso auen burutapenak eta sentimentuak.

Leen esan bezela, paperak 1874 urtea eskuz erantsita dauka. Baiña Parisko agiria, adierazi degunez, 1875-III-11-n firmatu zan. Orregatik, guk uste, orren ondoren moldatutako bertsoak izango dira auek.

* * *

Barón de Montevilla zanaren bilduman, sail ontako lau bertso azaldu dira: 1, 2, 3 eta 9-garrena; baiña aldaketarik gabe.

Bertsoen aurretik onela irakurtzen da: *Recitado por Abeletxe a Guerra*. Mondragoiko Juan Karlos Gerra izango da au.



Ramón Cabrera jenerala. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

Nere euskaldun maiteai bertsoan itz bi

1

Pakearen susmur bat
jendeen artean
zabaldu da, eta au
nundik letorkean
ta nork asmatu duan
karlisten kaltean,
aditu, euskaldunok,
instante batean.

Estribilloa

*Karlos zazpigarrena
nai degu errege,
ez degu nai pakerik
au tronuan bage.*

2

Gezurra, engañua,
tranpa ta falsia
da beti liberalen
arma nagusia;
onakiñ irabazi
nai dute auzia,
ekustean bestela
galdua guzia.

Karlos zazpigarrena, etc.

3

Orra pake ots oiek
nundikan datozen:
liberalak dituzte
guziak asmatzen
ta bazter guzietan
gogotik zabaltzen,
euskaldun gerrariak
argaldu ditezen.

Karlos zazpigarrena, etc.

4

Euskaldunak, iritxi
dezute goimalla,
atxurra utzi eta
arturik fusilla!
Zuetako eunentzat
liberalak milla
izan arren, atrebi
oraiñ zuen billa!

Karlos zazpigarrena, etc.

5

Lege oneko gerran
zuek bentzitzerik
ez dagoala beltzak
benetan etsirik,
ez da berak asmatzen
ez duten arterik,
engañuz eritzeko
zuek espaldatik.

Karlos zazpigarrena, etc.

6

Emendik liberalen
gezur ta naspillak,
pakearen gañean
mandatu ixillak;
orregatik kontuan
zaudete, mutillak,
ta eskuetan firme
iduki fusillak.

Karlos zazpigarrena, etc.

7 Pake zale badago
liberal jendea,
betor ta aitor beza
gure erregea,
Españiako buru
galai ta noblea;
auxe da arrazoia,
auxe da legea.
Karlos zazpigarrena, etc.

8 Liberalak ordea
nai dute pakea,
beren esku dutela
beti agintea;
eta beñ engañatu
ezkero jendea,
len itz ederrak eta
gero azotea.
Karlos zazpigarrena, etc.

9 Liberalen asmoak
probintzi oentzat
guziak jakitea
on dala deritzat;
dudarikan ez duan
gauza da neretzat:
liberalen amorru
andia guretzat.
Karlos zazpigarrena, etc.

10 Dira egia onen
prueba agiriak
berak erre dituzten
etxe ta erriak,
eta egiñ dituzten
beste infamiak;
larrutik pagatuko
dituzte guziak.
Karlos zazpigarrena, etc.

11

Erre, ill ta gañera
al dutena ostu,
eta gizon prestuak
kartzeletan sartu,
eta beren buruak
beti alabatu;
infernutik da nunbait
beltz kasta au sortu.
Karlos zazpigarrena, etc.

12

Ta liberalak emen
au egin badute,
Madrid-goak zer diran
adi ezazute,
zerren dakizutela
ondo ez det uste;
zaudete bada oraiñ
nik au esan arte.
Karlos zazpigarrena, etc.

13

Madriden daude beltzen
buru nagusiak
eta guziak dira
pikaro andiak;
eskuak ez dituzte
bizi garbiak,
ta guziak dituzte
pekatu lodiak.
Karlos zazpigarrena, etc.

14

Dirua, agintea
eta bizioa
dirade jende galdu
oien Jaungoikoa;
agintzen ez badaude
beti traizioa,
esku onetan dago
gure nazioa!
Karlos zazpigarrena, etc.

15

Berak ausi dituzte
milla juramentu,
bestela Isabeli
joan eta galdetu
norgatikan tronurik
bage dan gelditu;
gizon falso aek ark
gogoango ditu.
Karlos zazpigarrena, etc.

16

Berrogei urte eta
geiago oetan,
aek egiñ dituzte
Españi onetan
lan ikaragarriak
gauza guzietan,
agirian daudenak
gure begietan.
Karlos zazpigarrena, etc.

17

Fraile, monja, apaiz ta
gañera erriak
len zituzten ondasun
guziz ugariak,
saldu eta tragatu
dituzte guziak,
infernuko tripadun
aseezgarriak.
Karlos zazpigarrena, etc.

18

Gañera zorrez bete
dute España,
beti diru eske ta
ondatu guzia;
aetako bakoitzak
luke merezia
urkamendi batean
kentzea bizia.
Karlos zazpigarrena, etc.

19

Jaungoikoa ukatu
dute agirian,
Eliza persegitu
erreinu guzian;
onetan ari dira
berak aspaldian,
nola sufritzen da au
gure Españian?
Karlos zazpigarrena, etc.

20

Gure fuero maite ta
usantza ederrai
jende aek ez die
batere ongi nai;
eziñ iñola kendu
fusillak karlistai;
au egiñ al balute,
agur fueroak, ai!
Karlos zazpigarrena, etc.

21

Gizon aek daukaten
ustea gañera
da kentzea aiñ maite
guk degun euskera
ta itzegiñ erazi
guzioi erdera;
ta atrebitu dira
ori esatera!
Karlos zazpigarrena, etc.

22

Kendu nai dizkigute
gañera apaizak,
zuriak bialdu ta
ekartzeko beltzak,
euskeraz ez dakiten
persona arrotzak!
Zenbat beneno duan
beltz oen biotzak!
Karlos zazpigarrena, etc.

23

Azkenik pagakizun
ikaragarriak;
soldadu, berriz, mutill
euskaldun guziak,
betiko izateaz
zaudete etsiak,
txoratzen bazaituzte
beltzen erausiak.

Karlos zazpigarrena, etc.

24

Orra zer jendek dion:
“Pakea! Pakea!”
Al balitz Maroto bat
berriz arkitzea;
au dionari eman
bertatik atzea,
bada seguru nai du
karlistak galtzea.

25

Badaukazute noren
esanak aditu,
baita ere biotzez
norgan konfiatu;
erregeri lenengo
beintzat obeditu,
eta bere ordenak
gogotik kunplitu.

Karlos zazpigarrena, etc.

26

Agintariak dira
aren urrengoak,
zuek itsu-itsuan
obeditzekoak;
au bera merezi du
diputazioak;
despreziatu bada
pake ots falsoak.

Karlos zazpigarrena, etc.

27

Pake on ta justua
zuen esku dago,
gerra egiñ bear da
ordea lenago;
eta zenbat zuek au
egiñ firmeago,
pakea egingo da
anbat lasterrago.

Karlos zazpigarrena, etc.

28

Orduan pozez zuek,
pozez gurasoak,
defenditu izanaz
guzion besoak
Jaungoikoa, errege
ta gure fueroak,
biziko zerate txit
zorionekoak.

Karlos zazpigarrena, etc.

29

Au iristeko esan
guziok batean:
“Don Karlos txit maitea
tronura artean,
ez degu nai pensatu
ere guk pakean,
zerren disonra bage
ezin litekean”.

*Karlos zazpigarrena
nai degu errege,
ez degu nai pakerik
au tronuan bage.*

* * *

Bertso sail au bi tokitan arkitu degu: Donostiako Gregorio Mujika zanaren bilduman, eta Tolosako Timoteo Adurriaga *Besamotza* zanaren kuaderno lodi batean.

Adurriagarena eskuz idatzita dago. Mujikarena, berriz, bertso-paper bat da, garai artakoa du-darik gabe, eta moldiztegi-izena ere badu: *Imprenta de Pablo Martínez*, Azpeitiko. Bertso auek jarrri eta argitaratu ziran garaian Azpeitia karlisten mende baitzegoan.

Zoritxarrez, Mujikaren paper ori an eta emen puskatuta dago; eta zenbait tokitan itzak falta dira. Utsune oiek Adurriagaren kuadernotik osatu ditugu.

Aldaketa batzuk badituzte alkarrekin Mujikak eta Adurriagak; baiña aitatzerik merezi ez dutenak.

Gerra-denborako bertsoak dirala dudarik ez da. Baiña zein urtetakoak?

Leenengo bertsoak dionez, "pakearen susmur bat jendeen artean" zabaldu da.

Gure iritzirako, onen aurreko saillarentzat esan degun bezela,

Cabrera-k eta bere lagunak Parisen agiri bat firmatu eta zabaldu zuten. Uraxe da *pakearen susmur* ori, eta arek ekarri zituan pake-ots oiek.

Antonio Pirala-k, bere *Anales de la guerra civil* (Tomo III, Madrid, 1907), onela dio:

"Publicáronse multitud de escritos cruzándose mutuas acusaciones; se escribieron romances; se dibujaron caricaturas; protestaron contra la actitud de Cabrera todos los jefes carlistas en armas; y de estas protestas necesitaron algunos y anatemizaron muchos el proceder de Cabrera, para que entre determinadas fuerzas no hicieran más prosélitos las voces de paz que se presentaban unidas a la actitud de aquel antiguo caudillo".

Eta beeraxeago:

"De tal manera cundieron y fueron recibidas las noticias de paz en Guipúzcoa, que las avanzadas de Rentería y otros puntos se mezclaron comiendo algunos juntos y celebrando mutuamente el término de la guerra".

Esanik daukagu Cabrera-ren agiri ori noizkoa dan: 1875-eko martxoaren 11-koa. Beren lekua egun orren ondoren bear duten bertsoak ditugu, beraz, onako auek.



Nikolas Ollo, karlisten jenerala, Somorrostron zauritua eta illa, 1874-III-29-an.
(Enciclopedia Auñamendi.)

(1875-III-31)

Pakea bear degu

1

Aundiyak dira penak
senti ditugunak,
zori gaiztozko gerrak
sortu zizkigunak;
batu gaitean denok,
bada gure Jaunak
nai du anaitutzea
bere seme denak.

2

Aserre bizi gera
maizter-nagusiyak,
adiskidetasunak
dauzkagu autsiyak;
armakin eziñ kenduz
alkarri biziyak,
geren buruben kontra
gabiltza guziyak.

3

Baserritar armakin
irtenak mendira,
erlijioagatik
joanak omen dira.
Bañan au galtzen ari
diranak zein dira?
A, Praixku, Praixku, lotan
Praixkuk egon dira.

4

Baserritar jendeak
bizi bitez ernai,
zenbait itzontziri ez
siñistatu zernai;
askok, nai etzutenak
pakean bizi nai,
beren faltaz egiten
dute gaur oi ta ai.

5

Baserriyak erre ta
urratu erriyak,
soildurik daude soro,
baso ta mendiyak;
ikusten gauden gaitzak
dirade aundiyak,
laster galduko dira
emengo Indiyak.

6

Batek mesede badu
kalte dute millak,
gerran dabiltzan asko
ez dira abillak;
ondasunak ondatu,
gañera mutillak,
alferrikan badira
makiña bat illak.

7

Ez gaitezen tontoak
izan euskaldunak,
utzi ditzagun seta
artu ditugunak;
ez bagera anaitzen
lengoko lagunak,
gu gera geren faltaz
lur joko degunak.

8

Eskarmentuz beterik
beste baterako,
pakea billa zagun
orain ta geroko;
sesiotik ez degu
ezer aterako,
emengo gerrak dira
gure kalterako.

9

Egiya da luzaro
nazioa miñez
dabilela auldurik,
sendatu eziñez;
mediku askok zaitu,
batek on egiñ ez,
iya etorri dela
aztutzera oñez.

10

Bañan noizbait bear da
Jaunaren graziya
bere biotzean da
sustraitzen asiya;
sendagille gazte bat
guziz ikasiya
argitu da emango
diyona biziya.

11

Galai au da Alfonso
amabigarrena,
Españako koroa
bidez dakarrena;
nola ama baitzan len
bera zekarrena,
semearen burura
jira da arrena.

12

Bitarte ontan pasa
dira zenbait urte,
koroa Alfonsoren
burura dan arte;
ala bear ta askok
arturikan parte,
ekarrarazo dute
zegoena aparte.

13

Aita Santuba eta
Don Ramon Cabrera
dira nai ez dutenak
Karlosen jarrera;
biyak eroririkan
arrazoi batera,
Alfonsoren fabore
dirade atera.

14

Oen gisa nazio
zeudenak begira
erakutsi diote
beren ontzakida;
Españako kontubak
emanikan jira,
jaun onen laguntzalle
deklaratu dira.

15

Biba bada Alfonso
errege berriya,
españolen ongarri
Jaunak ekarriya;
bide zuzenez zaude
jar-goian jarriya,
goiko mallan jartzeko
gure sorterriya.

* * *

Bertso auek Jose Manterola-ren bilduman arkitu genituan, moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper batean.

Eskuz idatzita, itz auek irakurtzen dira: *Ramon Artola-k ipiñik, Donostian, Marzoaren ogei ta amaikan, 1875'garren urtean.*

Ramon Artola au Tolosan jaio zan 1831-n; eta Donostian il 1906-an, bere urterik geienak bertan egin ondoren.

Urtea eta eguna ere esaten zaigu: 1875-III-31. Bertsoetan esaten diranak, izan ere, garai orrekin oso egoki datoz. Martínez Campos jeneralak Alfonso XII-aren alde 1874-ko abenduaren 29-an altxatu zan Sagunton; eta errege berria 1875-eko ilbeltzaren 14-an sartu zan Madrillen.

Aren gorantzan moldatutako bertsoak ditugu, beraz, auek.



Liberalen soldadu-talde bat.

(1875-IX-27)

Bertso Berriak
Mikelete Mujikak jarriak

1 Bertso berriak jartzera nua
aitu nai duanari,
bildur aundirik eztiote ematen
karlist'oiak Aranari.
Iñoiz salida egiten badu
abisatu mutillari,
arrapatzen dan guztiya dala
erozein errira ekarri.

2 Orain kontari nagon kasuan
asi biar det sustraitikan,
guregaitikan ainbat bildurrik
eztaukate tropatikan.
Esaten zuten ajola gutxi
txapa oriengaitikan,
erri aldia libratu degu
karlista oiektatikan.

3 Iñoiz Aranak pensatzen badu
salida bat egitia,
San Martzialera igoko gera
edo bestela Katera.
Karlista oiek pensatu ez arren
orduan gu an izatia,
juan bakoitzian ateratzen da
egun artako partia.

4

Txit kostosua gertatzen zaie
karlistai gure salida,
konpañia bi mikeletiak,
igual da milla badira.
Oien puestuak guk artu eta
itzuli dijuaz mendira,
erri aldera gu abitzian
atzetik daude begira.

5

Beren puestora juntatzen asi
eta oiek komeriyak,
illak igual izaten dira
mutilletako erdiyak.
Jefiak ere asustatuta
abandonatzen guardiyak,
zer kontatuba erukitzen du(1)
preso artuta etorriyak.

6

Karlista oiek jefiak ere
gutziz dauzkate frankuak,
guztiak eztet esaten baña
Ramontxo eta orlakuak.
Mutillak laja lanian eta(2)
itzuli egiteko prontuak,
iltziak bildur ematen oiei
eztiralako tontuak.

7

Erritik irten ta igotzen gera
Gaintxuzketako mendira,
leku guztiyan korritzen degu,
igual Naparro aldera.
Lengo gabian irten giñaren
Puntako aduanara,
ango karlistak asustatuta
erori ziran urera.

8

Mikeletiak atera gera
gabez Irundik Puntara,
egunaz argitziarekin bat
iritxi Lastaolara.
Ango karlistak satisfazioz
juanak ziraden lotara,
erdiak ondo esnatu gabe
beren buruak urtara.

9

Esaten det karlista oiek
dirala mutil pjuak,
erdiak urtan ito ezinik,
bestiak mendira iyuak,
eta andikan guri tiratzen
alferrikako tiruak;
gizonak ezin esan oiek
dirala katolikuak.

10

Karlista oiek diote: "Gaude
San Martzielko nagusi".
Relijiyua nola dan oiri
inork ezin erakutsi;
mikeletiak atera eta
inoiz ditugu ikusi,
altura ona eruki arren
lajata juaten igesi.

11

Kantuban oso kansatu naiz ta
au da amaikagarrena,
Irundik irten da Oiartzuna
juango gera urrena,
ango karlistai danari eman
merezi duten ordena,
mendiz igual pasako gera
Aranotikan barrena.

12

Orain amabi bertso berritan
dago nere despeira,
oriek entzun nai dituenak
jarri dedilla begira.
Karlista oiek pensatzen dute
sartzia Irungo errira,
aisago da ta obeko dute
juan Aiako Arrira.

* * *

Amabi bertso auek Jose Manterola zanaren bildumatik artuak ditugu. Bertso-paper bat da, *Donostiyari*: - *Juan Osesen moldisteguiyan* argitaratua.

Bestetan ez bezela, ontan egilearen izena aitatzen zaigu: *Mujika mikeletea*. Bertsoetatik ageri danez, orduan Irunen ziran mikeleteetako bat izango zan. Izaitez, berriz, gipuzkoarra bai, darabilkian euskerak salatzen duanez, baiña zein erritakoa zan ez dakigu.

Gerra ontan Irunen ziran liberalak jarriak, badira beste bi edo iru bertso-sail. Liburu ontan orain baiño leen ezarriak ditugu. Aiek ere, au bezela, bertsolari abil batek moldatuak dira. Guziak aita baten umeak ote dira? Ditekena da; baiña segurutzat ezin artu, beste sail oietan egilearen izenik aitatzen etzaigunez.

Gerra ondoan ez da Mujika izeneko bertsolaririk iñun azaltzen; ta azaldu bearko luke, guk

uste, bertso auek eskatzen duten neurriko bertsolaria izanik. Zer egin ote zuan, bada? Ez dakigu. Baiña burruka aietako batean iltzea ere etzan arritzekoa izango. Mikeleteak jende gogorra zirala ukatuko duanik ez da; baiña aietatik mutil asko galtzen zirala ere ez.

Paperaren goenean, eskuz idatzita, onela irakurtzen da: *Noviembre 1874, 500 ejs.*

Bosteun orrek, inprentan zenbat ale egin ziran esan naiko du. Ortaz ez daukagu zer esanik.

Baiña 1874-ko azaroa adierazten duan ortaz badago zer duda egin. Manterolak orrelako oarrak bertso-papera noiz eskuratzen zuala gogoratzeko jartzen zituala esan degu bein baiño geiagotan. Baiña oraingoan urte ori gaizki ote dagoan pentsatzen degu.

Sail ontako bertsorik geientan, izan ere, arronka jotzen da: mikeleteak au eta ura egiteko gauza dirala; San Martzialera igo, Beobira edo Katera joan, Naparro

aldera jo, egunen batean Oiar-tzuna ere sartu eta Aranotik barenna berdin pasako dirala...

Baiña egindako burrukaldie-tatik bakarra aitatzen da, eta ura 7 eta 8-garren bertsoetan: mikeleteak gauetz Irundik atera; leenengo Puntara joan; eguna argitzearekin Lastaolara iritxi; eta ango karlistak, iges egitearren, beren buruak uretara, Bidasoara alegia, bota zituztela.

Gertaera orren aitamena Antonio Pirala-k dakar, bere *Anales de la guerra civil (Madrid, 1907)* liburuan:

“Arana... *había efectuado el 27 un movimiento sobre Lastaola hasta cerca de Endarlaza, habiendo obligado a la guarnición del primer punto a guarecerse en Francia...*”.

Guk uste, biak, Mujika mikeletea eta Pirala, burruka beragatik ari dira. Baiña gertaera ori, Pirala-k dionez beintzat, ez da 1874-koa, urrengo urteko iraillaren 27-koa baizik.

Lastaolako gertaera orren biaramonean, Txoritokietako burruka izan zan. Ontan karlistak irabazi zuten, eta bertsoak jarri ere bai, irakurleak urrengo orrialdeetan ikusiko duanez.

Baiña *mikelete Mujika* onek ez du orren aitamenik egiten. Karlistak ere ez dute Lastaolako orretzaz ezer ere esaten. Kondaira orrela idatzi oi da: komeni zai-guna azalduz eta komeni etzaiguna izkutatuz.

(1) Bertso-paperak: *dun*.

(2) Bertso-paperak: *baja*.



Gipuzkoako mikeletea. (Enciclopedia Auñamendi.)

(1875-IX-28)

Bertso Berriak

1

Publikatzea deseatzten det
bertso batzuek berriak,
biotz oneko karlista danak
konsolatzeko jarriak;
beltz oiek oraiñ izan dituzte
galera izugarriak,
umildu eta juanak dira
arrotuta etorriak.

2

Milla zortzireun irurogei ta
urte amabostgarrena,
ogei ta zortzigarren eguna
agorreko illarena,
beltz da karlistak Txoritokitan
batalla egin duena,
laguntza izan dute karlistak
gure Jaungoikoarena.

3

Nazionalak, beltz orienak,
goizeti balienteak,
karabiñeroz eta kintoaz
eskiñe danak beteak;
iskanbilla ta arrokerian
aurrena mikeleteak:
sarri artuko dituztela, bai,
karlista txarren fuerteak.

4

Beltz jende oiek Ergobiatik
asi ziraden aurrena,
San Marko aldera Txoritokitan
mikeleteak urrena;
Oiartzundikan sarrera berriz
gero soldadu zarrena,
refuerzoa Renteriati
aitzenean zetorrena.(1)

5

Erdi mozkortu zituzten eta
iskanbilla ta karrasi,
Trágala joaz ekarri zuten
indarra aña pantasi;
gero karlistak tiroka eta
baionetarekin asi,
guziak illko ez baziraden
sarri ziraden igasi.

6

Lurra betean beltz oietati
dira illda geldituak,
lanikan asko bazuten berriz
eziñ jasoz erituak;
egun onetan eztira izan
gustora ibilituak,
jipoi ederra guregandikan
daude errezipituak.

7

Goizean galak zeuzkaten eta
arratserako lutoak,
Trágala-rikan etzuten jotzen,
musikak ere mutuak;
Muerzak bidean berriz tiroka
ondo akonpañatuak,
modu orretan bizi diranak
dira erretiratuak.

8

Beltz jende oiek itxituetan
pantasi asko daukea,
morallak eta artilleriaz
ematen dute nekea;
kanpo librean onelakoa
maiz bagendu atakea,
kinto txar oiek akabatuta
sarri genduke pakea.

9

D. Eusebio Rodríguez degu
gure jeneral berria,
zorionean Gipuzkoara
garai ontan etorria;
orrek eman du beltz oien kontra
batalla izugarria,
berrizko ere bildurrez dago
aren aurrean jarria.

10

Biba Rodríguez jeneral ona,
ontzat bear dit aditu:
balientea berori eta
mutillak ere baditu;
maleziarik ote dabillen
beti kontuz atenditu,
sentitzen bada justizi egiñ,
betiko bertan gelditu.

11

Ernanin berriz gertatu zaie
komeria bat polita,
itzgai ederra bersoetako
baldin baneduka dita;
txoro aizeak karlistaegatik(2)
burlagiten ibillita,
gero ederki nozitu due
kastiguak etorrita.

12

Orra karlistak granadaren bat(3)
tira dute Donostira,
leartu ez ta nolakoa dan
jarri zaizkio begira;
nunbait txikia iritzi eta
burlatzen ibilli dira,
leran sartuta eraman due
berak nai duen tokira.

13

Leran jarrita batek aurreti
ganaduari elduaz,
ezin tiratu balitz bezela
balenkakiñ lagunduaz;
jende guzia parraz begira
burlatutzeko moduaz,
txoro aizeak eskarmentatu
bageak zeuden munduaz.

14

Urrengo egun berean berriz
Ernaniara tiratu,
ta Kontzejuan bolborak zeuden
parajea allegatu;
danak su artu, etxeak puskatu,
jendeak ill da ondatu,
berreun baño geiago beintzat,
orra Jaunak kastigatu.

15

Biba Don Karlos, biba Rodríguez,
biba karlista guziak,
ez ikaratu, lagunduko du
Jaungoikoaren graziak;
ondo bagabiltz ark ez gaduzka
bere eskutik utziak,
penatu arren guk eramango
beltz oiekiko auziak.

* * *

Bertso sail au Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman arkitu genduan. Bertso-paper bat da, dudarik gabe garai artakoa, *Tolosan*: - *Mendizabalen alargunaren moldizteguian argitaratua*.

Bertso auen gai nagusia, 1874-ko iraillaren 28-an Txoritokietan izan zan burruka da. Gai nagusia bai, baiña ez bakarra. Onela banatzen dira bertsoak: 1-10-garrena: Txoritokieta; 11-14: Donostia eta Ernaniko gertaera bat; eta 15-garrena: bukaera.

Karlistak buruzagi berria zuten Gipuzkoan, 9-garren bertsoak dionez: Eusebio Rodríguez jenerala, Burgosko Fuentecén-en jaioa, Afrikako gerratean kapitan egiña, liberala izana eta karlisten aurka jarduna, baiña 1873-an karlistetara aldatua; Belabietako burrukaren ondoren koronel egiña, eta Naparroako Arasko burrukaren ondoren brigadier izendatua.

Liberalen buru Trillo Figueroa jeneralak egiten zuan. Txoritokie-

ta eta San Markos mendiak karlisten mende zeuden eta artu nai izan zituan. Leenengo, Txoritokietari erasotzea erabaki zuan.

Atake ori, esan bezela, 1875-eko iraillaren 28-an jo zuten, alde askotatik abiatuta, 4-garren bertsoak dionez: Ergobia, Oiar-tzun, Errenteri...

Baiña etzuten ezer ere lortu. Egun artan karlistak atera ziran nagusi.

Trágala zeritzaion kantua aitatzen da 5 eta 7-garren bertsoetan. Liberalak askotan kantatzen zutena zan ori.

Bertsoen egillea nor zan ez da esaten. Bertsoak ere ez dute ori somatzeko biderik ematen. Baiña aurreko sail batean, auen antzeko bertso batzuen egilletzat Al-tzoko Imaz bertsolaria jotzen zan. Auena ere ez al da bera izango?

(1) Bertso-papera: *aitzeneac*.

(2) Bertso-paperak: *karlistaega*.

(3) Bertso-paperak: *granarembat*.



Karlisten ofizial bat, bidelari baten pasaportea irakurtzen.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1875)

“Oiartzungo elizan...”

- 1 Oiartzungo elizan
Lomaren mutillak,
zorrie dariela
kotxino zikiñak,
Lomaren mutillak,
kotxino zikiñak.

- 2 Arratzaindikan Donostiara
bialdutako pildorak, *(bis)*
preskatu dizte estomagotik
Donostiako señoarak.

- 3 Sendatu dira Donostiako
Jose-Maritar arroak, *(bis)*
preskatu dizte estomagoak
bere barrengo beroak.

- 4 Komonak ere goian izanik
ez dira ara juaten, *(bis)*
praketan bera ustutze'ituzte,
ez dira ara juaten.

* * *

Lau bertso auek Jose Ariztimuño Aitzol zanaren bilduman azaldu dira, *Kanta errikoiak* izenarekin Dorronsoro zeritzan bategen bialdutako mordoan.

Bertsoen ondoren, oar au dator: *Maria Josepak nere amari entzuna*.

Leenengo bertsoak ez du beste irurekin zer ikusirik, ez egituraz eta ez gaiaz ere. Itxura danez, Loma jeneralaren soldaduak Oiarzungo eliza kuarteltzat artu zuten.

Gaiñontzeko bertsoak Donostiako bonbardeoari jarriak dira.

Gipuzkoako iriburua bonbardeatzen, 1875-eko iraillaren 29-an asi ziran karlistak. Leenengo egun artan, ia berreun granada bota zituzten. Kañoiak Arratzain mendiaren egalean zeuzkaten. Orixe da, karlistaren batek jarritako bertso auen gaia.

Denbora berean, Donostia ez-*ezik*, Getaria eta Ernani ere karlisten bonbardeoaren mende zeuden.

Orduan, Trillo jeneral liberalak, txerrimuniak ordaiñetan izaten baitira, Usurbil, Lasarte, Urnieta, Ergobia eta Astigarraga bonbardeatzea agindu zuan. Kañoiak, Lugaritz, Oriamendi, Puio, Santa Barbara eta Ametzagañan zituzten liberalak.

Donostiako bonbardeoak 1876-ko otsaillera arte iraun zuan. Edozein euskaltzalek dakianez, granada aietako batek zauritu zuan Bilintx, San Sebastian egunean aren gelan sartu eta anka biak purrukatuta. Ala ere, beste sei illabete iraun zuan donostiar bertsolariak bizirik, miñez eta oiñazetan orde: eta urte artako uztaren 22-an il zan.

(1875)
Ernaniri!

1 Askok dakite nola nik
luzaro egun bat onik
ez daramala Ernanik;
beti tiroka granadapian
dauka Santiagomendik;
gaitz da libratzen argandik,
kaltiak dirade aundik,
egiten diranak andik.

2 Bala bat lertzen kalia,
bestia berriz aidian,
beti badira bidian;
lo ez daguenak maiz aitzen ditu
tiro soñubak aldian:
egunaz ala gabian,
beti etxietan bian
egon biar da gordian.

3 Urbietaren erriya,
lenaz etzana berriya,
alperrik galdu da iya;
galbai zar baten itxuran dago
granada zuloz josiya;
Kontzejuba da ausiya,
joan zan aidian guziya,
frankok galdurik biziya.

4
Gerra zan ezkerotz asi,
izan da zenbait desgrazi,
gaitz asko dira ikusi;
jende asko da gelditu pobre,
erriya berriz itxusi;
orla izate ta guzi,
sufritzen diranak bizi,
plazik eztute nai utzi.

5
Ernani dago penoso,
beti tiropian preso,
artzen du zenbait balazo;
lenaz gain beste bateriya bi
berriyak dizkate jaso;
oiek arturik eroso,
gogor diyote eraso,
puskatu nai dute oso.

6
Bonbakin granadak naste,
karkak len ere bastante
tira izandu dituzte;
baldin erriya purrukatuta
artzia badute uste,
beste makiña bat urte
pasa biarko dituzte,
eta artuko eztute.

7
Maiz gaizki dala ibildu,
beñere ezta umildu,
onrak ala ditu bildu;
gobiernubak tituluba ta
diruba dizka bialdu;
Ernanik, dalarik auldu,
oso ez dalako galdu,
bere fama du zabaldu.

* * *

Zazpi bertso auek Etxeberria eta Gimón-en kanta bildumatik ditugu: *Ecos de Vasconia*, nº 65.

Izenburuaren azpian, *Urnieta-co Doñuba* dio. Doñu ori leenengo karlista gerratean Urnietako erriari jarritako bertso batzuen da. Elizanburuk, aire ori artu zuan gero, bere *Ikusten duzu goizean* bertsoentzako.

Bertsolariaren izenik ez dakigu. Bilduma orrek onela dio: *Poesía de XXX*.

Bertsoen gaia Ernaniko bonbardeoa da. Karlistak errenditzeko eskatu zioten Ernaniko erriari. Ezezkoa jaso zuten, eta orduan kañonazoka eraso zioten, 1874-ko maiatzaren 30-ean, goizeko seiretan, Orkolaga gainetik asita; eta, andik piska batera, Egurrola baseritik. Liberalak, berriz, Santa Barbara menditik erantzuten zieten.

Iru egunean 1.258 granada bota zizkioten karlistak Ernaniri. Obeto esateko, 1.258 *bombas, granadas y balas rasas*, Pirala-k dionez.

Garagarrillaren 2-an utzi zioten tiratzeari, baiña ez betiko. Urrena Santiagomenditik eraso zioten. Asko edo gutxi, beti tiraka.

Orregatik dio leenengo bertsoak:

beti tiroka granadapian
dauka Santiagomendik...

Eten gabeko bonbardeo orrekin jendea nola bizi zan eta

errian egiten ziran kalteak, urrengo bertsoetan ederki adierazten da.

Granada batek, udaletxean zegoan polbora-gordeleku edo almazena jo zuan, dana leertu eta etxe geiena bota. Orregatik esaten du irugarren bertsoak:

Kontzejuba da ausiya,
joan zan aidian guziya,
frankok galdurik biziya.

Santiagomendikoa aski ez baltz, Montevideo, Orkolaga eta Arbizaportutik ere ekin zioten karlistak. Antonenetik ere bai. Orregatik bostgarren bertsoak diona:

lenaz gain beste bateriya bi
berriyak dizkate jaso...

Baiña, seigarren bertsoak dionez, liberalak etzeuden kixkurtuta edo amor emateko asmotan, eta karlistak etziran erriaz jabetu.

Azken bertsoak onela dio:

gobiernubak tituluba ta
diruba dizka bialdu...

Leengo tituluak *noble y leal villa* omen zituan Ernanik; eta 1875-eko iraillaren 21-ean titulu berria eman zion gobernuak: *invicta*.

Doñuagatik onela esaten da *Ecos de Vasconia* liburuan: *Música de XXX*. Esan degunez, erriak kantatzen zuana baitzan.

Baiña *Diario de San Sebastián* egunkariak, 1875-XI-8-an, onela dio:

“Se ha puesto a la venta en los almacenes de música de los Sres. Santesteban, al precio de tres pesetas ejemplar, el magnífico zortzico Hernani, dedicado a los heroicos defensores de la invicta villa guipuzcoana por nuestro paisano y amigo el reputado compositor y distinguido crítico musical D. Antonio Peña y Goñi”.

Dakigunez, jaun ori etzan doiñuaren sortzaillea. Pianorako armonizatu egin zuala esan naiko du.

Ernaniko erriak bere esker ona agertu zion Peña y Goñi jaunari. Ona zer dion *Diario de San Sebastián* egunkariak, 1876-ko abuztuaren 8-an:

“El ayuntamiento de la invicta Hernani ha obsequiado a nuestro paisano y amigo el reputado crítico D. Antonio Peña y Goñi con un recuerdo de gran valía, por su celo e interés en favor de aquella y de sus defensores.

Consiste el obsequio en una chatelaine, cadena corta de reloj, formada de tres distintos medallones convenientemente enlazados, llevando el primero la dedicatoria que dice: A D. Antonio Peña y Goñi, en letra romana y rodeada de un adorno de corazones y palmetas y otros adornos alusivos a la profesión del distinguido crítico. Pende de este medallón, que es cir-

cular, una artística lira de un dibujo griego con incrustaciones de oro y plata, que acusan perfectamente todos los elementos de que aquel instrumento se compone. Otro medallón, circular también, haciendo juego con el primero, lleva la siguiente inscripción: Hernani agradecida, con una corona de laurel circundando la inscripción. Como remate lleva una granada, y en ella Bombardeo, año de 1875, constituyendo su conjunto una preciosa obra de arte que enaltece mucho a la industria vascongada y al Sr. D. León Eguíazu, en cuyos talleres ha sido trabajada esta verdadera joya.

El obsequio a Peña ha sido acompañado de la siguiente comunicación de aquel Ayuntamiento:

Alcaldía de Hernani.- Por acuerdo del Ayuntamiento tengo el honor de remitir a V. este pequeño obsequio, para que le sirva de recuerdo del vivo reconocimiento de que se halla poseído este vecindario a los muchos favores y gran interés que siempre ha demostrado V. para esta villa, rogándole se digne aceptarlo, atendiendo, no a la pequeñez del regalo, sino a la buena y sincera voluntad con que se le ofrece.

Dios guarde a V. muchos años. Hernani, Julio 23 de 1876.- El Alcalde Juan Esparza.

Sr. D. Antonio Peña y Goñi.”

Azkenik, ikus bertso auek kantatzeko doiñua, 40-garrena azken orrialdeetan.

(1875)

**Ernaniri
zortzikoa
Serafin Baroja-k ipiñaia**

Libertade maitea,
bandera santua,
itxu eskergabeak
abotan artua,
ez zerade eroriko,
egon segurua,
Ur-meko inguruan
zaude landatua.

Baldin
iñoiz libertadeko
izarren argira
odoi arre illunak
bildutzen badira,
oju bat entzungo da
gabaren erdira
deitzen: Ernaniarrak
ta Ernani nun dira?

Zuzik, Zutik!
Gora! Gora!
Deadarra dijua
gora, gora,
egan mendiz mendi,
erriz erri, esanaz:
Zutik! -anaiari-.
Gora, bada, guziyak!
Zutik dago Ernani
berriz biziya eskintzen
libertadeari!
Ta ernaniarrak
eskiñi ezker
beren biziya
nai badira,
azkeneko asnasea,
azkeneko zaña
ustu ondoren
bizirik gabe
eroriko dira.

*Libertade maitea,
bandera santua...*

* * *

Bertso edo itz-neurtu auek, beren izenburu eta ondorengo adierazpenarekin, Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude.

Gaia aurreko bertso-saillak zuan ori bera daukate. Baiña emen Ernaniko erriari goralpenak egiten zaizkio, bonbardeoa aitatu gabe ordea.

Banaka

Bertso banaka batzuk eskeiñiko ditugu orain. Auek ere lagunak izango zituzten, baiña galduak dira.

Orregatik, lagunik gabe eskuratu ditugulako, noizkoak diran eta bestelako txeetasunik somatzeko biderik ez digute ematen.

Guziak bigarren gerratekoak diran ere ez dakigu. Bearbada, leenengo gerratekorik ere izango da tartean.

* * *

Kopla edo bertso-erdi au, aurreko adierazpen orrekin, *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik degu:

“Pocas tropas carlistas, apostadas en el alto de Campanzar, obligaron a regresar a Vizcaya a una columna liberal que intentaba pasar a Guipúzcoa, y de ahí surgió el cantar:

Irurogei karlistak
iru milla beltzi
nai zutena egiten
ez zioten utzi”.

* * *

Bertso au ere *Barón de Montevilla* zanaren bildumatik artua degu:

Santo Tomas goizeko
iru t'erdietan
etzeguan atsegin
Ategorriyetan;
petxutik estu eta
kaka egin galtzetan,
orra zer kobardiak
diraden beltzetan.

Irunen jaio eta Plazentzian bizi eta il zan Jerardo Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman beste onela arkitu degu bertso au:

Santa Tomas eguna
señalamente zan,
gauza atsegingarria
Ategorrietan;
betarik izan ez ta
kaka egin galtzetan,
orra zer kobardiak
diraden beltzetan.

Juan Olazabal zanaren *El cura Santa Cruz guerrillero (Vitoria, 1928)* liburuan ere agertu zan bertso au, aurretik oar au duala:

“...aún resuena en nuestros oídos aquel cantar que corría por toda la Provincia, excitando la hilaridad general al enaltecer el valor de los nacionales en aquella festiva estrofas que decía así...”.

Eta ondoren bertsoa, baiña Montevilla-k bezela, bigarren eta zazpigarren lerroak izan ezik. Auek onela ditu: *amarterdiyetan* eta *Ah! Zer mutil prestubak*.

* * *

Beste bertso au, *Marqués de Valdespina* zeritzan karlistetako jenerala Oñatin sartu zanekoa omen da. Ala adierazten du bere bilduman *Barón de Montevilla* zanak. Bilduma ortatik artu degu bertsoa. Montevilla-k, berriz, Mondragoiko Juan Karlos Guerra zanaren eskutik jaso omen zuan.

Gipuzkoatarrakin
Ermuko Markesa,
balenkiro sartu zan
a la bayoneta,
zortzi mando arturik
munizioz beteta,
inguruan kañoiak
beltzai arrapatuta.

* * *

Urrengo bertso au edo bearbada bi bertso-erdi auek, Andoaingo Mariano Erauskin zanaren aotik jaso genituan:

Donostiako seme
Manuel Ibero,
Felix Etxeberria
sarjento primero;
batian arrastaka,
bestian elbarri,
txapel txurian kontra
ez geiago etorri.

* * *

Oraingo bertso au Tolosako Karmele Goñiren kuaderno bate-tik degu:

Biba Karlos VII,
etorri Madrilla,
orduán erretira
etxera mutilla;
gero asiko dira
danak andra billa,
gure gaitzak kentzeko
au gerta dedilla.

Kuaderno ortan beste onela dio laugarren bertsoak: *mutillak etxera*.

* * *

Oiartzunen jaso da beste bertso au, Olazar baserriko Jose Maria Zeberio Lekuonaren aotik. Berak bere amona zanari ikasia omen zuan:

Orrenbeste soldadu,
txandarme ta guarda,
orientzako ere
zerbaitxo biar da;

gerra zibil gaiztotik
Jaungoikuak guarda,
bostek artuko luke
koipe gabe salda.

* * *

Beste au ere Jose Maria Zebe-
rio orri berari zor diogu:

Anaia batek bestien kontra
enpeñatzen egiñalak;
izan bagña leialak,
iñor ilko etzien balak;
orain zeñek pagatu
biaizkik jornalak?

* * *

Onako puska, bere doiñu,
adierazpen eta guzi, Azkueren
Cancionero Vasco bildumaren
itzaurretik artuak dira:

*“Siendo yo niño aprendí en Ondárroa
la música de este himno con la letra:*

Tanparranpantan biar Bilbora noa,
tanparranpantan pezetabikotan.

Llamaban así a los soldados forales”.

Liberaletakoak ziran oiek.
Eguneko bi pezta zuten beren
soldata.

Ikus 41-garren doiñua, azken
orrialdeetan.

* * *

Urrengo bertso au Antonio
Arrue zanaren paperetan azal-
dua da. Bearbada, bi bertsoen
erdiak izango dira:

Oñatiko zapatari
Motxon deritzana,
diruak artu eta
aberastu zana;
Araotzko etxe batean
urreak kontatu,
mutillai batere eman ez,
danak berak artu.

Ondoren onako oar au:

*“Mochon -Emeterio Cortabitarte- tra-
bajó mucho para el primer levantamiento
carlista de 1872. La Constancia, 8 di-
ciembre 1926”.*

Bertso ori bera, batere aldake-
tarik gabe, Aita Apalategiren pa-
peretan ere agertu da.

* * *

Beste bertso au Aita Apalategi-
ren orri batean agertu da:

Españin badirade
ainbat gizon kaxkar,
elizarako mantso,
kaferako azkar.
Oiek dirala diote
gizon jakintsuak,
guk ere baditugu
gure maixuak.

* * *

Onako bertso eta doiñu auek,
1930-eko *Anuario de Eusko-Folklore*
urtekariak argitaratu zituan,
Oiertzungo Manuel Lekuona apaiz
jauna zanak Mondragoen jaso eta
bialduta:

Ikus 42-garren doiñua, azken
orrialdeetan.

Ango tiru ta ke ta lañuak!
An ziran, an, kañonazuak!
Karlistetako keneral paltsua
mutillak itxita iges egindakua...

Jose Ariztimuño *Aitzol* apaiz
jauna zanaren bilduman ere
azaldu da bertso au, baiña beste
onela:

Ango tiruak eta lañuak,
an ziraden kañonazuak;
mendiyetan gora igesi dijuaz
lengo karlistetako jeneral paltsuak.

Irunen jaio eta Plazentzian bizi
izan zan Andres Ezenarro *Urzelai*
zanaren bildumak bertso au ere
badu, baiña beste era ontan:

Ango tiruak eta lañuak,
an ziraden kañonazuak;
karlistetako jeneral faltsuak,
mutillak utzita iges eindakuak.

Azkenik, Urnietako Iñaki Alkain
bertsolaria zanari onela jaso
genion:

Karlistetako jeneral paltsuak
mutillak utzi ta igesi dijuaz;
ango tiruak eta lañuak,
an ziraden kañonazuak.

Aitunaren kantuak iloben erresposta

Gure aitunaren kantubei
ilobek erresposta,
degunez geroz frankeza.
Maestru zagarra zaren bezala
alabatzen'zu Eliza;
konseju maten asita,
gelditu zera nasita,
ipokresiaz beteta.

1^a Pta.: Gaurko denbora nasietan,
España ikusteaz neketan,
biotza daukat penetan;
au dela kausa mintzatuko dut
bertso berri batzuetan,
ez daien euskaldunetan,
nere jende maite etan,
deabrua ibili jostetan.

1^a Rta.: Deabrua jostetan
zu ta zu bezalakoetan
dabilla aspaldi onetan.
Zerendako zabiltzate
Karlos setimoren ketan,
seguro dakizuelarikan
ori eztaikela izan,
ez eta inkisizionikan?

2^a P.: Oiuka libertadea
in zen reboluzioea
engañatzeko jendea;
planta txarreko arbola unek
eman tuen fruitu tristeak
dira oraño artea
persegitzea fedea
eta jendea nastea.

2^a R.: Fede txarra ta nastura,
familietan tristura,
zubengandikan sortu da;
Karlos kintotik setimoraño
kontuak ongi atera,
zuen fruituen afera
torriko zate zautzera
alkerik eztuzuela.

3^a P.: Guziok dugu ikusten
kolpea nola kontra den
partikularki apezten;
errietako oi-u-ileak
ez dira gaizki jostatzen;
zein itsusiki mintzo diren,
nola duten kalumniatzen
pentsatzeaz naiz arritzen.

3^a R.: Asi zarete zagutzen
kontra garela apezten,
deklaratzeko ordu zen;
Karlosen tropa Iruritara
asi zenean agertzen,
ustez seguro zaukaten,
iru apez asi ziren
biba ta kopa edaten.

- 4^a P.: Kalumniatzen denean
norbaiten arrazoñean
idazten da zerbaitean;
inpio baten dotrina txar au
dago orien barrenean;
arrozoin ez dutenean,
dute beti, mintzatzean,
kalumnia mingañean.
- 4^a R.: Arrazoñaren faltan
zubek zabiltzaten plantan
kuasik eztaiteke erran;
jende prestuak eskomikatzen
kulparik gabe deusetan;
jaunak, konsidera ortan
obispo eta apezetan
fedea ona den denetan.
- 5^a P.: Zenbaiten falta delarik,
kulpatzea klaseari
ez da gauza zuzena ori;
fama ekentzen zaionean
kulparik ez duenari,
benturaz ez da faltarik
dizuen dretxoari,
dretxu gustagarri orri.
- 5^a R.: Distinziorik klasetan,
jaunak, eztaiteke izan,
zuek nai dezuten gisan;
nai deguna da errespetua
bertzeren ondasunetan;
eta, titul oben plazan,
anaiak garela esan,
naiz marabedik ez izan.

6^a P.: Edatzen zaiku azia,
Frantziatik ekarria,
an ez ontako utzia;
jende zenbaitek galdu nai'tuzte
gure kostunbre guziak;
firme eskualdun erria,
relijio onean azia,
eta biba España!

6^a R.: Zuek nai duzuen azia:
relijio bat berria,
aitor zazue egia;
guretako denak bekatu,
zuek libre pikardia;
daukazuen malizia
nai badezue zagutzea,
aski da obrak ikustea.

7^a P.: Bear dugu erregea
eta Jesusen legea,
fuera fite erejea;
sekta gaiztorik ez da konbeni
gure lekuan sartzea;
guarda dezagun fedea,
birtute salbatzalea,
untan nai dugu iltzea.

7^a R.: Errege orien kontuak
ez dire zuen santuak
obligazioz artuak;
sekta gaiztoko jendiak zubek,
paperan alde diruak,
Karlos setimoin bonuak,
irabazi andiz artuak,
denak tuzue galduak.

- 8^a P.: Elizak tuzte urratu,
imajinak errestatu,
Birjinaiña terreatu;
maldade otaz ezpide ziren
oñik ongi satisfatu:
Ama Birjiña, barkatu,
naiz gaiztoak kalumniatu,
onek zaituzte laudatu.
- 8^a R.: Eliz orien urratzen
eta imajinak terreatzen
emen ez degu ikusten;
kusi duguna bikario bat
elizatik ateratzen,
zeren liberala zen,
mezperak zaudelaik erraten,
Jauna're manifesto zen.
- 9^a P.: Español odol puroa
den zenbaiten barrenekoa
da gauza bat dudakoa;
¡Viva, viva la liberté!
ori oiugu gabatxoa;
itz ori ez da emengoa,
berak dakite nungoa;
guk nai dugu lekukoa.
- 9^a R.: *¡Viva, viva la liberté!*
gabatxo dela diote,
inkomodaturik fuerte;
libertadea itz ederra da
latinez kantatuta're;
meza sandua guk ere
batere entenditu gabe
bortzetan entzunak gaude,

10^a P.: Nai dugu libertadea
oriena baño ohea
Españan izatea;
relijioneak debeku tuenak
aski ez da egitea;
au ez da sujetatzea
injenio eta abildadea,
ez eta gibelatzea.

10^a R.: Zuen libertadea
ikusi degu astea,
nekez baitzauku anztea;
“¡Viva religión!” oiur egin eta
zaldi bida ebastea;
ori ez bada tristea,
gure Jaungoiko maitea,
barka dakuzu ertea.

11^a P.: Lenagoko denboretan
relijio bat zen denetan
Españako partidetan;
gizon andiak etziren falta
orduko jende onetan,
bake ederra errietan,
indarra soldaduetan,
bitor andiak gerletan.

11^a R.: Lenagoko denboretan
jendea franko neketan,
bertzeik eztaiteke erran;
apezak nausi zuzten eta
bakea nola errietan,
inkisione gorritan,
trunko zagar batzuen gisan,
erretzen zuztelarikan?

12^a P.: Garaitu zuzten moroak,
Napoleonen orguloa,
eta gero Marruekoak;
fedea batetik logratuz gôztik
gisa untako triunfoak,
zendako sekta falsoak,
galtzeko religioa,
paratua Jaungoikoak?

12^a R.: Marruekoaren gerran
fedea batekoak ginan
bear dakuzue erran;
errege tartan eta Elio (*sic*)
zertara etorri ziran?
Zuben fedeko jendairan
solas ederrak mingañan
ikusten degu Españan.

13^a P.: Kristau onak, begira:
ensaiatu bear dira
dotrina onaren segidak;
ardi-illez estalik dauden
otso batzuek badira,
ez dira agertzen argira,
gazte bilan eldu dira,
gurasoak, ez deskuida.

13^a R.: Otso orien afera
egin duena atera
urbil ibili bide da;
guk gaztetik ez kostunbreik,
zagartu eta ez gauza;
ori artzain onain gisa
zeren ensaiatu baita,
konprenditzen daku aisa.

14^a P.: Ama Birjina maitea,
tristen kontsolatzalea,
guzien ongi egilea;
arkitzen garen pena tristetan
nai degu zure estalpea,
egin zazu mertxedeia,
grazia eta faborea,
erdiesteko bakea.

14^a R.: Ama Birjina maitea,
orra orien alkea;
gaizkiak in ta eskea;
mundu guziaz burlatu eta
na'ute zure estalpea;
Luziferrekin partea
baitute orai artea,
on inen dabe purgatzea.

Adios, gure aituna,
bertsoetako laguna,
bai eta ere zaguna;
deseatzen dugu anitz urtetan
izan dezaun osasuna,
bakea eta fortuna,
kantatutzeko aitzina,
barkatuz gaizki egina.

* * *

Bertso auek Jose Ariztimuño
Aitzol zanaren bildumatik ditu-
gu. Bertso-paper zaar bat da, ge-
rra denborakoa seguru aski.
Izenburuak adierazten duanez,

aitona-illobak alkarrekin egiten
duten alkarrizketa da. Aitona
karlistak bertso batean galdera,
eta illoba liberalak urrengoan
erantzuna. Baiña illobak esanda-

koei indar geiago ematen zaie, eta bertso auek liberalen batek jarriak dirala dudarik ez da.


Euskera Baztan aldekoa dala esango genduke. Baiña erri-izen bakarra aitatzen da: Irurita. Bertakoa ote bertso auen jartzaillea?

Zazpigarren bertsoak *bonoak* aitatzen ditu. Leen ere zerbait esan degu oietaz. Karlistak dirua bear, eta *bonos* izeneko paper batzuk atera zituzten. Jendeak erosi egiten zituan eta gorde, gerra irabazitakoan diru ori bere korrituarekin eskuratuko zuala-

koan. Baiña gerra galduko dutela eta dirua ere galdutzat jo dezake-la esaten dio illobak aitonari.

Amabigarren galde-erantzunak, Marruekoak eta ango gerra aitatzen dituzte. Gerra ori 1859-1860 urteetan izan zan. Ikus: *Auspoa*, 129.

Noizkoak ditugu bertso auek? Artean gerra ari zala jarriak. Amalagarren galderak Ama Birjiñari "grazia eta faborea erdies-teko bakea" eskatzen baitio. Baiña gerrako zein urtetakoak diran ezin esan.



Alfonso XII Madrillen sartzen, 1875-I-15-ean. (Marqués de Lozoya:
Historia de España, Tomo VI, Salvat, Barcelona, 1970.)

Gerratea

Onako auek gure *Udarregi bertsolaria* liburutik artuak ditugu: Auspoa, 56. Bertsolari onek, izan ere, naiz eta armarik ez artu, gerra ura oso urbilletik ikusi eta jarraitu zuan:

“Atal ontan esaten diranak, Mateo Landa Alkain Udarregiren billobaren aotik jasoak dira: aren alaba baten semea bera, eta Artikula-aundi baserrian jaioa:

Gure etxeak Mendizorrotz eta Bordatxo edo Arratzain mendiak ezker ta eskubi ditu; bien tarteko lepoan dago, Donostia aurrez aurre duala.

Orregatik, karlisten gerratean, komeri latzak ikusi ziran an. Soldadu-saillak, batzuetan karlistak eta besteetan liberalak, maiz samar etortzen ziran.

Gero, denbora luzean, karlistak Mendizorrotz, Bordatxo eta Bentazikiñ-en egon omen ziran; liberalak, berriz, Igeldoko Gudamendi-n. Karlistak Bordatxotik tiratzen zizkioten granadak Do-

nostiari; baita liberalak erantzun ere.

Artikula-aundi baserriari ere tiratzen zioten, karlistak bertan gordeko ziralakoan. Etxe aundia zan: bi bizitzakoa. Gure etxekoa, tiroka alde batetik asten ziztaizkienean, beste aldeko bizitzara iges egiten zuten. Iru aldiz jo zuten granadaz. Pareta bat pasa eta bestea pasa gabe gelditzen zan granada.

Granada batek etxe-ixkiña jo eta arri sillarea puskatu zuan. Oraindik ere ala dago, iñork ikusi nai badu.

* * *

Udarregi bera ixpitzat artu zuten. Ez dakit karlistak ala liberalak ziran. Il egin bear zutela. Udarregi, ordea, aldameneko borda batean, garo-pillan sartuta izkutatu zan.

Bañan soldadu tzar aiek, andik erretiratu baño len, borda ari

su ematen asi ziran, an iñor ote
zan pentsatu ere gabe.

Udarregik neskame bat zeu-
kan, Pantxika, urte-mordoxka bat
zuana. Onek, soldaduei morrale-
tik eldu eta atera egiten zituan
bordatik, eta sua itzali. Orrela sal-
batu zuan bere nagusia.

Gero, neskame ura, San Pran-
tziskotan, Agiñagako festetan
alegia, etxera konbidatuta etor-
tzen zan urtero.

Usurbilko Erruki-etxean il
zan. Entierroa Artikula-andik pa-
gatuko ziola agindu zion gure ai-
tonak, eta neronek eman nuan
dirua.

* * *

Beste batean, soldadu-sail bat
gure etxean gelditu omen zan
gaua pasatzera. Urrengo goizean,
jeiki zanean, iru kaka-pilla arki-
tu zituan gure aitona. Soldadu
aietan euskaldunak ere baziran
nunbait, eta onela esan zioten:

—Bota bertsoa oiri!

Bazekiten, ba, bertsolaria za-
na. Onelaxe kantatu zuan:

Goizian jeiki eta
jarri naiz begira,
bat ikusi nuan da
bestiak segira;
iñoiz patrullak sarri
etortzen badira,
gure suelo zarrak
zimaurtuko dira.

Allegatu zaizkigu
soldadu trastiak,
batzuek onak eta
gaiztuak bestiak;
ez ditu ikaratzen
propina uztiak;
errezibitu ditu
nere emaztiak,
ez du suerte txarra
izandu tristiak.

Ganbaran ein dizkigute
iru kaka-pilla,
orain joan bearra naiz
jabiaren billa...

Bertso geiago ere baziran”.

* * *

Bañan Felix Aizpuruak beste
onela jaso dizkio gertaera eta
bertso auek, Naparroako Leitzan
jaio eta Usurbillen bizi dan To-
mas Retegiri; onek bere aitari
ikasi omen zizkion.

Garai artan, gerratea bukatu
eta fueroak galdu ondoren, gober-
nuak patrullak jarri omen zituan
Euskal Erriñ. Sei gizonen taldea
izaten omen zan. Baserrietan bea-
rrezkoa omen zuten otordua eta
gaua pasatzeko lekua ematea.

Bein, Artikula-aundin tokatu
omen zitzaien gaua pasa bearra.
Seiak euskaldunak omen ziran.
Jakin omen zuten etxe artan ber-
tsolaria zegoana; eta, apalondoan,
taloa eta esnea jan da gero, egiña-
lak egin omen zizkioten kantatze-
ko. Bañan, batetik barrenak ez

agintzen eta bestetik bildurrak, ez omen zuan bat ere kantatu.

Urrengo goizean, aietako bati gogoak eman zion Udarregiri pegatzea; au da, txarkeria egitea; eta beren egin bearrak suelo gañean egin omen zituzten, eta taloa ta esnea janda joan omen ziran.

Bañan zer gertatu da? Urrengo egunean beren nagusiak agindu diete berriro Artikula-aundira joatea; eta orduan berak ere bildur, azio txarra eginda zeuden eta. Bañan esan omen zuten:

—Gaur ere esan bear zioagu, ba, kantatzeko!

Ezetz esango zuala uste zuten, bañan Udarregik erantzun omen zien:

—Bai; gaur kantatuko dizuet.

Eta onela bota zien:

Bart arratsian sartu zaigu
etxian patrulla,
ganbaran ein dizkiate
iru kaka-pilla;
maiz etortzen bazaigu
olako kuadrilla,
ez degu juan biarrik
zimaurren billa.

Oietik jeiki eta
jarri naiz begira,
antxen aurreraxeguan
beste bi segira;
maiz etortzen bazaigu
olako kuadrilla, (1)
gure suelo zarrak
ustelduko dira.

* * *

Errenteriako Baringarate-goiko baserriko Eusebio Zabalak iru bertso auk eman zizkigun, aurretik adierazpen au egiten zuala:

Onako bertsoak lengo karlista gerra zarrian tokatutako asuntua da. Zeñek jarriak diran ez dakit; bañan nik bertso auk onela aditu izan nituen: etxe batean bertolariren batek kantatu zituela.

Allegatu zaizkigu
soldadu trastiak,
batzuak onak eta
gaixtuak bestiak;
ez ditu ikaratzen
propina uztiak,
errezibitu ditu
nere emaztiak,
fortuna txarra eztu
izandu tristiak.

Goizian jaiki eta
jarri naiz begira,
pilla bat ikusita
bestia ensegira;
ikaratu eta ni
beste aldera jira;
oiek patrullara maiz
juntatzen badira,
gure solairu zarrak
ustelduko dira.

Ni enkargatu naute
bertsuak jartzeko,
gauza dan bezelaxe
nago esplikatzeko;
kontu politak dira
nunai kantatzeko,
nunbait propina zeuden
guri botatzeko,
argizai utzi dute
sala plotatzeko.

* * *

Aiako Errejista-goiko baserriko Jose Odriozolak onela esan digu:

“Egun batez, soldadu tzar batzuek arkume bat arrapatu zioten. Aren falta sentitu zuanean, berealaxe pentsatu zuan Udarregik zer izango zan. Joan zan soldaduengana, eta orduantxe zijoazen jaten atera. Onako bertso au kantatu zien:

Penagarriyak dira
olako kasuak,
eztizkidazue eragin
alperrik pausuak;
zueiri ere gustatzen
mokadu goxuak,
zeren kulpa zedukan
arkume gaxuak?”

(1) Bi lerro auek errepikatuta daude. Aurreko bertsoarenak izango dira, dudarik gabe.

Larraburu bertsolaria

Larraburu bertsolaria, Migel Antonio Otamendi Olaskoaga, Oiartzunen jaio zan, Larraburu baserrian, 1829-ko otsaillaren 3-an; eta 1876-ko otsaillaren 25-ean il zan.

Aren bizitzaren eta bertsoen berri, *Auspoaren sail nagusia*-n eman genduan, Xenpelarri eskeiñitako liburuan. Baiña karlisten bigarren gerratearekin zer ikusirik duten bertsoak eta gertaerak, emen ere sartu bearrak dirala uste degu.

Larraburu ori buruan oso kolpe txarra artua zan: Ardotx bertsolariak eskuan arri bat artuta jo baitzuan. Arrezkeroztik etzuan osasun onik izan.

Onela esan zigun, Larraburun jaio eta Errenteriako Añabitarte baserrian bizi izan zan Jose Etxeberría zanak:

“Buruko kolpe artatik askotan erotu egiten omen zen.

Eta kutxa aundi bat omen zen, eta an zerbait ere jarri oia bezela,

ta gizajoa an eukitzen omen zuten mikeleteak; kateekin lotuta eukitzen zuten.

Burua galtzen zuen, ba. Giza-joa! Eta, burua galtzen zuenean, edozer gauza igual egin.

Baztanga ere ez dakit, ba, arrapatu zuen. Baztanga-denbora nunbait ere; eta, Oiartzuna ia allegatuan bere buru nastu arekin, nola ara zijoala akordatu zanean, berriz jira ta etxera etorri zen.

Ta Larraburun mikeleteak, eta Buenaundi ortan karlistak, Txakurtxulo ta... Txakurtxulo zen komandantea edo ez dakit zer zuten(1). Or parapetuak eta denak. Oraingo gerran ere uste dut aprobetxatu dituztela.

Ta Larraburuko bi mugaren erdian sagar-arbol aundi bat omen zen, eta sagar-arbol ura mikeleteak edo or zeudenak bota omen zuten surtarako; eta, ondo pixka bat garbituta, bere artan omen zegoen. Sagar-arbol

aundia omen zen, eta Larraburu orri esan omen zioten:

—Ekarriko al ukek arbol ura?

Ta baietz iruditzen zitzaiola.

Gizajoa joan; an belauniko sartu arbolaren azpira, etzanda zegoen tokira; bizkarrean artu, ta arrastaka etxe-atarira ekarri zuen.

Eta ura ala ikusi eta negar egiten omen zuten soldaduak:

—Au onela ondatu duen gizonak, zer pikardiya egin duen!

Ainbesteraíño maite omen zuten. Gero, zutenetik ere jaten-eta ematen omen zioten.

Gure aita difuntuak ere askotan esaten zuen:

—Gizon arek gero ainbeste indar zuenean, zenbat indar izango ote zuen tankeraz zegoen denboran?

Olako asko kontatzen zituzten lengo zarrak”.

* * *

Bertsoak ere badira Larraburuk gerra artan jarriak. Iruñen arkitu genituan, *Barón de Montevilla* zanaren bertso-bilduman. Asieran onela dio erderaz: “*Del bertsolari “Larraburu” de Oyarzun*. Eta ondoren iru bertso auk:

1

Oiartzunen zaizkigu
gizonak etorri,
neronek ikusiyak
zeinbat galtza gorri;
Don Karlos jauna ere
emen degu sarri;
Mariya Santisimak
egingo du argi,
Jaungoikuak badaki
mundukuen berri.

2

Karlosek bear badu
emen soldarurik,
gure artian bada
gizon segururik;
berekín ekarritzen
ezpadu oberik,
ez du, ez, ipiñiko
nai duen legerik;
egunak mudatuko
al dira oraindik.

3

Kalietan ojuka
zenbait *tuno* bakar,
otsegiten dutela:
“¡Viva la libertad!”.
Galdia egin diyot:
“Gauz orrek zer dakar?”.
Gezurra esan didate
amabitik amar.(2)

Don Luis Jauregi zanak ere badakar bertso au bere *Xenpelar bertsolaria* liburuan, 47 orrialdean. Xenpelarren sail batekoa da la dio, baiña ez da ola. Sail ori liburu ontan leenago eskeiñi diogu irakurleari. Papera, Xenpelarren denborako papera, Don Joakin Yrizar jaunaren liburutegian arkitu genduan; eta paper ortan bertso ori ez dago.

Errenteriako Jose Goñi zana-
ren aotik ere jaso nuan bigarren
bertsoa, piska bat aldatuta noski:

Karlosek biar badu
soldadu berririk,
gure artian badu
gizon segururik;
berarekin ekartzen
ezpadu oberik,
kontserbatuko al da
kristauen legerik?
Egunak mudatuko
al dira oraindik!

Baiña bertso auek zein urte-
tan-edo jarriak diran somatzea,
ez det uste erreza izango danik,
artarako biderik ematen ez dute
eta.

(1) *Txakurtxulo* izengoitia zuan; San-
tiago Irazu izen-deiturak. *Txakurtxulo*,
bere etxearen izena. Ostatua zan; Donos-
tian, kale nagusiko sarreran, leenengo
etxea ezkerretara. *Teniente coronel* izan
zan; Gipuzkoako irugarren batalloiaren
buruzagia. Munuaundi'n —Buenaundi
ori bera izango da— zauritu omen zuten;
Azpeitiko Loiolan, karlistak an antolatua
zuten ospitalean alegia, il zan.

(2) *Amarrek* edo bearbada *amark* be-
arke luke emen.



Gipuzkoako mikelete-talde bat. (Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1872-1876)

Karlisten gerratea

Mikela Elizegi zanak(1) onela kontatzen ditu gerra artako bere oroipenak:

Konportako gizona zegoan orduan Astiasun alkate: Jose Antonio Ugalde. Gau batean, Konportara etorri ziran soldaduak, karlistak, esanaz:

— Olako lekutara bidea erkus-teko bat edo bat bear degu.

Ango gizona *beltza* zan; da karlisten bildurrez etxeko “alan-breran”, alegia tellatura igotzeko zeran, gordeta zegoan.

Ta andreak erantzun zien:

— Pello Errotak erakutsi dizue.

— Zein da Pello Errota?

— Aldameneko errota ortako gizona.

Ala, gure etxera etorri ziran. Gu danok oiean giñan. Zer nai zuten esan ta an eraman zuten gure aita, alpreta jazteko beta gabe anka bat ankutsik zuala. Ama negarrez gelditu zan.

Bidean zijoazela, ala esan zion aietako batek:

— Ez ikaratu, Pello; ez dizugu ezer egingo.

— Zer ba?

— Olako lekutara olako ordutarako joan bear degu erremedio gabe: ordena degu eta ez dakigu bidea; ta zuk erakutsi bear diguzu.

— Bidea erakutsiko dizuet. bai, —esan zien, ta orrela joan ziran.

* * *

Beste gau batean, karlistak Lizarraga beren jeneralarekin etorri ziran. Onela esan zuten:

— Tira, Pello: Urkamendira joan da beltzak an diran edo ez diran ikusi bear dezu.

Urkamendi ori Adunako erreka aldetik dago, Aduna ta Zizurkil tartean. Izen ori omen du,

antziñako gerrate zar batean jendea antxe urkatu ta ito egiten zutelako.

Ezetz esaterik ez, eta agindu bezela joan zan gure aita.

Gure etxetik ez da mendi ori ikusten; bañan aldameneko etxetik, Konportatik, ederki ikusten da. Andik begira jarri giñan gu danok. Gure ama negarrez; ta gu, berriz, umeak.

Errotariak irin-kutsua beti izaten du, ta gure aita txuri-txuri egiña zijoan, ta gogoratu ez ala zijoanik. Ta gauean oso agiri zijoan.

Gain artara iritxi zanean, liberalak antxe izkutuan jarrita egokitu, ta bat-batean alkar topogin zuten. *Dik-dak* tiroka asi zitzaizkan.

Aidean itzuli abiatu zan, ta liberalak *dik-dak* atzetik.

Luzuriagako karobia saltoan pasa zuan, ta gero bere burua amilka bota zuan aldapan bera.

Bitartean, gu ori dana ikusten Konportako leiotik. Ta alako batean bistatik galdu zitzaigun. Orduan etsi zuan gure amak aita bizirik ikustea. Ta Lizarraga ori an bertan zegoan ta onela esan zuan:

— Gure paixanua il izain da.

Gure ama zanari etzizaion Lizarragaren esana aztutzen. Onela esaten zuan:

— Ori esan bear al zuan, ba, nere aurrean, patxara guztiarekin?

Lizarraga ori etzan emengo umea: Oiartzun aldekoa edo narparra izango zan.

Ta alako batean an agertu zitzaigun gure aita, gizarajoa. Aindlebeste tiro aldamenetik bota izanagatik, balak etzuten ikutu ere; bañan elastikoaren puntak zuloz beteta zituan.

* * *

Gero, karlistak aldegin ta liberalak Urkamenditik jetxi ta etorri ziran.

Konportan sartu ta eraman zitezken gauz guztiak artu ta eraman zituzten. Aiek ere aldegin zutenean, onela zion ango etxe koandreak, Xalbadorak:

— Ene! Bataioko txapela ere ostu digute. Andrea aurdun duan bat edo batek eramango zuan ori.

Etziran gure etxera etorri. Etxe txiki artan etzala ezer izanog pentsatuko zuten.

Gerrate artan errespeto gutxi zegoan. Baserrietatik txekorrak artu ta eramaten zituzten. Emakumeak kutxen barrenean izkutatutzen ziran, soldaduen bildurrez.

* * *

Soldaduak olloak il da jaten ziztuztela-ta, gure etxean zer egiten zuten? Orain ez dira ikusten, ba-

ñan garai artan baziran *kuela* izeneko ontzi aundi batzuk; zurezkoak ziran da gaña irikia zuten. Antigualeko amonak zapi zuriak egosteko ziran.

Ba, etxeko olloak kuelan sartu, gaña tapatu ta errota-pera eramaten zuten. Ura an burrundan, zorrotan, joaten da, ta aren azpian jartzen zuten *kuela*.

Tanta batzuk sartuko ziran, bañan gutxi.

Zeñi gogoratuko zitzaion an olloak zeudenik? Ala, gerra-denbora guztian ollo gutxi paltatu zan gure etxetik.

Zituzten arropa pixkak gordezko, berriz, orduan baulik etzan izaten, da antigualeko kofre aundi batean arropa danak sartu ta Tximelaeneko baratzen eramaten zuten.

An zulo bat egin, kofrea zuloan sartu, lurra gañetik bota, ta gero txorkotxakin tapatzen zuten. Txorkotxa artoaren zuztarra da.

Noizean bein, gauean, aita kofrea ta arropak an segitzen ote zuten ikustera joaten zan.

Amak onela galdetzen zion gero:

— An al daude?

— Bai; ikusi ditut. Ez da ezer paltatu. Txorkotxakin tapa-tapa eginda utzi ditut.

* * *

Nik sei bat urte izango nituan orduan, eta gogoan izaten det nola egon nintzan egun batean Konportan, mapillaren azpian, taloak egiteko kajaren azpian alegia, *beltzak* Eizmendiko Manuel Antonirekin erderaz itzegiten zuten bitartean. Besteekin etziran entenditzen, da arekin bakarrik. Gu artean *sí* ta *no* ere ikasi gabeak izango giñan. Gure aitak erdera pixka bat bazekian; bañan amak batere ez.

Gure atariko intxaur ondoan soldaduak sua eginda, batere zuritu gabe ta batere oliorik bota gabe, patatak lata batzuetan zerrientzako bezela egosi ta jaten zituzten. Ez dakit karlistak edo *beltzak* ziran.

Gu, ume koxkorak ere, an ibiltzen giñan, da guri ere ematen ziguten, da aiek bezela jaten giñuzen.

* * *

Ameriketean il zan aizpa, egun batean bazijoan errotatik Konportara, ta Pete sagastian zeuden bi soldaduk ola esan zioten alkarri:

— Bi mototxakin dijoan arako nexka ari baietz apuntatu!

— Ezetz!

Ta *dik-dak*, bi tiro bota zizkaten, bañan etzioten apuntatu. Gero jakin genduan guk ori, soldaduak berak kontatua.

Ura ere bizimodua zan!

* * *

Tiroka ere aritu ziran, batzuk Larraul aldetik eta besteak gure etxe ondotik. Bitartean, gu gordeta bazterren batean.

Gero, bide zarra ta ango bazter guztiak kartutxo utsez beteak gelditu ziran. Kartutxo-azal oien truke diru pixka bat ematen zuten, da gu danok aiek biltzen ibilli giñan.

Beteak ere arkitu zituan gure amak: eta, utsak baño obeak ziralakoan, eraman zituan. Bañan etzizkaten artu; balio etzutelako boteak zirala esan zioten.

* * *

Santa Krutz apaiza ere ezagutu nuan. Apaiz beltz-beltz bat zan.

Santa Krutz eta Lizarraga etziran ondo konpontzen; eta Santa Krutzen mutil bat, Antxuxe, Oiartzungo semea, orregatik afusillatu zuten. Antxuxe ori kapitana omen zan, oso mutil fiña. Ilzutenean, arek bi itz bakarrik esan omen zituan:

— Motellek, ni fiña naizelako niak iltzera. Izan fiñak aurrera ere. Nik ez daukat penik fiña izana.

Ta *dik-dak* bota ta il zuten.

Ta aren lagunai bi buelta gorputzaren jiran eman arazi zizkieten, ari negar egiten ziotenak ainbesteko paraderoa izango zutela esanaz. Orduan ere kome-riak ziran!

Karlistetan ibillia zan da ori dana osaba Juan Krutzek kon-tatzen zigun. Ura karlista ente-roa zan.

(1) Mikela Elizegi, Antonio Zavala: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, Auspoa 32, 1963)

(1876)

Apezenak

1

Karlosen desira zen
Españian nausi,
suieten publikatzen
nahi nuke hasi:
nola kurritzen baitu
montaña eta sasi,
ladronkerian baizik
ez dute ikasi.

2

Karlos abiatu zen
sazerdoten lagun,
tema hortan direla
badu zonbait egun;
guk emanak nun diren
ez dira ezagun,
zer etxeko semiak
dotatzen ditugun!

3

Nahaskerian dabilta
zonbait sazerdote,
berak direla kausa
ez ditugu maite;
gizon gaixtua frango
konberti lirote,
mintzo diren bezala
goberna balite.

4

Sazerdotek diote
otoitz egiteko,
Karlos benedikatu
setimorendako;
ladronguari benta
una eman dako,
lurreko abitante
guzien publiko.

5

Ohore bide zaio
karlisteriari,
noblezia dutela
gerlaren gidari;
batailan segurretik
nahi dute ari,
garrik formatu gabe
kabaleriari.

6

Karlisten usaia da
ez abantatzeko,
entregu ez badira
batailan artzeko;
sasiko alderdia
baliatzen zako,
otsuen gaztelura
erretiratzeko.

7

Laborari gaixua
aisa da erori,
hobenik egin gabe
sekulan nehuri;
sortu giren guziek
badakigu hori:
zorrik ez ginuela
Karlos setimori.

8

Karlosen abantailak
nahi tuenak aditu:
traidore horiekin
faboriak baditu;
nazione guzia
arruinatu gaitu,
lorian bizi ginen
ez balitz agertu.

9

Zonbaitendako on da
haren agertzia,
guri tokatu zauku
anitzen galtzia;
arrazoina ezin pasa,
hau ezin-bertzia!
Nagusi den partia
beti sinetsia.

10

Laborari pobriak
derama bizia,
lurrarekin borroka
denbora guzia;
familiako eskas
bere irabazia,
apez edo notari
hobe da jartzia.

11

Karlosen defentsorrak
jarri ziren teman,
oren baten bakerik
ez dagute eman;
erdiak destruitu,
beste erdiak ereman,
obra onik in dute
gure erresuman.

12

Karlosen defentsorrek
duten pasionia,
guziak ohoinguan,
zer anbizonia!
Konformatzen hasi da
gure nazionia
esku onetan dela
errelisionia.

13

Adinetan aitzina
izanikan ere,
egiaz mintzatzeko
ni ez niz herabe;
afer tunante batzu
gure onen jabe,
lehen zerbait zutenek
orai deus e gabe.

14

Baliatu direno
zerbait engañoiz,
bakerik etzitaken
heien amodioz;
errefusarik gabe
egonak serios,
jaun haundi egin dire
gerlaren medioz.

15

Kanbiatzen hasi da
Karlosen segida,
famaren arabera
flakatzen ari da;
Frantziarat omen du
oraiko salida,
segur niz montañetan
ez dagola fida.

16

Finkatu nahi zuten
Karlosen legia,
ez litake komeni
erten dun egia;
injustuak baidira,
dena zarkeria,
Españiatik ihesi
errege nahia.

17

Nafarrua eta bertze
iru probintzia,
etzuten karri nahi
obedientzia;
orai hobe lukete
umiliatzia,
ez badute bilatzen
esklabo jartzia.

18

Karlos damu litake
abandonatzeko,
maluroski sortu zen
gure penatzeko.
Zer arrazoin ginuke
haren maitatzeko,
deretxorik ez du ta
orotan artzeko?

19

Erruak barna ditu
jenden maleziak,
deusik ez du balio
finaren biziak;
lana frango baluke
orai justiziak,
kastiga balizate
traidore guziak.

20

Obraren arabera
dira informiak,
arruinatu dituzte
gure eremiak;
bai eta galarazi
aitamen semiak,
piedade gabeko
gizon infamiak.

21

Indarra heldu zela
Gobernamendutik,
Karlos ikaratu zen
guzien gainetik;
erretira egin du
ahal duen lekutik,
trenpian heldu ziren
etsaiak ondotik.

22

Diputazionia
pasatu zan lehenik,
nahi zuten xikana
guzia eginik;
ez ahal da nehor e
Europan gizonik,
horiek bezain aisa
aberastu denik.

23

Formatu zirenian
bataila kanpalak,
fite bildu zituzten
karlistek egalak;
benedika ditela
armada legalak,
biba Alfonso eta
haren jeneralak!

24

Jaunaren azotia
ez bezate etsi,
flakatu arteraino
ez dute sinetsi;
igortzen ahal dute
Españari goraintzi,
sekulan ez dirote
Gobernurik bentzi.

25

Nola baita sobera
Karlosen botuko,
badakit ez nautela
grazian artuko;
ni ez niz aintzinago
deusetan sartuko,
in aeterno ez dute
par ori pastuko.

* * *

Noizkoak ote ditugu bertso auek?

Aundi samarrak esaten dira sail ontan karlisten aurka. Baiña oiek liberalak gerra-denbora guzian esan zituztenak izanik, ez dago ortik ezer ateratzerik.

Baiña, 15-garrenak dionez, "kanbiatzen hasi da Karlosen segida"; eta "Frantziarat omen du oraiko salida"; 16-garrenak: "Españiatik ihesi errege nahia"; 21-garrenak: "erretira egin du ahal duen lekutik". Don Karlosek alde egin ondorengo bertsoak, beraz.

Are geiago; 19-garrenak: "lana frango baluke orai justiziak, kas-

tiga balitzate traidore guziak". Gerra bukatutzat ematen duala dirudi.

Eta 23-garrena bibaka asten da errege Don Alfonso eta bere jeneralen alde.

Kondaira-liburuak diotenez, berriz, Don Karlosek 1876-ko otsaillaren 28-an igaro zuan muga, Luzaide eta Arnegitik barrena ain zuzen, "¡Volveré!" esanez. Orduantxe amaitu zan gerra ura.

Bostgarren bertsoak onela esaten du: "garrik formatu gabe kabaleriari". Beste iturri batzuek, berriz, onela diote: "garre formatu gabe kabaleriari"; edo "karre".

Garai artako gudalozteak egin oi zuten mugimentu edo *manio-bra* bat da ori. Zaldizkoak eraso-takoan, oiñezkoak *cadre* edo *cuadro* bat egin oi zuten, esi bat alegia, eta artan bildu, baionetak kanpo aldera jarriz.

* * *

Bertso auek Jose Maria Sastrustegiren *Bordel bertsolaria* liburutik (*Auspoa*, 45-46) artuak ditugu.

Badakigu, beraz, nor izan zan bertso auen egillea: Luzaideko Juan Etxamendi bertsolaria, *Bordel* izengoitiarekin ezagutzen zana (1792-1879).

Aurretik onela esaten du Sastrustegi jaunak:

“Izenez ez da gaizki kantu au: *bertso liberalak* dira batzundako. *Karlisten kantiak* deitzen dituztenak badira. Luzaiden *Sazerdoten kontrakoak* erraiten diete gehienek. Izatez ere, “sazerdote” itz ori ibiltzen du Bordelek lenbiziko bertsutan; eta behar bada au izango luke izendatzeko modurik ederrena.

Alare, “*Apezen kantuak*” direla aditu izan dugu eta itz onekin gelditu gera.

Behin, Arnegiko festetan, Sinke’nian gertatu omen zen Bordel eta nahi izan zazkoten “Sazerdoten kontrako” kantuak kantatuazi. Bana, ez kantatu! Ager-

tzera eman izan behar zuen damutu zitzakola egitea”.

Bertso auek zein doiñutan kantatu bear diran jakin arazteko, onela dio Sastrustegi jaunak: “*Airea: Kattalin, ttuku, ttuku, Kattalin arina*”.

* * *

Bertso auek nundik jasoak dituan adierazteko, berriz, onela esaten du:

“*Juan Cruz Arrosagaray*.- Luzaiden bilduak ogei ta bi bertsu ziren. Irur gehiago ekartzen ditu J. Cruz’ek: 15, 16 ta 18’garrenak. Berak emanetan aldatutako itzak: 14/7: erresusarik.

17’garrenean, “Nafarrua eta bertze / iru Probintziak” obeki egongo litzake. Alare, ekartzen duen bezela utzi dugu.

22/4: guziak; 23/2: kanpanak.

Errian egiten diren bertsuak.- Luzaiden kantu auek egiten dituztenak badira. Batek bertsu bat eta besteak erdia, ogei ta bi bildu nituen.

Aldaketa txiki batzuk ere badira: 5/2: karlisteria-(ri); 5/7: garre formatu gabe / kabaleria-(ri); 7/1: Laborari humia; 7/5: sortu diren guziek / badakite; 9/3: zaigu; 9/5/ arrazoina; 10/1: Laborari humiak; 10/3: lurraikilan; 10/5: familiar; 12/4: zer azionia; 24/2: ez du zeren etsi (etsi: *cerrar*. Uste izan dute “etsi”: *desesperar*, *desconfiar* bezala zela eta aldatu dute bertsuak).

Aita Donosti zenaren bertso-bilduman bada Argentina-ko euskal bertso-kuaderno baten kopia. Auetarik zortzi bertso ditu: 1, 2, 4, 5, 6, 11, 7 ta 10. Izena, be-

rriz, onela du: Carlos zazpigarrenaren
kontra.

Aldaketak: 1/5: nola kurritu baitu;
4/5-6: ladronkeriari benta / ona eman
daiko; 5/1: Ohore bide zaiote; 5/3: no-
bleza dutela; 5/7: karre formatu gabe;
6/4: batallan hasteko; 6/6: baliatzen
zaiko; 6/7: otsoen kastillorat; 11/4: ez
daikute eman; 11/6: bertzeak ereman;
11/7: obra onik egin dute; 7/1-2: Labo-
rari flakoa / aise da erori; 7/5-6: sortu
diren guziek / badakite hori.

Eta 10:

Laborari gaixoak
deraman bizia,
famiak eskas
bere irabazia
lurrakin borroka
denbora guzia
apez edo notari
hobe du sartzia”.



Gerraren bukaeran, Alfonso XII Lizarrara sartzen.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1876)

Bertso Berriak

1

Kanta ditzagun orain
zenbait bertso berri,
esplikatzegatik
sentiduan garbi:
illak falta ditugu,
ni nago elbarri,
gerrak bentaja onak
dizkigu ekarri.

2

Karlistak irten giñan
fedearen alde,
fanfarroi gerrarako
giñanak alegre;
alferrik lan eginda
umilduak gaude,
gure enpeño oiek
juan dira debalde.

3

Engañatu ginduzten
juateko mendira,
arrika emateko
geren alderdira;
buruak arrotuta
beti pikardira,
gure ideak danak
orrela izan dira.

4 Eskapatu digute
gizon ondrosoak,
emen gelditu gera
deskalabrosoak:
batzuek anka falta,
besteak besoak,
negarrez dauzkagula
geren gurasoak.

5 Gu eraman ginduzten
etxetikan merke,
al dutena batzuek
boltsak bete arte;
Españian badegu
makiña bat kalte,
traidore pikaroak
ondatu gaituzte.

6 Zori gaiztoko gerra
izan da guretzat,
eta partikularki
pobre askorentzat;
iru anai giñaden
gu len amarentzat,
bi ill ta ni anka motz,
negarra juaten zat.

7 Iru urtez serbitu
ditugu falsoak,
lanerako indarra
falta gurasoak;
guk lagundu nai eta
penatzen gaixoak,
biotz ona daukagu
relijiosoak.

8

Gerran urteak pasa,
etorri naiz utsik,
bizia dedanean
banagoke pozik;
nerez ez zetorkidan
barrendikan gaitzik,
apaiz batek bi gizon
ill erazi dizkit.

9

Orra aprobetxatu
relijiyuari,
zenbait seme eragin
diona ankari;
gu zenbait geiago ill
oriek kantari,
ez digute alderdi
gaiztoa ekarri.

10

Kontu itxusi asko
pasa da gurekin,
reglamenturik ez dan
alderdi onekin;
diruak kendu eta
eriyotzak egin,
zenbait orla pasa dan
Jaungoikoak jakin.

11

Eskerrik asko orain
gobiernuari,
etxerako modua
orrek digu jarri;
beretzat para ditu
parajeak garbi,
ez du orrek eskoba
gaiztoa ekarri.

12

Panparroi juan arren
txit gera umildu,
nekazaria ere
sobra zaigu mindu;
bartzarrak galdu eta
gu gerok zikindu,
ez nuen kantatuko
egin ez bagindu.

13

Fundamentu txarrean
giñalako asi,
gelditu gera orain
len beziñ itxusi;
gu txupatzen zebiltzan
furrial ta guzi,
modu artan guk gerra
eziñ irabazi.

14

Oraingo gerran orra
guk bazterrak nastu,
ez digute alderdi
txarra seguratu;
gaizki asitu lanak
azken onik ez du,
buru gogortasunak
onetara gaitu.

15

Orra amabost bertso
nere buruari,
ni bezela jendea
konforma baledi;
erakutsi dirade
amaika komedi,
errege Don Alfonso
orain goza bedi.

* * *

Amabost bertso auek Chicagoko *New Library*-n azaldu dira, Bonaparteren bilduman.

Bertso-paper bat da, *Donostiyen*: - *Juan Oses-en moldisteguiyan* argitara emana.

Bertsolariaren izenik ez daki-gu. Ezta nungotarra zan ere. Auxe bakarrik esan genezake: gerran iru urtean ibilia zala eta bertsoak pakea egin berrian jarri zituala: 1876-ko otsailla ezkeroztik, beraz.

Bertso garratzak dira. Baiña motiborik ere bazuan, guk uste beintzat, bertsoetatik ageri denez.

Sail ontako leenengo zortzi bertsoak, Errenteriako Enrike Elizetxearen bilduman ere azaldu dira, eskuz idatzita eta aitatzetik merezi duan aldaketarik gabe.

Bederatzigarren eta amargarren bertsoetan, iru bider azaltzen da *zenbait* itza. Baiña, gure iritzirako beintzat, *zenbat* bearko luke.



Gerraren bukaeran, karlistak arma entregatzen, Tolosan.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa).

(1876)

“Zerbait egiteko asi...”

1

Zerbait egiteko asi,
guztai utsegin,
ori suertatu zan
karlista jaun okin;
Karlos Madriden sartzea
zutela atsegin,
ezer egin ezin eta
kasketa atzegin.

2

Karlos eta Markesa
zirala mediante,
Españian galdu zan
makiña bat jente.
Itxasora balira
biok derrepente...
Gerria atera zuten baña
ezin eman prente.

3

Karlostarrak ziraden
gizonak bastuak,
aren bandora urten
euskeldun astuak;
mutillak il, eridu,
gañera kastuak,
orretatik eldu jakuz
egunak estuak.

4

Probentzian Lizarraga,
Bizkaian Velasco,
atakiak gitxi eta
kobrantzak egin asko;
Karlos Madrillen sartzia
eztakigu noizko,
Españian badago
zenbait gizon paltso.

5

Islas ta Munioz
Bizkaiko nausiak,
artua jango leukela
askok ikusiak;
ez daukaguz txarrak
komandante gizon itxusiak,
orrek bere neurtuko ditu
beste justiziak.

6

Errira etorri jakuz
ojalateruak,
Españako lapurren
alkabuteruak;
guk mantendutzeko
tunante klaruak,
andrak emonak zituen
eukezan graduak.

7

Karlos buru aundi
arturik aurrian,
markesa-ta ebiltzan
aren ondorian;
sartu izan ez balira orrek
ankaz Españian,
milla batzuk ontzako baño
oba gendukian.

* * *


Bertso auek Jose Ariztimuño Aitzol apaiz jauna zanaren bilduman arkitu ditugu, *Poesías Populares 1936* izeneko sortan, *Aitita Malutakoren Abestiak* mordoskan, Markina-Barinagako Jose Maria Arriaga Zuazok bialduta.

Bertsoen aurretik oar au egi-ten da: "Ertzil bertsolariak, orain 60 urte inguru, lenengoz Barinagako enparantzan abestuak".

Bertso auek 1936-an bildu eta irurogei urte leenago kantatuak baziran, 1876-koak ditugu. Gerra bukatu zan urtekoak, beraz.

Baiña urte ortakoak baldin bada, bertsolariak etzuan *karlostarrak* esango, irugarren bertsoan ageri danez, *karlistak* baizik.

Bostgarren bertsoan aitatzen diran *Islas* eta *Munioz* oiek, Bizkaiko bi jauntxo izango ziran. Baiña aien berri ez dakigu.



Alfonso XII Donostiara sartzen, 1876-II-19-an.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduri-ren artxiboa).

Ziburuko neskatxeri goraintzi

Airea: *Lo, lo, nere maitea.*

1 Hainitz neskatxa gazte Ziburuko herrian
gelditu omen dire nigarra begian;
beren faltaz dirade orai trixtezian,
kotsolaturen dira nolazbeit agian.

2 Denboraz soldadoak eta orai karlistak,
heietaz agradatzen Ziburun grisetak;
mundua mundu deino izanen kriketak,
hala nola mutxurdin, bai eta menetak.

3 Gaztetasuna dohain ezin prezatua!
Galtzen gazte denean errex da burua;
karlisten ondotikan ibili gaxua,
ezkont gabe gelditzen da alargundua.

4 Oroit zaitte, ez ahantz, neskatxa maitea,
arrosak ez duela urrun arantzea;
urus nahi baduzu izan zahartzea,
ez ahantz, ez, geroaz ungi oroitzea.

5 Udan iduzki pean itzala bilatzen,
loreak itzalean dira kontserbatzen;
gaztetasuna ere hala da gardatzen,
berantegi ez gero urrikia sortzen.

6

Gan dira, gan, karlistak beren palabrekin,
neskatxa hainitz utziz bihotz minarekin;
zoramendu laburra, deusik ezin egin,
kontsolatu beharko oroitzapenakin.

7

Gan dira, gan, betikotz, usoak iduri,
Ziburun utzirikan hainitz bihotz eri;
heien atzaparretan direnak erori,
hitz onez paga eta zuen zerbitzari.

* * *

Zazpi bertso auek moldiztegi-izenik gabeko kanta-paper bate-tik artuak ditugu. Jose Manterola zanaren bilduman azaldu dira.

Bidasoaz arunzko bertsoak dira, eta gerraren bukaerakoak. Karlista asko, gerra galdutakoan,

muga pasa eta Ziburun-eta geldituko ziran. Bai ango neskatxekin ongi konpondu ere, bertso auek diotenez beintzat. Baiña aiek ez izan betiko etorriak; eta, alde egindakoan, neskatxak triste, alako mutil-aukera galduta.

“Milla zortzireun irurogei ta...”

1

Milla zortzireun irurogei ta
amargarrenge urtian,
gizon abillak berexi ziran
Gipuzkoako partian;
junta erriela egin zuten
Aritxuleiñaño tartian, (*sic*)
Carlos séptimo biar zutela
lenbailen para kortian.

2

Fede santua aumentatzera
atera ziran mendira,
obra ederrak egin dituzte,
denboraz agertuko dira;
motibo gabe eman diyote
bosti negarra begira,
mantxa gabeko gizon justuak
orretan ibilltu dira.

3

Kañoi ederrak Madrillen eta
kastillo piñak Zaldiñen,
Calle Mayor ta *Café Marina*(1)
iskribiturik Beriñen;
alondegiya bere sisakin
para zuten Aizkorriñen;(2)
asi baño len bagenakiyen
etzutela deus egiñen.

4 Belaunak pisu, estiak zimur,
begiyetako tristura,
zer deabrutako atera ziran
goiko mendiyen kaskura?
Osasunaren konserbatzeko
artziagatik preskura,
bazter guztiyak ondatu eta
liberalaren eskura.

5 Galtzak urdiñak, kapote piñak,
asto-kolorez egiñak,
opiniyuaz ez gera arkitzen
munduan denak berdiñak;
errentaturik geldi zitezken
kaskarro buru-ariñak,
alderaxio ez balituzteke
zortzi ortz eta agiñak.

6 Erreziyuak nonai atera,
pagamentua paperez,
bata zutela sarjentua ta
bestia berriz alferez.
Zenbat sujeto ote ziraden(3)
lan egiteko alferrez?
Guretzat danak nagusi ziran,
gobiernuentzat baterez.

7 Destimoniyo falsorik gabe
destiguz zaie probatzen:
diputaduan ordenik gabe
kontribuziyo kobratzen;
egiya klaro itzegiten det,
ez det batere dudatzen:
boltsak beteta zenbait or dabill
kalian pasiatutzen.

8

Gerra zibilla orren despeida
 etzen berela ikusi,
 egiya klaro esan nezake
 iñork nai badu ikasi;
 asko sujetok desio zuben
Carlos séptimo nagusi,
 Peña Platian konjuratuta
 antxen jua uben igesi.(4)

* * *

Bertso auen aditzera zenbait oiartzuarren aotik bagenduan, eta bertso bat edo bi jaso ere egin genizkien. Danak, ao batez, bertako Eperra bertsolariarenak ziralazioten.

Eperra orren bizitzaren eta bertsoen berri, *Auspoaren sail nagusia*-n, Xenpelarri eskeiñitako liburuan eman genduan.

Eperra ori Manuel Jose Mitxelena zeritzan, eta Oiartzunen jaio zan, 1825-eko azaroaren 3-an. Eta bertan il, Aiendola baserrian, 1906-ko azaroaren 19-an.

Oiartzuarrak bertso-pare bat-edo eman bai, baiña sailla ezin osaturik genbiltzan. Azkenean, ordea, Errenteriako Enrike Elizetxea zanaren bilduman azaldu da. Zortzi bertso dira, eta bi paperetan idatzita daude: bata eskuz eta bestea makinaz.

Makinaz dagoana bestearen kopia utsa da. Eskuzkoa bietan zaarrena. Eskuz idatzitako oni gainetik zuzenketa batzuk egin dizkiote; geienak ortografia berritzearren,

eta iru aldiz *okerrak zuzentzearren*: 4/5: "osasunaren konserbatzeko" zegoan, eta "osasun ona konserbatzeko" *zuzendu* dute; 4/8: "liberalaren eskura" zion, eta "liberalen eskura" jarri; 8/5: "asko sujetok desio zuben" zegoan, eta *zuben* ordez *zuten* idatzi.

Guk, noski, leengo era zaarra artu degu beti, berria baiño askoz jatorragoa baita. Bere arriskutxoa badu, izan ere, leengo bertsolari zaarren itzak eta esae-rak *zuzentzen* asteak; eta oraingoenak ere berdin.

Bertso auek ez dira gerra-denboran jarriak, gerra ondoan baizik; gerra bukatu berrian, gure iritzirako.

Doiñua Oiartzungo Berinberri baserriko Ines Berasategi zanak kantatua da, eta Manuel Yaben eta Anbrosio Zatarainek magnetofonoz entzun eta solfeoz idatzia.

Ikus 43-garren doiñua, azken orrialdeetan

* * *

Karlisten bigarren gerratean, Eperra liberalen aldekoa izan omen zan. Aldekoa ez-ezik, ixpia ere bai. Gauzak ala dirudi beintzat.

Oiartzungo Txarondo baserriko Jose Domingo Pagadizabal jaunak onela esan zigun:

“Ixpiaren famakoa izan bear zuen.

Emen, barrio ontan da Olaundito: Aieko Arria ta Aritxulegi baño beraxeago or zabal bat. Ta Olaundito ortan, zera, tropa egongo zen or, ta apaiza etortzen meza ematera, ta ura iltzeko agindu omen zion norbaitek Eperra orreri. Ta gero jarri omen zen guardian, ta egun artan ez etorri apaiza.

Karlisten tropara etortzen apaiz ura, ta beste ori, Eperra, liberalen aldekoa edo beste aiekakoa izaki; beltzetakoa izaki.

Gero apaiza, Santa Krutz, denbora aitan pamatua zen. Ura orrara etortzen zen; ura etzen apaiz ura izango, baño Santa Krutz buru karlistetan; graduco gizona izango zen ura. Santa Krutz ura emen denean ibilia izango zen: Aritxulegi ta Olaundito ortan ta emen ibilia. Oraindikan ez da urte asko ere... Zenbat? Gure ezagueran illa da beinpein”.

Errenteriako Jose Goñi zanak, berriz, onela esan zigun:

“Gu ume koxkorrak giñan orduan; eta, ikusten genduanean, burlaka asten giñan, oju egiñez:

- Eperra, gerratian ixpiya! Eperra, gerratian ixpiya!

Guk ez genekien orduan zer esaten genduen ere; ixpiya zer zan alegia. Baño bera, bere onetatik atera eta arrika asten zitzaigun; ta gu, berriz, korrika itzuli...”

Esaera zaar batek diona izango zan: “Umeen zentzuna, etxean entzuna”.

Izan ere, karlistak, Santa Krutz-eta, Olaundito eta Aritxulegin; eta Aiendola baserria, Aritxulegiko aldaparen asieran... Aukera-aukerako tokia zuan, beraz, Eperrak ixpia izateko. Pagatu ere egingo zioten eta...

Baña bestela ere, berez alegia, liberala izango zan ura. Bertsoak beintzat jarri zituan aien alde, eta bertso onak, gure iritzirako.

(1) Elizetxearen paperetan: *Calle Mayor de Café Marina*.

(2) Zaldin eta Berin Oiartzungo bi mendi-baserri dira. Aizkorrin, berriz, Berinberri baserriko borda xaar bat.

(3) Elizetxearen paperetan: *zenbait*.

(4) Gerra artako azken burrukaldia, Euskal-Errian, Peña Plata-n izan zan. Peña Plata-ren euskal izena Artxuria omen da.

(1876)

Euskal Erriari agur

*Agur maitagarrizko
euskaldun erria,
leen zorionekoa,
gaur errukarria.*

1

Zure mendi biribill
polliten artean,
arnasa artu nuen
mundura agertzean;
zure gaztaña, sagar
ta intxaur ostopean
jolas egin oi nuen
aurtxo nintzanean.

2

Antxume jolasgura
dan baten antzera,
saltoka ta lasterka
batetik bestera,
zure bide txigorrak
gora eta bera
igotzen oi nituen
goizetik gauera.

3

Leku maitatu aiek
utzirik gaurdanik,
igesi banoa ni
itxasoz emendik;
ala ere biotza
zugan det oraindik,
nai arren ez nezake
aldendu zugandik.

4
Zure euskera gozo
txit antziñakua
da nik amatxogandik
ikasitakua,
izkuntza guzietan
paregabekoa,
noizbait leku askotan
itzegindakoa.

5
Antziñako euskaldun
leial da nobleak
utzirik, baginduzen
Fuero ta legeak,
Euskal Erriarentzat
ezin da obeak;
orain kentzen dizkigu
gastelar jendeak.

6
Gure mendi ta aitzak
etzuten ikusi
arrotzik egundaño
berentzat nagusi;
Euskal Erria beti
libre oi zan bizi,
ai!, gure zorigaitzak
orain dira asi.

7
Euskal Erriko zelai,
baso ta mendiak
aditu oi zituzten
kantu pozgarriak;
orain penaz beterik
gure alderdiak,
lutoz jantzita daude
kanpo ta erriak.

8

Agur biotzetikan
aide ta lagunak,
agur adiskideak,
agur ezagunak;
eman dizazutela
beti gure Jaunak,
konbeni daneraño,
pake ta osasunak.

9

Biotzaren erdiko
amatxo maitea,
mingarri da neretzat
zu emen uztea;
Jaunak gordeko nau ta
konsola zaita,
berak naiko du nik zu
berriz ikustea.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzita eta bi kopiatan. Baiña auek ez dute aldaketarik alkarren artean.

Bertsoen ondoren, firma beze-la, onela irakurtzen da: *Dn. Jose M^a Eleizegi apaizak, 1876.* Baiña bera nor izan zan ez dakigu.


Bertsoetan esaten danez, fue-roak galduak dira. Ori, dakigu-

nez, 1876-ko uztaren 22-an ger-tatu zan.

Eta bertso auen jartzaillea itxasoz igesi dijoa emendik. Ame-riketara, ziur aski.

Baiña benetan orrela izan zan ez dakigu. Baditeke ori dana Eli-zegi jaun orren literatur-jokoa izatea.

PRINCIPALES CAUDILLOS DE LOS EJÉRCITOS VENCEDORES.



QUESADA,
BLANCO.

MORIONES.

S. M. EL REY DOX ALFONSO XII,
L. M. A.

PRIMO DE RIVERA.

MARTÍNEZ CAMPOS,
ECHEGARAY.

Alfonxo XII. bere jeneral-mordo batez inguratua.
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduriren artxiboa.)

(1876)

Guda ondoan Frantzitik aiskide bati

1
Adios, Dn. Juan Jose
eta Aitz-puruba,
bertsuak paratzeko
badaukat gogoia;
koplatzen duanian
gizon onradua,
igual prestutzen du
nork bere burua.

2
Españiako gauzak
nua esplikatzen,
ez dirade guztiyak
errazak esaten;
uste izanagatik
ez dira jakiten,
enganiyo aundiyak
dirade pasatzen.

3
Lenengo azaldu zan
buruan malura,
gero mediku txarrak
bere ingurura;
gizon kasta eskasak
zetozen ondora,
berriro gertatu da
leneko modura.

4

Eskiña guztietan
ainbeste mudantza,
erabilli dituzte
soñu eta dantza;
orainguak izan dute
lenguaren antza,
ongi ezagutzeko
traidorien farsa.

5

Ustez egin ditugu
geren alegiñak,
beti gutxi luzitu
emen gizon fiñak;
falsiyazko lan oiek
dirade jakiñak,
nork entenditzen ditu
onen eraskiñak?

6

Batzuek izan arren
fedian txit firme,
fede eskasekuak
inguruan daude;
Judas bezela dira
dirubaren zale,
au gezurra ote dan
egin bedi galde.

7

Mingañean genduan
erlijjiyo asko,
erraz largatzen ziran
gauza onak geroko;
egiya izango da
lan au nerekiko,
sari ederra zeukan
Jaunak guretzako.

8

Egiten bada negar
damutasunean,
berriz jarriko gaitu
Jaunak gu lenean;
onratu bedi ondo
Jesus al danean,
len-bait-len ikusteko
leneko oñean.(1)

9

Jainkoa ez danian
laguntzeko artzen,
gizonen pensamentuak
ez dute luzitzen;
arrokeri aundiyak
dirade botatzen,
ez degu orreiñ erraz
Jauna engañatzen.

10

Urte askoko lanak
egun biyan aitu,
gure Jaungoiko onak
gaitu kastigatu;
duda gabe egin degu
guztiyok pekatu,
egiya izango da,
ez da zer ukatu.

11

Negarrez bete dira
zenbaiten begiyak,
ala ere artu gaitu
gu estranjeriyak,
jefe eta soldadu,
txiki ta larriyak;
onelako lanak dira
gizon-galgarriyak.

12

Bizi zaite, Juan Jose,
Esteban da Juanito,
danok bisitatu gaitu
Jaunak nerekiko;(2)
gure destierruan
etzaigu aztuko,
ez dira lan eskasak
zerura juateko.

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu gira, eskuz idatzitako orri batean.

Bertsoen ondoren onela idatzita dago: *Lertxundi Apaiz jaunarenak*. Egillea bera izango dala esan naiko du noski. Baiña jaun ori nor izan zan, guk beintzat ez dakigu. Emen esaten dana bakarrik: Frantziara alde egin bear izan zuala.

Gerra ondoan jarritako bertsoak ditugu, izenburuak dionez;

eta erabiltzen diran buruzbideak ere olakoxeak dira. Baiña orriaren goenean urtea ere esaten da: 1874. Eta orduan gerra beroenean zan. Beste bi urte falta ziran bukatzeko. Orregatik, 1874 urte ori gaizki egongo da. Zalantzarik gabe, 1876 bearko luke.

(1) Bertso ontan puntuak onela daude esku-idatzian: *damutasunean, lenean, danian eta oñian*.

(2) Esku-idatziak: *Jauna nerekiko*.

(1879)

Fueroai azken agurra

*Agur Fuero santuak,
agur biotzetik,
maitatuko zaituztet
orain eta beti.*

1

Fueroko lege oiturak
leialki gorderik,
oraindano izan gera
zorionez beterik;
gure on au goitarrak
eraman eziñik,
portitz digute eraso
erruki gaberik.

2

Otso arteko billeran
esan oi dutena:
"Illa gera dedilla
ardi gizenena".
Ez al dute sentitu
erarik onena?
Fueroakin egin dute
otsoak ardiarena.

3

Gure Fuero maiteak
kendu dizkigute,
beren uste gaiztoan
ondatu gaituzte.
Gu gaizki ikusiaz
aiei zer zaiote?
Ori opa baziguten
ongi iritxi dute.

4

Gure Fuero estimatu
letraz ezarriak,
illak datzate egiaz
galdurik auziak;
baña espiritu itzalak
daude, bai, biziak,
gaur ezur-mamiakin
irno itsatsiak.

5

Nere erritar maiteak,
euskaldun leialak,
aberats eta pobre,
indartsu ta argalak,
aundi-txiki guztien
ta zuen egiñalak,
gorde ditzala beti
Fueroen itzalak.

6

Babes santu onen pean
beti biziturik,
ta espirituarekin
gu animaturik,
piztuko dira ostera
indar berriturik,
uste orretan nago
oso konfiaturik!

7

Egun zoragarria
izango da egiaz,
dutenentzat ikusten
au beren begiaz,
gure gorputz-animak
lege ta bidiaz(1)
baidira orain suspertzen
gogora ekarriaz.

8

Baña, ai!, bitartean
nik zer al dezaket,
Fuero galduen pena
irentsi eziñ badet?
Aurrera segitzeko
kemenik ere ez det,
galera aundi onen damuz
negar egingo det.

*Agur Fuero santuak,
agur biotzetik,
maitatuko zaituztet
orain eta beti.*

* * *

Bertso auek Aita Jose Inazio Aranaren bilduman azaldu dira, eskuz idatzitako orri batean.

Bukaeran, bertsoen ondoren, argibide jakingarri auek ematen zaizkigu: *Composición de D. Manuel Antonio Antía, Rector de Urnieta, dedicada al E. S. Marqués de Valdespina.*

Manuel Antonio Antia jauna Urretxun jaio zan, 1830-ean; eta

Urnietan il, 1894-an. Euskal idazle saiatua izan zan. Eta Valdespina-ko markes orren berri leen eman degu.

Bertso auek noizkoak diran, izenburuaren gaiñean idatzita dago: 1879.

(1) Esku-idatziak: *lege ta bidez.*



Euskaldun jendea. (V. Becquer-en marrazki,
(La Ilustración Española y Americana, Jose Maria Tuduri-ren artxiboa.)

Bertso Berriak

(Euskaltzale batek jarriak, eskeintzen dizkala Errenderiko gogaide maite Retegi Inazio, Somo-

rrostroko arazoan iztarra galdu zuan jaun gurgarriari, onen gudara lagun itxu baten oroipenean.)

1

Gezurra dek, bai, arkitutzia
ez bada elizapean,
itxu gaxorik mutil bat dula
beraren aldamenean:
ta galde orrei gogoz irten zan
lengo guda gogorrean,
beltzkeri gaitza erein etzediñ
Euskalerriko lurtean,
limosnatxo bat gaur dula eskatzen
Jainkoaren izenean.

2

Esan da egin galdetu nion
ibilli al zan gerratean,
bai eta laister bere aotik
entzun bai bizi berean:
“Txakurtxulokiñ Gipuzkoako
irugarren batalloian,
fuero maiteak oso galtzera
zetozen aien kaltean,
gaur limosna bat eskatu arren
Jainkoaren izenean”.

3

Aitonatxo onek gerra artako
arazo guzik batean
daduzka ondo arturik benaz
buru argi ta betean:
nola ekin zuten Abarzuza ta
Somorrostroko gañean,
karlistak zintzo Elizan alde
beren eskeintza ederrean,
limosna eskatuz gaur aitako bat
Jainkoaren izenean.

4

Naiz gelditu izan itxuba
zauritua azkenean,
ez dezaiozu esan berari
dagon damutasunean,
jartzen dalako miña artuaz
orlakoren bat aditzean,
bidezko erregen gudari zintzo
trebetsu auzi onean,
limosnatxo esker gaur naiz arkitu
Jainkoaren izenean.

5

Etsai maltzurra kalte egitera
errira datorrenean,
beti da irtengo seme zintzoa
ainbat laster-laisterrean,
saiatutzera goi-iritziyak
geldi ez ditezen oinpean;
asmo ori izan zan itxu zar onen
ibillitako nekean,
kezkik gabe gaur limosna eskatuz
Jainkoaren izenean.

6
 Poz artzekoa al da ikustea
 iruditako pakean,
 lerdan itxuran gañetik eta
 arrak joa biotzean?
 Obeagoa da neretzako
 elbarri izan gorputzean,
 dagon bezela aitona itxuba
 ibilliya gerratean,
 fedetsu beti, limosnatxo eske
 Jainkoaren izenean.

7
 Zarronzalea dala esateko
 aitona dago pozean,
 abestutzeko noiznai ta beti
Inazio indarrean,
 zuten bezela txapelzuritar
 guda mutil zegonean,
 sarreraren bat egin bañan len
 bilduaz denak batean...
 Ura gogoraz, limosna eske gaur
 Jainkoaren izenean.

8
 Oraindiokan aitona itxubak
 bular sendoen gañean
 dabilki bere Jesusen Biotz
 amak emana etxean,
 laztandurikan malkoz bustiaz
 mendira irten zanean,
 matxiñadarik aurka egitera
 aurreko zarren bidean...
 Sinismen artaz limosna eske gaur
 Jainkoaren izenean.

9

Arinkerizko bizitza labur
galbidegarri aurrean,
bizkarra emanaz orko atsegiñai
aitona dago lenean,
ikasbide onak sarturik oso
illobatxoarenean,
itxaropenaz bete-beterik
goiko Ortze zabalean,
bitarte ortan limosnatxo eske
Jainkoaren izenean.

* * *

Bertso auek Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman azalduak dira.

Gerra bukatu eta andik urteetara jarriak dira. Baiña karlistetan soldadu ibilitako bi gizon edo aitona aitatu eta goratzen ditu: Inazio Retegi, Somorrostron iztarrak galdua; eta onen lagun bat, itxu geratua. Orregatik, auei ere liburu ontan leku eman bear zizaiela pentsatu degu.

Bertso auen egillea nor izan zan ez da esaten, eta somatzeko biderik ez degu ikusten.

Irakurlea oartuko zanez, Pedro Maria Otañoren *Limosnatxo bat*

izeneko saillaren antzera moldatutako bertsoak dira.

Bigarren bertsoak *Txakurtxulo* izeneko bat aitatzen da. Leen ere esan bezela, karlisten koronela izan zan, donostiarra, gerrate artan illa. Santiago Irazu beraren izena.

Irugarren bertsoak aitatzen dituan Abarzuza eta Somorrostro, gerra artako bi burrukaldi izan ziran, zein baiño zein gogorragoa.

